

Egungo Euskararen Hiztegia

—X—

[bertsioa: 2024-01-09]

xaal ik **xabal**.

xabal (orobat *xaal g.er.*) 1 izond adkor zabala.

Begien orde bi xilo ttipi dituzte eta ahoaren orde sake baten idurikoa den aho **xabal** bat, ezpainik gabekoa. Aurelia Arkotxa

Ginok maiz izaten zuen tripako mina: aurpegia gorri-gorri jartzen zitzaion, kopeta ilun, belarri **xabalak** sua bezain gorri. Fernando Rey

Arbola txar bat aski zait bizia senditzeko; harri **xabala** jarleku goxo bilakatzen zait segidan. Piarres Aintziart

Bide bazterreko txokoren batean ongi gorde, goroldio eta harri **xabal** batekin estaliz. Patziku Perurena

Bide **xabal** goxo bat eta hona berriz patarra. Piarres Aintziart

Baserri inguruko soro, belaze, ordeka **xabal**. Pello Zabala

Angiek lurrerantz zuzendu zituen begiak; irribarrearen arrasto **xabala** marraztu zitzaion. Iñaki Zabaleta

Ohartu gabe, bide zabal batean sartu naiz; **xabalean** nabil orain. Piarres Aintziart

Jateko gauzez bertalde bada bertze asko gauza **xabalean** ezarriak. Herria

Hor ikusi ditugu herritar komertsant zonbeit bainan gehienak kanpotik jinak ziren beren mozkinen **xabalean** ezartzerat. Herria

Bertzelako graziarekin iraganen dire **xabalerat** agertuko diren libertimendu, ahusamendu, jaiak, hilabete hortan. Herria

Gero iragan urtean egin lanen bilduma **xabalerat** agertu du. Herria

Borta ezezaguna zitzaion atso batek ireki zuen eta hari so gelditu zen, aho **xabalik**. Elena Touyarou

Entzule guziak aho **xabalik** kondalarien munduan sartu baitira izan gazte edo adineko, esku zarta ainitz izan da horiendako. Herria

2 (adizlagun gisa)

Arratsaldea lo hil batean higatzen zuen, plastikozko ohe gogor batean **xaal**-xaala etzanik. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Emakume oriental bat ere lixiba egiten ari zen, ondoan lau ume begi-**xabal** zituela. Iñaki Zabaleta

Mehea, baina ipur-**xabala**. Aingeru Epaltza

4 (-en atzikiaren eskuinean, izen gisa)

Jendearen gelditasunak artetan nihaur ezitzen ninduen, eremuaren **xabalak** tenorea nagiki barreatzen zuela. Piarres Aintziart

5 *ilar xabal ipar* dilista.

Etxeoandreek ezin asmatuzko tokietan guarden bistatik gorde zituzten barazki idortuak, hala nola apez ilarak eta **ilar xabalak** ahal bezain xuhurki xahutzen zituzten.

Elena Touyarou

6 *xabal-xabal izond*

Bertze uharte bateko jendeek aurpegia **xabal-xabala** dute, begi eta sudurrik gabekoa. Aurelia Arkotxa

Lore tiki, juntto-juntto, **xabal-xabal** horiek, platera baten taxuan zabalik, distiratsu egon ohi dira sanjoanek inguruan: eguzkiaren solstizioa zaintzen dute. Pello Zabala

7 (adizlagun gisa)

Intsusa, adibidez, inoiz ez dut ikusi hain luzetsita: lehenengoetakoa ohi da loretxo xuria, plater baten antzera, **xabal-xabal** hedatzen saiatzen dena. Pello Zabala

8 *xabal-xabala adlag ipar* zabal-zabal.

Sai tropak itzulika kurutzatzen ari, ezteki, hedoien erdian lerratzen balire bezala, hegalak **xabal-xabala**, mugitu gabe. Michel Oronoz

xabald, xabal(du), xabaltzen du *ad adkor* zabaldu.

Zuhaiz eta aldaxka bakoitza, egunetik egunera hostoak **xabaltzen**, lora-puntta biribilak lehertzen doazenean. Ttipi ttpa, ttipi ttpa, lurrean xomorro bila, burua lurrera makurtu aldiro bere tntor lllugarria abaniko xuribeltz baten moduan **xabalduz**. Pello Zabala

Aprilis hori, zabalara baita, dena **xabaltzen-xabaltzen** doan izadiaren ispiuan nork bere burua ikusteko deia edozein paraje eta zokotan. Pello Zabala

Plazaren erdian gonak erori zaizkion moja baino gehiago lotsatu ninduen erizainaren **xabald**, polittok! Anjel Lertxundi

xabalina (orobat *jabalina g.er.*) 1 *iz* lehen arma gisa eta gaur egun eskuarki atletismo ariketetan erabilzen den haga edo makila moduko atal luzea, eskuz jaurtikitzen dena.

Bost proba ziren: stadion, luzera jauzia, disko jaurtiketa, **xabalina** eta borroka. Berria - Kirola

Hala nola, eskerronezko bestak, **xabalina** jaurtiketak, zaldizkoen edo oinezkoen itzaleko gudukak, herensuge edo armagizon itxuradunekin. Piarres Xarriton

Horretarako asko hobetu beharko dut **xabalinan**, nire proba eskasena heptatloian. Berria - Kirola

Ilun beltzean, Alainez gogorki kolpatu zuen hura bere **xabalinaz** sorbalda bien artean, aldi berean Karandasek bere aihotz-makila hondoratzen ziolarik buru gainean. Juan Garzia

Lyonak gorde, eta zorroarekin txanponak Karandasi bota zizkion, hartutako nekearengatik, **xabalina** goraturik zeukala. Juan Garzia

Gauean jardinera itzuli zen, zulo bat egin horman bere **xabalinaz**, eta, salara sarturik, zazpi katilu eztatuzko, txano gorri bat eta urrezko eraztun bat topatu zituen. Juan Garzia

2 *xabalina-jaurtitzale* xabalina jaurttitzen duen atleta.

Xabalina jaurtitzaleak zeuden bertan, lehian. Karlos Linazasoro

Jan Zelezny **xabalina jaurtitzale** txekiarrak azkeneko denboraldia izango du aurtengoa, sasoi amaituta erretiroa hartuko baitu, 20 urteko kirol ibilbide luze eta oparoa egin ondoren. Berria - Kirola

Ez baldin bagara oso pertsona arduratsuak eta metodo zurrunkan aplikatu zaleak, **jabalina jaurtitzaleak** bezala. Unai Elorriaga

xabalinkada *(corpusean txabalinkada soilik) iz*

Beharbada apenas dagozen guregandik bi mila gezikadara, apenas bostehun **txabalinakadako** bidean. **Xabier Amuriza**

xabalko *iz*

Xabalkoa leher eta zapart, mukuru bete, bertan itsus, eder eta afrus -hura biloen kalantika! **Jose Angel Irigaray**

xabalxko *izond xabal xamarra.*

Sua itzaltzeko, harri **xabalxko** bat su gainera botatzen zen eta biharamun goizean lehenik altxatzen zuenak, zerbeit altxor atxemaitea esperantza zuen... **Herria**

xaban *iz kotxe mota.*

Hantxe metatzen ziren, anabasa batean, **xabanak**, kabrioletak, puntukoak, gondolak, kalesak, kupeak, omnibusak, mota guztietako kotxe andana bat. **Koldo Izagirre**

xabierraldi *iz Xabierreko gaztelura egiten den ibilaldia.*

Lehenengo **Xabierraldia** meza batekin amaituko da gaur, Xabierren. **Berria - Euskal Herria**

Hurrengo asteburuan egingen dute aurtengo bigarren **Xabierraldia**. **Berria - Euskal Herria**

Corpasek «ekitaldi artistikoak» aipatu zituen atzoko prentsurrekoan, eta auditorioa ez dela **Xabierraldietan** bakarrik erabiliko nabarmendu zuen. **Berria - Kultura**

xabiroti *iz itsas azpiko hondarrean bizi den arraina, ezten posoitsuak dituen(Trachinus draco).*

Xabiroti hil bat ematen du nire ahurrean. **Koldo Izagirre**

xaboi *(orobat xaboin g.er. eta xabon g.er.) 1 iz garbitzeko eta koipea kentzeko erabiltzen den produktua, alkali batek gantz bati eraginez lortzen dena.*

Larruazalak, hala ere, aurre egiten die oraingo eraso kimiko gehienei, bai atmosferako kutsadurak eraginei, eta bai **xaboi**, garbigarri, desodorante, hauts eta bestelako gaiak eraginei. **Irene Aldasoro**

Bainugelan, **xaboi** eta esku-oihalak pilo batean, eta arasan maindire garbiak. **Oskar Arana**

Frantziako presondegietan dena erosi behar da: komuneko papera, **xaboi**, janaria, oinetakoak. **Berria - Euskal Herria**

Sukaldeko harraskan *Vim* garbigariarekin garbitzen zituela eskuak, **xaboi** nahikoa ez eta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hasieran gantza edo **xaboi** ematen zioten sokari. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Sudur-zuloetatik esku haien usaina sartu zaio, lixiba eta Marseillako **xaboiarena**. **Berria - Kultura**

Behin eta berriro igurtzi zuen gorputza **xaboi**az, behin eta berriro murgildu zen uretan. **Bernardo Atxaga**

Xaboiaren aparra kainerian bueltaka. **Sonia Gonzalez**

Haizeak lehertuko duen **xaboi**zko burbuila hauskor batean. **Joan Mari Irigoien**

Xaboizko anpuluak bota zizkieten emakume biei, lehortzean ortzadarra marraztu zuten anpulu bigun iheslariak. **Felipe Juaristi**

Arreta biziz begiratzen nien barazki-denda bateko atez bestaldean atzematen ziren zurezko kutxa iltzez, mahaspasaz, sufrez eta **xaboi**z beteei. **Jose Morales**

-Ezagutzen diat etxe bat, ordu laurden uzten ditek baineran ur berotan, berrogei xentimo **xaboi**arekin. **Koldo Izagirre**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez omen da psoriasis, **xaboi** txar batek eraginak omen dira gorputz osoan ditudan orbanak. **Anjel Lertxundi**

Txanpurik ez dugunean, **xaboi** berde likatsu batekin moldatu behar izaten dugu. **Josu Zabaleta**

Dusselen **xaboi** usaintsua erori zait; zapaldu egin dut eta puska handi bat falta du orain. **Josu Zabaleta**

Gelan lurringairik gabeko **xaboi** merkearen usaina aditzen zen. **Jose Morales**

Eskuak garbitu ahala garbitu nituen, ur epela eta Josuren **xaboi** merkea nasai erabilia. **Aingeru Epaltza**

Xaboi berezi bat erosten zuen, oso garestia, azalmintza leun-leun edukitzeko. **Jose Morales**

Potasako **xaboi**z irakindako uretan guztiz murgiltzeko. **Bego Montorio**

Ahal izan dudan moduan garbitu naiz eskuko **xaboi**arekin. **Eider Rodriguez**

Egun batean hitz zatar bat erabili nuelako, maistrak ahoa lixibazko **xaboi**arekin garbitu zidan. **Pablo Sastre**

Lixiba eta puskako **xaboi** usaina darien arropa eskegien azpitik. **Pello Lizarralde**

Bizarra egiteko makina eta familia-neurriko **xaboi**. **Sonia Gonzalez**

Luxuzko **xaboi** bat zen, Asfanik izenekoa. **Juan Kruz Igerabide**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kotoia, igeltsua, azaloreak, **xaboi**-burbuila koloretsuak. **Joxe Austin Arrieta**

Hemen ezin dugu garbitu, **xaboi** hautsa errazionatuta dagoelako. **Josu Zabaleta**

Perrexilaren txortena, **xaboi**-urezko injekzioak, ekitazioa. **Joseba Urteaga**

Jaki-hondarren eta **xaboi**-bits beroaren usaina. **Lopez de Arana**

Begiak itxiak eta **xaboi**-aparrez bete kokots-alde guztia. **Patxi Ezkiaga**

Erdi-erdian, **xaboi**-ontzia; **xaboi**-ontziaren atzean, sei edo zazpi oholtxo, batetik besterako hutsarte meharretan bizar-labanak sartzeko jarriak. **Jose Morales**

Xaboi-pastilla balitz bezalaxe salto egin zuen haren eskuetatik. **Iñaki Mendiguren**

Xaboi puska bakarra ematen digute-eta hilabete osorako, bai arropa garbitzeko eta bai norberaren garbitasunerako. **Jon Muñoz**

Inor ez litzateke ausartuko hori guztia ukitzen alde zurretik dendara joan, **xaboi**-zaititxo bat erosi eta pare bat orduz eskuak igurtzi gabe. **Jose Morales**

Ohea egin barik; dutxa ilez eta **xaboi** orbanez beteta. **Sonia Gonzalez**

Bazen, hala ere, Grande-Truanderie kalean **xaboi** fabrika bat, inguruko kiratsen erdian oso usain gozoa barreiatzen zuena. **Karlos Zabala**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkartetak izenondo balioa duela).

Bere aita izateko ere nahikoa adina zeukan, botanikoa, alarguna, **xaboi** usainduna, oso eskrupulotsu eta garbia. **Anton Garikano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xaboi berezi (4); **xaboi burbuila** (3); **xaboi pastilla** (3)

xaboi kendu (3)

xaboibil *iz*

Xaboibil napolitar: gariz, landare lotarazlez, ahuntz esnez, almendra mikatzez eta azukre zuriz egina. Patxi Ezkiaga

Aurreratu zuen ba ahal adina bere kokotsa eta laster ziren, urontzia hura zeriola eta andereñoa **xaboibilez** kokots bizarrari eraginka; han hasi zitzaion zaldun apalari xaboi aparra, elurra bera bezain zuria aparra. Patxi Ezkiaga

Besoak ukalondoraino agerian zetorren laugarrena eta bere eskuetan (esku zurietan noski) **xaboibil** napolitar bat. Patxi Ezkiaga

xaboigile *(orobat xaboi egile) iz* xaboa egiten duen pertsona.

Kaskamotzei hori, gehienak bizarginak eta **xaboigileak** baitziren, negoziorako kaltegarria iruditu zitzaien, eta horregatik hartu zuten Erregeren lepoa beren amorrazio berariazkoaren xedetzat. Xabier Olarra

Aita **xaboi egile** ezaguna zen. Berria - Kultura

xaboin ik **xaboi**.

xaboitsu *izond* xaboi asko daukana. • *irud/hed*

Disraelik behin Wilberforce Apezpikuaren estiloa "koipetsu, oleaginoso, **xaboitsu**" hitzez deskribatu zuen. Xabier Olarra

Prelatu zintzoari harrezkero Sam **Xaboitsua** esaten zioten. Xabier Olarra

xaboitu, xaboi(tu), xaboitzen 1 du *ad* xaboiz igurtzi. ik **xaboiztatu**.

Gero, txabusina jantzi eta aurpegia **xaboitu** zuen. Lopez de Arana

Bainuontzia urez betetzen zen artean, gizonak aurpegia **xaboitu** eta bizarra moztu zuen. Koro Navarro

-Zeinen leloa zaren, AnatuX -pentsatu zuen ahots gora Pilarrek dutxan bere burua **xaboitu** bitartean-. Aitor Arana

Ernea eta bizkorra zen neskata; joan eta Don Kijoteri bezala jarri zion azpila; eta **xaboitu**, garbitu eta xukatu zutenean, agur-makur egokiak eginez alde egin zuten. Patxi Ezkiaga

Goitik behera garbitzen ari zen bere burua, aurreko hankak bihurtituz eta arteztuz, moko itxurako buruaren gaina kontu handiz igurtziz, norbait eskuak **xaboitzen** ari denean bezala. Lopez de Arana

2 (era burutua izenondo gisa)

Makarroi erreen ontziak ipurbeltz jarraitzen du, eta gosaldu bitartean ur bero **xaboituarekin** eduki ondoren, ekin dio espartzuarekin hondo erre ikaztua mehetzeari. Iñaki Iñurrieta

xaboiztatu *izond* xaboitua.

Izaba Petuniak bazekien Harryk ez zuela benetan magiarik egin; hala ere, zartagin **xaboiztatuaz** eman nahi izan zion burukoari ihes egin behar izan zion Harryk. Iñaki Mendiguren

xabon ik **xaboi**.

xabonadura *iz* xaboitzea.

Xabonadura astelehenetan egiten zuen amak eta errito bat zen. Ana Urkiza

xabor 1 *iz* *adkor* zaborra.

Ramsaytarrena; umeena; eta hainbat eta hainbat **xabor** eta huskeria. Anton Garikano

Aingeruen inozentziaz eta oinazpiko **xaborrekin** jardunean. Anton Garikano

2 (izen baten eskuinean)

Horren hodei **xaborrak** genituen hurrengo goizean, frantziparrak barreiatu eta eguzkiak xurgatu zituenak. Euskal mamuro letratu tipikoa hiperespainol gisa figuratu nahian euskalduna dela dioen subespainol **xaborra** da. Pello Zabala

xafarrikatu, xafarrika, xafarrikatzen du *ad* urarekin igurtzi.

Zeldan ez zen xurrutarik, egarritzen zirelarik ur xorta baten edateko edota goizetan ahoa eta aurpegiaren **xafarrikatzeko**. Eneko Bidegain

xafla¹ *(orobat txafla g.er.) 1 iz* gai baten, eskuarki metal baten zati mehea eta laua.

Xafla bakoitza kolaz igurtzita dago, eta xagua **xaflara** igo bezain pronto kolatan itsatsita geratuko omen da. Harkaitz Cano

Hermannek, ohi zuen legez, bere labana ireki zuen eta odola zioen **xafloren** ahoari hats egin eta galtzetan igurtzi zuen distira ateratzeko. Anjel Lertxundi

Palaren **xafleri** oinarekin bultzaka, ikatzez bete nuen. Anjel Lertxundi

Aizkoraren **xaflak** ispilu batek bezala jaso zuen goizeko eguzkiaren argia. Bernardo Atxaga

Argi dago 20 edo 25 zentimetroko **xaflako** labana daramanak ez daramala hori ogia zatitu edo fruta zuritzeko. Berria - Euskal Herria

Guk 1919ko ardo botila bat oparitu genion, Van Daandarrek [...] piccalilly pote bat eta bizarra mozteko **xafla** pakete bat. Josu Zabaleta

ik beherago 5. Askoren artean

Serantesek, **xafletan** iristen zaion kartoia hartu eta forma ematen dio, kartoi laua zena kartoizko kaxa bihurtzen du. Harkaitz Cano

Moldeko letraz idatzita legoke, igandeko alean argitaratzeko **xafletan** grabatua. Lopez de Arana

Xafla bezain zapal eta leunak maite ditu moko-fin horrek, bankuko labetik atera berriak. Aingeru Epaltza

Sendagileak forzepsaren bi **xaflak** albait lasterren sartu eta haurra atera arren, hilda jaio zen. Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Gonetako xafla **txiki** haiek aritzen ziren txinpartaka iluntasunean. Karlos Zabala

Argi errainu batek milaka **xafla** txiki dirdaitsu piztu izan balitu bezala. Karlos Zabala

Mikel Strogoffen atzean paratu zen, **xafla** zabaleko sable kako bat eskuan. Karlos Zabala

Borreroak gillotinarean **xafla** metalikoa askatu zuen. Joan Mari Irigoien

Nadiak **xafla** gogorreko bi ganibet aurkitu zituen, ehiztari siberiarrek erabiltzen ohi dituztenetakoak. Karlos Zabala

Bazuen sekretu bat beira koloretuentzat, eta guztiz itxura ederreko **xafla** nabarrak ontzen zekien. Juan Garzia

Sablearen **xafla** gorria Mikel Strogoffen begien aurrean pasatzen da. Karlos Zabala

Sega horrek 90 zentimetroko luzera izan behar du gehienez altzairuzko **xaflaren** gainaldean. Berria - Kirola

Zinkezko **xafla** zabalez egindako teilatuen maldetan zehar. Karlos Zabala

Gasez argituriko gela hartako paretak faiantzazko **xafla** zuri-urdinez estaliak zeuden. Karlos Zabala

Gizonak mikroskopioko **xafla** batean ereiten du hazia. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urre-**xaflak** egin eta **xaflak** hari bihurtuz, purpura more, gorri eta gorrimina eta liho fina urre-hariz bordatu zituzten. Elizen arteko biblia

Ezta gazta-azalak ere, edo txokolatetxoen eztainu-**xaflak**. Juan Garzia

Zeru goritik behera suzko euria erortzen zen merkatuaren gainera, berotu egiten zuen burdin **xaflazko** labe bat balitz bezala. Karlos Zabala

Ohol-**xafla** bat erantsi zitzaion txanbergari. Juan Garzia

Erradiografiak egiteko paper-**xaflak** fabrikatzen diren sailaren kargua nuen. Juan Garzia

Paper-**xaflako** emakumea ere higidura erreal baten itxura hartzen hasi zen; dantzan ari zela zirudien. Anjel Lertxundi

Indarlanek poliespan **xaflak** egiten ditu hozkailuen enbalajerako. Berria - Ekonomia

Erakutsi diot nola, beira-**xafla** oraindik beroaren gainean berun urtua itsats daitekeen. Juan Garzia

Kintalka argazki-**xafla** errefusatuak. Juan Garzia

Egun etxeetan erabiltzen diren eguzki **xafilek** baino ia hiru aldiz indar handiagoa lortzen dute Smart-1-enak. Berria - Gaiak

Infusorioak mikroskopia **xafla** baten gainean. Josu Zabaleta

Leihoetako zirrikituetatik argi-**xafla** bat sartzen zen. Josu Zabaleta

Iturriko urak izotz **xafla** bat egin zuen, egunetik egunera lodiagoa. Juan Kruz Igerabide

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zulo biribil bat zuen **xafla** zati bat ekarri zuen. Juan Garzia

Horrela **xafla** -pakete osoa. Juan Garzia

5 *bizar xafla*

Bizarrik egin gabe desgogara sentitzen nintzen eta bainu-gela osoa arakatu nuen goitik behera **bizar-xafla** baten bila. Joxe Austin Arrieta

Morse andreak luzaroan begiratu zien bere eskumutur meheetako zain urdin-urdinei... **bizar-xafla** batez egin ebakia, eta kito betiko. Mirentxu Larrañaga

Metalezko **bizar-xaflen** arteetik balebil bezala. Lopez de Arana

Armak berak dauzka finean, bere esku daude guraize zein **bizar-xafla**. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altzairuzko xafla (5); **argazki xafla** (3); **bizar xafla** (4); **burdin xafla** (4); **burdinazko xafla** (3); **paper xafla** (5); **urre garbizko xafla** (3); **urrezko xafla** (3)

xafla baten gainean (3); **xafla gardena** (4); **xafla txiki** (4)

zinkezko xafla (3)

altzairuzko xaflak (4)

altzairuzko xaflaren (3); **burdin xaflaren** (3)

xaflaz estali (3)

burdinazko xafilekin (5)

xafla²

1 *irri xafla* *adkor* irri karkaila.

Medikua, abokata, lege gizona, armadako aitziandaria, erregea, teologoa eta predikaria, bakoitzaren berezitasunak xeheki azalduz eta irakurleari zenbait **irri xafla** eginaraziz ber denboran. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aperitifia hartu, afaldu, **irri xafla** batzu bota eta Gérard ere lasaitzen da, hastapeneko mutur tzarra alegeratzen zaio. Eneko Bidegain

Bazkari denboran eta ondoan ere entzун izan baita bakarren **irri xaflak** eta kantuak. Herria

xaflada *iz adkor* zaflada, zaflakoa.

Handik goizeko lauretara, zirkinik ttikien eta xehatxenak ere apuntatu, bai haize **xafladaren** bat balin bada, edo izar-lokaren bat azaldu denentz, laino xumerena ere bai.

Pello Zabala

Euriak eta izerdiak bustirik, gozo, estu, han ere musuka hasi ginelarik, halako batean ohiz kanpoko argitasun **xaflada** bat nabaritu genuen. Patxi Zubizarreta

xafladatxo *iz adkor* xaflada arina.

Jendeak kalean geldiarazi eta bizkarrean **xafladatxoak** ematen zizkidan. Joan Mari Irigoien

xafladun *adlag* xaflako.

Edozein luzerako **xafladun** labana, ezpata edo antzekoa baldintzarik gabe erosi daitekeelako etxean edukitzeko bada. Berria - Euskal Herria

xaflagailu *iz* xaflak egiteko gailua.

Xaflagailu txiki batean sartu, eta bertan letrak ezartzen ditu, erliebeak sortuz. Lander Garro

xaflakatu, xaflaka, xaflakatzen (*corpusean txafllakatu soilik*) du *ad*

Situazione eta kapazitate hitzen S-ak **txaflakatzen** zituzten, suge santsan. Itxaro Borda

xafllako 1 *iz adkor* zaflakoa.

Zuzendaria aspaldi ohartu zaie haien irriño konplizeei, haien arteko tarte laburrari elkarrekin mintza-tzerakoan, ferekatik hurbil dauden **xafllakoei**. **Aingeru Epaltza**

Xafllako bat ipurmazelean -alde minberatuan ez, bertzean- eta galtzontziloa bere lehengora itzuli zen. **Aingeru Epaltza**

2 irud/hed

Lehengoan azken hauk irabazi eta horra Larrechea berriz agertu dela, bere aire eta **xafllakoekin** berriz ere. **Herria**

xafllakoka *adlag adkor* zaflakoka.

-Honi esker hago bizirik -harrotu zitzaidan gizona, **xafllakoka** bere semearen bizkarrean. **Aingeru Epaltza**

xafllategi *iz*

Añonek Galizian badauka **xafllategi** bat, justuki 500.000 tonako gaitasuna daukana. **Berria - Ekonomia**

xafllatu¹, xafllatu(tu), xafllatzen du *ad* xafllatu bihurtu.

Garabietako langileentzat ere neketsuagoa zen lana, diamante-lapurren agerreraz geroztik kontu handiz jardun behar izaten baitzuten txatarra ontzietatik deskargatzean, txatarrazko metan burdina bila zebilen diamante-lapur koitadua bertan ez **xafllatzeko**. **Harkaitz Cano**

xafllatu², xafllatu(tu), xafllatzen du *ad adkor* zaflatu.

Hondar aldiari ohi nuenez, haren bixkarra **xafllatu** nuen, polliki, semearekin baino areago adiskidearekin ari nintzelako antezte baldarrean. **Aingeru Epaltza**

xafllatxo *iz* xafllatu txikia.

Poltsikotik, han ateratzen zuen euli-kaiola bat, kortxo batetik ebakitako bi **xafllatxo** orratzeko hesi gisako batez elkarri josirik egina. **Juan Garzia**

Letoizko **xafllatxo** batean Hester Voorhees, *interpretation of the dance* irakur zitekeen. **Lopez de Arana**

Burdinazko txilista- **xafllatxo** distiratsuz apaindutako jaka du eta zetazko turbantea. **Gotzon Garate**

xagar *iz adkor* sagarra.

Gizajoak eman zuen kabitu hainbat **xagar** koxkor ttiki xarpa horietatikotik basa-pipitetan. **Pello Zabala**

Gure Maddi -etxeko printzesa, aitaren azukre koxkorra, ene **xagar** -pastela-. **Aingeru Epaltza**

xagrin ik xagrin.

xagu (**48** agerraldi, **21** liburu eta **5** artikulutan; cf **sagu 481** agerraldi, **99** liburu eta **54** artikulutan) **1** *iz adkor* saga.

Haritzaren etxean denak daude gustura: mokotarro, **xagu**, satain, sator, kattagorri, kattamuxar, eta hainbat ezkurjale. **Pello Zabala**

Egunero izaten diagu antzeko jolasa, katua eta **xagua** bagina bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Itsatsita neukan **xaguaren** intziria gogoan. **Bernardo Atxaga**

Entzun, berriz, hauxe besterik ez: haizea, hondarretako **xaguen** kurririkak -ikusteizinak baziren ere-, eta sugandilaren bat edo besteren firrindarak. **Joxe Austin Arrieta**

Xafllako bakoitza kolaz igurtzita dago, eta **xagua** xafllara igo bezain pronto kolatan itsatsita geratuko omen da. **Harkaitz Cano**

Xaguekin egindako esperimenduetan, esaterako, mikropartikulak erabiliaz ordukoak baino emaitza hobekak lortu ahal izan ditugu. **Berria - Gaiak**

Usain horren atzetik beste batzuk bereizi ahal izan ditu: liburu zaharrena, kanforrena, **xaguak** akabatzeko pozoinarena... **Pello Lizarralde**

Xagu izutiaren itxura dik -pentsatu nuen-, bere zuloan ezkututzen den **xagu** gris bat. **Alberto Ladrón Arana**

2 (hitz elkartuetan lehen osagi gisa)

Xagu -tranpa batean harrapatuta zegoen eta ezin zuen ezetz esan. **Harkaitz Cano**

Xagu aurpegiko sendagilea. **Alberto Ladrón Arana**

Gabiraiaren hegadari behatzen zenion, **xagu** eta sator bila zerutik. **Hasier Etxeberria**

3 ik sagu 7.

Dokumentua gorde eta bilatzaileari berriz ere lana emateko asmoz eragin nion **xaguari**, "Fitxategia" zitzaion laukitxoaren gainean. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xagu aurpegiko (3)

xagutxo (*orobat xagutxu*) *iz adkor* sagutxo.

Nagoen lekutik mugitzeko ikara daukat, norbait utziko zuten guardian eta **xagutxo** bat bezala harrapatuko naute, bertan gelditzea erabaki dut, jarriko naiz martxan eguna argitzen duenean. **Bernardo Atxaga**

Martina eta **xagutxoak**. **Berria - Kultura**

xagutxu ik xagutxo.

xaguxahar ik xaguxar.

xaguxar (orobat xaguxahar g.er. eta xaguzar g.er.) 1 iz adkor saguzarra.

Eguzkiaren begian, artean ere, elizan **xaguxarrak** beren asma ezinezko joan-etorrietan eltxo harrapatzen ibiltzen dira. Gotzon Garate

· Hamar urtetik gorako irakurleentzako hiru liburu eman berri ditu argitara Elkar argitaletxeak, **Xaguxar** sailean. Berria - Kultura

2 irud/hed

Aluminioa esan eta hojalata sartuko ziek, **xaguzar** horrek. Pablo Sastre

xaguzar ik xaguxar.

xah (orobat Xah) iz Persiako enperadorea.

Manifestazio handien eta greben ondorioz atzerrira jo behar izan zuen Mohammad Reza Pahlevi Irango **xah**-ak. Berria - Harian

Mohamed Reza Palevi **xah**-aren emazte Farah Divak erosi zuen margolana. Berria - Kultura

Xah-aren modernizazio eta Mendebaldekotze prozesuarekin kontent ez ziren oposizioko kideek eta herritarrek Iraultza Islamikoa gauzatzeko joan ziren. Berria - Mundua

1978ko irailean **xah**-aren politikak eta aginte autoritarioak apaiz musulmanekin talka egin zuten. Berria - Mundua

Irango kurduek **Xah** derrokatzen lagundu zuten 1979an, baita autonomia eskatu ere, baina ez zuten lortu. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

reza pahlavi xah (3)

xahako iz ipar zahatoa.

Xahakoa erromesen iturrian hartu uraz beterik banoa kafe bat edateko menturan. Piarres Aintziart

Hasten da partida... gure Perkain noiznahi **xahakotik** edan eta edan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Xahakotik txandaka edanez. Ramuntxo Etxeberri

Ene **xahakoan** dudan uretik ez dut oraindik xorta bat hartu. Piarres Aintziart

Gero, bi ogi pusken artean arrotze moleta baratzeo biperrekin janik, **xahakoak** hiruzpalau itzuli eginik [...] abiatu ziren berriz beheiti gizonak, bi lerrotan, kantikak eta arrosario hamarrekoak aldizkatuz. Michel Oronoz

Xahakotzat daukadan urontzia beterik, lotu naiz bideari. Piarres Aintziart

Badu **xahakoa**, baina bi xilo dituen **xahakoa**. Piarres Aintziart

Alabaina, **xahakoa** zuen, ez arnoz, baina... saldaz betea! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

xahal ik txahal.

xahar (1269 agerraldi, 81 liburu eta 723 artikulutan; cf zahar 13485 agerraldi, 284 liburu eta 2319 artikulutan) 1 izond adkor zaharra.

Gizon **xaharrak**, adin guziko emazteak badabilta. Piarres Aintziart

Badirudi bizikleta hartuta ibaian behera jaitsi zela gure aitonaren jaioterriraino andre **xahar** haren bila. Pello Lizarralde

Horregatik, agian, ezjakinean bada ere, sumaz edo, gure ama **xaharrak** aita **xaharragoari** dion espaa. Patziku Perurena

Aldizkatu ziren gauaz aita, ama, izeba **xaharra**. Michel Oronoz

Goizargiko etxekandere **xahar** ezinduak alabarekiko laudorio baino ez zuen. Itxaro Borda

Beste mende batetik ahaztuta utzitako lorategi bat bezala zen, atso **xahar** baten irribarre gozoa bezalako lorategi polita. Josu Zabaleta

Tronpeta-jole beltz **xahar** bat zen, ez zegoen ordea jende gehiegi hari begira. Harkaitz Cano

Hona, adibidez, Azpeitiko bestetan, 1894an, Adema Zaldubiri egin omenaldian, senpenter kalonje **xaharrak**, karia horretara, ontu zuen errepika: [...]. Piarres Xarriton

-Goikotxeko nagusi **xaharraren** arreba. Itxaro Borda

Zure izebaren etxera, Rosemonde **xaharraren** etxera. Jon Muñoz

Badator Darruix **xaharra**, sandaliek in lurrean putinka. Patxi Zubizarreta

Aurten, abuztuaren lehen hamabostaldian, jasan ditugun bero haundiek 11.400 jende, gehienak **xaharrak**, hil dituzte, Estatu Batuetan baino lau aldiz gehiago. Herria

Egia erran, gelako **xaharrenak** ez du arratsa airean iragaiteko gogo handirik. Eneko Bidegain

Solasean egon ginen aspaldiko adixkide **xahar** batzuk bezala, kafeño bat goxoan hurrupatuz. Janbattit Dirassar

2 (gauzez)

Uholde Handian Filemon eta Bauzis bakarrik salbatu ziren Frigia osoan, mendi maldako etxe **xaharra** ez baitzuen urak estali. J.M. Olaizola "Txiliku"

Teilaz eta harri mokorrez egindako borda **xahar** luze bat aurkitu dugu, txapala. Txillardegui

Ikusi dugu Sara bere pilota plaza **xaharrarekin** eta dituen etxe ederrekin, ikusi ere Donibane Lohizune. Herria

Xoko batean, puxkatzen ari zen pareta **xahar** baten kontra. Ramuntxo Etxeberri

San Damiango kapera **xaharrean** bizitzeko. Pello Zabala

Banentorren ni bakarrik neure Polikarpov I-16 **xaharrarekin** basera. Koldo Izagirre

Hemezortzi urte bete nituen, autoaren gidatzeko permisa eskuratu eta bi zalditako **xahar** bat erosi, bataioko amatxi nuen izebak diru-laguntza ederra emanik. Janbattit Dirassar

Munduko urre pipitta guziekin betetako larruxaku **xahar** ximurtu haietako bakoitza ezitan gordea bezala. Patziku Perurena

Hor badituz liburu **xahar** batzu, bat 1530ekoa. Menane Oxandabaratz

Kantu **xahar** batek airostu ditu frango apairu aspaldi honetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hiruek segitu genuen hari beretik, pentsatuz berdin usaia **xaharren** aztarna hunkigarri batzuk ginela gu, apezak. Piarres Aintziart

Baina non da ohidura **xaharren** errespetua?! Daniel Landart

3 (izen gisa)

Xahar hauei bizi-poz pixka bat eman behar zaiek, David -esan zidan Martinek-. Gülbaharren ahotsa adituta, **xaharra** eskaileretara atera zen laster, atorra eta kaltzontziko hutsean, aztoraturik. Bernardo Atxaga

Zer balio du, bere **xaharrak** bakartasunean baztertzeko dituen gizarte batek? Herria

Batzuetan, **xaharrek** borroka hori gaubeletan kondatzen dute. Ramuntxo Etxeberri

Gazteeri da eta **xaharrei** ere bai -ez bakarrik gazteeri, **xaharrak** izaten ahal dira gazte- irria erabiliz, aberria maitatuz, eta elkar lagunduz. Menane Oxandabaratz

Etxeko **xaharrek** zenbat aldiz egin izan dute bide hori oinez, Lapurdiko lehen hiri handira zoazela merkatukari! **Piarres Aintziart**
Bautistaren gurasoek, euskaraz besterik egiten ez zuten bi **xahar** zimur, beren garaiko abesti monotono bat abestu zuten. **Koro Navarro**
Aspaldi samarrean, Isfahango kanpoaldean, Miseria izeneko gizon **xahar** pobre bat bizi zen. **Patxi Zubizarreta**
Baliteke haietakoren batek pentsatzea **xahar** inozo horietako bat zela hura, nahieran manejatuko zuena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

4 pl/gurasoak.

-Xaharrak alabaren kezkaekin beti? -gehitu zuen. **Aingeru Epaltza**

5 *xahar etxe* (*orobat xaharretxe*) xaharren etxea.

Ramona bakarrik ezin egonez Sarako **xahar etxean** sartu zen eta han pausatu da 78 urtetan. **Herria**
Amaren ikustera banoa artetan, **xahar etxean** dagoela, norbait bisitatzera jin dakion goaitatuz. **Piarres Aintziart**
Donibanerret erretiratua eta duela zonbait urte Getariako **xahar-etxerat** joana. **Herria**
Donibane Lohizunen, *Trikaldi* **xahar-etxeko** pentsuner xaharrena deitzen da Elise Dean eta ehun urte bete ditu joanden egunean. **Herria**
Bilkurategi hori zorretan izanki saldua izan zaio enpresa bati, **xahar etxe** bilakatzeko. **Herria**
Xahar etxe merkeenetan bizitzeko 1200 euro atera behar dira hilabetean. **Herria**
Urte berriaren agiantzak betiko goxotasunean egin dira Izpurako Luro **xaharretxe** -eritegian berriki. **Herria**

6 *xahar-xahar*

Apez **xahar-xahar** bat, aspaldi hartan presondegian zebilena eta heriotza kondenaren kontra kartsuki borrokatu zena. **Filipe Bidart**
Baina plazer ber-bera senditzen zuen Baztango herri polliit bateko ostatu-bentta **xahar-xahar** batean lehenbiziko aldiz sartzean. **Daniel Landart**
Apez **xahar-xahar** bat, aspaldi hartan presondegian zebilena eta heriotza kondenaren kontra kartsuki borrokatu zena. **Filipe Bidart**
Oraintxe gogoratu nauk hemen jaio zela bera, eta **xahar-xahar** egindakoan desagertu zirela. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agure xahar (5); **aire xahar** (3); **amona xahar** (9); **amona xahar bat** (5); **andere xahar** (3); **andre xahar** (9); **apez xahar** (3); **argazki xahar** (8); **atso xahar** (4); **atso xahar bat** (3)
emakume xahar (5); **emakume xahar bat** (3); **emazte xahar** (18); **emazte xahar bat** (5); **etxe xahar** (11); **etxe xahar bat** (3); **euskal kantu xahar** (6); **gizon xahar** (17); **gizon xahar bat** (8); **hazparneko xahar etxean** (5); **herriko xahar** (3)
ixtorio xahar (4); **izpurako xahar** (3); **jende xahar** (5); **kantu xahar** (24); **liburu xahar** (5)
ohidura xahar (5); **sarako xahar etxean** (4); **tresna xahar** (3); **trinket xahar** (3)
urte xahar (6); **usaia xahar** (5)
xahar ala gazte (7); **xahar bat** (55); **xahar eta berri** (10); **xahar eta berriagoak** (3); **xahar eta berriak** (4); **xahar eta gazte** (5); **xahar etxe** (12); **xahar etxe batean** (5); **xahar etxean** (27); **xahar etxean sartu** (3); **xahar etxearen** (3); **xahar etxeetan** (3); **xahar etxeko** (3); **xahar etxerat** (4); **xahar etxetan** (3); **xahar gehiago** (3); **xahar xahar** (4)
ama xaharra (5); **andere xaharra** (5); **andre xaharra** (3); **bide xaharra** (8); **biziki xaharra** (3); **emazte xaharra** (5); **etxe xaharra** (3); **etxekandere xaharra** (24); **etxeko andere xaharra** (3); **izen xaharra** (5); **nagusi xaharra** (12); **nausi xaharra** (15); **nausi xaharra zendu** (3); **portu xaharra** (4); **toimeo xaharra** (5); **trinket xaharra** (3); **urte xaharra** (9); **urte xaharra joan** (6); **usaia xaharra** (5)
ama xaharrak (4); **amatxi xaharrak** (3); **andre xaharrak** (4); **bere xaharrak** (3); **etxekandere xaharrak** (7); **gizon xaharrak** (5); **gure xaharrak** (4); **jende xaharrak** (3); **kantu xaharrak** (19); **lagun xaharrak** (4)
ama xaharraren (3); **emazte xaharraren** (3); **izeba xaharraren** (4); **xaharraren ondoan** (3); **zubi xaharraren** (3)
baiona xaharrean (3); **baionako trinket xaharrean** (4); **baleta geltoki xaharrean** (3); **geltoki xaharrean** (62); **miarritzeko geltoki xaharrean** (5); **moda xaharrean** (3); **portu xaharrean** (3); **trinket xaharrean** (10)
jende xaharrekin (3); **jende xaharrekin elkartasunez** (3); **xaharrekin elkartasunez** (3)
baiona xaharreko (3); **moda xaharreko** (5); **trinket xaharreko** (3)
apez xaharren (4); **eri eta xaharren** (4); **gure xaharren** (3); **kanboko apez xaharren** (3); **xaharren piztuera** (3)
denetako xaharrena (5); **herriko presuna xaharrena** (3); **herriko xaharrena zen** (3); **presuna xaharrena** (4)
bide xaharretik (3); **urte xaharretik** (4)
heriotze xaharretxean (3); **xaharretxean iragan** (3); **xaharretxean pausatu da** (5)
izpurako xaharretxerat (3); **xaharretxerat erretiratua zen** (4)

xaharberritu, xaharberri(tu), xaharberritzen 1 du *ad adkor* xaharberitu.

Hotel berri batzu sortu beraz eta beste asko **xaharberritu**. **Herria**
Etxe hori, aski ederra berenez, oraintxe **xaharberritua** zuten, obra asko akulatutik. **Herria**
Egia erran, badira bide berri edo zabalduz **xaharberritu** horietaz eztabada pizkorrak. **Herria**
Eta mila forma eta mila soinu beti **xaharberrituz** elkar, eta elkarren harmonian beti, horratx ura, zure atsegin hutserako harri tartetan behiti noraezean jostari. **Patziku Perurena**
Kanpotik **xaharberritua** izana duela bospasei urte, barnetik hartu du beste freskaldi bat ona. **Herria**

2 (era burutua izenondo gisa)

Baionako euskal erakustegi **xaharberritua**. **Herria**
Legazpiko burdin-ola **xaharberrituan**, langileak lehengo jauntzi eta kapelu bereziekin. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dena xaharberrituko (4)

xaharki iz gauzaki zaharra.

Arrangoitzen, martxoaren 26tik 28ra, **"Xaharki** makilak" izeneko **xaharki** eta apainketa feria. **Herria**

xaharkitu *izond adkor* zaharkitua.

Oroitzen zara gure tabernan beti bakarrik eta isilik egoten zen andere **xaharkitu** hartaz? **Txillardegí**
Mistral belaontzi bigatu eta **xaharkituan** Lekeitioko kaira arribatu zen. **Patxi Zubizarreta**
Espasako Austral bildumako liburu urdinak, Destinolibroko horixkak, Cátedrako beltzak, Alianza eta Seix Barraleko txuriak, Losadako **xaharkituak** ... **Xabier Mendiguren Elizegi**

xaharkolin *izond adkor* zaharra.

Behin baso batean atso **xaharkolin** astaispilu bat aurkitu zuen, eta harexek agindu zion esango ziola asmakizunaren erantzuna, zaldunak ordainean atsoak esandakoa betetzen bazuen. **Pako Aristi**

xaharño *izond adkor* zahartxo.

Auzoko emazte **xaharño** bat supituki hil da handik ixtanteko, aski izituaren ondorioz bihotzak huts-eginik, hala erran dute segurik. Herria

Erran behar da mitxa ez balitz hil, zartatze handia izaiten ahal zela, su lotuko ere orobat gaineko estaian emazte **xaharño** bat bakarrik bizi den etxe hortan. Herria

xaharrerria *iz adkor* zaharrerria, zahartasuna.

Luzazko, zeren hiltzen baitira mintzairak, ohidurak eta jendeak bezala, zenbait **xaharreriaz** edo zaindu faltan eta besteak kondenamenduz eta krimaz hilaraziz, jende batzu bezala. Herria

xaharretxe ik **xahar** 5.

xahartasun *iz adkor ipar* zahartasuna.

Louisek baiki erreusitua zuela, aspertzen zen arren, osagarri maila hein batean baliatzen zen **xahartasunaz**, adiskideak hautatzen zituen, ahalaz emazte jeloskorrekin ezkondu adineko gizon jakintsuak. Itxaro Borda

Etxoñeko Graxana Ithurralde joan zauku beste mundurat 87 urtetan, luzaz eri egon gabe, **xahartasunak** higatua. Herria

Gora behera guzien gatik, daukate **xahartasuna**, biziko memento bat dela, haurtasuna eta gaztetasuna bezala eta merezi duela errespetu, elkartasun eta amodio, ezarri gabe eritasun ahalgingarri baten heinean. Herria

xahartto *izond adkor* zahartxo.

"Eskualduna" kasetak zuen preseski orduan **xahartto** itxura hartua ainitz gisatara: gerlako egun ilunak eta nahasketak zirela medio, aleman lehertzaileen zapalketak lehertuak eta apalduak ginituen: funtsean, ez gure kaseta euskalduna bakarrik, beste erdal kaseta asko ere suntsitu ziren orduan, lagun txarretaz behartu ondoan aleman jazarlearen pean. Herria

xahartu, xahar(tu), xahartzen 1 da/du *ad adkor* zahartu.

Geroztik hona, majo **xahartu**, ihartu, exkaxtu da gajoa. Joxerra Garzia

Goizuetako Txapomordan **xaharturik** ezagutu nuen Xantux mutilxar xelebrea hura datorkit gogora. Patziku Perurena

Xahartua da, baina oraino pixkorrean. Eneko Bidegain

Adina ere hor du bixtan da, **xahartua** da eta akítua, higatua nolazpait, baina bere heinean beti gauza bera errepikatzen du, [...]. Herria

Xahartuak direla eta eri. Herria

Saminez beterik zagok, **xaharturik**, hi noiz itzuliko. Juan Kruz Igerabide

Ezin ukatu berriz ere gustura irakurtzen dela **xahartu** arte egoskor mantentzen den komunistaren istorioa. Berría - Kultura

2 (era burutua izenondo gisa)

Matxin Labaien gizon **xahartu**, begi-urdirin, kaskasoil bat zen, xelebrea fama zeukana Tolosan. Xabier Mendiguren Elizegi

Haur izan nahi nuen senar-emazte **xahartuendako**: gizon, berriz, Ramonarendako. Aingeru Epaltza

Atzera eta aurrera dabilen zaldiko **xahartua**, iraganaren eta etorkizunaren arteko talkan. Berría - Kultura

xahartuxe *izond adkor* xahartu samarra.

Aita lazki eri duk, ama **xahartuxea** eta hi ez haiz momentuan zainetarik ongi; hobe huke etxaldea, landak bederen, lanean aritzeko tirria dutenei alokatzea eta alokairuarekin hire sendiaren sendatzeko sosa sakelaratzea. Itxaro Borda

xahartxo *izond ipar adkor*

Emakume xahar bat etorri zitzaidan zabaltzera, neskame bat, neskame **xahartxo** bat beltzez jantzia, buruko zapi zuriz, serora bat iduri. Josu Zabaleta

Orduan bazen gazte multxo pollita apez-gai, ainitzak estudioak akabatu arte soldado galdea urruntzen zutenak, beraz bizpalau urtez gu baino **xahartxogokoak**. Herria

xahartze *iz* zahartzea.

Nere aldetik desiratzen diotet Mattin eta Raymonde aspaldiko adixkideeri beren eneguak ahal bezain arinki jasanez iragan dezaten oraino luzaz elgarrekin **xahartze** bat ahal bezain ezta eta goxoa orai arte bezala elgar soleituz. Herria

Adinerat heldu eta **xahartze** goxo baten iragaiteko sartu zen beren lbarrungo Xominenea etxean. Herria

Jendearen gero eta gehiago **xahartze** horrek buru-hauste gaitzak ere ekarriko dituela. Herria

xahatu ik **xahutu**.

xahozale *izond* A. Xahoren zalea.

Xahozale atxeman nuen neure burua. Txillardegi

xahu 1 *izond* garbia.

Historia unibertsalaren filosofiaren azalpen **xahu** bat "El ocase de la revoluciones"en daukagu. Joxe Azurmendi

Jende **xahu** ederra: animalia arrotz ezezagunak bailiran miresten ditut, beren hortz zuriak ilunabarrean, beren sorbalda eta beso beltzaranak, beren begiak. Joxe Austin Arrieta

Esposatzen bahaiz, izurri hau emango dinat ezkonsari: **xahu** izanagatik izotzaren pare, aratz elurra bezain, ez haiz libratuko kalumniatik. Juan Garzia

Ez dut bada behin ere entzun, nehon badela epailekurik edo auzitegirik, Erromakoa **baino** xahuagorik, ez eta nehon auziak han baino hobeki bide zuzenetik epaitzen direla

ere. [Piarres Xarriton](#)

2 (adizlagun gisa)

Atezainak, solairu horretako eskailburua bakarrik ez, etxe osokoak eta are aldamentakoak ere garbi, [xahu](#) eta distiratsu uzteko astia izana zukeen jadanik. [Aingeru Epaltza](#)

Badirudi [...] susmo txarren kutsu hori ezin daitekeela guztiz aratz, [xahu](#) eta purifikatua laga. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

3 *xahu izan* da *ad ipar* galdua izan.

-Auzoak polizia deitzen baldin badu [xahu](#) gara. [Itxaro Borda](#)

Bihar ikerlariek ene hatzak kausitzen baldin bazituzten [xahu](#) nintzen. [Itxaro Borda](#)

Sakelak diruz betetzea balin bada gure helburu nagusia, [xahu](#) dira gure herriak, [xahu](#) Euskal Herria! [Herria](#)

[Xahu](#) da bertezeangandik urrutuzten dena, urrutze hutsagatik. [Xabier Montoia](#)

Eusko Armadako nagusiak Txokoren traka susmatu izan balu, [xahu](#) zen mutikoa. [Itxaro Borda](#)

Joanes, dudarik gabe Berehala ulertu zuen, oraino arras sendatzekoa zuen zauriarekin, hobe zituela lekuak lehenbailehen hustea, bertzenaz [xahu](#) eta garbi baitzen.

[Eneko Bidegain](#)

Soberaxko edanik doan autozaina [xahu](#) dela atxemana izaiten bada! [Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bestenaz xahu (4); **xahu eta** (6); **xahu gara** (3); **xahu izanen** (3)

xahualdi *iz* garbialdia.

Ongi merezitako [xahualdia](#) jaso nuen: erruduna nintzen, delitu guztiz larria zen nire kabuz jokatu izana. [Joxan Elozegi](#)

xahuarazi, xahuaraz, xahuarazten du *ad* xahutzera behartu.

Adelaren beheraldiez aprobetxatzen zen Marro, drogatan diru gutzia [xahuarazteko](#) eta zorretan uzteko. [Juan Kruz Igerabide](#)

Esaten zion amari nik dirua alferrik [xahuarazten](#) niela indargarriak zirela eta, izan ere, bere ustez, pontxea hartu orduko komunera joaten nintzen botatzera. [Pello Lizarralde](#)

xahubide (*orobat xahupide*) *iz* zahutzeko bidea, gastua.

Alabaina, Sarako parrokiak hamarrena deitu zerga ez zen beste mundukoa; ez zuten [xahubide](#) handirik eta fededunak, orokorki, arras jainkotiarrek ziren. [Elena Touyarou](#)

Hazparne eta Maiorgako konduak eman behar dizkio Apezpikuari, diru sartze eta [xahupideen](#) xehetasunekin eta bi etxe horiek utzi behar dizkio. [Xipri Arbelbide](#)

Finkatzen zituen beraz delako artzapezpikuaren janari eta [xahupideentzat](#) hamabi mila dukat urtekal edo hilabete hastapeneko mila dukat. [Piarres Xarriton](#)

Uste-gabeko [xahubideak](#) ere badituela, ondorioz ez dela zerga apaltzerik aise izaiten ahalko helduden urte hortan segurik, gerokoak gero ikusi behar. [Herria](#)

Karbonoa, izan ere, elementu berezi-berezia da: berak bakarrik daki bere buruarekin katea luze finkotan lotzen energia [xahubide](#) handirik gabe. [Juan Garzia](#)

xahuketa *iz* xahutzea, gastua.

Gure bezeriak erosketak gutxitu dituela, noskil, baina, lehen erosten zutenaren erdia erosten badute ere, lasai bizi ahal izango dugu, [xahuketarik](#) gabe baina eroso.

[Ramon Etxezarreta](#)

Denbora eta diru [xahuketa](#) hutsa izan zela onartzen dut egun, ez baitu letretarako bururik, eta bost urte alferkerian eman ondoren, hirugarren kurtsoa besterik ez zuela atera zen. [Bego Montorio](#)

Estatuko botere guztietako goi funtzionarioei eman zaizkien pribilejio eta onura pertsonalek eragin dituzten diru [xahuketak](#) direla eta. [Berria - Mundua](#)

xahupide ik [xahubide](#).

xahutarzun ik [xahutasun](#).

xahutasun (*orobat xahutarzun*) *iz* xahua denaren nolakotasuna. ik [garbitasun](#).

Udaberria, astindu ahal izateko hosto bakar bat ere gabe, soil eta argi, kastitate grinati eta [xahutasun](#) mespretxatzaileko birjin baten antzera hedatu zen soroetan. [Anton Garikano](#)

Hala nola, zerura igaiten den umetxoaren arimaren itxurak haren [xahutarzuna](#) adierazten duen, [...]. [Piarres Xarriton](#)

xahutu, xahu(tu), xahutzen (*orobat xahutu g.er.*) **1** du *ad* ondasunez eta kidekoez mintzatuz, ahitu, gastatu.

Greba bat gertatuz gero, aurreztutako dirua azkar [xahutu](#) ohi da langilearen etxean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Unibertsitateak, aurrekontuaren zati handiena langileei ordaintzen [xahutzen](#) du; %58,8 erabiltzen da egiteko horretarako. [Berria - Euskal Herria](#)

Gero, Errusiako ohiturei jarraiki, oinordeko argalek berehala [xahutzen](#) dituzte berriro aitaren ondasun guztiak. [Jose Morales](#)

Egunetan aritzen zen jokoan, etengabe, dirutza irabazi arte, eta gero dena [xahutzen](#) zuen. [Pello Lizarralde](#)

Ez zela komeni dirua aurreztu edo gordetzea, eta komeniago zela [xahutzea](#), ibiltzea eta erostea. [Iñaki Segurola](#)

AP-1en 48 milioi euro [xahutzea](#) leporatu dio EAK Arabako Diputazioari. [Berria - Euskal Herria](#)

Ehun mila libera [xahutu](#) omen zituen Zainab anderea lortzearren. [Patxi Zubizarreta](#)

Dirutza ederrak [xahutzen](#) ditu traste arraroen bila. [Alberto Ladron Arana](#)

Horretan [xahutuko](#) du bildutako dirutzaren erdia. [Jose Morales](#)

Aitak konturik atera gabe [xahutzen](#) zuen dirua. [Juan Kruz Igerabide](#)

Azken sosak galtza eta atorra berriak erosten [xahutuak](#) zituen. [Aingeru Epaltza](#)

Fagorrek miliunak [xahutuko](#) ditu adibidez Aviron Bayonnais-ko errubilarien" sponsor" edo babesle gisa. [Herria](#)

Dena haren ahaideek beren ondasun guztiak [xahutu](#) zituzten oturuntza, dantza-bilera eta Paris-aldi sarritan. [Juan Garzia](#)

Eskoziako whiskitan **xahutu**, ala? Mirentxu Larrañaga
Ezin zuen jasan berrogeita hamar mila libera lau hilabetean **xahutu** zitzakeela pentsatzea. Karlos Zabala
Azkenean, salatu zidan bere barneko mina: arrats hartan ez zekiela non lo eginen zuen, sos guti zuela, zuen poxia ez nolanhika **xahutu** nahi. Janbattitt Dirassar
Lucy eta biok erosketak egitera atera ginen, dirua parrastaka **xahutzer**a. Oskar Arana
Batak irabazitakoa partsimoniatz gordetzen duelako eta esku-beteka **xahutzen** duelako beste batek Iparrak biztanleriaren %25 izanik, bitarteko naturalen %80 **xahutu** eta hondakinaren %75 ekoizten du. Esteban Antxustegi
Ezein substantziak, nolanhikoa delarik ere, ezin du substantziaren eragile den ongia agortu substantzia bera **xahutu** gabe. Imanol Unzurrunzaga
12 direla komuneko ur ponpari sarkaten diogun aldiro honek **xahutzen** dituen litroak. Iñigo Aranbarri
Muskuluek zilegi dute birikek eta odol-zirkulazioak banatu dezaketean baino bizkorrago **xahutzea** oxigenoa. Irene Aldasoro
· Ustelkeriak milaka milioi dolar **xahutzen** zizkion herriari. Pako Aristi

2 irud/hed

Hautsontzian **xahututa** zegoen zigarroa itzali zuen erabat. Bernardo Atxaga
Dohainak badituzu, baina alferrik **xahutzen** dituzu. Koro Navarro
Tom Waitsen ahotsa balu, zaude ziur, Truman Capotek ez zukeen bere denbora idazten **xahutuko**. Harkaitz Cano
Ahalegin guztiak **xahutu** zituen neskari eskatuz, arren eta Jainkoaren izenean, isil eta bare zedila. Mirentxu Larrañaga
Ametsetan **xahutzen** zuen bere kemen gehiena. Karlos Zabala
Husainik ez zuen denbora gehiago lausenguetan **xahutu** nahi izan. Patxi Zubizarreta
Ergela nintzela eta ez nuela ezer ulertzen, eta, beraz, alferrikakoa zela arnasa **xahutzea** niri oihu egiteko. Pello Lizarralde
Imajinarioaren eta ekintzaren arteko borroka bat bizi dut, imajinatzen **xahutzen** dudan indarra gero ekintzan faltako balitzait bezala. Pako Aristi
Halako abenturetan **xahutu** eta agortu ditut ene urteak. Juan Garzia
Giza enda, bada, alferrik eta hutsalki saiatzen da beti eta huskerietan **xahutzen** du bizitza. Xabier Amuriza
Era miserable horretan galdu eta **xahutu** zuen bizitza ia bere hogeita bosgarren urtera arte. Askoren artean

3 garbitu.

Zutitu zen, baxerak eta janari hondarrak bildu eta, mahaia **xahutu** zuen, trapu busti batez igurtzi, eta zura oihal idor batez dirdirarazi. Elena Touyarou
Hondakinak suaren arragoan **xahutu** eta garbituz gero beste zerbaite dira, errauts dira, "bizigai" dira berriro. Joseba Zulaika
Hilabetero desmuntatu eta garbitzen diat [Astra] atalez atal, baita kotoiz **xahutu** ere ipurdi zilarkara. Aingeru Epaltza
Garbiturik sentitzen zuen bere gogo, **xahuturik**. Anton Garikano
Kristinak, ohiz kanpoko gaupasak larruazalean utzitako orban kirastua **xahutzeko** gonbita luzatu zuelarik, [...]. Aingeru Epaltza
Jakaren mahukaz **xahutu** zituen begietan behera zetozkion bi malko. Inazio Mujika Iraola
Etengabeko zartada eta keinada bat-batekoak egiten zituen eskuez, bere sorbalda **xahutu** eta esterilizatu gaberantz, ukitzeraino iritsi gabe. Xabier Olarra

4 hondatu, suntsitu.

Neurri batean, bi aldiz, bizia salbatu didate, apirilean eta ekainean, patarra igan behar nuelarik, brontxitak eta beheitikoak **xahutua** nengoenean. Marzel Etxehandi
Idorra zegoen dena: zimeldua dena: **xahutua** dena. Anton Garikano

5 (era burutua izenondo gisa)

Oinarri itzelaren kontrahorma formagabe eta **xahutuak** lautadaren gainetik hiru bat mila oineraino goratzen ziren. Agustin Otsoa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

diru asko xahutu (5); **diru guztia xahutu** (5); **diru xahutu** (4); **dirua xahutu** (5); **dirutza xahutu** (5); **euro xahutu** (13); **euro xahutu dituzte** (5); **gehiago xahutu** (4); **indarra xahutu** (3); **indarrak xahutu** (3); **milioi euro xahutu** (3)

zenbat diru xahutu (3)

beheitikoak xahutua (3)

euro xahutuko (5); **milioi euro xahutuko** (3)

gutiago xahutuz (4)

dirua xahutzea (5)

dirua xahutzeko (5); **xahutzeko prest** (3)

denbora xahutzen (3); **dirua xahutzen** (7); **euro xahutzen** (3); **gehiago xahutzen** (9); **sosak xahutzen** (3)

xahutzaile *(orobat xahutzale g.er.)* 1 izond/iz xahutzen duena.

Izadiaren hondatze gero eta larriagoa natur baliabideez egiten dugun okerreko erabileraren ondorioz, bai herrialde aberatsetako kontsumo **xahutzaileagatik** bai herrialde pobreek dituzten premia larriko beharreatatik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Herrialde pobreetan, badira elite politiko eta ekonomikoetako talde boteretsuak, Iparrako jarrera kontsumista, **xahutzaile** eta elkartasunik gabeko bera erreproduzitzen dutenak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ekonomiaren gizakia kontsumitzaile eta **xahutzailea** ere bada (*consumans*). Askoren artean

Oso aberatsa zen, baina ez zekena, gastatzailea baizik; ez diru-pilatzaile, ondasunen **xahutzaile** baizik; negozio-gizon zuhurra, baina administratzaile burugabea. Askoren artean

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gaztetxo aberats handiki haren jiran berehala bildu ziren zuriak eta miazkatzaileak, bizkarroiak eta zeremonia-egileak, sakela-bilatzaile eta diru-**xahutzaile** prestuenak.

J.M. Olaizola "Txiliku"

Lorena Kevinen neskalagun ohia, diru **xahutzaile** amorratua, lorezainarekin elkartuko da berriro. Berria - Kultura

Hilabete honen ezaugarri adierazgarrienak beroa, errea, lurrunketa edo ebarazio prozesu ur **xahutzailea**, eta lehortea ditugu. Pello Zabala

Proiektu hori erabat gizartearen kontrakoa, ingurumenaren kontrakoa eta baliabide **xahutzailea** da. Berria - Euskal Herria

3 hondatzailea, suntsitzailea.

Ez noski denboraren aurka joateko eta bere lan **xahutzailea**, batzuetan onuragarria ere izan daitekeena, galarazteko. Bernardo Atxaga

Eta ere gure gogoak osoki aldatu behar ditugula, guhaur baigira gure ondarearen saltzaile lehenak, diruaren morroi bilakatuak, gure sudur punta baino urrunagoko behakorik gabeak, gure haurren geroaren **xahutzaileak**. Herria

Natura osoa da errotik gupidagabea eta **xahutzailea**. Txillardeggi

xahutzale ik xahutzaile.

xahutze 1 iz ondasunez eta kidekoez mintzatuz, ahitu, gastatzea.

Herriek oroitarazi diote **xahutze** handiak egin dituztela eskoletan baldintza egokiak bermatzeko. Berria - Euskal Herria

Eskola obretan dago eta **xahutzearen** erdia Kontseilu Nagusiak ordaintzen du. Berria - Euskal Herria
Segurantzak Sozialak **xahutzearen** %70 hartzen zuen bere gain, mutuak %30 ordaintzen zuelarik. Berria - Harian
Eta mutua ezin duenak ordaindu, bere sakelatik ordaindu beharko du gero eta handiagoa izanen den **xahutzeen** %30. Berria - Harian
Herri bakoitzak egoera jakina izanen du, baina energien **xahutzea**, desoreka sozialak, munduko oreka eta abar guztiak hunkitzen dituzten arazoak dira. Berria - Euskal Herria
Denek onartu zuten beren bujeteko ziloa aurten hein batean atxikiko zutela, eta gero emeki emeki zituztela sartzekak eta **xahutzeak** plomuan ezarriko. Herria
Ezen zerga gutiago bilduz eta sos gehiago xahutuz, nunbait beharko dira ere **xahutze** batzu ttipitu. Herria
Aurrekontuak aurkeztu ditu Raffarin jaunak erranez zergak % 3-ez ttipituak izanen direla nahiz ez diren diru sartzekak, **xahutzeak** baino haundiago izanen. Herria

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ur anitz baliatu behar da eta elektrizitate **xahutze** handia ere badago. Baina, oroz gain, energia **xahutze** izugarria da. Berria - Euskal Herria
Egile batzuek erakundeen ahultasuna, proiektu politikoan koherentzia falta eta Europa kristaua berriz bateratzeko amets inperialek eragindako baliabide **xahutzea** azpimarratzen dute. Koro Navarro
Honekin batera taldea «diru **xahutze** handirik gabe» kudeatuko duela azpimarratu zuen. Berria - Kirola
Gaur egungo ekonomietan gertatzen den baliabide **xahutze** neurrigabearen aurrean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

3 hondatzea.

Txinan, esaterako, apokrifoa teiltatupean uzten zituzten, erortzen ziren ur tanten **xahutze** lanaren ondorioz zahar itxura handiagoa har zezaten. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

diru xahutze (4)

xai iz sotoa.

Esan nion, nire barneko **xaitik** bota egin nituela alferrikako sareak eta tresnatzar zaharkituak, garbi-garbi neukala jarrita dena barnean. Hasier Etxeberria

xaiari iz upategien ardura duena.

Haietarik anitzek Iruñeko gortean goi mailako karguak badituzte: alferez, eskutari haundi, **xaiari**, merin, leku zombaitetako gazteluzain, erregearen jauregietan alkalde, bereziki Amaiurren eta Luzaiden, Nafarroako Cortes-etan ordezkari. Michel Oronoz

xaindia iz ipar txanda.

Ongi bezti den gizon eder bat bada hor **xaindia** egiten. Herria
Bertze arats batez bikote gazte baten **xaindia** izan da: mutila euskalduna, finlandiar neska batekin ezkondua. Herria

xakal ik txakal!

xakar iz adkor zakarra.

Txoko batean erratz bat dago, ondoan hark jasoak diruditen **xakar** batzuk dituela. Iñaki Segurola
Eskobarekin **xakar** pilo txikia eskorgara inguratuz. Pablo Sastre
Harri tartetako txoko gunetan bilduak harrapatzen genietuen sekulako hur mordoskak, urak arrastan ekarritako txotx muttur ihar eta **xakar** hondar batzuekin trabatu eta nahastuak. Patziku Perurena

xake 1 iz hamaseina irudi zuri edo beltz dituzten bi jokalariren arteko jokoa, hirurogeita lau laukitxo zuri-beltzeko taula batean, jokalaria bakoitzak bere irudiak mugituz eta aurkariarenak harrapatzen saiatuz jokatzen dena.

Onartu behar dugu, hala ere, **xakea** borroka dela, eta, alde horretatik, bizitzaren isla. Alberto Ladron Arana
Baina **xakea** ez da joko hutsa, gudua baizik. Markos Zapiain
- **Xakea** joko bat baino gehiago duk, zeren gaua eta eguna duk... eta borroka bat duk, gauaren eta egunaren artean. Joan Mari Irigoien
Xakea oso dut gogoko, hainbat ordu eman ditzakezulako hitz egin beharrik gabe. Joxe Austin Arrieta
-Gu **xakeko** piezak izan beharko dugula pentsatzen dut -esan zion Ronek. Iñaki Mendiguren
Haren atsedenek, alabaina, ez zuen luze iraun, zeren berehala hasi baitzen, **xakeko** jokalaria bailitzan, hurrengo mugimenduaren nondik norakoak oldozten. Pedro Alberdi
Xakeko jokaldi bakoitzean ez da peza bat baizik jartzen mugimenduan. Isabel Arrigain
Xakearen koadro zuri-beltzetan barrena galdu nahi nuke neure burua. Joan Mari Irigoien
-Badakizu **xakean** ? -errepikatu zuen Einsteinek. Fernando Morillo
Non ikasi duk **xakean** ? Alberto Ladron Arana
Aitak erakutsi zidan **xakean**. Alberto Ladron Arana
Xakean aritzen nintzen Mister Lewinekin. Joxe Austin Arrieta
Xakean denok aritzen gara patua dugula jokokide. Koro Navarro
Makina bat aldiz arituak gara **xakean** biok elkarrekin. Joxe Austin Arrieta
Maiz jokatzen dugu **xakean**. Alberto Ladron Arana
Trago bat irabaziko diot, pokerreko as batez, Pénicoti, eta gero Lacordaireri irabaziko diot **xakean**. Josu Zabaleta
Heriotzari **xakean** irabaztea erabaki dute zientzialariek. Berria - Gaiak
Xake erregeari. J.M. Olaizola "Txiliku"
Eta nik **xake** emanen nion Errege Beltzari. Alberto Ladron Arana

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Plazako izkina bateko garagardotegi batek [...] **xake** jokoan aritzeko aukera eskaintzen zuen. Alberto Ladron Arana
Nork erosiko lioke **xake** -joko zahar eta higatu bat? Iban Zaldúa
Laster ohartu nintzen Bavaria-ko (halako izena baitzuen garagardotegiak) terrazako mahaiak **xake** -jokalaria anitzen ohiko biltokia zirela. Alberto Ladron Arana
Xake maisuen partidak. Markos Zapiain

Emakumea makinaren kontra: **xake** -txapeldunek ordenagailuaren kontra egiten zituzten borrokaldi heroikoen bertsio moduko bat. Jon Muñoz

Hasieratik umeentzako **xake** klaseak eman ziren eta azkar jende asko bildu zen gure inguruan. Berria - Kirola

Mespretxuz erreparatzen zien egunkari zaharrez, **xake pieza** hautsiez eta hautsontzi zigarrokin ez beteez estalitako mahaiei. Koro Navarro

Zurezko **xake** -piezek beren kutxatik ateratzean egiten duten abarrots atsegina. Alberto Ladron Arana

Xake -taula handi baten ertzean zeuden, pieza beltzen atzean. Iñaki Mendiguren

Xake taulan ez genuke peoi bat defendatu behar, horretarako, erregina arriskuan ipiniz. Xabier Kintana

Xake taulari begiratzan badiozue, segituan ohartuko zarete ez daukala erdigunerik; erdiguneak egon beharko lukeen tokian lauki bat dagoela lau laukitxorekin, bi txuri eta bi beltz. Bernardo Atxaga

Hogwartsen ongien jokatu den **xake** -partida irabazteagatik. Iñaki Mendiguren

Ohi bezala, hitz gutxi egin genuen **xake** -partidan zehar. Joxe Austin Arrieta

Aste honetan taldekako Espainiako **xake** txapelketak jokatu dira. Berria - Kirola

Neure baitan berpizturiko **xake** -grina. Alberto Ladron Arana

Xake liburua irensten ditu etengabe, eta orduak ematen ditu Interneten dauden lehia eta estrategiak ikasten. Berria - Kirola

Zaharkin erosten zituen, **xake** klubetako kide zen, eta gourmet eta Don Juantzat jotzen zuen bere burua. Koro Navarro

Partidu kontserbadoreko kide egin naiz, eta **xake** -klub batekoa. Juan Garzia

Zelan sortu zen Gros **Xake** Taldea? Berria - Kirola

Euskadiko **Xake** Federazioari elkartzuna adierazi nahi diogu beste behin ere. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ron azti-**xakea** erakusten ere hasi zitzaion Harryri. Iñaki Mendiguren

Lehertzen ez ziren puxika argitsuak, norberak bere garatxoak hazteko kit-a, eta azti-**xakerako** piezak. Iñaki Mendiguren

4 *xake mate* xake jokoan, partida bukarazten duen jokaldia, erregeetako bat defentsa gabe gertatzen delako.

Hiru pieza mugituz, **xake matea** egiten ahalegintzen da hura; gu aurrea hartzen saiatzen gara. Koro Navarro

Nik pauso bat emango dut aurrera eta horrek harrapatu egingo nau; horrela, zuek libre geratuko zarete erregeari **xake mate** egiteko, Harry! Iñaki Mendiguren

Hala ere, badakit **xake matetik** urrutri dagoela, eta horrek indarra ematen dit. Koro Navarro

Honela hasi eta denbora aurrera doan heinean, entrenatzaileak piezak mugituz joaten dira, aldaketak egiten dituzte, sistema moldatu eta, azkenean, gol gehien egin dituenak

«**xake mate**» lortzen du. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren **xake** liburua (3); euskadiko **xake** federazioko (4)

xake federazioko (9); **xake** jokalaria (14); **xake** jokalaria (6); **xake** jokalaria (5); **xake** joko (7); **xake** joko (6); **xake** jokoan (12); **xake** liburua (8); **xake** liburuko (3); **xake mate** (14); **xake** munduan (3); **xake** nobela (3); **xake** partida (21); **xake** partida bat (4); **xake** partidak (5); **xake** pieza (3); **xake** taldea (3); **xake** taula (23); **xake** taulan (3); **xake** taularen (6); **xake** taulari (4)

euskal **xakea** (3); **xakea** kirol arlotik (3); **xakea** kirola dela (7)

euskal **xakean** (4); **xakean** ari (3); **xakean** aritzen (3); **xakean** jokatzeo (3); **xakean** jokatzen (9); **xakean** jolasten (3)

euskal **xakearen** (5)

xakeko olinpiar jokoetan (3)

xakelari iz xake-jokalaria.

Garagardotegian biltzen ziren **xakelari** adinekoen erranetan, Hilde andereak nahiko harreman estuak izan zituen agintari naziekin. Alberto Ladron Arana

Bobby Fischer **xakelari** estatubatuarri. Berria - Kirola

Xakea kirola da mundu osoan, kirol modura antolatuta dago, **xakelari** ugari gara Euskal Herrian. Berria - Kirola

xakepieza ik **xake 2**.

xakezale iz xake jokoaren zalea dena.

Zorionez, laster jakin nuen bera ere **xakezalea** zela eta, nola nik beti ere xake-kutxatila aldean eramaten dudan, horratx gure salbazioa. Joxe Austin Arrieta

Duela 25 urte, **xakezale** batzuek auzo elkarteak haurrei xakea erakusteko lokal bat uztea lortu zuten. Berria - Kirola

Xakezaleen zoritxarrerako, ez zuten ezer arriskatu eta mugimendu gutxitan berdinketa hitzartu zuten. Berria - Kirola

xakil iz *adkor* zakila.

Neska-lagunen bat izan behar duk nonbait, libro, adiskide zahar honen **xakil** triste eta langabetuari ongi etorri eginen liokeena. Aingeru Epaltza

xakitu, xaki, xakitzen du *ad* markatu.

Larunbat goizean, Bardeetara doatzin artzainak dira gurutzatuko: batzu altxunbidean barna (kabalentzat idekitako bidea) dira ibiliko, bertze batzu aldiz ardiak **xakitzen** (markatzen) ariko dira eta ere hamaiketakoa prestatzen, otapurak eta txulak. Herria

Txahalak burdina goriaz **xakitzen** diren bezala, halaxe **xakitu** zidatek ene zifra bihotzean. Iñaki Iñurrieta

Metal gogorregia **xakitzen** saiatu da; goritu zaio erroa, eta beratu ondoren. Iñaki Iñurrieta

xaku iz *adkor* zakua.

Opari ainitz elgarri trukatu ditugu, bakoetak paper-**xaku** baten bete. Herria

Sasoi honetan ez zen nahi galeperrik auzoan: Uztailako galeperraren kantua, **xakua** bai eta **xakukorik** ez, edo **xakurik** ez eta **xakukoa** bai, hitz jokuak eginez. Pello Zabala

xakur ik **txakur**.

xakuto *iz adkor* zakutoa.

Joe denda atzera joan zen eta hauts zuriz beteriko plastikozko **xakuto** batekin etorri zen. Iñaki Zabaleta

Xakuto batetik makillaje lapitzak eta hautsak atera zituen eta begiak margotzen, masailetan ilununeak ezartzen hasi zen. Iñaki Zabaleta

Xakuto txiki batetik ispilua atera zuen eta apaindurari ikusia eman zion. Iñaki Zabaleta

xal *(36 agerraldi, 15 liburutan; orobat txal 31 agerraldi, 11 liburu eta artikulua 1ean)* **1** iz oihalezko atal handia, eskuarki emakumeek sorbalden ginean eramaten dutena.

Garai batean Annyk maleta izugarri bat eramaten zuen bidaia guztietara, **xalez**, turbantez, mantelinaz, maskara japoniarrez, kromoz bete. Monika Etxebarria

Elizara itzuli ziren, apaiza sotana jantzita, buru hutsik, andrea bere **xalean** bildurik. Karlos Zabala

Emakume hark gerezi koloreko **xal** bat jantzita zeukan, paparreko orratz kobrezko batek bularren errekan finkaturik. Karlos Zabala

Haurtxo bat **xal** batean bildua besoetan. Koro Navarro

"Galipotera" zuenean egongelan sarturik gelditzen zen eta, hotzak zegoenez, artilezko **xaletan** biltzen zen. Fernando Rey

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Arropa serioa jantzi zuen, zeta beltzekoa goitik behera, **xal** handi batekin. Karlos Zabala

Ez zeraman zamarririk, berokirik, ezer ez buruan, baina **xal** luze bat zekarren eskuetan. Anton Garikano

Bere **xal** ederra sorbaldan zabaletan paratu zuelarik, goi zintotasunezko ekintza egiten ari zela sentitu zuen. Karlos Zabala

Urte haietan Parisin erositako angorazko **xal** more bat eramaten zuen beti. Fernando Rey

Artilezko **xal** batean bilduta zegoen, hotzetik babesteko. Jose Morales

Guztiak zetazko **xal** batean bildu eta elkarrekin lotu zituen. Lopez de Arana

Zeta lodizko **xal** more argi bat. Ander Irizar

Denbora batean gure amarena izan zen **xal** izokin-kolore batez bilduta. Fernando Rey

3 (hitz elkartuetan)

Avigdor hasidim etxera joaten zen errezatzerara, bere otoitz **xal** berrian bilduta. Koro Navarro

Alchonon maisu-laguntzailea errezo **xal** batean eta abituan bildu zuten, buztin puskak jarri zizkioten begietan, eta mirto adartxo bat estutu zioten hatzen artean, Mesias etortzean Lur Santurainoko bidea zultzen lagunduko ziona. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xal more (3)

xalabardo *iz adkor* salabardoa.

Disekatzailak, ehiztariak -praka bonbatxoak belauetaraino, **xalabardo** kirtenluze bat esku batean eta pipa bestean- igandeko ibilaldietan askatzen bide du bere harrapari sena. Iñaki Iñurrieta

xalagardatu, xalagarda, salagardatzen du *ad adkor* zalagardatu.

Hitza **xalagardatuz** erdikantari sartu dela hemengoan otordu haundira, bromatan bezala. Patziku Perurena

Beste batean **xalagardatuko** ditut. Patziku Perurena

xalakatu, xalaka, xalakatzen du *ad adkor* zalakatu.

Erdarak ongi (--?) ikasi, neure hizkuntz altxor bizia atzendu, eta Europako nobela moderno sikopatologiko guziak **xalakatu** ondoren, bizitza arrazoi huts dela hirieuskara erdierazkoan esaten ikasi arte, ez ninduke deus munduan. Patziku Perurena

xalamatika *iz adkor* hitzezko gorabehera. ik **kalamatrika**.

Ezagutu izan da horrelakorik, eta oraindik ere izaten dira gure arteko **xalamatika** kokorrek: familiaren aipamena egin ziotelako oholztatik aldegin zuen bertsolaria, kidearen emaztearen ohorea dudatan jarri zuen haren kasua... Andoni Egaña

xalant¹ *iz* txanela.

Borboikoaren oldarra Bidasoako uretan baratu zen, leinari txarraren **xalanta** edo txalupa iduri. Aingeru Epaltza

Fuerteventurako leihorretik hiru ehun metroan ziren doi-doi, ahal bezalako **xalantean**, gauaz, 36 etorkin, noiz-eta guardia zibilaren patruilla jin baitzaie gainera. Herria

xalant² *iz* galaia.

Hain da gozoa sexuz aldatzea, hain da zoragarria putarena egitea, emakume bat bezala tratatzen zaituen gizonezko bati zeure burua eskaintzea, gizon horri amorante deitzea, bere **xalanta** zarela aitortzea! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

xalaparta ik **txalaparta**.

xaldiko *iz adkor* zaldiko.

Alabaina ama ongitze bidean dugu eta semea, berriz, **xaldiko** sasoikoaren pareko. Aingeru Epaltza

"Oi, ai, guztion damua: **xaldiko** gaixoa atzendua. Juan Garzia

Andremariaren, elizak behar dizkizu eraiki, edo bestela ahanztura jasan, harako dantzako **xaldikoarekin** batera, Juan Garzia

xale *iz adkor* zalea.

xalet ik **xalet**.

xalo 1 *izond* tolesgabea, lañoa; adeitsu.

Literatura libertinoan pertsonaia nagusiak eredu eta molde jakin baten arabera sortuak dira: gizon zitala, emakume gaiztoa, emakume **xalo** eta errugabea... Jon Muñoz

-Zure aitak esan nahi du amona oso pertsona **xaloa** zela, apala, tolesik gabekoa. Jon Muñoz

Batere eskarmenturik gabeko mutil **xaloa** nintzen. Berria - Harian

Ni orduan kristautxo haiek bezain injenuo eta **xaloa** bainintzen, gerotzikoak ditut zinismoaren lumak. Xabier Mendiguren Elizegi

Olatz ez zen hori sinesteko bezain **xaloa**. Harkaitz Cano

Buccio Malpanno zeritzan gizon **xaloa** eta lañoa. Joan Mari Irigoien

Danceney eta Cécile pertsonaia gazte, **xalo** eta maltzurkeriarik gabekoa dira hasieran, eta nobelaren bilakaerak berak egingo ditu maltzurrago eta, nolabait esateko, libertinoago. Jon Muñoz

-Guztiz gogotsu konfesatuko naiz zurekin, ene adiskide -esan zuen Joana **xaloak**. Juan Garzia

Aita, ordea, liberal **xalo** bat zen, gaztelaniaz gaizki mintzatzen zena. Josu Zabaleta

Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain **xalo**. Askoren artean

Joan zen korrika gizon onbera eta **xaloa** agindua betetzera. Askoren artean

Pertsonaia guztiak nahiko **xaloak** dira, malezia gutxikoak, edo gutxienez borondate onekoak. Berria - Kultura

Lapur [...]: negozio-gizon **xaloa**. Xabier Olarra

Haurtxo baten antzekoa duk oraindik, berarengan dena duk **xaloa**, bururatzen zaiona esaten dik, barrez hasten duk barre egiteko gogo duenean. Jose Morales

Ongi bizi izan zen tenpluan lehenbiziko urtean: esanekoa zen, **xaloa**, zintzoa eta fededun sutsua. Xabier Olarra

Jaun hau anaien bizierara egokitzen zen eta, santu izateko bere grinan, **xaloe**kin **xalo** zen, apalekin apal, behartsuekin behartsu. Askoren artean

Barka eskatzeko bezain **xaloa** izan zela. Oskar Arana

2 irud/hed

Begi **xaloa**, gogo apala, mihi ezitia, erantzun gozoa. Askoren artean

Frantzisko, hura hain bihotz garbi eta **xalokoa** ikusiz, mirespenez eta pozez betetzen zen. Askoren artean

Oso gaztea zen neska, aurpegiera **xalokoa** eta ilehoria. Juan Garzia

Espiritu bako bako garbi, **xalo** eta egiazkoa. Askoren artean

Amaren irudimen **xaloran**, kafe-etxeak, tabernak eta, zer erranik ez, garagardotegiak zuzenean infernura eramaten zuten zulo zikin eta jendaila arrisksuz beteak ziren. Alberto Ladrón Arana

Jeronimok irri **xalo** batez erantzuten zien lankide, ezagun eta kaletarren ziriei. Anjel Lertxundi

Neke handirik gabeko lan bat, poztasun **xaloz** betetako bizimodu bat. Karlos Zabala

Jonathan Richmanek rock'n'roll primitiboaren espiritu **xaloari** eusten dio. Berria - Kultura

Gure arteko harremana oso **xaloa** zen artean, ez ginen-eta ausartzen elkarri eskua emanda ibiltzera baino. Juan Kruz Igerabide

Jolas huts gisa ulertu genuen hura guztia, denborapasa **xalo** arriskurik gabekoa. Karlos Linazasoro

Tsarrak kontent iduri zuen Mikel Strogoffek erantzuterakoan azaldu zuen segurantz **xalo** lasaiaz. Karlos Zabala

Zenbat aldiz ez ote ditut aditu, Goizueta aldeko amon sorgin haiek elkarri egiten zizkioten ateraldi **xaloak** [...]. Patziku Perurena

Masailan eman dit haur-musu **xalo** bat, laburra, lizunik gabekoa. Txillardegí

Bidaietako elkar-ezagutze **xalo** horietako bat. Joxe Austin Arrieta

Haren irudi poetikoetako plastizitate **xalo** eta indartsuak hunkitzen naik. Anjel Lertxundi

Garziaren aburuz, «**xalo** bezain inozoa» zen garai hartako publizitatea, bai Euskal Herrian egiten zena bai nonahikoa, «gaiztakeriarik gabekoa». Berria - Kultura

Bat-batean, adagio **xalo** bat jarraitu zitzaion *staccato*ari, efektu-kolpe kontrastezko batez. Anjel Lertxundi

Haren maltzurkeria **xaloa** zen, bat-batekoa, eskuzabala guztiz, bertuteari zion atxikimendua bezain zintzoa. Monika Etxebarria

Haren lore sortak ez ziren mundu guztiaren gogoko; irribarre eragiten zuten, baina baita kezka ere, **xaloak** eta ankerrak ziren batera. Karlos Zabala

Beldur naiz euskal gaietan gauzak ez diren denak **xalo** eta laño, bizitzaren tolesgabetasunaren eskutere. Pello Salaburu

Hara han inguru guztian, eguzkiak ozta-ozta ukiturik, mendi-tontor beltzaren **xaloak**. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Bere **xalo** -nahi guztian ere iluna zen, bai, itzal batek bezala pasatzen zion begitartea, itzal **xalo** -nahi batek bezala. Matías Múgica

Izugarrikeria bat ez baita sekula guztiz berria: izugarrikeriaren aurreko **xalo** usteko ekingintza egunerokoan gainean metatzen da. Anjel Lertxundi

Irudimenezko eremu **xalo** usteetan ibiltzeko baino fikzioarako trebetasun eta ausardia literario handiagoa behar da giza itzaletan argi egiteko. Juan Garzia

4 (adizlagun gisa) ik **xaloki**.

-Ez diat saltzeko asmorik -esan nion **xalo**, ez bainuen adiskidea mindu nahi. Anjel Lertxundi

Bazkalduko dugu elkarrekin?, galdetu nion, eta **xalo** erantzun zidan: bale. Lander Garro

Xalo ibili haiz hor, aixkide. Harkaitz Cano

Ninik tolesgabe eta **xalo** agertzeko egiten zuen etengabeko ahaleginak izaera femenoagoa ematen zion. Gizonari, ordea, polizia iritsi zenetik ez zion behin ere begiratu, eta, horrela, tolesgabeki eta **xalo** traizionatzen zuen. Erromako Eliza santuak gordetzen eta irakasten duen fedearan egia irmo sinesten eta **xalo** aitortzen. Josu Zabaleta

Beren eta besteen bekatuengatik negar eginez, **xalo** eta apal biziz. Askoren artean

Odola bor-bor zebilen larruzalaren azpitik, masailak gorrixkatzen zizkion, eta begi urdinek argi eta **xalo** distiratsen zuten. Jose Morales

Azkeneko pastilla irensten eta ezbaian geratu zen zutik, bere buruari galdezka, artean adeitsu eta **xalo**, zeharkako jakin-minez itaunka. Mirentxu Larrañaga

5 **xalo-xalo** adlag

Ari zara **xalo-xalo** lanean, inori kalterik egiten ez diozulakoan, eta hor non ohartarazten zaituzten egiten ari zinenaren arriskuaz! Anjel Lertxundi

Dena, Eszter -erantzun zuen orduan **xalo-xalo**, haur baten moduan, garai bateko ahotsaz, gaztetako ahotsaz. Ander Irizar

Zoriontzera joan nintzaionean, idazleak, **xalo-xalo**, "bizi naizen herria ezagutu nahi nian" esan zidan. Patziku Perurena

-Orduan...? -galdetu zuen **xalo-xalo** obispoak. Inazio Mujika Iraola

Absalomekin batera, berrehun gizon gonbidatu joan ziren Jerusalemdik, **xalo-xalo**, deus ere jakin gabe. Elizen arteko biblia

Ezin nuen jadanik "nire maite laztana" deitu; **xalo-xalo**, "Anny maitea" hitzekin hasi nintzen. Monika Etxebarria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anaia **xalo** (3); bezain **xalo** (8); usoak bezain **xalo** (3); **xalo xalo** (31)

bezain **xaloa** (7); gizon **xaloa** (4); irribarre **xaloa** (5); itzuraz **xaloa** (4)

xalodun *izond* xalokoa.

Hala, ordura arteko aingeru-irudiari -haur ilehoriak, irribarre goxo eta begirada **xalodunak**, gorputz-arima garbikoak-, Renardek Axenarrio kontrajarri zion. **Itziar Otegi**

xaloina *izond* adkor zalua.

Nork daki zein bizia eta **xaloina** zen Basahuntza bezala zebilen mendian, gazte denboran. **Eneko Bidegain**

xalokeria *iz* xalotasun gaitzesgarria.

Hala ere, bere heziketa gutzit arrazionalak ezin zuen eragotzi oldartzea eta zakartzea eleen mundutik ateratako emaztearen **xalokeria** buru-buztanik gabeko haiekin.

Anjel Lertxundi

Gomendagarria da baliabide etsitu honetara jo aurretik kultur-hizkuntza batean begiratzea ea hor ez den adigai hura aurkitzen bere adierazpen egoki guztiekin batera, eta bere erabilera zaharra bere sortzaileen **xalokeriagatik** kulunkan balego ere, hobe da lehtasunez berezkoa zitzaion esanahia tinkatzea [...] norbere zeregina zapuztea baino.

Ibon Uribarri

xaloki *iz* xalotasunez. ik xalo 4.

Gizonaren begirada tolesgabearrekin topo egin eta erantzun adeitsua entzun zuenean ("Nola ez! Mesedez!"), serio eta **xaloki** argitu zion: [...]. **Jose Morales**

"Bisitan etorri behar duzu nire egoitzara noiz edo behin", agindu ohi zien **xaloki** ezagutu berriei. **Mirentxu Larrañaga**

Gorri-gorri jarri zen, **xaloki**, berrogeita hamar urteko pertsona zimurtsuak soilik gorritzen diren bezala. **Jose Morales**

Xaloki, bere baitan egin zuen ea zer egin zezakeen titulua lortze aldera. **Patxi Zubizarreta**

Haiek, berriz, **xaloki** erantzuten zieten: "Penitentzigileak gara, Asis hirian sortuak". **Askoren artean**

Kotxearen argipe zurian ardiak alhan mirets nitzakeen, ronpuinaren belardian **xaloki** eta artzainik gabe. **Itxaro Borda**

xalotasun 1 *iz* xaloa denaren nolakotasuna.

Gaizki ulertuen beldur ginen, ez genuen hamasei urteko jendeak berezkoa duen **xalotasun** eta naturaltasuna erakusten gure iritzietan eta kritiketan. **Anjel Lertxundi**

Bestelakoa da orain proposatzen duen eredu: ez hasierako berezkitasuna eta **xalotasuna**, baizik eta bizitza erregularra, era monastikoan antolatua. **Askoren artean**

Ezabatu egin duzu antzinako legeen artifizioa, **xalotasunari** trabak ezartzea beste asmorik ez baitzuten. **Iñaki Iñurrieta**

Lehen zatian, jakinduria, pobretasun eta karitate bertute "santuak" aipatzen eta agurtzen ditu Frantziskok, eta **xalotasun**, apaltasun eta obediendiaren ahizpatzat ematen.

Askoren artean

Luze gabe, bizkaitar hitzontzi haren **xalotasunak** gaudituz egin zituen nire uzkurkeriaren defentsa guztiak. **Alberto Ladron Arana**

Aktore amateurraren **xalotasuna**. **Iñaki Iñurrieta**

Hasiberriaren **xalotasunez** irten zen aldagelatik harmailek ze itxura zuten ikustera. **Berria - Kirola**

Bere begietan aingeruen **xalotasuna** ispatzen da. **Gotzon Garate**

Herri-irudimenaren **xalotasuna** ikusi dugu beti horrelako kontakizunen atzetik. **Anjel Lertxundi**

Ez ezak hire **xalotasun** hori sekula gal, Ernesto. **Anjel Lertxundi**

Horregatik irabazi zuen Osasunak atzo, Realaren **xalotasunari** esker. **Berria - Kirola**

Edozer lor dezakeela uste duen basagizonaren edo haurraren **xalotasunaz**. **Jose Morales**

Egiaz mintzatu zen, **xalotasunez**, eta Hamidak ezin haren ahotsaren beroari entzungor egin. **Patxi Zubizarreta**

Nik, baina, inozentziaren **xalotasunez**, ez nuen inon kontraesanik ikusten. **Karlos Linazasoro**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Xalotasun handiz egin zuen hitz: [...]. **Anjel Lertxundi**

Bere **xalotasun** eta sinestetasuna zela eta, era guztietako txantxa eta azpikeria klase guztien xede izan zen Temple hasieran. **Xabier Olarra**

Haurraren **xalotasun** xarmangarriak ez zion ordea gezurrik erraten utzi, eta lañoki erantzun zuen: "O ez, baina". **Jon Muñoz**

Xalotasun laño edo ezin bikainago horrez eman zizkidan bere burua eta bere xarmak. **Jon Muñoz**

Xalotasun naif berberaz dira kantatuak drama politikoak eta bizi intimokoak, maila arrunteko gertatuak, pilota partida, amodiozko altekeria, galdu edo garaituriko bataila.

Berria - Kultura

Sublimazioa eta herra, konfiantza eta errezeloa, lotsa eta lotsagabekeria, **xalotasun** tontoena eta gaiztotasun ankerrena. **Anjel Lertxundi**

-**Xalotasun** helenikoa, Diana bezain liraina. **Lopez de Arana**

Xalotasun garbi santuak garaitzen du mundu honetako jakinduria guztia. **Askoren artean**

Ez dut nire sexuari egozten zaion harrokeriarik; eta are gutxiago urguluzko amarrua baizik ez den **xalotasun** aizunik. **Jon Muñoz**

Ingenuotasun eta **xalotasun** erabatekoak, halaber baikortasun eta bizipozez, begiratzen diote munduari. **Berria - Kultura**

Korintoarrok, **xalotasun** osoz mintzatu natzaizue, zabal-zabalik ireki dizuet neure bihotza. **Elizen arteko biblia**

Itxurazko **xalotasun** horri fidaturik, lasai-lasai irensten dugu, kaltegabea delakoan, propaganda. **Joxerra Garzia**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Hala uste duk? -galdetzen du jeneralak, **xalotasun** itxura areagotuz-. **Xabier Olarra**

Lo egiten duenean ez da kaleak zeharkatzen dituen andra gogor berbera, **xalotasun** -haloa marrazten zaio inguruan. **Sonia Gonzalez**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Une hartan hauts bihurtu zen nire errugabetasun guztia, nire haur-**xalotasuna**; gizotso baten eskuek harrapatutako txorimaloa banintz bezala sentitu nintzen. **Juan Kruz**

Igerabide

Espiritu **xalotasunean** bizi baitziren eta oraindik ez baitzekiten Elizaren ofizio-otoitza errezatzen. **Askoren artean**

Zein eder [...] agertzen zen Frantzisko bere bizi-inozentziaz, hitz-**xalotasunaz**, bihotz-garbitasunaz. **Askoren artean**

Ez baitzuen urrerik, ez zilarrik, ez dirurik, ez beste ezer eduki nahi izan, baizik eta Jaunari jarraitu zion apaltasunaren, pobretasunaren eta bihotz-**xalotasunaren** bidetik.

Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere xalotasun (3); **duen xalotasun** (3); **halako xalotasun** (3); **haren xalotasun** (3); **xalotasun garbi** (8); **xalotasun miragarriko** (3); **xalotasun santuaren** (5)

nire xalotasunaz (3)

xaltarin *izond* adkor saltarina.

xalto *iz adkor saltoa.*

Xalto batean txantxangorria nere aurrera. **Patziku Perurena**

Arratxo bat haruntz, arratxo bat honuntz, sugegorritxoaren aldamenean **xalto** eta **xalto** nire txantxangorria, abisuz. **Pello Zabala**

Metro erdi bat eskaxera, ia hankapean han hasten zait txioka, **xalto** alde batera eta **xalto** bestera, txioka eta txioka. **Patziku Perurena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xalto batean (3)

xaltoka 1 *adlag adkor saltoka.*

Xaltoka ari zen nire ondoan, pozik, bidean gindoazela. **Matías Múgica**

Goizean goiz irten zaitez, hor izanen duzu, beti adar berexkoetan, **xaltoka** zure aurretik, kantu lastimagarria dirudien malenkonia buxtizkoan. **Patziku Perurena**

2 xaltokako *izlag*

Gorputza motxa, anka llaburrak, **xaltokako** ibillera. **Patziku Perurena**

Xaltokako herren-pausoa zuen, Lakatos lagunak bezalatsukoa baina ez hain sotila eta dotorea. hileta-elizkizun batean ez dugu doinu alai eta **xaltokakoa** hartuko, edo lagun bati adarra jotzen ez gara hasiko Xalbadorren doinurik hitsenean. **Matías Múgica**

3 xaltoka-xaltoka

Xaltoka-xaltoka eta makur antzean dabilelarik ere, aurpegiera polita du eta gorputza ondo egina; hain ondo egina, ezen moda katalogo batetik atera berria ematen baitu.

Patxi Iturritegi

xaltxa 1 *iz adkor saltsa. • irud/hed*

Non dago ba **xaltxa** arriskurik ez bada? **Oskar Arana**

Umore punttuak sartuz, irratiak behar duen **xaltxa** errazen hortxe tartekatzen baikenuen. **Pello Zabala**

xaltxero *iz adkor saltseroa.*

Ez zen faltako irri eta trufa, umore pikantexka **xaltxeroa** ipintzeko joera partikularra ere: San Bartolome, zartagia zar ta opila mee. **Pello Zabala**

xalupa ik **txalupa**.

xamalko *iz adkor zamalkoa.*

Behi batena 250-320 pezta artean; aretzeak 100-160; behorrak 350-560; **xamalkoak** 200-300. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

xaman (*orobat txaman*) **1** *iz zenbait kulturatan, naturaz gaingiko ahalmenez sendatze eta igartze lanak egiten dituen eta espirituei deitzen dien pertsona.*

Eskuez airean keinu batzuk marraztuz sartu zen **xamana** kanaberazko estalpera. **Josetxo Azkona**

Xaman lanak betetzen zituen, eguna pasa, eta izugarri aberatsa zen. **Joxan Elozegi**

Xamana, kantu monotono bat ezpainetan zuela, harengana hurbildu zen. **Josetxo Azkona**

Mendebaldeko **xaman** baten antzekoa da, beraz? **Juan Kruz Igerabide**

2 (hitz elkartuetan)

Oteiza, bere **xaman** ahots eta guzti, bere izate zakar jeniotsu eta guzti, Orioko hondartzako zuloetan ezkutatzen zen haurra da. **Iñaki Iñurrieta**

xamango *iz urdaiazpikoaren hezurra, garbia-edo.*

Amak eman **xamangoa** nabalaz karrakatu zuen Nakok: hezurri xingar peza politik kentzen zizkion oraino! **Itxaro Borda**

Jateko: **xamango** garbura, xingarra piperradarekin, ahatekia lekekin, ardi gasna, izozkia xokoletarekin, arnoa, kafea, ondokoa. **Herria**

-Haren amak eman arrautz eta **xamango** hondarrekin aseak izan zarete. **Itxaro Borda**

Eskuak **xamangoz**, arrautzez eta debaldeko arropa higituz emokaturik, Nako gizon eta umeenganatu zen, azkenaldi batez leihotik so zeudenei deiadarka. **Itxaro Borda**

xamaniko *iz xamanarena, xamanei dagokiona.*

Antzezlan horrek protagonistaren bidaia **xamanikoa** kontatzen du. **Berria - Kultura**

xamar¹ **1** *adlag adkor xamar. ik samar. (izenondo baten eskuinean, eta hortaz, eskuinean artikulua edo beste mugatzaileraren bat duela).*

Inuxente **xamarra** bainintzen artean. **Joan Mari Irigoien**

Osaeraz ere celebre **xamarra** da hitza. **Iñaki Segurola**

Gogor **xamarra** izan zen hasieran. **Joxan Elozegi**

Gure harremana basati **xamarra** zen. **Karlos Zabala**

Txulomiatzaile **xamarra** izaki, eskolan zer jostailu eta zer Lego-kaxa ote zuten ikusteko irrikaz nenbilela uste dut. **Jesus Mari Mendizabal**

Sartu eta usnatu egin ninduten zerri batzuek, zikiratu gizen batzuk ziren, atsegin **xamarrak**. **Joxan Elozegi**

Esan dezaket gure elkartzea bortitza izan zela pixka bat, edo bortitz **xamarra**, nahiago baduzu. **Karlos Zabala**

Nire aitaren entierro hura, nire haur denborako oroitzenetan, on **xamarretakoa** da. **Matías Múgica**

2 (izen + izenondo multzoaren eskuinean)

Ispiluaurrean jarri eta egiazko tolesak ageri zitzaizkidan gerrian, zitzi mardul **xamarrak** . Joxan Elozegi
Baina koska dago, koska handi **xamarra** gainera, Don Bucle eta nere artean. Txapela handi **xamar** bat, gabardina arre bat eta eskumakila. Iñaki Segurola
Biaik gauza bera baitira funtsean, alde bakar batekin, alde handi **xamar** baten gorabeherarekin: estatuak egina duena nazionalismoak eginkizun duela. Iñaki Segurola
Oso gizalegetsu jarri nintzen eta honela esan nuen, erretolika luze **xamarrarekin** : [...]. Matías Múgica
Hasi nintzen jostun miserable **xamar** baina inolaz ere kriminal bat ez zen harengana. Matías Múgica
Hara, azkenean, autoa, gorria, Luisen auto gorri zikin **xamarra** . Lourdes Oñederra
Gai bizi **xamarren** bat ateratzen denean. Josu Zabaleta
Kopeta soildu **xamarreko** aurpegi beltzaran bat. Lopez de Arana
Siriar pentsalaria, ordea, inguruabar bitxi **xamarretan** hil zen Bagdaden, eroaldiaren nondik norakoa finkatu aurretik. Aritz Gorrotxategi

3 (izenondoen kidekoekin)

Mundu pronunziablearen barnean ere badira, ez dakienarentzat, esaten zail **xamarrak** diren hitzak eta izenak. Iñaki Segurola

4 (adizlagun baten eskuinean, eta hortaz, inongo markarik gabe, edota adizlagun batek har ditzakeen markak soilik hartzen dituela).

Oraindik ongi **xamar** oroitzen naiz. Txillardeggi
Goiz **xamar** izaki, tabernan ez zebilen jende asko, eta beraz komunean ere ez... Unai Iturriaga
Garesti **xamar** ordaindu dugu askatasunaren patsa, duintasunezko latsa. Iñaki Segurola
Sasoi ia betean nengoen orduan baina beldur nintzen ez ote zen egoera hura agudo **xamar** amaituko. Joxan Elozegi
Urri **xamar** dira orain, animaliak. Joxan Elozegi
Urduri **xamar** nengoen aldatu ginen egunean, ez baitut habiatik mugitzea gogoko. Joxan Elozegi
Euskaltzale gaixoei maiz **xamar** zulatzen zaie beren kontzientzia sutsuaren kondoia, eta orduan barrengo hazia ixurtzen zaie komeni ez den tokiraino. Iñaki Segurola
Aretoko sarreran jarri dituzten lanak erakusketatik kanpo **xamar** geratzen dira. Berria - Kultura
Berandu **xamar** bazen ere atezaina bere gelan zegoen, puntu egiten. Matías Múgica
Oraindik ere herren **xamar** nenbilenez, hau ere oso kontutan hartuko zutela esan zidaten. Txillardeggi
Zortzi egun lehenago kendua zuen bizarra, nolana **xamar** , jakina, bere zubipe-lagun haietako batek kendua. Matías Mujika
Joben hitzak dira, borroako oso lagungarri dituenak, batik bat bihotza behera **xamar** darabilenean. Karlos Linazasoro

5 (adizlagunen kidekoekin)

Luteziaren aita, egiaz, garai batez modan **xamar** egondako jostuna zen. Matías Múgica

6 (adizlagun gisa ari den izenondo baten eskuinean)

Bestalde, paradoxa bada ere, harro **xamar** zegoen nitaz. Joxan Elozegi
Nahiz eta jendea geldo **xamar** egon, aurrealdean izan zen saltsa pixka bat. Unai Iturriaga
Bada orain tigreak lasai **xamar** bizi diren barruti bat. Gotzon Garate
Zutitzen lagundu zidan adeitsu **xamar** . Joxan Elozegi
Urruntzen ikusi du, zuzen **xamar** oraingoan, harkaitz zurien aldera. Pello Lizarralde
Iñaki Alemanek eta Iñigo Olaetxeak hotz **xamar** hasi zuten saioa zortziko nagusian. Berria - Kultura
Eskertu nion gogotik, herabe **xamar** baina pozik. Joxe Austin Arrieta
Aukeran, nahiago zakar **xamar** umea sendabidean jarriko duen medikua, gozo-gozo erremediorik aurkituko ez duena baino. Arantxa Iturbe

7 (adizlagun gisa ari den aditz era burutu baten eskuinean)

Hunkitu **xamar** utzi ninduen neuri begira hori esan izanak. Joxan Elozegi
Artegitza komertziala, saltzeko arte objektuak egiten dituen hori, galdu **xamar** dabilela esanen nuke. Hasier Etxeberria
Emakume bezero hura adindu **xamarra** eta bizi-eskarmendu handikoa zen, eta oso gogoko nuen. Joxan Elozegi
Begi beltz dirdaituak zituen, elkarrengandik bereizi **xamarrak** , Judu hark akertxo triste nekatu **xamarra** ematen zuen. Lopez de Arana
Lutxana aldeko morroi bat, Roke izeneko bat, boxeorako zahartu **xamarra** . Paddy Rekalde
Gizon hark apo-aurpegia zeukan, aho handia, begi irten **xamarrak** eta ile beltz sendo laburra. Lopez de Arana
Edan **xamarra** zegoen eta min ematen zioten zapata berriek, punta aldean batez ere. Patxi Iturritegi
Lutxana aldeko morroi bat, Roke izeneko bat, boxeorako zahartu **xamarra** . Paddy Rekalde

8 *samarrean* (-an atzizkia berez hartzen duen hitzaren eta atzizkiaren artean)

Klinika estetikoetan ohi diren moduko mantal zuri serioa, arras ongi zegokidala, gorputzean estu-estu sartua eta bizkarrak eta papoa ageri **xamarrean** uzten zituen eskote sakon batez hornitua. Joxan Elozegi
-Joe Harland bera, Felsius... eta egoera penagarri **xamarrean** . Lopez de Arana
Arrakastatu eta ezagunen aukera murrizta hurrenkera kronologiko zabar **xamarrean** zerrendatuta, honako hau litzateke: [...]. Lourdes Oñederra
Siriar pentsalaria, ordea, inguruabar bitxi **xamarretan** hil zen Bagdaden, eroaldiaren nondik norakoa finkatu aurretik. Aritz Gorrotxategi

9 *samarra* (-ra atzizkia berez hartzen duen hitzaren eta atzizkiaren artean)

Dauzkagun hiruzpalau datuetara eta aieru xinpel **xamarretara** mugatuko naiz. Xabier Mendiguren Elizegi

10 *samarrik* (-ik atzizkia berez hartzen duen hitzaren eta atzizkiaren artean)

Ezkerreko izterra erabat minberaturik erreparatu nuen, eta burua nahasi **xamarrik** . Txillardeggi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berandu **xamar** (4); goiz **xamar** (4); handi **xamar** (3); hotz **xamar** (3); luze **xamar** (3); maiz **xamar** (3); urduri **xamar** (4); urrun **xamar** (3)
arraro **xamarra** (4); handi **xamarra** (8); luze **xamarra** (3)

xamar² 1 *iz adkor ipar* zamarra.

Halaber erakusten zituzten saltzeko zituzten ardi larruzko **xamarrak** , abarkak, makilak, abere joareak, tabako zakutxoak, ganibetak. Koblakaria **xamarrez** beztitzen zen herri epailea ordezkatzeko zuelako eta hari zihokiolako publikoaren izenean mintzatzea. Elena Touyarou
Herri bakoitzeko auzapezak ibiltarien buruan beren aspaldiko beztitzeko molde xaharrekin, kasketa pollitak, **xamar** bereziak, makila garnitiak, zango sagarrak gerrikoz untsa tinkaturik eta abar. Herria
Txamarrotia aldiz hango arrantzaleen soineko bat zen (**xamarra** bezalakoa). Herria

2 (salbamendukoa)

Hartu behar zuen bakoitzak bere gelatik espalden gaineko jauntzi gorritu hura salbamenduaren **xamar** gorria deituko duguna. Herria
Denek behar ginuela sala haundirat **xamar** hantu hura soinean etorri, jaun andere gazte batzuek esplikatu digute bi ixtripu mota gertatzen ahal direla itsasoan: sua batetik eta ura bestetik. Herria

xamartu, xamartzen **1 ad** ik **samartu**. (aditz baten era burutuaren eskuinean eta laguntzailerik gabeko formetan)

Kontua da arratsalde batean, Grant kale ondoko parkean galdu **xamartuta** nenbilela. **Javi Cillero**

2 (izenondo edo adizlagun baten eskuinean eta laguntzailerik gabeko formetan)

Lakar **xamartua** : oso zaildua, kirola egiten denean bezala. **Patxi Ezkiaga**

xamur 1 izond adkor samurra, biguna; amultsua. ik **samur**.

Bat-batean elkarren besoetan ginen, ni hura musukatzen, bera musuen ordainak ematen, eta ezpain epel eta **xamurrak** zeuzkan. **Xabier Olarra**

Zer gertatu ote zitzaion larru horren gozo, horren lurrintsu hari, magal **xamur** hari, beso maitagarri haiei? **Joxan Elozegi**

Arianeren irribarrea **xamurra** zen, Arianeren hitzek ukitu egiten zioten larrua Goiori. **Joseba Sarrionandia**

Eskarmentugabea izaki, uste nuen maitale bat jestu **xamur** bat eginaz lasaitu eta adiskidetzera bazegoela. **Matías Múgica**

Senararen faltaz eztarikiko alarau luze baina **xamur** batekin kexatzen zen. **Fernando Rey**

Armairuan gau-soinekoa esekitzen zuen bitartean, senarrari buruz, une hartan langelan baitzen, bere uso-urruma **xamur** eztarikiko hori egiten zuen. **Fernando Rey**

Eugenirenari zirri **xamurrak** egingo dizkiot. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ameskeria **xamurretan** edo ankerretan abandonatzen zuen bere burua. **Karlos Zabala**

Asmo **xamur** bat ere erne zitzaion barranean: andre gaztearekin Cannesera bidaiatzea. **Matías Mujika**

Sasoiko jendearen galerak **xamurrago** bihurtzen ditu bihotzak. **Joxemari Urteaga**

Estatu Batuetako hizkeretan adeitsuena eta **xamurrena**. **Oskar Arana**

Horra armada hori, halako jas eta muntakoa, printze delikatu eta **xamur** bat duela buruzagi. **Juan Garzia**

Arratsaldeko eguzki **xamurrak** teiltuak laztantzen zituen. **Joxemari Urteaga**

Baina argazki **xamurren** alboan, beste erretratu batek erakarriko zaitu. **Joseba Sarrionandia**

Maitasun poema ederrak, **xamurrak** idazteko gai zela erakutsi zigan Linazasorok. **Berria - Kultura**

Kontua ez da erostetan, hasperenetan, begiradetan, gutun **xamurretan** itotzea; kontua larrua jotzea da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Haurrak adin **xamurrenean** daudenean iragartzen dute zaletasun hori, eta ez dute sekula aldatzen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Beti behar zen tokian presente zegoen pertsona zen, sekula bizkarra ematen ez zuena, eta tinkoa bezain **xamurra**. **Berria - Harian**

2 (adizlagun gisa) ik **xamurki**.

Inbidia sentitu nuen haiek hain goxo, hain xalo, hain **xamur** ikusita. **Javi Cillero**

Haien alboan Mantxuriako emakume eredu miragarriak zebiltzan, apain-apain orraztuak, lore artifizialak jarriaz, urrezko orratzekin josirik, eta pinpilinpauak **xamur** tartekatuz ile beltzen artean. **Karlos Zabala**

Zorrotz eta aldeberean **xamur** tratatzen ditu langileriaren mugak, gabeziak, borrokak eta, zergatik ukatu, patriarkadoaren zantzu ideologikoak emakumeen kontra erabiliak. **Berria - Kultura**

Makurtu egin da, sorbaldetatik heldu eta zutitu egin nau ezpainetan laztantzeko, ezti eta **xamur**. **Juan Martin Elexpuru**

Euskaraz **xamur** aritzeko. **Patziku Perurena**

Eta hala uste dinat hasi nintzela beste era batera begiratzen, hola, ez zekinat, **xamurrago** edo. **Xabier Mendiguren Elizegi**

3 (-en atzikiaren eskuinean, izen gisa)

Eta testuaren **xamurrak** bihotzean zimiko egingo dio irakurleari. **Berria - Kultura**

4 erraz murtxikatzen dena; tresna ebakitzaile batek erraz zulatzen edo ebakitzen duena.

Nire haragia ez baita gaztetan nuena bezain goxo eta **xamurra**. **Joan Mari Irigoien**

Ogi berria, opil bat bezain **xamurra**. **Unai Iturriaga**

Alpapa, adibidez, letxuga bezain **xamurra** da. **Itziar Otegi**

5 erraza. (ezezko esaldietan)

Gasteizko taldeak ez du lan **xamurra** izango sailkapeneko lidergoa babesten, Fontajau pabiloian ACB Ligako beste oilar baten aurka ariko baita. **Berria - Kirola**

Izan ere, errepideak, elurra, lana eta kamioiak uztartzea ez da lan **xamurra**; ezinezkoa, ia-ia. **Berria - Harian**

Lizasok ondo daki ez dela kanporaketa **xamurra** izango. **Berria - Kirola**

Hurrengo sei jardunaldiak ez baitira batere **xamurrak** izango. **Berria - Kirola**

Lan istripuak ez dira eten, eta enpresaburuen, sindikatuen eta Jaurilaritzaren arteko giroa ez da **xamurra**. **Berria - Ekonomia**

6 xamur-xamur izond

Agur, gure aberri egarriaren azken edantoki gazia; gure oinaze ameskorren ohe hotza; gure gomutasun **xamur-xamurren** negartokia. **Jokin Urain**

Bazkatzeko *Bow Wow Tenderloin* (solomo **xamur-xamurra**) (19\$) edo *Chow Hound Chicken* (oilaskoa) (18\$). **Gotzon Garate**

Uda hasiera guztietan, haragi fresko eta **xamur-xamurra**, fakultateetako eskortetatik ekarri berria, Edu otso likitsaren zainpean. **Aingeru Epaltza**

7 (adizlagun gisa)

Zakurrei **xamur-xamur** hitz egin. **Gotzon Garate**

Orain infernua ikusi duzu, esan zidan **xamur-xamur**, eta bi eskuez eutsi zion nire aurpegiari maitasuna egiteko. **Javi Cillero**

Eta bizi izan nintzen bitartean, sekula ez nioan utzi egia zela uste izateari; neure beso artean sentitu bainuen, **xamur-xamur**, ahoz eta begiz eta eskuz bete. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xamur xamur (4)

bezain xamurra (4); **lan xamurra** (3)

xamurkeria iz *adkor* samurkeria.

Lehenbizikoa, damu dut esatea, **xamurkeria** eta gaztetxoaren sentimentalkeria hutsa zen. **Oskar Arana**

Ez da **xamurkerietan** eta sinplekerietan erortzen; protagonistak eta irakurlea horrekin identifikatzeko elementu ugari daude bere aktsak eta bertuteak ditu, hainbat gauza egingo ditu ongi, baina baita asko gaizki ere. **Berria - Kultura**

xamurki *adlag adkor* xamurtasunez. ik **xamur 2**.

Xamurki mintzatzen da, arrazoiak ematen unaturik balego bezala. **Koldo Izagirre**

Xamurki jaso zituen nire hitzak. **Josu Zabaleta**

Gertaera bat kontatu zuen, **xamurki** baina serio. **Xabier Olarra**
Errege-erregina batzuk sartzen dira, **xamurki** besarkatuz elkar. **Juan Garzia**
Besterik da, ordea, autoan zoazela aspaldi ikusi ez duzun lagun maite bat ikusi eta hura **xamurki** agurtu nahi duzunean. **Joxerra Garzia**
Tangerren, Marrakexen eta Essaurian, urtebete lehenago, aurreraturiko diruak **xamurki** xahutzen. **Bernardo Atxaga**

xamurkiro *adlag adkor* xamurki.

Patek kuttun iritzi zion eta **xamurkiro** laztandu zuen. **Juan Garzia**
Goethek benetan **xamurkiro** kontatu zuen *The Erl-King* (Mamua) ipuina bi mila urte lehenago ezaguna zen Grezian. **Xabier Olarra**

xamurtasun *iz adkor* samurtasuna.

Gibel-asmorik gabeko **xamurtasuna**. **Joxan Elozegi**
Xamurtasuna sentitu zuen une hartan harengana. **Anton Garikano**
Gertaerarik tragikoenari ere halako **xamurtasun** bat, usain berezi bat, etxekoa eta ezaguna dariola liburuan. **Joxan Elozegi**
Eta ogi labetik atera berriaren usaina, kolorea, **xamurtasuna** hasi da salan zabaltzen. **Joseba Sarrionandia**
Gaina hartu zion irriari **xamurtasunak**. **Joxan Elozegi**
Katolikoan begietan debozio eta **xamurtasunezkoak** ziren malkoak. **Jon Alonso**

2 (hitz elkartuetan)

Halako **xamurtasun** bafada ergel bat jabetu zen une batez nitaz erasotzailearen herena baino ez zela gogoan neukala. **Joxan Elozegi**

xamurtu, xamur(tu), xamurtzen da/du *ad adkor* samurtu.

Eloyk garagardo trago luzez **xamurtu** zuen ezlarriaren lehorra. **Unai Iturriaga**
Zure sinplekeriak **xamurtu** egiten nau. **Jon Alonso**
Penaturik agian horrelako harmonia batek ez dituelako **xamurtzen** gizakien bihotz lokabeak. **Koldo Biguri**
Oraindik ere segitu zuen igande askotan erakuslehoaren aurrean mekanoari begira-begira geratzen, aita **xamurtuko** zuelako itxaropenean. **Jokin Muñoz**
Iruzurren munduan tigrea trapuzkoa zela iruzur eta trikimailurik gabe erakusteak **xamurtu** egin ninduelako. **Edorta Jimenez**
Konprenitzen nuen beraren mesfidantza, baina berak batere **xamurtzen** ez gure elkar-ulertzea, zaletasunetan-eta beti bat ez gentozelakoa aparte utzita. **Joxe Austin Arrieta**

xanbelan *iz* antzinako errege gorteko zalduna, errege zerbitzateko egitekoa zuena.

Duke handiek eta haien kanpo laguntzaileek, zerbitzuko **xanbelanek** eta jauregiko beste ofizialek zuzendu eta antolatzen zituzten dantzak, ardura hori beste inoren eskuetan utzi gabe. **Karlos Zabala**
Bizkondea zalduna zen eta beste zaldun zenbaitekin Bilbora joan zen 1439an, Agnès de Clèves, Viana-ko printzearen espos-gaiaren errezebitzera, geroztik haren **xanbelan** izan baitzen. **Michel Oronoz**
Horrela jantzirik, **xanbelan** bat gogorarazten zuen, edo, aukeran, frantsesak baino frantsesazaleago diren jaun horietako bat. **Jose Morales**

xanbradera *iz*

Ardiak eta bildotsak marrakaz hautematean, etxe gibeledko muinoetara abiatzen ginen, supiztekoak eta **xanbraderak** eskuan. **Itxaro Borda**

xanbre *iz adkor* gela.

Ez didazu sinetsiko Mirande jauna, baina, Jim Morrisonen **xanbrea** garbitzen izan naiz. **Harkaitz Cano**
Bazuen halako seme elbarri bat, **xanbretik** ateratzen uzten ez ziona. **Harkaitz Cano**
Lurrean zeharka zetzan uxual botila hutsak biltzen zuen bere barruan **xanbreko** argi apurra, itsasargi apurtu bateko beirazko oroigarria bailitzan. **Harkaitz Cano**

xanfarin *iz* buruarina, kaskarina.

Parisko **xanfarinak** baititugu nausi! **Piarres Xarriton**

xango *iz adkor* zangoa.

Moko eta **xango** gorridunak, hegatsak gorri-gorriak dituztenak, bertze batzuk ttipiak eta berdeak direnak, denetan ederrenak elurra bezain xuri direnak direlarik. **Aurelia Arkotxa**
Alaitasunean ospatu dira hemen ere ihauteriak, maska-mozorro, dantzaldi eta, guziz, mahai-joko gozamenduekin, horietan odolgi-jate, xerri **xango** eta kausera ongi harrotuak ere ez baitziren txarrenak. **Herria**

xangre (*orobat xankre*) *iz ipar* minbizia.

Urte bi zuela lotu zitzaion **xangre** maltzurrak obarioak suntsitzen zizkion azantzik gabe. **Itxaro Borda**
Hiru urte huntan **xangreak** jorik, 38 urtetan zendu da, tristezia eta bihozmin handitan utziz familia. **Herria**
Hoinbertze borrokatu ondoan, **xankreak** ereman du Miren. **Herria**
Garaitu zuen, hainbeste arrazo politikoren gainera, prostatako **xangrea** eta nahiago luke orai politikatik baztertu bere oroitzapenen idazten segitzeko. **Herria**
Emazte batek bazuen hezurretako **xangria**. **Herria**

xangrin (*orobat xagrin g.er. eta sangrina g.er.*) 1 *iz* atsekabea.

Zure **xangrinak** eta nire malurak eragin dituen asturugaitza. **Jon Muñoz**

Amaren **xangrina** eta amaren atsekabea, noiz eta jakin baitzuen ezen osabarenean izan nintzela jauregian baino lehen...! Joan Mari Irigoien
Zer adierazi nahi digu eroak bezala gidatzen duen mutilak eta **xangrinak** itozkeko etengabe txokolatea jaten duen neskak? Berria - Euskal Herria
Miskak, **xangrin** handiz, bere nagusiaren belaur ikaratiak ferekatzen zituen. Pablo Sastre
Inork ez daki oraindik zer den funtsean batzuetan etorkizunaren grina bihurtzen den iragan-min, **xangrin** edo dena delako gaitz hori. Joxean Agirre
Igurikitzen dut halaber nehoi ez diozula erranen izkiriatu dizudanik; zeren gaitzetsiko bainindukete segurki, eta horrek **xangrina** handia sor bailiezadake. Jon Muñoz
Neure amodioaz baizik ez diot hitz eginen eta ez neure **xangrinez**, ez baitut atsekabetzea nahi. Jon Muñoz
Eta **xangrinez** ikusten dut aitzitik kezka horiek oraino areagotzera noala! Jon Muñoz

2 (hitz elkartuetan)

Baina Mathiasekin "moztuz", nor geldituko zitzaidan ene pena-**xangrinen** kontatzeko? Daniel Landart

xangrinatu, sangrina, sangrinatzen da *ad* atsekabetu.

Danceny berriz gogoan hartzen dudanetik beretik, berehala **xangrinatzen** naiz berriz. Jon Muñoz
Nahi nuke halaber Valmont jaunak ez nintzan hainbertze hertsatu zure izenean; horrek ez baitu ni gehiago **xangrinatzeko** baizik balio. Jon Muñoz

xankre ik **sangre**.

xankrixitano ik **sakristau**.

xankrix tazain ik **sakristau**.

xankrix tia ik **sakristia**.

xano 1 *iz adkor* sanao.

Izpiritu **xano** sineskorren, ideien eraikitzaile gezur-merkeen eta "bizitzen laguntzen duten" gezur polit kontsolagarrien etsai txarrena. Iñaki Segurola
Xanoa izatea zer den: diskurtso politikoan, titularretako adierazpenetan zelatu eta zaindu ohi dena, baleko eta onargarri da beste arlo batzuetan. Iñigo Aranbarri
Orain dela urte batzuk [...] sarriago irakur zitekeen, *lepazuri*, *maribideetako*, *neska txiki* eta antzeko samur-**xanoak** baztertuta, *puta* eta *prostituta* maileguen aldean euskaldun zitzaigun *emagaldu*. Iñigo Aranbarri

2 *xano-xano adlag*

Delako hiritar hori Historia Garaikidearen altzoan etzana dago luze-luze, lehengo herritar otxana Jainkoaren beldurrean bezala, eta **xano-xano** sinesten du mundurik hoberenean bizi dela. Iñaki Segurola

xanpa¹ 1 *adlag* jatearen onomatopeia.

Zozoak, isil-isilik, elorri txuriaren pipitta gorri-gorri horiek **xanpa** eta **xanpa** jaten. Pello Zabala

2 *xanpa-xanpa* zanpa-zanpa.

Izan ere, denok eduki gaitu inoiz txundituta, leihoko beiran suturpuntta **xanpa-xanpa** eginda, edur-maluten jaitsiera baldar eta balantzazko horrek. Pello Zabala

xanpa² *iz* zaunka.

Artetik, halere, batzuek sainga eta **xanpa**, zonbaitek huia, bertze batzuek akula, bakar batzuek... ñaka. Herria

xanpain (264 agerraldi, 67 liburu eta 31 artikulutan –xanpain eta xanpaina-; orobat txanpain 45 agerraldi, 15 liburu eta 3 artikulutan, xanpan g.er., xanpaña g.er., txanpan g.er. eta txanpañ g.er.) 1 *iz* jatorriz Frantziako Champagnekoa den ardo zuri aparduna.

Spainia aldeko kontsumitzaile batzuk boikota egiten ari zaie produktu kataluniarrei, eta cavaren orde **xanpaina** erosten ari omen dira Eguberrien atarian. Berria -
Ekonomia
Xanpaina eskatu zuen. Bernardo Atxaga
Xanpaina hartzeko ordua da. Joan Mari Irigoien
Xanpaina atera genuen izozkailutik, eta ontzi batean jarri bere serbilleta zuri eta guzti. Bernardo Atxaga
Jeneralak **xanpaina** dastatu, eta kopa baztertzen du. Xabier Olarra
- **Xanpaina** hotz-hotza nahi diat, Hans, eta frauleina mehea eta begi argikoa, ulertzen? Alberto Ladron Arana
Xanpain gutxi, mate asko. Berria - Kirola
Xanpaina kopa okertu batetik tantaka ari zen. Lopez de Arana
Karmenek ere zutitzeko keinua egin zuen, baina atzera aulkian eseri behar izan zuen pixka batean; **xanpainak** erasanda zegoen. Inazio Mujika Iraola
Foigras-orezko ogitarteko batzuk hartu ditu, eta medikuak zuretzat agindu zuen **xanpain** horretako botila txiki bat ere bai. Antton Olano
Gure arteko hoztasuna beratzeko, pianoaren eta txakurraren arteko loturarena azaldu nion, **xanpainaren** txinpartak lagundurik. Anjel Lertxundi
Xanpainarekin ospatu dute itxi berri duten akordioa. Berria - Ekonomia
Anderrren etxean **xanpainarekin** egin zuten topa gau hartan. Iban Zaldua
Xanpainaren zorabioa. Jasone Osoro
-Bilboko ura -esan nuen, mutilak bi baso arrunt **xanpainez** beteak ekarri zituenean-. Edorta Jimenez
Bataioak, ezkontzak, farias latzak, **xanpain** merkea, dena dago pareta hauetan. Alberto Barandiaran
- **Xanpain** hotza eta nire ezpainak zain dituzu... Paddy Rekalde
Xanpaina aspaldi zen nire burura igorik, eta uste dut haririk gabe aritu nintzela aldi batez. Oskar Arana
Edari berezi bat ekartzeko agindu zuen Nozdriovek; azaldu zenez, Borgoniako ardoa eta **xanpaina** zituen nahasian. Jose Morales

Apetak eman zion bainuontzia **xanpainaz** bete behar zuela, eta xanpainan bainatu zen. Jose Morales

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondo hartu gintuzten **xanpaina** -edaleek. **Xanpain** botila kaxa batekin gainera! Inazio Mujika Iraola

Trago batzuk kendu genizkion hasita zeukaten **xanpaina** -botilari. Inazio Mujika Iraola

Han nengoen ni, ur perlak zituen **xanpain** botila eskuan. Ramon Saizarbitoria

Ni kanpoaldean nengoen airea hartzen, **xanpain** kopa eskuan, zeru izartsuari begira. Jon Arretxe

Kutxa oso bat **xanpain** -edontzi, kristala tailatua! Joxan Elosegi

Xanpaina -godalet bat ikusten zuen lehendabiziko aldia balu bezala. Mirentxu Larrañaga

Orduantxe **xanpain** koktel bana ekarri zieten. Migel Angel Mintegi

Nekez gerta zitekeen hark ere nik bezala **xanpain** sorbetea basoko fruitu gorriekin eskatzea. Ramon Saizarbitoria

Royaleko zoritzarreko **xanpain** -gauaz eta ondorengo euriteaz geroztik, zin egin zuen ez zela berriro sekula santan taberna batera sartuko. Bego Montorio

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenonodo balioa duela)

Bere txapintxo mutur-motz eta **xanpain** -koloreetan hertsaturiko oin minberatuena gainean. Mirentxu Larrañaga

Oinak ziztaka zeuzkan, punta kamutseko txapin **xanpain** -koloreetan estu-estu sarrarazten zituenean bezalatsu. Mirentxu Larrañaga

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Zalantzan geratu da, irri hondar bat beti ezpainetan eskegita, **xanpain** botila ipurdiko betaurreko horiekin. Edorta Jimenez

5 (neurriekin)

Eta mahaian zehar kopa bat **xanpaina** helarazi zion. Lopez de Arana

Eztarria lehor-lehorra duela konturatu da, eta beste kopa bat **xanpain** hartu du. Joan Mari Irigoien

Kopa bana **xanpain** hartzen ari zirela disko bat jarri zuen Jean Claudek, Ostegun gauean, Lord Shoremanek eta Mr Worthingek nirekin afaldu zutenean, zortzi botila **xanpain** hustu zirela. Rose bidali zuen bi botila **xanpain** eta lore sorta handi batekin, ez zegoela haserre eta ez zuela itxaropena galtzen erakusteko. Xabier Mendiguren

Sinetsiko didak bazkaritan hamazazpi botila **xanpaina** edan nituela nik bakarrik? Jose Morales

Ni botila hotz bat **xanpain** eta sakeletan kristalezko kopa bi nituela azalduko nintzen. Ramon Saizarbitoria

Azken botila **xanpainari** zerbitzu-mahaiaren gainean zegoen nikelzko izotz-ontzi batean eragiten ari zitzaion. Lopez de Arana

Botila **xanpaina** arian-arian husten zelako igartzen zen denbora aurrera zihoala. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

botila bat xanpain (8); **botila xanpain** (5); **bustitako xanpain** (3); **bustitako xanpain botila** (3); **xanpain botila** (20); **xanpain botila hutsak** (3); **xanpain botilak** (4); **xanpain kopa** (9)

botila bat xanpaina (3); **botila xanpaina** (4); **kopa bat xanpaina** (3); **xanpaina botila** (5); **xanpaina edan** (5); **xanpaina edatea** (3); **xanpaina edaten** (6); **xanpaina eskatu** (3); **xanpainarekin ospatu** (4)

xanpaka *adlag* zaunka.

Gogoan ere liberalek aitzina galdegiten dizkieten sosaldeak, txakur txar bat gibeletik beti **xanpaka** ari den bezala. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ardiaki lerro-lerro bortu marretan gora, artzaina buru, xakurra aldamenean sotilki **xanpaka**. Itxaro Borda

Ez da nehor hemen **xanpaka** eta ñakaka ari. Herria

xanpakari *izond* zaunkaria.

Nahiz eta Raffarin xakur- **xanpakari** pottoloak oihukatzen duen bere ahots mehea ikararaziz, ez dela bozken emaitzaren beldur, UMP-ak airez-aire irabaziko duela alegia.

Berria - Kultura

xanpan ik xanpain.

xanpaña ik xanpain.

xanpatu, xanpa(tu), xanpatzen du *ad* zaunka egin.

-Hark gaitu igortzen... - **xanpatu** zuen Txokok emaztearen atorra urratuz eta titi puntak metxeroaren suaz amainatuz. Itxaro Borda

Abokatuarekin hitza hartzera joanen nintzela **xanpatu** nion eta lankide batek, bere esku-zakuan zeukan lexomil pastilla bat eman zidan, ur baso batez lagundurik, jabol nendin bederen. Itxaro Borda

Beste batek hanpurus nagusia inguratu zuen, ondokoak **xanpatzen** ziola belarrietara: [...]. Itxaro Borda

xanpion (*orobat xanpiun*) iz txapelduna.

'**Xanpion**'! !-erran zuen Mikelek bere ordularia begiratzuz- itzuliño turistiko baten egiteko astia badugu! Ramuntxo Etxeberri

Entrenatu gabe partitua nindian eta adixkideen erasiekin, baina orai **xanpiun**! ! Piarres Aintziart

xanpiun ik xanpion.

xanpu (*orobat txanpu*) iz ilea garbitzeko xaboi likidoa.

Xaboiak bere lekuan zeuden, eta gatza eta **xanpu** Frantziatik ekarriak ere bai. Bernardo Atxaga

Txanpurik ez dugunean, xaboi berde likatsu batekin moldatu behar izaten dugu. Josu Zabaleta

Xanpu koloratzaile bat aholkatzen dit ile-apaintzaileak. Eskarne Mujika

Marrubizko **xanpuaren** usainaz osoki jabetzeko, zabal-zabal ireki ditu birak. Eider Rodriguez

Zakurrarentzako **xanpua** erosi. Jokin Muñoz

Zuria da bere betiko **xanpua**, Sanex, eta semenarekin alderatu izan ohi du inspiraziozko goizetan. Eider Rodriguez
Iberiaro Penintsularen ileko zoldaren aurkako **xanpua** zela esan ei zion cadiztar batek PSOEko buruari. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan)

Haize bolada batek zirimolatu zizkion alargun gazte eta ederrari udare **xanpuarekin** garbitutako adats belakitsuak. Aritz Gorrotxategi

xantaia *(243 agerraldi, 17 liburu eta 153 artikulutan; orobat txantaia 14 agerraldi, 3 liburu eta 11 artikulutan eta txantaje 32 agerraldi, 17 liburu eta 5 artikulutan)* 1 iz norbait hertsatzea dirua edo onuraren bat lortzeko, kaltegarri zaion zerbait agerrarazteko edo egiteko mehatxupean.

Espero dugu albiste honek kokaleku berri baten sarreran jarriko gaituela, **xantaiarik**, estortsiorik eta indarkeriarik gabeko bake eszenatoki batean. Berria - Harian
MMEk lorturiko akordioa AEBek eta Europak eginiako presioaren eta **xantaiaren** emaitza dela salatu zuen EHNEK. Berria - Ekonomia
Multinazionalen **xantaiaren** menpe egongo ez den industria politika aktibo bat behar da. Berria - Ekonomia
Itxaropenez eta zuhurtasunez hartu dugu su-etena, terrorismoaren, **xantaiaren** eta mehatxuen amaiera izango delako esperantzarekin. Berria - Harian
Xantaia erabiltzen ere saiatu ziren enplegu kaskar esklabizatzaile hura onar nezan. Karlos Zabala
Bulgariako Gobernuak atzo ziurtatu zuen ez diola «**xantaiari** amore emanen». Berria - Mundua
Xantaia onartu izana leporatu diote Frantziari. Berria - Mundua
Volkswagenean «**xantaia**» gaitzetsi du LABek. Berria - Ekonomia

2 (izenondoekin)

Xantaia hutsa izan da. Bahitzaile kriminal talde baten **xantaia** zitalaren aurrean Italiak batuta egon behar du. Oskar Arana
Argudiatu ere egin dezakezu horrek bultzatu zituela emakumeak trebezia ez oso goragarriak garatzera, plantak egitea, alegia, edo **xantaia** emozionala. Karlos Zabala
Ez nintzen haurra, **xantaia** afektibo errazaz erabilia izateko. Itxaro Borda
Hori joko handiaren ondorio normala baino ez da, eta gu peoi hutsak gara nazioarteko **xantaia** izugarri horretan. Urtzi Urrutikoetxea
Kartzelaz batera, azken urteotan **xantaia** ekonomikoa indarberritu egin dute. Jokin Urain

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Apurka-apurka, sedukzio joko basatiagoen bidez erakarri zuen mutila, baraualdi sexualak, uholde sexualekin tartekatuz, **xantaia** plan zehatza aurrera eramanez. Aritz Gorrotxategi
ELAren ustez, langileen baldintzak okertzera daraman «**xantaia** ekimenak» ematen ari dira egungo Europako Batasunean. Berria - Ekonomia
Enpresaren irudiko, beharrezko neurria da «Pferd taldearen biziraupena ziurtatzeko» eta egunotako «**xantaia** egoerak» etorkizuneara eragozteko. Berria - Ekonomia
Bi estatuek presoak «**xantaia** pieza gisa erabiltzen» dituztela dio Larraldeak. Berria - Euskal Herria

4 xantaia egin

Emakume horrek ongi aski daki **xantaia egin** diezazukeela eta ez diozula polizia deus aipatuko, komeni ez zaizulako. Iñaki Zabaleta
Kontzientziarik gabeko senarrek maiz **xantaia egiten** diote emazteari, beronen gurasoei dirua eskatzeko. Gotzon Garate
Kondenatu eta kendu ziotenetik doktore titulua eta abokatutzan jarduteko eskubidea **xantaia egin** baitzion bezero bati-, beraren eta besteen errentetatik bizi zen, eta aspaldiko ohituragatik ibiltzen zuen paper-zorroa. Anton Garikano
Beste preso batzuei buruzko xehetasun batzuen ukaiteko dela preso atxikia, hots, **xantaia egiten** diotela. Herria
Pentsatzekoa duk jakin nahiko dutela ea Francoren morroiek hiri **xantaia egiteko** zerbait ba ote duten hire sorterrian. Alberto Ladron Arana
Ez dira ez adabakiak jartzeko ez ordezkariak **xantaia egiteko** garaiak. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

langileei xantaia (3); xantaia egin (7); xantaia egitea (10); xantaia egitea leporatu (3); xantaia egiteko (10); xantaia egiten (10); xantaia ekonomikoa (3); xantaia emozionala (3); xantaia erabiltzen (3); xantaia eta mehatxua (5); xantaia eta mehatxuak (3); xantaia hutsa (3); xantaia onartezina (3); xantaia onartu (3); xantaia politikoa (4); xantaia politikari (3); xantaia salatu (3)
terroristen xantaiari (3)

xantaiagile *(orobat txantajegile)* izond/iz xantaia egiten duena. ik xantaiari.

Oso pertsona manipulatzailea eta **xantaiagilea** da, hain da manipulatzaile fina ezen kanpotik ezin daitekeen sumatu ere egin. Berria - Mundua
-Beraz, zeu zara lehen deitu duen **txantajegilea**. Migel Angel Mintegi
Xantaiagile hutsa nintzela esan zidan. Berria - Euskal Herria

xantaiari iz xantaia egiten duena. ik xantaiagile.

Bere eginkizunearan lotura hertsia izan ohi du **xantaiariarekin**, bitarteko identitatearen lokarria dela medio; zeren barautsontzia **xantaiari** mozorrotua besterik ez baita, nahiz eta azken hori espezie berezitu gisa maiz aurkitu. Xabier Olarra

xantaiatu, xantaia(tu), xantaiatzen *(orobat txantajeatu)* du ad xantaia egin.

Biluzgorrituta, lotsatuta, beldurtuta, zoriaren mende, une hartan pena handia eman zidan, eta nire pentsamenduetan kaka egin nuen emakume hura modu hartan **txantaiatzen** zuten txuloputa haien gainean. Juan Martin Elexpuru
Praktikan, lankideen espiritua zuzenki hauteman nezake, agian Jaurlaritzak **txantaiatzen** nau zerbait subentzioekin. Joxe Azurmendi
Horrelako egoera batean dagoen gizon bat **txantajeatua** izan daitekek. Lopez de Arana

xantier *(orobat txantier g.er.) iz ipar obra-lekua; obra.*

Azkenean, taxiak **xantier** baten aitzinean utzi zuen Mikel. Ramuntxo Etxeberri
Obrak 2004 ondarean hasiko dira, 2007/2008-an **xantierak** bururatuak izan behar litezke. Herria
Xantiera prestatzen zuen enpresako langilek dute murru hori agertarazi. Herria
Airezko metroaren **xantierra** ez zen bukatua, iduriz. Ramuntxo Etxeberri
Ekonomiarako bastizen eraikuntza azkarki emendatu da; aitzineko udarekin parekatuz % 34 **xantier** gehiago ideki baita. Herria
Hiru milioi euroko **xantiera** idekia da Miarritzeko Casinon heldu den apirila arte. Herria
Xantier alimale horren segitzeko, teknologia berrien agentzia bat sortua du departamenduak. Herria
Lehenbizikorik lan baldintzak, **xantieretako** seguritatea eta higiena; elkarrizketa soziala sustatu behar dela lantegi barnean; azkenik eraikuntzako sektorearen itxura kanpora hobetu behar dela baitezpada. Herria

Kasik hogoi mila langile, munduko **txantierrik** haundiena eta nor daki zenbat egunez dena gelditu behar, "espirituek" aukeratu egun hoberenen itxoiteko. **Ramuntxo Exteberri**

xantili iz esnegain irabiatuarekin egiten den krema.

Klase ezberdinetakoak gainera: krema, nata edo **xantilizkoak**, bezeroen aukeran. **Berria - Kirola**
Nata, krema edo **xantilizkoak** izan, jendeari aukera eman gutxienez, gogoa asebetetzeko asmoz. **Berria - Kirola**

xantre 1 iz eliz kantaria.

XIII. mendearen hasieran, Tarazonako Juan artzapezpiquak, koroaren ardua eramateko eta kantari berriak hezteko kargu berria izendatu zuen katedralean: **xantrea**.
Berria - Kultura
Xantrea eta eskolaua, batez ere, kantuaz arduratzen ziren hasiera batean, eta sakristaua ez preziski, baina, atzenean hiruek zizuten eginkizun berdintsua: apezak lagundu elizako zeregin aunitzetan. **Patziku Perurena**
Herriko **xantrea** izan zen gaztedanik, eta igante goiz hortan ere, meza kantatūrik zūan bere elizan. **Herria**
Fededunek ez zuten burlatzeko astirik ukan, herriko **xantreak** bere tenor boz sakonaz ttattit eta mutu utzi zituelako: alleluia! **Itxaro Borda**
Hirugarren bisitaria, hori da Bettiri Dibarrat, berak erran bezala ofizioz zapatain zena eta bestalde Baigorriar guziek elizako **xantre** bezala estimatzen zutena. **Michel Oronoz**
Horra hor, nondik ateratzen ziren gero **xantre**, eskolau eta sakristau asko. **Patziku Perurena**
Berrogoi urtez **xantre** izan da Bettiri Baigorriko elizan. **Michel Oronoz**

2 irud/hed

Ortizirale huntan aldiz, Bolikostako **xantre** nagusienetarik bat zaigu heldu Euskal-Herrirat, Miarritzerat hain xuxen, reggae kontzertu handi baten eskaintzeko. **Herria**

xantrego iz ipar xantrearen kargua.

Halere 44 urtez **xantregoa** atxiki dut Baigorriko elizan, ez dakit holako baldintzarik orai onar nezaken! **Michel Oronoz**
Piarres jaunaren beraren ganik baginakien, **xantregoa** ere egiten zuen aita Josephhek bere baitarik eta eneguak ere izan zituela bere karguetan horren gatik. **Herria**

xantu izond/iz adkor santua.

Zergatik behartzen nau horren **xantu** eta erlijiozale izatera? **Josu Zabaleta**
Nire aldarre zozo **xantuena** erakutsi nuen orduan. **Joxan Elozegi**
Nor munduan zuek baino aberkoiago, autozentratuago, xuxenago eta **xantuago**? **Iñaki Segurola**
Sam, nire etxezain filipinarra, kanpora ateratzekoa zen; beraz, whisky-ur erretilukada bat prestatu nuen, eta pentsatu nuen emakumea bere senarra bezain **xantua** baldin bazen, hartuko zuen ustekabearekin goiz samar alde egingo zuela. **Xabier Olarra**
Urrun zen Karlos Setimo erdi militar erdi erromantikoko porrokatu hau, Carlos María Isidro bere aitona **xantu**-jale eta anpurusaren espantuetatik. **Txillardegí**

xantxa ik xantza.

xantza (orobat xantxa g.er.) 1 iz ipar aukera, mentura.

Finalerdi huntan **xantza** guti emaiten bide zioten zenbaitek urruñarri parioetan eta denetan. **Herria**
Egun batez emazte juje batek **xantza** bat eman zion. **Herria**
Bereziki Kabilian, Aljeriako probintzia demokratikoenean bermatzen da Aljereko podorea, jakinez han **xantza** guti duela entzuna izaiteko. **Herria**
Aitametakik bat ez bada euskalduna, haurrei euskara transmititzeko **xantza** guti da. **Herria**
Ordu arte, bere **xantzak** bazituen milafrangarrak, baina azkenago eta zaluago joan da garaztarra, besoz nagusi eta gero errexkiago berexten, sake batzu ere gainera. **Herria**
Hutsak egin dituzte eta **xantzak** utzi besteeri, hok ederki baliatu dituztenak. **Herria**
Xantza guziak bere alde bixtan da! **Herria**
Bixtan da **xantxa** hori ez ginuela huts egin behar. **Herria**
Gutik egin badu ere ondarrean, ez diete **xantza** izpirik utzi pariatzaileek bi anaieri, hor entzunen arabera. **Herria**
Lehen mailean egoiteko **xantzak** urruntzen ari zaizko segurarrari, hau ere galdu ondoan. **Herria**

2 zortea.

Xantza on deneri eta saldu gezurra egiaren orde, ahal balinbada tantorik galdu gabe. **Herria**
Denboraren aldetik izan ginuen **xantza**, fresko izana gatik, bederen aterria izan ginuelakotz. **Herria**
Beste aihertar batzuek ere izan dute **xantza**, hala nola Hervé Parachou Sarrigainekoak, bai eta Apairiko Menendez familiakoek baktotxak ahuntx erdi bat irabazi baitu. **Herria**
Xantza on Marion eta Virginie!! **Michel Oronoz**
Xantza eta joko poxi batekin finala haundiarentzat geldituko diren bi paretan izanen dira. **Herria**
Gero agertuz elgarren arteko atxikimendua; dohainik eskainiz, plazan, jostetan alai, atsegingarri asko, dantza, pilota, **xantzako** arroda eta abar. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anartean xantza on (3); **azken xantza** (4); **bere xantza** (5); **beren xantza** (3); **deneri xantza on** (4); **desiratzen diotegu xantza** (3); **ene xantza** (3); **eta xantza on** (24); **gure xantza** (3); **guzieri xantza on** (4); **jokatzekeo xantza** (4)

xantza gaitza (3); **xantza gehiago** (5); **xantza guti** (4); **xantza guziak** (3); **xantza handia** (3); **xantza handiagoak** (3); **xantza makurra** (3); **xantza on** (115); **xantza on bat** (12); **xantza on deneri** (7); **xantza on desiratzen** (5); **xantza on guzieri** (15); **xantza pixka batekin** (5); **xantza ukan** (13); **xantza ukan du** (3); **zer xantza** (4)

ditu bere xantzak (3)

xantzarik ukan (3)

xapa-xapa adlag

Sugandila edo sugelindara ere harkaitzari **xapa-xapa** itsatsita eguzkitan ikusten da dagoeneko. **Pello Zabala**

xapal 1 *izond adkor* zapala.

Gero, besoa luzatu, eskua zabaldu, eta ahalik duintasunik handienaz jasan behar maisuak erregela **xapal** haietako batekin emandako kolpeak. **Joxerra Garzia**

Harri **xapalak** erabiliz, zozketa egin genuen, eta Eurilokori egokitu zitzaion joatea. **Juan Kruz Igerabide**

Jende hitzun jakituna ur-axalean kinkirrin ergelean nekatzen den harri **xapalaren** pare da. **Iñaki Seguro**

Amaren aldetik, haren ohearen ertzeko tiradera txikian [...] zeuden kondekorazio frantsesak, Erresistentziako borrokalari boluntarioaren gurutzea, Erresistentzian borrokatzeagatik deportaturikoen domina eta Borrokalariaren gurutzea, gordetzen zituzten hiru kutxatila **xapalak**. **Joxan Elozegi**

2 *xapal-xapal*

Gure droga txokolatea zuan, garai hartan mila pezeta balio zuten talegoak, **xapal-xapalak** ... **Pako Aristi**

xapaldu, xapal, xapaltzen 1 *du ad adkor* zapaldu.

Gu ttikienok, eta koxkorrenok, han atzetik, lurra zapaldu ere gure pixuz apenas **xapaltzen** genuela, alerik bixtara erretentxoan gelditu ez zedin abarka puntarekin lurrez ale bixtako haiek estaliz. **Pello Zabala**

2 (era burutua izenondo gisa)

Eta nahi luke hirian barrena lasterkan ibili, banku batean lo gelditu, ezkaratzean txiza egin, kafetegi batean kafea hartu, gizonezkoei begietara behatu, arratoiak xirikatu, hilarri bateko lili **xapaldu** bat izan! **Pablo Sastre**

xapata *iz*

Xapata gereziak zitroin izozkiarekin. **Herria**

Pelloa, **xapata** eta beltza dira salgai izanen; hortakotz behar dira galdeak egin Xan Echtebekorena edo Mirentxu Parachu-Elissalde-ri. **Herria**

xapatxa *iz*

Memoria elurra bezalakoa baita: erori berri **xapatxetan** aise urtzen da eguraldiak epeltzera eginez gero, **Pako Aristi**

xapel ik **txapel**.

xapeldun ik **txapel**.

xapeldungo *iz ipar* txapelgoa.

Halere, **xapeldungoa** galtzen du Darraidou-ren kontra. **Michel Oronoz**

xapeldunorde ik **txapeldunorde**.

xapelgo ik **txapelgo**.

xapelketa ik **txapelketa**.

xapin ik **txapin**.

xapito *iz ipar* behin-behineko etxola, karpa

-Zergatik jarri dute **xapito** hori hor, elizaren ondoan? **Itxaro Borda**

Ondotik bazen etxeko mozkinen saltzea; ezti, erreximenta, gasna, bixkotxa... **xapito** estalian, ondoan zelarik jokatzen desafiozko partida bat. **Herria**

Azaroaren 7 an, aratseko 7 etan, zikiro besta **xapito** berotu baten azpian, eta animatua Estiki-rekin. **Herria**

Ondotik, **xapito** haundi baten azpian, bazkaria. **Herria**

Kantaldi hau iraganen da beraz azaroaren 15ean, ortzirale arats huntako 8.30etan, Agileran, **xapito** pean. **Herria**

Xapito pean, giro gaitza, usaian bezala. **Herria**

xaplada 1 *iz adkor* zaplada.

Berak irri-murrika egin eta "Bravo" esan zuen, besterik ez, eta niri eskuaz **xaplada** egin bizkarrean: neuk hartzeko bere Nasha, oparitzen zidala. **Joxe Austin Arrieta**

-Horrek -dukesak esan- **xaplada** pailakua dirudi eta ez zigorrada. **Patxi Ezkiaga**

Bizkarra paretaren kontra, eta basoa beste eskuan, noski; ukiezinak, Gizadiaren babesle-zaindariak, eta horien **xapladak** bizkarrean, eta horien baikortasuna, mozkor-arrailtzen diren arte. **Joxe Austin Arrieta**

2 (hitz elkartuetan)

Eta esku-**xaplada** hark niri, bizkarrean: "Hello, camerad!". **Joxe Austin Arrieta**

xaplata *iz*

Ez behelaino bat, ez hodeirik goietan, hegazkinen **xaplata** txurixka luxe horietakorik ere ez, aukeran. **Pello Zabala**

xapur izond

30.000 beltz imigrante hor dabilta beti Europako lanaren, eta jorنالen, bazka onaz tentatuak eta xarma hortan hesiaren gainetik jauzi egiteko prest, hala-nola ardi **xapurrak** paruxa gizenerat bezala. **Herria**

xar izond ipar adkorktzarra.

Ortiziralerako aro **xarrak** bat baino gehiago lotsarazi duke, kabala guti, jende guti, egun osoan euria izanki eta goazen aintzina denborak denbora pagatzen baitu. **Herria**

xara ik txara.

xarabe ik jarabe.

xarada iz hitz bat beste hitz batzuen silabak konbinatuz asmatzean datzan denborapasa.

Xarada hauetako batzuk egile-izenik gabe datoz aldizkarian, beste batzuk berriz R. A., R. ARTOLA, JOSE ARTOLA, MARCELINO SOROA eta V. IRAOLAK sinatzen dituzte.

Iñaki Arranz

Xarada hitza erabil genezake hitz joko hau izendatzeko, frantsesek nazioartean zabalduko hitza geurera egokituta. **Iñaki Arranz**

xaradi ik txaradi.

xaramela (orobat xaramel g.er.) 1 iz txirula bakuna. ik txilibitu.

Garai hartako hamar instrumentu baino gehiago jotzen dituzte euren kontzertuetan; adibidez, lautea, axabebea, **xaramela** eta gayda. **Berria - Kultura**

Kainabera hutsetan zehar, zefiroaren txistuak irakatsi zuen lehenen **xaramel** hustuetatik putz egiten. **Xabier Amuriza**

2 kantua, doinua; eskuarki, kantuaeren apaindura, silaba bakar baten ginean laster eta arin abesten den nota saila.

Boz horrek bazuen ur-xirriparen kantaren **xaramela** bere baitan. **Aingeru Epaltza**

Guk ez ditugu gure kantuak xerkatzen eta atzematen **xaramela** eta kantutegi zaharretan. **Berria - Kultura**

Egunak luzatzean [...] xoriek beren **xaramelak** ikasten ari dituzte elgar lagunduz. **Herria**

Denbora berean zintzurak legundu, lehenengo kantu gordinegiak gozatu eta ezti, hots, apainduz eta jorituz joan baitira kantari talde horren **xaramelak**. **Herria**

Konturatu zen ezen Mary Jane pieza bukatzeaz zegoela, zeren eta hasierako melodia jotzen ari baitzen berriro, konpas bakoitzeko **xaramelak** eta eskalak eginez. **Irene Aldasoro**

Irratia piztuta zeukan gidariak, eta gizonetako ahots batek bazkalondoko **xaramela** alaiet betetzen zuen autobusa. **Javi Cillero**

Gaske denboran kantu zahar guziak ikasiak zituen eta familiako edo lagunaren artean zitazken elgarretaratzetan bere boz ederrarekin badu zerbeit **xaramela** eder emanik. **Herria**

Gabrielek ezin zuen entzun Mary Jane egongelako isiltasunean jotzen ari zen pieza akademikoa, **xaramela** eta pasarte zailez bete. **Irene Aldasoro**

Txori baten **xaramelaren** lilurapean. **Aingeru Epaltza**

3 (hitz elkartuetan)

Han-hemenka, arratsaldeko eguzkiak urrezko distirak pizten dizkie buruko diadematan eta euren barre algara gardenek amandre ipuinetako baso sorginduetatik ateratako **xaramel** hotsak dirudite. **Patxi Iturritegi**

4 irud/hed

Gura dudana, ostera, Andres Untzainen datuak direnez, ahoa josita nago, gizon gazteak bere **xaramelarekin** segitzen duen artean. **Edorta Jimenez**

5 kantu xaramela

Egun bat ederra elgarrekin iragan dute mahain ederren inguruan lehenengo ixtorioak berrituz eta **kantu xaramela** batzu emanez. **Herria**

Beren musika aire eta **kantu xaramela** ederrekin bi talde horiek gain gainetik gorlaxatu dute meza eder hori. **Herria**

Bazkari eder batean bete da Herriko Etxeko bazkaltegi hura, han ez deusen eskasik, aitzineko mintzaldietarik landa, zikiro, omore on eta **kantu xaramela**. Ortizirale 20ean hiru eskolek ongi etorria eginen dute beren **kantu xaramelez** Olentzeroren berria onhartuz. **Herria**

Kantu xaramelaz arituko diren Xorrotzak, ordea, Felix Ager eta Johañe Etxebarne izango dira. **Berria - Kultura**

Meza denboran oi zer **kantu xaramela**, berzaldetik ari zen mendien mazela, erran nahiz hek ere sinesten dutela. **Michel Oronoz**

6 kantu xaramelan adlag abesten.

Eta urte guziz bezala, gaualdia segitu da apairu batekin Baillea ostatuan, kantu **xaramelan**, hor ginuelarik etorria bazterren alaitzeko betiko Panpi Luro eskusoinulari ospetsua, bere ikaslea zuelarik gitarrean. **Herria**

Komita zabaldua zauku orori, kantu **xaramelan** artzeko [=aritzeko]. **Herria**

Kantu **xaramelan** hartu. **Herria**

8 xaramelan adlag abesten.

Gure herriko plaza gain hortarik **xaramelan** airatuko dira Iparlan gaindi, Baiguran barna kantari xoragarri horien boz bero eta ozenak. **Herria**

Giro alegera batean, kantuz **xaramelan** segituko dizigu. **Herria**

Hiru egunen buruan aita abadea ere etxeratuko zaigu, ezkila guzien **xaramelan**. **Marzel Etxehandi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kantu xaramela (5)

kantu xaramelan (3)

xaramelari (orobat txaranbelari) 1 iz xaramela jotzen duena.

Basa txaranga (txürüleri, tabalari, **txaranbelari**, Mauleko müsika eskola), Tehenta taldea (7 eüskal botz). **Herria**

Animazione orokorra: Ezpela txaranga, Usurbilko Musika Eskola, gaiteroak, **txaranbelariak**, txürüleriak... **Herria**

2 (izenondo gisa) xaramelatzen duena.

Esanekoaren prestutasunaz obeditzen, eskuin eskuko erlaxapenari run-run **xaramelari** batez erantzunez. **Pako Aristi**

xaramelatu, xaramela(tu), xaramelatzen 1 du *ad* abestu, kantatu.

Adixkidea, zonbat aldiz, nik bezala, ez duzu **xaramelatu** kantu hori! Heria

Koralak bere aldetik kantika ederrak **xaramelatu** ditu. Heria

Eguberriko kantu eder eta airosak jende guziak kartsuki **xaramelatu** ditu. Heria

Merkatuan usaian bezala, beren froga betea duten abestiak ditugu **xaramelatuko**. Heria

Dominiquek, aldiz, arazorik batere ez zuela zirudien; are gehiago, ezagutzen ez zituen marinel kantua **xaramelatu** zituen. Elena Touyarou

Pastoralez gain, dozenaka kantu ere asmatu, idatzi eta **xaramelatu** zituen Etxahun-Irurik. Berria - Kultura

2 irud/hed

Usadioak bere erritmo barea **xaramelatu** zuen. Anton Garikano

3 bairatu, amarruz bildu.

Neskak hautagaiak **xaramelaturik** zituenez, hark zer agindu, horixe beteko zutela hitz eman zuten. Patxi Zubizarreta

Grigoriren begi liluragarri haiek bazuten oraindik nahikoa indar inguruko jendea **xaramelatu** eta bere mendea jartzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Esan nahi da Davidek asmatu zuela Ruthen barrenak **xaramelatzen** eta emakumea erabat txundituta geratu zela, dandy haren bihotzari iltzatua, alegia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Luis, azkenik, Lola nafarra nabarmen samar **xaramelatzen** saiatu omen zen, baina hau ere alferrik. Patxi Zubizarreta

Damuturik, beraz, baina artean emakumea **xaramelatzeko** gogoz, Amgad jauregi dotore batera sartu zen. Patxi Zubizarreta

Furgonetan bertan saiatu nintzen Dan **xaramelatzen**, baina kanpamendua bera bakarrik altxatzen tematu zen eta nire gizona ikustearekin etsi behar izan nuen. Patxi Zubizarreta

Mutila erabat **xaramelaturik** geratu da, munduan ezin da egon halako beste beltzaranik. Patxi Zubizarreta

Ni ez naiz nire bahitzaile-tiro egilearekin berriro maiteminduko; ni ez naute haren telegrametako hitz berantiarregiek **xaramelatuko**. Patxi Zubizarreta

xaramelatzaile *izond/iz* bairatzailea, norbait amarruz biltzen duena.

Xaramelatzaile gorotza! Patxi Zubizarreta

xaranga ik **xaranga**.

xarba *iz* *adkor* zarba.

Baserriko lanetan, inausketa eta kima-lanak egiteko orduan disparterik egin nahi ez zuenak, beti erreparatuko zion, adar tiki eta **xarbak** noiz ebaki. Pello Zabala

xarbot (*orobat xarpot*) *iz* ezpaindunen familiako landarea, lurralde epeletan hazten dena, oso usain onekoa(*Thymus vulgaris*). ik **ezkai**.

Dela porru, aza, tipula edo baratxuri, dela piper, pastenagre, entsalada edo ilarleka, ahantzi gabe perrexila eta **xarbota**, horiek oro eta beste landare mota asko gure baratzean garatzen ziren amatxiri esker. Daniel Landart

Kanpalekua frango pollita da lore taulenak, ezker-aihenak, eta itzalguneetan, **xarbota** usain goxokoak. Marzel Etxehandi

Bardeako mendietan **xarbota** eta erromero basaren biltzea. Ana Urkiza

SS-ek hamarnazka hektara zuen landa batean senda belarrak egiten zituzten, presoen gustuz: **xarpota**, erremulia (romarin) eta beste... Marzel Etxehandi

xarde¹ *iz* sardexka.

Antoniak lehertua zuen arrautza gorringoa, eta **xardearen** hortzez haur-marrazki batetik sortutakoa zirudien eguzki antzeko zerbaiti izpiak luzatzen zizkion platerean. Josu Landa

Jantegiko lurrin hotz, **xardeak** koilarak labanatoak min hartzeraino estutuz beren benetako buruzagien agindu gogorren baten beldur. Koldo Izagirre

xarde² ik **sarde**.

xardina ik **sardina**.

xare¹ 1 *iz* pilota-joko mota, sare modukoa duen pala-mota batekin jokaten dena; pala hori bera.

Igandearekin mezatik landa, **xareko** partida baten ikusteko parada ukan dugu. Heria

Xareko finala dugu hau. Heria

Pilota Federazioak **xareko** bi pilotari gazte zigortu omen ditu, soinean zuten atorran" Euskal Herria" idatzia zelakotz. Heria

Lau modalitatetan jokatu da: **xarean**, paleta larruz, paleta gomaz eta eskuz binaka. Berria - Kirola

Xarean eta paleta larruzko pilotarekin. Heria

Senperen bururatu da nazioarteko lehiaketa, esku huska eta **xarez**. Heria

Karia hortarat bada han jokaten den trinketeko lehiaketa bat, eskuz, paletaz, larruzkoarekin eta gomazkoarekin, gizon eta emazte, eta ere **xarez**. Heria

Tentsioa sumatzen zaio juezari, belarriak tente, halako tik nerbiosoren bat, tarteka burua harmailetara jiratur, esku batean daraman **xareak** eramaten duen moduarengatik arma itxura hartzen du. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Xalbatin bertularia, Aita Aritzabelar euskaltzaina, Panpi **Xare** pilotaria, Amaia Solsoprano kantaria. Heria

Ekainaren 25ean astezkenean: 18.30 etan Euskal Herriko **xare** zirkuitoa finalerdia Darmendrail trinketean. Heria

Beste irabazleak: paleta jokoan, larruzko pilotekin, Rolletelnieta Fustohago-amerikanoak; **xare** jokoan, Olivier Labardesque biarnesa eta Joel Sistiague. Heria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xare jokoan (7); **xare** zirkuitoa (3)

xare² 1 *izond adkor* trinkoa ez dena; saretua dagoena, lausoa.

Ke moduko bat besterik ezin izaten dut bildu, inolaz itxura hartu ezin duen laino **xarea**. **Iñigo Aranbarri**

Hotz-beroen batez bestekoa atsegina da, mahuka hutsean lasai ibiltzeko modukoa, nahiz eta goizetik jertsetxo bat edo jaka **xare** bat ondo datorkeen. Hain antsikabe, hain anker urratzea zibilizazioaren errezela **xareak**. **Pello Zabala**

Lao-tse ekialdeko pentsalariak gogoko zuen sahasen hosto jostalari eta urdurien itzal **xarean** meditatzea. **Pello Zabala**

Begiratu **xarea** botatzea aski da zerrenda joria osatu ahal izateko. **Andoni Egaña**

Prezioaz, iradokizun **xarea** baino ez: "Oso auto erosoa da, erosteko besteko dirurik baldin badugu behintzat". **Iñigo Aranbarri**

Nafarroan dagoeneko bada bertako sare **xarea**. **Pello Zabala**

2 *xare-xare adlag*

Goizeko lauretan, erlojuan seiak ziren arren, artean erreka-lainoa **xare-xare**, lanbrobeheratan, formatzen osatzen eta trinkotzen. **Pello Zabala**

Tarte batzuetan tripaki-lainoak, **xare-xare**, eguzkiaren argia iragaziz. **Pello Zabala**

Antiojo ilunak eta buru txuria, ilea **xare-xare** atzean bildua. **Xabier Etxabe**

Bestelako gertaera batzuetan morbosotzat joko genituzkeen xehetasunak **xare-xare** ematen zaizkigu, oparo, naro. **Iñigo Aranbarri**

xare³ *iz ipar adkor* zarea.

Berdin berdina zoatzin iragan asteko mahats biltzaleak ere: batzu beren liburuetan eta besteak autoko bolantean trebeago zituzten eskuetan harturik haixturak eta **xareak**, baitzoatzin kantari eta jostakin, Arradoi, Jara, edo Leizaratzurat buruz, zirtolari eta arraillant goizetik, zeren ez baitzen egun hori besteak bezalako eguna. **Herria**

Eta **xarea** erdi-beterik itzuli etxerat, usaiako erosgai frango bazterturik. **Herria**

xareta ik sareta.

xaretu, xare(tu), xaretzen 1 *da/du ad adkor* saretu.

Irudika dezagun hari bat, sendoa muturrean, luzatu ahala, **xaretzen** doana. Arropak sobera **xaretzen** ditudanez, hori koloreko oihal iletsu bat erosi didate, harekin estali naute, Laponiako enbaxadorea ematen dut orain. **Iñigo Aranbarri**

Itsasoko haize umelen soka-sare estu itxia hasten da noizbait ere **xaretzen**, lasatzen. **Pello Zabala**

Ereiteko, aldiz, lurra euriz **xaretu** eta gozatua hobe aukeran, gehiegi hoztu eta zopatu gabea, bere tamainan. **Pello Zabala**

2 (era burutua izenondo gisa)

Oinuts handi zikinak agerian uzten dituen gona izugarri **xaretua** darama, madonak mandazainez finitzen du. **Koldo Izagirre**

Erridau **xaretuek** ozta-ozta uzten zituzten sartzera kaletik zetozen argi-izpi nagiz batzuk. **Iñaki Segurola**

xargal 1 *izond* xaharra eta argala dena.

Ertzainek hiltzailea harrapatu nahi zuten; mutil **xargalak**, berriz, babestu egin nahi zuen, bere anaia izorratu zutenen kontrako mendekuaren egiletzat baitzuen, nolabait ere, hiltzailea. **Anjel Lertxundi**

Besotik helduta zebilen oinezko bikote bati erreparatu nion arretaz: biak itxura **xargaleko**, orbela harrotzen zuten pausoan-pausoan. **Anjel Lertxundi**

2 (*hitz elkartuetako osagai gisa*)

Kabinako atea zabaltzera noalarik, mutil aurpegi-**xargal** bat ikusten dut, kristalaren beste aldean, kabinara hurbiltzen. **Anjel Lertxundi**

xaria *iz* islamiar zuzenbidearen gorputza.

Xaria Islamaren legea indarrean dago han, eta emakumeek ez dute babes bila nora jorik. **Berria - Gaiak**

Xaria lege musulmanak erabat debekatua die emakumeei senarra ez den beste gizon batekin sexu harremanak izatea. **Berria - Gaiak**

Xariak zigor bera ezartzen die ezkondu gabe sexu harremanak izaten dituztenei, abortatzen dutenei edo bortxatzaileei. **Berria - Gaiak**

Washingtonek estatu laikoa nahi du, eta Gobernu Kontseiluak, berriz, **xaria** ardatz izatea. **Berria - Mundua**

Behin-behineko Gobernu Kontseiluko presidente Mohsen Abdel Hamidek duela egun gutxi esan zuen **xaria** legediaren ardatz izatea aztertzen ari zirela, xiita gehienek buru erlijioso Ali al Sistanik exijitzen duenari jarraiki. **Berria - Mundua**

Xaria Nigeriako 12 estatutan dago indarrean. **Berria - Gaiak**

xaribari 1 *iz* tobera-munstra.

Abiatu bezperan **xaribari** bat ospatzen zen Zuberoako Altzürükü herrian, eta Josebak hara joatea proposatu zigan irteerako urduritasuna arintzearen eta Erdi Aroko antzerki modu haiek zuzenean ikusteko oso aukera gutxi izaten zelako. **Bernardo Atxaga**

Ihauerietako **xaribarietako** arizaleak iduri, bertze norbaitena jokatzeko nuen astean behin, eta nire pertsonariari ahalik eta fidelena izatera ahalegintzen nintzen. **Aingeru Epaltza**

Xaribaria segizio batekin hasi zen. **Bernardo Atxaga**

Halako batean, ordea, kanpaiak entzun ditu, gazte **xaribari** zaleen zalapartaren gainerik. **Anjel Lertxundi**

Satira noizbait ez baitzen bekatu; **xaribari** eta toberetan bezala, haizu bainoago beharrezko ziren bertsolariek inori eragin ziriak eta zauriak. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

-Tragedian bete-betean sartuta geundean, eta horra hik **xaribarira** jauzi egin! **Jon Muñoz**

3 zalaparta, zarata.

Usteko duzu beharbada metatze hau diskordantea dela eta kontzertu nahasi hauetarik ez dela ateratzen ahal gaitzeko **xaribari** bat besterik. **Koldo Izagirre**

Hitz egina zidan lehenak, eskuineko besotik heldua nindukanak, mendean hartu zuen noizbait **xaribari** hura guztia. **Koldo Izagirre**

xarkuteria ik **xarkuteria**.

xarlango iz erbi txakurra. • irud/hed

Txapazko **xarlango** baten antzera, fokuek eskas samar argitutako trafiko-arrastoak harrapatzeko deman zihola zirudien, ehundaka urte lehenago bertako jendeek, indioek, egindako bide hartatik. **Iñaki Zabaleta**

xarma iz 1 erakartzen edo atsegina sortzen duen zerbaiten nolakotasuna. ik lilura.

Xarma eta edertasuna irrikatzen ditu begiak. **Elizen arteko biblia**

Bere burutxo polita sorbalda gainean eramateko modu lirain eta dotorea da haren **xarmetariko** bat. Heroi egoskorren **xarma**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hogei urte zituen eta gaztetasunaren **xarma** zuen bere baitan. **Mirentxu Larrañaga**

Neska batek behar duen **xarma** nagusia falta zuen: tolesgabetasuna, bakuntasuna, xalotasuna. **Josu Zabaleta**

Emaztearen **xarma** senarraren poza; haren zuhurtasuna indarberritzaile. **Elizen arteko biblia**

Halakoa baita fidantziatzeko adiskidantzen **xarma**. **Jon Muñoz**

Ez da nobela bat, baina badu kontakizunaren **xarma**. **Berria - Kultura**

Debekatuaren **xarma** zekarren hark, misterioaren lilura. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zer **xarma** zerion koadro ilun hari, begi barrendu ezin haiei! **Josu Zabaleta**

Gizasemeetan ederrena zara, ezpainetatik **xarma** darizu. **Elizen arteko biblia**

Ingurune lehorrean kokaturik egon arren, Bayburtek badauzka ezaugarri batzuk **xarma** eransten diotenak. **Jon Arretxe**

Estimuzko garai loriatsu haien **xarma** dute hiriak eta hiriko eraikuntzek. **Anjel Lertxundi**

Aitatasuna **xarmaz** bete begitandu zitzaion. **Karlos Zabala**

Ez du horregatik **xarmarik** galduko Ararat ikusgarriak. **Jon Arretxe**

Une eder baten **xarma** izorrtzeko uniforme bat baino gauza hoberik ez dago. **Pako Aristi**

Pentsa ezazu ni bezalako emakume bat, bizimodu eroso, etxe ederra, arropa dotoreak, den-dena kategoriakoa, zaharra, hori bai, baina **xarma** apenas galdu ez duena. **Karlos Zabala**

Bi modutakoak ziren, berriz, gaztelaniaz irakurtzen nituenak: klasean jatorrtzat eta eredutzat jartzen zizkigutenek [...] ez zuten zer ikusirik, ez **xarman** ez jarioan, nik neuk hautatutakoekin. **Anjel Lertxundi**

Rastignacek bere **xarmaz** emakume aberatsak konkistatu eta goi mailako gizartean sartzea du xede. **Markos Zapiain**

Horiek hola, laurak eta laurden gutitarrak laster sartzea eginez, holako jendeketaren begi-beharriak bi oren eta erdiz bere **xarman** atxiki dituen Pastoralak. **Herria**

Hasieran **xarmazkoa** izan zen haren bizia. **Juan Garzia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Susana **xarma** handiko emakumea zen, ikusgarria benetan. **Elizen arteko biblia**

Harriturik nauka ordea sentitu dudana **xarma** ezezagunak. **Jon Muñoz**

Desirak, berriz, **xarma** berriak eman zizkion alaitasunari. **Jon Muñoz**

Frantsesa dakitenentzat halako **xarma** berezia duen abisua. **Ramuntxo Etxeberri**

Santa Katalinako feriak **xarma** berezi bat atxikia duela. **Herria**

Mementoaren **xarma** paregabeak lagunduta. **Txillardegia**

Bazuen dohainik merkataritzarako, **xarma** pertsonal handiko gaztea baitzen. **Askoren artean**

-Horixe da nire **xarma** arrisksuaren giltzarria. **Lopez de Arana**

Oloroe hautatuko dut, bada, jauna, gaizki ez baderitza: exotikoegia izan gabe, badu halako **xarma** nostalgiko berezi bat. **Anjel Lertxundi**

Edgar Poe-ren pertsonaiak iruditu zitzaizkidan segituan; baina bazuten halako **xarma** bat, **xarma** dohakabe bat. **Josu Zabaleta**

Haren samurtasunaren **xarma** suharra. **Josu Zabaleta**

Ordezkatzen dituzte **xarma** liluratzailak ontasun maitagarriak. **Jon Muñoz**

3 erakartzen edo atsegina sortzen duen gauza.

Musu eman dio eta neskaren **xarmen** artean ibiltzen utzi die bere eskuei. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ez da zaila izango, atorra hau kentzea aski baita **xarmarik** erakargarrienak agerira ateratzeko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Gizagaixoak ezin izan omen zion eutsi nire **xarmen** aurrean. **Oskar Arana**

Bi gizon gorriak isildu egin dira; emakume gaztearen **xarmen** xehetasunei erreparatzen diete, lotsatu gabe. **Monika Etxebarria**

4 (hitz elkartuetan)

Kartagon, Iaon, Abriaon, Salbaalen, Batbaalen ospea duten indar infernutiarregatik, jaso ezan ene **xarma**-ele hau. **Juan Garzia**

-Zinka iratzarri egiten duk, hidrogeno-burbuilatxozko geruza batek estaltzen dik, hori duk eta, intxixu-**xarma** gauzatu duk. **Juan Garzia**

5 xarma gabeko izlag xarmagabea.

Egia erran, **xarma gabeko** arkitekturari ez zion kasurik emaiten. **Ramuntxo Etxeberri**

Eliza, **xarma gabeko** barroko antzeko estiloko betoizko eraikina zen. **Ramuntxo Etxeberri**

Nekagarri eta **xarma gabekoak** aurkitzen zituen oro! **Ramuntxo Etxeberri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

badu bere xarma (5); **bere xarma** (16); **beren xarma** (8); **haien xarma** (5); **halako xarma** (12); **haren xarma** (3); **liburuen xarma** (4)
xarma berezi (12); **xarma berezi bat** (9); **xarma berezia** (20); **xarma du** (3); **xarma dute** (4); **xarma guztia** (9); **xarma handia** (3); **xarma handiko** (4)
xarmarik gabea (3); **xarmarik gabeko** (3)

xarmadura iz xarmatzea; xarmatzearen ondorioa.

Erisioneko seinaleak erabili behar ote dira, ala ez? Erabiltzen badira, nola erabili? Agerian? Gordetzerik? Gordetzen badira, zertarako erabili? Zer **xarmadura** daukate bada? Zer beldur edo haserre pizten? **Herria**

Inork ez zekien zeinen atsegina zen **xarmadura**, susmatu ez baizik jakitea zer gauza dauden gauzen atzean. **Anton Garikano**

Zuhaiztiko argi tantoduneari barrena zihola, orain buru argiagorekin -Soilguneko **xarmaduratik** kanpo-, hatz haien ukituaz oroitu zen Sethe, bereak baino ezagunagoak zituen eta. **Anton Garikano**

xarmagabe (orobat xarma gabe) izond xarmarik ez duena.

Emakume bat bizitzako loraldian, erakargarria, mardultasuna eta jantzi **xarmagabeak** gorabehera. **Oskar Arana**

Kontulari-lan bat erdietsi zuen oihal-denda batean, Hamburg kanpoaldeko herrirako batean, ilehori **xarmagabe** betaurrekodun baten itxurapean ezkutaturik. **Oskar Arana**

Bihar bazterrak hobeto ezagutzen ahaleginduko naiz, azal **xarmagabearen** azpian merezi duen zerbait aurkitzeko esperantzaz. **Jon Arretxe**

Aurpegia zurbil, betzuloak sakon, bluxa urdin hura exkax, orrazkera bera **xarmagabe**. **Txillardegia**

xarmagai iz xarmatzeko gai den gauza.

(Musu eman dio eta neskaren xarmen artean ibiltzen utzi die bere eskuei.) Alajainkoa! Zein **xarmagai** fresko eta politak! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Dolmancé, Eugeniren titiei begira, ukitu gabe: Eta beste **xarmagai** batzuk iragartzen dituzte. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Badakit erruduna eta arau-urratzailea naizela; **xarmagai** hauek ez dira erakargarrienak nire begientzat; baina orenen gainetik dago nik neskaita honi lizunkeiaren lehen ikasgaiak emateko gogoia. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

xarmagarri (145 agerraldi, 57 liburu eta 8 artikulutan; orobat xarmegarri 44 agerraldi, 4 liburu eta 38 artikulutan -denak Herriakoak-) 1 izond xarmatzen duena. ik xarmangarri; liluragarri; xoragarri. (pertsonez)

Emakume batzuek ere ematen digute horrelako sentipena, amodioaren kontra igurtzeko aukeratu gaituzten begi argi eta faltsuzko emakume **xarmagarri**, gozoek. **Josu Zabaleta**

Emakume **xarmagarria** zen Susana, guztiz ederra. **Jose Antonio Mujika**

Gwendolen bezalako neskatxa **xarmagarri** batekin ezkontzen banaiz. **Antton Olano**

Bai neskatxa **xarmagarria**! **Jose Morales**

Neskato **xarmagarri** haren begiak ikusi nahi zituen. **Ibon Uribarri**

Biloba, hemezortzi hilabeteko ume **xarmagarria**. **Koldo Izagirre**

Ez zen irakasle **xarmagarri**, alai horietakoa; aitzitik, ahots doinu monotono samarra zuen eta ez zuen lortzen gu ikasgaiarekin gehiegi txoratzea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Turko bikaina zen; ez arabiarra, turkoa baizik, lodia, abegikorra, **xarmagarria**, turkoz jantzia, turbante eta guzti. **Josu Zabaleta**

Nire laztana, bai **xarmagarria** zaudela! **Antton Olano**

Xarmagarri iruditzen zaidan irudi bat datokit. **Josu Zabaleta**

Xarmagarriarena egin nahi zuenean jokutzen zuen horrela, mutilek bagenekien hori. **Anjel Lertxundi**

2 (bestelakoez)

Zinez sorkari **xarmagarria** gure mariposa. **Patziku Perurena**

Hango edo hemengo herri tipi **xarmagarriak**. **Patziku Perurena**

Alemaniarra datozen Euskal Herriko lagunei erakustea gustatzen zaidan herrixka turistiko **xarmagarria**. **Koldo Izagirre**

Hortz irten **xarmagarri** bat. **Ibon Uribarri**

Aitak bekozkoa zimurtzen du arku **xarmagarri** bat eratuz. **Josu Zabaleta**

Kantarik **xarmagarrienak** kantatzen zizkiotela. **Aurelia Arkotxa**

Gorteko manera **xarmagarriekin** kamisioia apur bat bildu zuen. **Julen Gabiria**

Erregina Zuriak denentzat zuen hitz adeitsu bat, buru makurtze **xarmagarri** bat. **Alberto Ladron Arana**

Orain dakusun aniztasun **xarmagarria**. **Xabier Amuriza**

Bera zen, bere inorgabetasun **xarmagarrian**, gauza benetan eder bakarra. **Jose Morales**

Itxurakeria xeblere hori,aldi berean pedantea eta **xarmagarria**. **Monika Etxebarria**

Zoruan kolore **xarmagarriko** perretxiko sendoak hazten ziren, aulki legez erabiltzen zirenak. **Julen Gabiria**

Segur aski ez du sekula izango bakartasun une baten plazer **xarmagarriaz** gozatzeko aukerarik. **Antton Olano**

Magia larderiakoa eta **xarmagarria** zuen. **Xarmagarria** zen haren irribarrea. **Monika Etxebarria**

Sorgin Astekariak antolaturiko Irribarrerik **Xarmagarriena** sariaren irabazle bost aldiz. **Iñaki Mendiguren**

Xarmagarria eta erakargarria izaten jakin behar da. **Xabier Paya**

3 (adizlagun gisa)

la hautematen ez zen marra gorria **xarmagarri** ageri zen larruazal zuri-zuri hartan. **Ibon Uribarri**

Zorionez, **xarmagarri** zegoen Honoré gau hartan eta akuria ahantzi egin nuen kasik. **Joxan Elosegi**

4 (hitz soila -en atzizkiaren eskuinean)

Ez ote zen alabaina, herritar eta kanpotiar jendearen **xarmagarri** egina izan oroz lehen Pierre Lotiren elaberri goxo eta buru-hauste gabeko kondaira hura? **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

neskato xarmagarri (3)

xarmagarriki (corpusean xarmegarriki soilik) adlag era xarmagarrian.

Mezatik landa, zintzur bustitzea eta bazkaria egin dira "Larrun Xoko" gelan, Pantxo Azaretek zituelarik mahainak lore flokez **xarmagarriki** apainduak. **Herria**

xarmagin iz aztia

Berunezko xafla biribilkatu eta iltze batez zulatuan irarririk dago xarma-elearen testua, **xarmaginak** bere ahizparen hilbiko libazioen hodira limurtua. **Juan Garzia**

xarmakeria iz sorginkeria, aztikeria.

Bere baitan egin zuen ea neskaren erantzun ezkorra **xarmakeria** hutsa zen, ala haren errefusaren agerpen garbia. **Patxi Zubizarreta**

xarmandu izond xarmatua.

Indar hori Psikarean sakontasun subkontzienteetan aske dabilelarik, *limes*-etik kanpo dagoen inoren lurralde ezagunetik hesiaren kolapsoak zabalik utzi duen mundu **xarmandura** salto batean igarotzeko esperientzia asaldagarriak askatuta. **Iñaki Mendiguren**

xarmangarri (108 agerraldi, 31 liburu eta 10 artikulutan) 1 izond xarmagarria. ik xarmant. (pertsonez)

Emakume oso eder eta **xarmangarria** zen. **Elizen arteko biblia**

Neskaita **xarmangarri** honek aingeru baten moduan xurgatu dit. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Guztia herengatik eta alabaxo **xarmangariarengatik**. **Lopez de Arana**

Eugeni **xarmangarria**, laztanik gozoenez ase nahi dut ipurdi hori! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Bere osaba **xarmangarriarekin** bizitzera joan nahi zuela, nire malenkonia eta krudeltasuna jasan ezin zituelako. **Berria - Kultura**

Bai, **xarmangarria** zara, eta ez nau harritzen neskatila hori Dancenyri zuri baino gehiago iharduki izanak. **Jon Muñoz**

Poz handia guretzat, Patri, pertxenta baitzen, zinez, gure amonen amona **xarmangarri** hura. **Hasier Etxeberria**

-Lan bakarra dun: **xarmangarria** izatea. **Aingeru Epaltza**

2 (bestelakoez

Piztiatxo **xarmangarria** zaitut! **Patxi Zubizarreta**

Lur eder bat, Holanda, herri **xarmangarriak** eta hiri are **xarmangarriagoak** dituena. **Bernardo Atxaga**

Ikusi ditut begi **xarmangarri** horiek nigan finkatuak, amoltsutasunaren eiteak ederragotuak. **Jon Muñoz**

Irribarre **xarmangarriak** erakutsi zituzten hasieratik; ez zen gutxiagorako. **Berria - Kultura**

Musika-tresna horren tonu **xarmangarria** hainbat hari sinpatikok eragiten dute. **Irene Aldasoro**

Gaszte zarenean eta etxetik lekutu berritan, **xarmangarri** dira korridore ilunak, lau tanta isurita agortzen den dutxa, labezomorroak sukaldean eta berogailu eza ganberetan.

Aingeru Epaltza

Gai liluragarria, **xarmangarria**, erakargarria. **Iñaki Mendiguren**

Asmo **xarmangarri** horiek zergatik behar dute izan nire irudimenaren ameskeria hutsa [...]? **Jon Muñoz**

Nola didaten burua sutzen eta arima limurtzen zure hitz **xarmangarri** horiek! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Zein otzana zen modurik **xarmangarrienean**, prest beti nik nahi nuen guztia egiteko, nik nahi nuen gisan, nik nahi nuen momentuan. **Karlos Zabala**

Ahotsaren ñabardura, bularren kulunka zainarta edo ipurdi borobilen balantza **xarmangarria**. **Itxaro Borda**

Haurraren xalotasun **xarmangarriak** ez zion ordea gezurrik erraten utzi. **Jon Muñoz**

Zure manuak **xarmangarriak** dira; zure manatzeko manera are da atseginagoa. **Jon Muñoz**

Irakurri ondoren *maite zaitut* **xarmangarri** hura, zure eskuz idatzia, aditu dut zure aho ederra aitormen hori errepikatzen. **Jon Muñoz**

3 (adizlagun gisa)

Xarmangarri zegoen, eta gainera hain zentzudun: mutil baten itxura zeukan -bularralde gutziz emeduna, hori bai-, bere aldaka estu haiekin, modeloengan hala behar ere.

Joxe Austin Arrieta

Andoni Olaberengana txanpona jauritzera hurbiltzen ziren andrazko gazte guztiak barre eginda urruntzen ziren, kapelu kriket haiek **xarmangarri** luzituz. **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emakume xarmangarri (4)

xarmankeria iz xarmantasun gaitzesgarria.

Seguruenik **xarmankeriaz** jokatu zuen, neskek ohi duten gisara. **Patxi Zubizarreta**

xarmanki adlag xarmantasunez; ederki.

Airoski jotzen du, **xarmanki**, bai eta tristeki ere, malkoak isurarazteraino zenbaitetan. **Xabier Montoia**

Mutikoak burua altxatu zuen beraz eta sorginak **xarmanki** agurtu zituen. **Ramuntxo Etxeberri**

Xarmanki oroitarazi dauku nor ginuen Etienne Salaberry. **Herria**

Holandesak dira bi presuna gazteak eta bat frantsesez **xarmanki** mintzo izanki eta, erran diot [...]. **Piarres Aintziart**

-Enetzat ere **xarmanki** da hemen berean. **Janbattitt Dirassar**

Bizpahiru egunez gordetzen ahal banauzu, **xarmanki**. **Eneko Bidegain**

Ihardetsi nion baietz, **xarmanki** izanen zela hori, bientzat gela bat hartzea. **Janbattitt Dirassar**

Bestalde, banko handi gehienak **xarmanki** akomeatzen direla denek hein bera edo bertsua hartzeko, gisa hortako tratuak ere jendearen bizkar eginak direla. **Herria**

Badira ere, toki guztietan bezala, aukera horretaz baliatzen direnak **xarmanki** urte batzuen galtzeko lanera joan gabe, munduan ez baita biztanlerik orotan aingeru denik, ez saildurik, orotan saildu denik. **Pello Salaburu**

Urruñako Kulturaldia **xarmanki** bururatu. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

besta xarmanki (3); **xarmanki iragan da** (9); **xarmanki joan da** (8)

xarmankiro adlag xarmanki.

Xarmankiro portatu zen marabuta nirekin. **Joxan Elozegi**

xarmant (300 agerraldi, 63 liburu eta 104 artikulutan –ia guztiak Herriakoak-) 1 izond xarmangarria. ik xarmangarri. (pertsoez)

Egun batez, errege aulkian bere handikiez inguratu zegoela, merkatarri batek neskatila ezin **xarmantago** bat eraman zion. **Patxi Zubizarreta**

Ene aitzonean, neska gazte bat iduriz **xarmanta**, bizkar erditarainoko ile luze batzuekin. **Janbattitt Dirassar**

-Alaba **xarmanta** eta prestua duzu zinez. **Aingeru Epaltza**

Badira ere emankizun berriak, hala nola TF1 gatean "Le Bleu de l'océan" Miarritzeko auzapezaren ilobarekin, emazte **xarmanta**, egia erran. **Herria**

-Dama gazte **xarmanta**, euskalduna ote zara? **Ramuntxo Etxeberri**

Tira, hoa, eta ekar ezak hona uestezko printzesa **xarmant** hori. **Patxi Zubizarreta**

Berrogei urteen bueltan, andre txiki beltzaran honek, aurrezurik zuenarekin, gizon gazte **xarmant** bat, Leconte lantegiko doitzaille, oparitu zion bere buruari. **Monika Etxebarria**

Ausartu da halako batean bere begiko ilehori **xarmantari** dantzari egiteko eskatzera. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ene lagun **xarmanta**, ez ezazu zeure burua engaina: ongintza harrokeriaren bizioa da, arimaren benetako bertutea bainoago. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Zer gizon **xarmanta**, ausarta eta bihotz handikoa... **Eneko Bidegain**

Artista **xarmantei** izar esaten diete. **Patxi Zubizarreta**

Adio, Cécile **xarmanta**: hona zure etxera abiatzeko orena. **Jon Muñoz**

Bertako jendea **xarmanta** da, emakumeak sutsuak, gizonak lagun onak eta, txortan ondo egiten dutenean, oso-oso ondo egiten dute. **Karlos Zabala**

Konkorduna baino itsusiagorik ez dinat egundo ikusi, baina neska hura baino **xarmantagorik** ere ez... **Patxi Zubizarreta**

Hau jende **xarmanta** ! **Patxi Zubizarreta**
Harrigarriro **xarmanta** zen. **Ibon Uribarri**

2 (bestelakoez)

Haren burua **xarmanta** zen zinez, molde eslabiarrekoa bete-betean. **Karlos Zabala**
Nolako plazera ematen didan ipurdi **xarmant** honek. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Zure behako **xarmantek** nire arima behehitua bizkortuko lukete. **Jon Muñoz**
Haren begirakune **xarmant** eta sarkorren aurrean ezin apalago sentitzen zen. **Patxi Zubizarreta**
"Minutu bat, mesedez", irribarre **xarmantaz** erantzun zion. **Iñaki Zabaleta**
Orotara bidaia **xarmanta** de Carolis jaunari esker egin duguna. **Herria**
Geure eskuinean dugun 'Roche Percée'aren ondoko Gamarraitzeko bideska **xarmant** hori ere, garai berekoa da. **Txillardegi**
Haren sabelak bihurtune **xarmanta** erakusten zuen. **Juan Martin Elexpuru**
Bere aita Dominique artzainaren historia kontatzen digu, estilo **xarmant** batean. **Pello Salaburu**
Eszena **xarmanta** irudikatzen digu Lizardik, eta halakoxea izango zen egiaz. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Goi mailako pop **xarmanta**. **Berria - Kultura**
Zerbait apain eta **xarmant** egin zitekeen. **Patziku Perurena**
Kolore gorria izaten zen nagusi, tonu bortitzek, urdinek, horiek, moreek, kolore gogor **xarmantek** ebakita. **Karlos Zabala**
Xarmanteko loa egin nuen lehen gau hartan. **Marzel Etxehandi**

3 (adizlagun gisa)

Bi mutilak eder eta galant, jakintsu eta **xarmant** hazi ziren. **Patxi Zubizarreta**

4 *xarmanteko izlag ipar* xarmanta.

Otsailaren 19an larunbatarekin **xarmanteko** jende aldea elgarretaratu gira edo erran behar nuke **xarmanteko** euskaldun andana elgarretaratu girela, zeren eta abantxu denak euskaldunak baiginen, gure usaia xaharrez goxatzeko elgartuak. **Herria**
Berriz ere gure ezker paretako plaza ginuen jatetxe bilakatu. **xarmanteko** herritar taldea elgarretaratu gira adin guzietakoetarik. **Herria**
Lurrean pausatu dudak bizkarzakua **xarmanteko** burukita gisa baliatuko dudala, belar xixtaduna etzanzakuaz estalirik, jatera noa, gero nagiki luzatzekotan. **Piarres Aintziart**
Marydok bere **xarmanteko** bozaz bestalde talendu haundia agertzen baitu kantu idazten. **Herria**
Xarmanteko loa egin nuen lehen gau hartan. **Marzel Etxehandi**
Xarmanteko ikusgarria, biziki alegera da eta denbora berean bi mezu zabaltzen ditu: ura dugula ontasan bat paregabea, guziz baliosa, urik gabe ez baita bizirik, eta uraren pare ondare gaitza dugula ere euskara, gure mintzaira maitea! **Herria**
Eusebio **xarmanteko** tenorean heldu zen, sabela karruskaka hasia baitzitzaion. **Eneko Bidegain**
Xarmanteko kalostrapea bazaukan komentuak. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andere xarmant (9); **andere xarmant bat** (7); **bikote xarmant** (3); **dama gazte xarmant** (3); **emakume xarmant** (3); **gazte xarmant** (10); **gazte xarmant bat** (5); **gazte xarmant horiek** (3); **neska xarmant** (8); **neska xarmant bat** (5)
adiskide xarmanta (7); **andere xarmanta** (5); **neska xarmanta** (5)
neska xarmantak (5)
neska xarmantaren (3)

xarmantasun *iz* xarmanta denaren nolakotasuna.

Graziak, **xarmantasuna** eta edertasuna ematen zuten hiru ahizpa, mitologia greko-latindarreko jainkosa zirenak. **Xabier Olarra**

xarmantdun *izond* xarma duena.

Laburtuz: ilehoria, lepo luze eta **xarmantduna**, polit-polita, existitu behar zuenik ere iruditzen ez zitzaion moduko eme bat aurkitu zuen. **Pako Aristi**

xarmapetu, xarmape(tu), xarmapetzen da/du *ad* xarmapean gertatu.

Pixkanaka **xarmapetu** al zuen lokarrarazitako neskatoaren aztikeriak? **Ibon Uribarri**

xarmatsu *izond* xarmaz betea.

Antzokiaren barrutia zenbat eta itxiagoa izan, barruko gauza guztiak hainbat **xarmatsuago** barre egiten dute, egunaren argia bildurik. **Xabier Amuriza**

xarmatu, xarma(tu), xarmatzen 1 du *ad* norbaiten xarmak erakarri edo menderatu. ik *liluratu*; *limurtu*; *xoratu*.

Egutxiak arnasari eutsi zion, atea irekitzen ari zen emakumeak **xarmatuta**. **Ibon Uribarri**
Haurrek **xarmatzen** dute. **Pablo Sastre**
Lehenago ibili gabea zen horrelako lanetan, baina **xarmatu** egin zuen ugazaba bere irribarrearekin, zango luzeekin eta aurpegi politarekin. **Oskar Arana**
Gerxeago uhinen hotsa nabarmendu zen, neskatoak Egutxiren bihotza **xarmatu** zuelako, hain zuzen. **Ibon Uribarri**
Ostatu batean, neska zerbitzariak erromes gazte bat **xarmatu** nahi izan zuen. **Piarres Aintziart**
Ez zen, hain segur ere, jarrerarik aproposena **xarmatu** nahi duzun neskaren aitzinean. **Aingeru Epaltza**
Gauak sanoak dituk, planetek ez ditek makur jotzen, ez amandreek ez sorginek ez ditek **xarmatzeko** ahalmenik. **Juan Garzia**

2 zerbaiten xarmak erakarri edo menderatu.

Laboratorioko beirakiak **xarmatu** egiten gintuen eta kikildu. **Juan Garzia**
Arabia hitzaren silabek zeharkatzen zuten nire arimaren nagitasun gozo isila, eta sortaldeko lilura batez **xarmatzen** ninduten. **Irene Aldasoro**
Hain zegoen ikuskizunak **xarmatua**, ohartu ere ez baitzen egin iluna sartzen hasia zela. **Patxi Zubizarreta**
Hantxe **xarmatu** zuen merkatu nagusiak, bere zalapartarekin, bere egundoko esamesekin. **Karlos Zabala**
'Kromagnon' aroko doinu hungigarri horren melodiak ez ote zaitu **xarmatu**? **Ramuntxo Etxeberri**
Haren hitzen eztiak **xarmatu** zuela. **Patxi Zubizarreta**

3 (nork osagairik gabe)

Bihotza **xarmatzen** zitzaion, barazki haiek zerupean, oihal beltz bustiekin estalitako mahaien gainean, ikusten zituelarik. **Karlos Zabala**

Kattalinek besta zenbaitetara eraman zuen eta Sophie xoraturik, **xarmaturik** gelditu zen. Eneko Bidegain

Abasek, bien bitartean, aurpegiera **xarmatua**, grinaz eta itxaropenez beterik, begiez milikatzen zuen. Patxi Zubizarreta

Liluraturik zihoan, **xarmaturik**, zentzuak hordi. Patxi Zubizarreta

Sorgortuta baino gehiago **xarmatuta** zegoen. Ibon Uribarri

Gero iruditu zitzaion neskato xarmatzailea ez baizik neskato **xarmatua** zela. Ibon Uribarri

4 sorgindu, sorginkeriaz menderatu.

Deabruak gure auzokideetako bi gizon eta neskata bat **xarmatu** zituen. Patxi Zubizarreta

Satanek ere **xarmatu** gaituzte, hamabortz agertu baitira mutiko eta neska, ez baita oraindik hilen dantza gure Zuberoan. Herria

Tomek ukitu egin zuen azkenean, hitz egiten entzun zion azkenean, eta hori **xarmaturik** zeukan sorginkeria hausteko nahikoa izan edo ez, egina zen jada elkarren ezagutza.

Oskar Arana

-Jauna, arbola **xarmatua** dago; adarretan tinkatua nauka. Patxi Zubizarreta

Ezerk ez du begirada liluratzen, ezerk ez ditu begiak **xarmatzen**. Jose Morales

Bere boza entzuten duen oro **xarmatua** izateko arriskuan dago. Berria - Kultura

5 (era burutua izenondo gisa)

Bi-biak besarkatu eta jauzi eragiten ziela belauetan eserarazita, besarkadazko, kantazko eta barrezko zirkulu **xarmatu** batean. Oskar Arana

Hor hasten zela haurraren erresuma **xarmatua**, Aladinoren erresuma. Eduardo Matauko

Haizea aldeko izaki, bela hanpatzen, eta arraunlariek arraunak altxatzen dituztenean, hegan egitearen pare da, isiltasun **xarmatu** batean. Juan Garzia

Gozo, lazgarriki gozo mangatu diot kriminal arriskutsu honek biktima **xarmatuari**. Koldo Izagirre

Hala da-eta, Mariano bezalako batek egunero begi berri eta **xarmatu** batekin ikusten eta maite dituela bere herria, eta herritarrak. Herria

Gerraren, torturaren, terrorismoaren kontra... betor borroka **xarmatua**! Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xarmatuta utzi huen (20)

xarmatzaile *izond/iz* xarmatzen duena.

Begirakunea jasorik, begira zuela ohartu zen, halako aire **xarmatzaile** batez eta luzaroan asaldatu izan zuen irribarrearen zantzuak ezpainetan. Patxi Zubizarreta

Ahoa zabaldu nuen hura hobeto hartzeko, arima loak hartua baitzen, ahazten ari zen, eta asfxiaren lehen zoraldian opio **xarmatzaile** oinaztarriaren pareko baten mozkor sorgingarria ari zen dastatzen. Josu Zabaleta

Gero iruditu zitzaion neskato **xarmatzailea** ez baizik neskato xarmatua zela. Ibon Uribarri

Hadrumeteko nekropolisean datza Sextilio, Septima **xarmatzailearen** eta haren ahizpa birjina Foinisaren artean. Juan Garzia

Ni, otxan eta atzerakorra, Jean Gabin desertore, **xarmatzaile**, harroputz eta malamentean hilarekin: absurdua, eta gainera haiek elkarrekin maitemindurik zeuden, gu ez bezala, ez al da hala? Juan Garzia

Merezi du arazo hauek zehaztasun geometrikoz aztertzea, sofismen lainoei, hizjario **xarmatzaileei**, eta zalantza lotsakorrei zirrikiturik utzi gabe. Juan Martin Elexpuru

Herriko **xarmatzaile** usteko zenbaitek eta amorostu anitzek eskatuta asmatzen nituen lerro haietan erakutsi gabe gordeak neuzkanak esan eta idatziko nizkiola berari, gordinak, garratzak, gaiztoak. Koldo Izagirre

Eta hara han ni hura konbentzitu nahian Osorioarenik ez sinesteko, **xarmatzaile** gezurti hutsa baitzen bestalde. Juan Garzia

xarmatze *iz* xarmak erakarri edo menderatzea; sorgintzea, sorginkeriaz menderatzea.

Santiagoko Bideko ostaleren sehiak, **xarmatzea** laket baitzaie eta diru pixka bat lortzeko, gauaz erromesen ohean luzatzen dira, deabruak bultzaturik gaitzetsi behar dira.

Piarres Aintziart

Harryren eta Ronen eskolako lana, **Xarmatzeei** buruzkoa, ari zen ikuskatzen Hermione. Iñaki Mendiguren

Xarmatze -kondaira bateko pertsonaia aproposa zatekeen neskatoa. Ibon Uribarri

xarmegarri ik xarmagarri.

xarmegarriki ik xarmagarriki.

xarnafera 1 *iz* San Joan gaueko sua.

Aurten, ekainaren 24ean, Uztaritzeko ikastolako haurrek, haundi ta ttipi nahasirik, manera berezi batez eginen dute "**xarnafera**". Herria

Xarnafera deitzen da ekaineko josteta hori. Herria

2 irud/hed

Xarnafera berria sortu da Frantzia urte zaharretik urte berrirako gauan berbilak errez: orotara hiru ehun baino gehiago Estrasburgon, Parisen, Pariseko inguruetan...

Herria

xarnego ik xarnegu.

xarnegu (*orobat xarnego*) *izond/iz ipar* mestizoa.

Ohartu ginen haiek jotzen zituzten dantza asko euskaldunak zirela, eta beraiek azaldu ziguten doinuetako asko **xarnegoak** direla, alegia, bi kulturetan daudela. Berria - Kultura

-Mike izendatzen da, Tulsan sortua, indio-breitzar **xarnegua**, eta ziberkomunikazio gau baten buruan interes gune asko parekoak genituen, sexuaz aparte bistan dena.

Itxaro Borda

Gaskonia eta Euskal Herriaren arteko herrialde **xarneguen** musika berraurkitzen dute bertan, tresna ugari erabiliz: zarrabetea, xirulak, ttun-ttunak, biolina, alboka, *besson-a*).

Berria - Kultura

Zeelanda Berrian, ile moztea nahiz orrazi trakets haiekin ile **xarpa** batzuk ateratzea, hori dena beti, konjuruak eginez gauzatzen zen. Pello Zabala

xarpa¹ *iz adkor zarpa*. • *irud/hed (izenondo gisa)*

Gizajoak eman zuen kabitua hainbat xagar kokkor ttiki **xarpa** horietakotik basa-pipitetan. Pello Zabala

Handik hiru egunera elurak bisitatu zuen: uste dut elur hura ez zela hotza, frexkagarria bakarrik, nire sagarrondotto **xarparentzat**. Pello Zabala

xarpa² *iz ipar* ehunezko zerrenda zabala, eskubiko besaburutik ezkerreko aldakara pasatzen dena, edo gerrian lotzen dena, ezaugarri gisa erabiltzen dena.

Auzapezaren ordezeko, hautetsi abertzale batek egin du ezkontza hori, baina frantses banderaren hiru koloretako **xarpa** ez du jauntzi eta jaun esposaren familiak arrunt gaizki hartu du hori. Herria

Auzapezak jakin-arazi du legearen aldetik ezkontza egiten duen hautetsia ez dela batere bortxatua **xarparen** ezartzerat bainan **xarparen** ezartzeko usaia badela haatik aspaldian eta aspaldian. Herria

Xarparen jauntzea ez dela legez batere bortxuzkoa ezkontza bali izaiteko. Herria

xarpa³ *1 iz adkor* atzaparra.

Bere **xarparekin** hartu egin zuen billete hura eta airera bidali zuen eta berak pagatuko zuela. Pablo Sastre

xarpail *izond adkor* zarpaila.

Noski, ez da hodeia artean ere, ez eta gutxiagorik ere; laino matazatxo merke desguaze modukoa, lainokume ttiki **xarpail** tximatsua. Pello Zabala

xarpot ik **xarbot**.

xarranpin ik **txarranpin**.

xarrastada *iz jasa txikia*. ik **txarrastada**.

Oraingoan, argi ikusten da, kopuru handiak ez izan arren, kostan, eta Gipuzkoa aldeko txoko golokotsu horretan jausten dela, isuri normalean, lainateria eta euri **xarrastada**. Pello Zabala

xarta *iz ipar* agiria. ik **karta 9**.

Pariseri buruz Euskararen ofizialtasuna lortzeko eta mintzaira guttitiuen aldeko Europako **xarta** sinatzeko urratsak aspaldi eginak dira. Herria

Horretarako, lanbide mailan iharduereen kalitatezko **xarta** osatu nahi du Frantziako Gobernuak. Berria - Euskal Herria

Gutiz gehienek begi onez ikusten badituzte ere **xarta** horren printzipioak, gertatu da sektore batek edo besteak, arrazoi desberdinengatik ez dutela **xarta** hori bere osotasunean izenpetu nahi izan, edota ez dutela interes berezirik ikusi aliantzak egiteko. Berria - Euskal Herria

Horra nun beraz ingurumenaren aldeko **xarta** bat beharra duten finkatu. Herria

Abertzaleen Batasunak definitzen du oinarritzko testu bat, **xarta** bat bilakatuko dena: Abertzaleen Batasuna, egiazko plataforma bat bilakatzen ari da. Herria

xartaña *iz ipar*

Jangoenean aldiz da erakutsia Josette Dacostak margotu **xartañaren** irudi hirigarria. Herria

xartatu, xarta(tu), xartatzen du *ad* txertatu.

Makina ustekabeen deskonektatuz gero gerta zitekeenaren deskripzio kasik danteskoak eskaintzen zituen -arduragabearen heriotza latza bat-batean berragertutako hormaren barruan, gorputz-adarrak han-hemenka **xartatuta** ...-; gero, halakorik sekula gertatu ez dela gehitzen bazuen ere. Iban Zaldua

Egun batean, eskolako frontoian palaz jokatzeko ari ginela, Inaxioren pilota horma gaineko sarean geratu zen **xartaturik**. Iban Zaldua

xartel ik **txartel**.

xartela ik **txartel**.

xarter *iz* hegaldiez mintzatuz, erregularra ez dena eta konpainia pribatu batek kudeatzen duena.

Japonesak hasten balin badira, **xarter** beteka jinen zaizkigu! Herria

xasis *iz* euskarria.

Eguzkirantz jiratu etxetxo, eta aurrez aurre esertzen zen; gero bere azeri-isatsak ekarrarazten zituen, aurkitzen zituzten euli eta erle guztiak esetsi eta sarraskitzeko; jarraian **xasisak** ixten zituen. Juan Garzia

xastar ik **xaxtar**.

xasur iz soldadu mota.

Chasseurs delakoak, "**xasurrak**", borrokalarri ausartak ziren, diziplina gutxikoak baina. Martin Anso

Joan dira biak eta **xasurrak** kasernan aurkitu dituzte, kantari ari direla aurkitu ere: [...]. Martin Anso

Harispe mariskalaren **xasurrak**. Martin Anso

Irakurleak dagoeneko igarriko zion, baina Enperadoreak ez zekien **xasur** haiek euskaldun elebakarrak zirenik. Martin Anso

xatar¹ *iz ipar* haur oihala.

Eta hau izanen duzue seinale: haur bat aurkituko duzue **xatarrez** troxatua, eta otalako batean etzana. Haurrarekiko afektibotasuna nola landu, **xatarren** aldaketa, negarra, osasuna, janaria, jokoak edo jantzien inguruan komunikazioa lantzen dute, 200 orduko modulutan. Herria

Ere malkoak lerratzen zitzaizkion, **xatarrez** eta buruxkandoz tinkatu eta gaixotasunak ahuldu mutikoa besoetan gauak gauari zihoaneko irudiak berrituratzen zituenean.

Itxaro Borda

2 irud/hed

Ene hizkuntza bakar et sakratua zen orduan erdara eta latinak baino are gehiagoko xarma zeukaten **xatarretan** garatzen ari ziren hitz berriek. Piarres Aintziart

xatar² *izond adkor* zatarra, itsusia.

Edo **xatarrak** gara edo, bestela, ederregiak. Iñaki Segurola

XAUSUN ik **xauxun**.

xauxix *iz ipar* saltxitxa.

Eguerdiko oren batetik goiti bazkaria: **xauxix** piperada, zikiroa, entsalada, gasna, bixkotx kafe eta ondoko. Herria

Salda, piperrada **xauxixekin**, ahate ixterra ilar biribilarekin, gasna, bixkotxa, horma, kafea ondokoarekin eta arnoa nasaiki. Herria

Oren bata inguruan bazkaria nahi duten guzientzat 17 eurotan: piperada **xauxixekin**, zikiroa, gasna, bixkotxa, kafea eta denen pusatzeko behar diren edari guziak. Herria

xauxun (*orobat xausun*) *izond ipar* txikikeria eta nardagarrikerietan aritzen dena.

Holakoa zen gure "arbasoa", munduko gizonik hoberena, ez batere **xauxuna**, gatz eta biper birbirita bat ere ez batere hastiro, bere kasetako saltsa edo errakian. Herria

Ez baitzen batere gizon hertsia, murriz eta **xauxun** hetarik idaien eta hitzen apaintzale xorrotx eta xuxen hori: bai haatik berak hain maite zituen mundutiar ainitz bezain

hedatua eta zabala. Ikusten dituzularik, hautagai agertzen direlarik-edo... batzuetan biziki **xausunak** dira eta, dena jestu eta hau eta hura. Herria

xaxa¹ *iz* xaxatzea.

Guk zirrikatu egiten genuen hitz egin zezan, algara handiak egiten genituen haren hanka-sartze ugarien **xaxan**. Anjel Lertxundi

2 (interjekzio gisa)

- **Xaxa**, **xaxa** nagusiari -egin zion oihu. Josu Zabaleta

3 **xaxa** *egin* xaxatu.

Bion arteko liskarrak gero eta ugariago, gaina hartzen hasi nintzaion aitari: istilu bat lehertzeko zorian, amak pazientzia eskatzen zion aitari, aita amarekin haserretzen zen, eta elkarri **xaxa** eginez jardun ondoren, ama sukaldaria erretiratzeko dena negarrez hasteko puntuak, eta aitak egunkariaren atzean ezkutatzeko frustrazioa. Anjel Lertxundi

xaxa² *iz ipar* tantoa.

Geroago, Iparraldean, "tanto" edo "kintze" hitzaren orde, erraiten zakoten **xaxa**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pilota partida bukatzerakoan, azken kintzea edo **xaxa** egin eta, [...]. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

xaxaka *adlag* xaxatzen, zirikatzen.

Jendea boxeolari **xaxaka**, oihuka, txakur amorratu eta odolgozetuen arteko borroketan bezala, aurkaria akabatzeke eske. Paddy Rekalde

Eskola osoa haien inguruan bilduta dago orain, borroka ikusten, batari eta besteari **xaxaka**. Mirentxu Larrañaga

Gudu-lerrora itzultzen ginen bakoitzean, Hanley **xaxaka** izaten genuen orpoz orpo, eta haren ahotsa zaunka basati bilakatu zitzaigun buruan. Mirentxu Larrañaga

Gizon haiek **xaxaka** hasi zitzaizkion. Juan Kruz Igerabide

Arbel-mendiaren beheko aldean geratu da bera, eta jaistea baino zailago iruditzen zaio orain igotzea, atzetik **xaxaka** zituen arerioak desagertu eta gero. Xabier

Mendiguren Elizegi

Txarrerako sena, geure barruan **xaxaka** ari zaigun tentazioa. Xabier Kintana

xaxarazi, xaxaraz, xaxarazten du *ad* xaxatzera behartu.

Xaxarazteko anfetaminak ematen dizkiete. Gotzon Garate

xaxari *iz ipar* pilota-partidetan tantoak kontatzen dituen pertsona.

Hemen da hasia 15-30-40 kondatzeko ohitura edo usaia; jokoka kondatze hori Hegoaldetik heldu zaigu; aldiz Iparralden kintzea edo tantoaren izena "xaxa" zegoen: horretatik **xaxariaren** izena; lehen hemengo herri hauetan **xaxaria** zen juje eta kondatzailea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gaszte horiek bazuten beren partidetan puntu kondatzaile edo **xaxaria**, bazterrak atzartzen zituena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Berdintzen zirelarik bi pilotari andanak, nola baitziren sos jokatzailleak, oihu egiten zuen **xaxariak** jendea beroarazteko jokatzeari buruz: "Kintzez berdin! Trebesa libro!"

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

xaxati

Antropologoek mila gai lituzkete **xaxati**... **Andoni Egaña**

xaxatu, xaxa(tu), xaxatzen 1 du ad zirikatu. (pertsanak)

Lagunek **xaxatu** egiten zuten: "Hi ez haiz arabiarra...". **Pablo Sastre**

Ezetz ausartu, **xaxatu** zuen batek. **Mikel Hernandez Abaitua**

Publikoak ere ez zuen Zarandona asko **xaxatzen** eta bere onenak eman barik ari zen nabarmen. **Josu Landa**

Beren burua aristokratatzen zuten karlistak, Katxo hura babesten hasi ziren, zirikatzen eta Martinen kontra **xaxatzen**. **Koro Navarro**

Baina gauza bat da hori eta bestea, egin zuten bezala, Mendiondo laguna nire kontra **xaxatzea**. **Hasier Etxeberria**

Zure aurka **xaxatuko** dute jendetza: harrika emango dizute, ezpataz zeharkatuko. **Elizen arteko biblia**

III. Errepublikak bere prefetak **xaxatu** zituen apezak mehatxatzen Flandrian eta Britainian. **Piarres Xarriton**

Apezkeriak eta zenbait jauskilek erreformatuen kontra **xaxatua** zuten herriko jendaila, Maitia delako oskigilea buru zutela. **Aingeru Epaltza**

Funtzionarioak presoak **xaxatzen** aritu ziren guri egurra emateko. **Berria - Euskal Herria**

Herriarren altxamendu espontaneoak, elizak eta nobleziak **xaxatu** eta antolatua izan dela. **Joxe Azurmendi**

Beti mairuek **xaxaturik**, ezin izan dugu inoiz altxorrik metatu, altxorrik metatuz gero, maiz, ezin daitekeelako segurtasunez bizi. **Jon Alonso**

Biko horren ostean, Armstrong **xaxa** dezaketenen zerrenda luzea da. **Berria - Kirola**

2 (bestelakoak)

Erreka zulara joan ginen Jack eta biok, korrika, oihuka, gure makila mehekin sasiak ebakiz, dantzari, zakurrak **xaxatuz**. **Koro Navarro**

Erromesaren kontra **xaxatu** ditu zakurrak, jolas anker moduan. **Martin Anso**

Iragan ditugu karrika eta zubia, eta errege bidea hartu dugu gau beltzean, hiru gizonen sutu, **xaxatu**, kitzikatu, zigortu, akuilatu, onetik ateratako zortzi mandoren lauhazka suharrean. **Koldo Izagirre**

Bazirudien sugea **xaxatzen**-edo ari zinela. **Iñaki Mendiguren**

Aitak etorkizunari begira jartzeko, oroitzapenei ez **xaxatzeko**, "hartaz guztiaz" hitz gehiagorik ez egiteko agintzen zion amari. **Joxan Elozegi**

Komunikabideek, ohi bezala, polemika **xaxatu** egin zuten [...] baina laster baretu zen kontua. **Iban Zaldúa**

Gau iluna da, eta haizeak ametsak **xaxatzen** ditu teilatutik behera. **Alberto Barandiaren**

Gorputza lan astunekin zailtzen duenean, geldituta geratzen zaio **xaxatzen** duen irudimena. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

3 (era burutua izenondo gisa)

lax hil zen, Florencio yogia iaz hil zen, zerri **xaxatu** batek horzka egin zion jugularrean, eta zerri bat bezala odolustu zen. **Karlos Linazasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kontra xaxatu (3)

kontra xaxatzen (3); **xaxatzen saiatu zen** (3); **xaxatzen saiatuko** (3)

xaxatzaile izond/iz xaxatzen duena.

32 urteko gorlitzarra Basaurin atxilotu zuten, ustezko hilketa saioaren **xaxatzaile** izatea egotzita. **Berria - Euskal Herria**

Elkarlanean aritzeaz gain, bera izan dut lehen irakurle, kritikari, **xaxatzaile**. **Jokin Urain**

Niri izugarriko amorrua pizten zitzaidan orduan faxisten kontra, haiek izan baitziren gerra haren **xaxatzaile** eta azkenean irabazle. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eta moralistak ere hortxe, gehientsuenak behintzat zuhurgabeziaren **xaxatzaile**. **Joxe Austin Arrieta**

xaxki iz adkor saskia.

Hainbat **xaxki** otartxo eta banaxta ttiki osatzeko. **Pello Zabala**

xaxpikitu, xaxpiki(tu), xaxpikatzen du ad adkor zaxpiki bihurtu.

Galdu-usteak edo, hobeki esanda, galminak bizimindu egiten gaitu, eta bizi arazten, urduritzen, tirtiritzen, **xaxpikitzen**, ezinegon gozo batez janzen, aseterik izan ez dezakeen gose-egarri batekin adiskidetzen. **Iñaki Segurola**

xaxtar (orobat xaxtar g.er.) 1 izond adkor zaxtarra.

Beste aldeko aitona, Patxi Elizegi -baserri **xaxtarra** eta mantentzeko bederatzita alaba-, arbel meatzean aritu zen lanean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lana bukatu eta txabola **xaxtar** batean bilduko dira amarekin. **Gotzon Garate**

Mendiko ostatu **xaxtar** eta narratsa oroitzen nuen nik: eulientzako zintak sabaian, mahai zaharren hankak kolokan, mostradore altua, eta haren atzean neskazahar erdi herren begi-okar bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Adreiluzko bi espaloi ikaragarri garairen artean sakon zihoan kalezulo **xaxtar** batean sartu ginen. **Juan Garzia**

la ustekabearen, ubide eta aintziretan zehar Arkangelsketik San Petersburgora zihoan ontzi **xaxtar** batean tsarren udako hiriburua distiratsua hartara bidaiatzeko aukera izan zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Eguberri batean, bere San Damiango ohe **xaxtar** hartatik, [...]. **Pello Zabala**

Txistor **xaxtar** hari esker errazago sartuko zen ardo garratza, kontua edatea baitzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bazkaria ez zen bazkari, eta ez izateagatik, kanpaia ere ez zen kanpai, txapak txaparen kontra jotzean ateratzen zuen metal **xaxtar** baten hots lehorra besterik ez. **Harkaitz Cano**

Ohartu nintzen kanpai ez zen kanpai haren zintzarri hots **xaxtar** hark bazuela zerbait berezia, ez zela ohiko hots **xaxtarra**. **Harkaitz Cano**

Zahar ugari, itxura **xaxtarreko** jendea, arropa zarpailez jantziak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Nire jokamoldeen zakarra, nire arropen **xaxtarra**... **Xabier Mendiguren Elizegi**

xedapen 1 iz agindu edo lege bateko puntuetako bakoitza.

Usadio hori, lege erromatarren **xedapenaren** kontrakoa, eliz auzitegieta sartua zen, non ez baitziren ikusten zuzenbide kanonikoko arauak baizik. **Iñaki Iñurrieta**

Lege honen **xedapenak** eta arauak betetzen saiatuz. **Elizen arteko biblia**

Lege argia bete beharrekoa da; ilunak, berriz, berorren **xedapenetan** sakontzea eskatzen du. **Andres Urrutia**

Bete arretaz Jaunak zeuen Jainkoak ematen dizkizuen agindu, lege eta **xedapenak**. **Elizen arteko biblia**

Xedapen zuzenak ezarri dituzu. **Elizen arteko biblia**

GATT hitzarmenak ezartzen zituen **xedapenak** zabalitzen ditu. **Iñaki Heras**

Eraikuntzako langileek 1999ko hitzarmen kolektiboan jaso ziren **xedapenak** indarrean izatea eskatu zuten ELAk, LABek eta UGTk. **Berria - Ekonomia**

Espainiako Aurrekontuen Legearen **xedapen** batean jasotzen denez, [...]. **Berria - Harian**

Araubide horietako **xedapen** batzuk arrotz egiten zaizkigu. **Andres Urrutia**

Lonbardiarren legeari erantsitako **xedapenetan**, lege zibilek hamarrenak biltzea onartzeko zuten zailtasuna ikus daiteke. **Iñaki Iñurrieta**

Kultuari buruzko **xedapenak**. **Elizen arteko biblia**

Bahituraz **xedapen** gehiago. **Elizen arteko biblia**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez dagoela zuzenbide zibileko **xedapen** orokorreari jarraitu beharrik. **Iñaki Iñurrieta**

Agintariak **xedapen** zorrotzak eman behar izan zituzten aurki. **Juan Garzia**

Txindasvinto eta Rezesvintoren legeek juduen kontrako **xedapen** beldurgarriak zituzten; baina judu haiek indartsuak ziren hegoaldeko Galian. **Iñaki Iñurrieta**

Horra zure aitoren testamentuko **xedapen** zuhurra, Cecily. **Antton Olano**

Hala non ezkontza-kontratuak **xedapen** feudal eta **xedapen** zibil bilakatu baitziren nobleentzat. **Iñaki Iñurrieta**

Testamentua egiteko baimen mugagabeak [...] hondatu egin zuen pixkanaka lurren banaketari buruzko **xedapen** politikoa. **Iñaki Iñurrieta**

Arestian jasotzako atal guzti horietaz gain, lege proposamenak hamaika **xedapen** gehigarri, aldi baterako hiru **xedapen**, behin behineko bost **xedapen** eta **xedapen** indargabetzaile bat jasotzen ditu. **Berria - Harian**

Espainiako Kongresuan Kataluniako estatutu berriaren testua eztabaidatzen dabilta, eta atzo bost **xedapen** gehigarri kentzearen alde bozkatu zuten. **Berria - Mundua**

Aldi baterako laugarren **xedapena**. **Berria - Euskal Herria**

Kasu horretan, zeharkako **xedapen** bat legegilearen asmo onaren froga hobea da gauzari zuzenean helduko liokeena baino. **Iñaki Iñurrieta**

3 (hitz elkartuetan)

Alde bat utzi ditugu, esate baterako, genealogia astunak, lege bilduma luzeak eta kultu **xedapen** nekagarriak. **Jose Antonio Mujika**

4 xedapen iragankor iraupen mugatua duen xedapena.

Errege dekretuaren hirugarren xedapen **iragankorrean**, etorkinen ezohiko «normalizazio» prozesu bat arautu zuen, etzi hasi eta maiatzaren 6an amaituko dena. **Berria - Harian**

Espainiako Gobernuak Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen zortzi artikuluren eta bi xedapen **iragankorren** kontrako helegitea jarri du. **Berria - Euskal Herria**

Xedapen **iragankorra** ordezkaturako duen edozein formulak nafar guztien eskubide demokratikoak bermatu behar ditu. **Berria - Euskal Herria**

Xedapen **iragankorra** ez du baliogabetu nahi Espainiako Gobernuako presidente Jose Luis Rodriguez Zapaterok. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bigarren xedapen gehigarria (3); **konstituzioaren laugarren xedapen** (10); **laugarren xedapen iragankorra** (16); **laugarren xedapen iragankorren** (3); **lege honen xedapen** (5); **legearen xedapen** (3); **xedapen gehigarri** (6); **xedapen gehigarria** (7); **xedapen gehigarriak** (3); **xedapen iragankor** (3); **xedapen iragankorra** (50); **xedapen iragankorra ezabatzeko** (6); **xedapen iragankorra kentzearen** (6); **xedapen iragankorra kentzeko** (10); **xedapen iragankorren** (9); **xedapen iragankorren ezabaketa** (3); **xedapen iragankorri** (3)

xedapena ezabatzearen alde (3); **xedapena kentzea** (3); **xedapena kentzearen aurka** (4); **xedapena kentzeko** (9)

itunaren xedapenak (4); **lege eta xedapenak** (3); **zure xedapenak** (12)

xedarri ik zedarri.

xedatu, xede(tu), xedetzen (orobat xedetu g.er.) 1 du ad horretarako esku duenak zerbait egin behar den ala ez, edo nola egin behar den adierazi.

Legeak [...] agindu, **xedatu**, ezarri, zigortu edo saritu egiten du. **Andres Urrutia**

Hori guztia Jaun ahalguztidunak **xedatua** da: haren egitasmoak harrigarriak dira eta arrakasta handikoak. **Elizen arteko biblia**

Ez al nituen nik eguna eta gaua ezarri eta zeru-lurren legeak **xedatu**? **Elizen arteko biblia**

Legean **xedatutako** neurriak «gomendiozkoak» direla diote, «eta ez agintezkoak». **Berria - Euskal Herria**

Eusko Legebiltzarreko legeetan **xedatutakoa** aplikatzea. **Berria - Euskal Herria**

Legeak **xedatzen** duena debekatzen du hizkuntzak, edo ñabarduraz janzen, bihurritzen. **Joxan Elozegi**

Testamentuaren bitartez, desio zahar bat, hil aurretik **xedatua**, ezagutaraziko zidaten guraso hilek. **Joxan Elozegi**

1888ko uztailaren 13ko legean **xedatutakoarekin** bat etorritz. **Lopez de Arana**

Legeek **xedatzen** dutenez, esaten diegu ikasleei, giza duintasunaren aurkakoa litzateke berez berritzen ez diren gorputz atalekin negoziarioa egitea. **Berria - Gaiak**

Iraken etorkizuna **xedatuko** duen ebazpena Segurtasun Kontseiluak gaur bozkatzera espero du Washingtonen. **Berria - Mundua**

Erroma bera ere, handia izateko jaioa eta zelanbait esateko, betiereko hiria izateko **xedatua**, ez al zen berehalakoan konturatu lege horien askiezzaz? **Andres Urrutia**

Azken mota horretakoak lege zibilari erantsi zitzaizkion, hau da, nazio bakoitzaren lege pertsonalei: horrexegatik esaten da kapitularretan ez dagoela ezer **xedaturik** erromatar legearen kontra. **Iñaki Iñurrieta**

Finean, den-dena nik atondu eta **xedatu** bezala. **Aingeru Epaltza**

Rubertek oso argi dio euskaldunoi eta katalanei bakarrik dagokigula geure etorkizuna **xedatzea**. **Markos Zapiain**

Esakerak dioen bezala, gizonak asma, Jainkoak **xeda**. **Koro Navarro**

2 mugatu; izendatu, bereizi.

Begien aurrean gauzak gauzen mugatzaile dirudite; aireak mendiak **xedatzen** ditu eta mendiek airea; lehorrak itsasoa eta itsasoak, berriz, lehor oro bereizten du; orotasunaz harago, ostera, ez dago mugarik jar dezakeen ezer. **Xabier Amuriza**

3 (era burutua izenondo gisa)

Erregeri ez zion eskuak dardararik eragin zigor **xedatua** agintzeko orduan: burua, Erreinuako ongileentzat; gorputza, basapiztientzat. **Karlos Linazasoro**

xede 1 iz lebelua.

Ezinbesteko du geziak **xedea**, baina hari buruz doala da gezia geziaren. **Joxerra Garzia**

Atal honen **xedea** Hizkuntzaren Filosofian sortu diren arazo nagusiez eta joera desberdinez sarreratxo bat egitea da. **Askoren artean**

Xedea hau da: gizakiok mintzairaren ahalmena erabiltzeko modua ulertaraziko digun sistematika bilatzea, eta hori dela eta "ordena natural bat" ezartzea estudio horretan. **Isabel Arrigain**

NBERen Milurtearen Egitasmoko **xedeetako** bat da edateko ur egokia ez duen jendearen kopurua 2015. urterako erdira jaistea. **Berria - Gaiak**

Silogismoen **xedea** argudiatzea da. **Askoren artean**

Ikusi dugu zer **xede** zuen Mina-k: zenbait egunen pausa bere gizonentzat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Bi eskuez ipurmamiak bereizi nizkion eta hantxe ikusi nuen une hartako ene irrikaren helburu eta **xede** gorriska: Imanolen uzkia. **Aitor Arana**

Anny eta biok begirada samurren **xede** sentitzen ginen. **Monika Etxebarria**

Animalia/gizaki gizajo hark bere burua bihurtu zuen bere aginduen **xede**. **Markos Zapiain**

Auskalo bere **xede** hura bete izango ez ote zuen, baldin eta bere bidean beste irakasle hura tartekatu izan ez balitzaio. **Joan Mari Irigoien**

Behin **xedea** zehaztuz gero -enbrioiaren garapena-, hilabete batzuetan lortu zuten bilatzen zutena biltzea. **Juan Garzia**

Askapen-borrorak, hari esker, iritsi zuen bere **xedea**. **Elizen arteko biblia**

ETAren armada zibilak **xede** hori legalki erdiets ezina zela ikusi zuena? **Itxaro Borda**

Berez ez duen **xedea** ezartzen zaio bat-bateko bertsoari, bertsolariaren asmoa ez baita maila estetiko-literario handiko testuak sortzea. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Beren **xedeak** betetzeko zernahi bidegabekeria egiteko prest baitaude haiek. **Juan Garzia**

Bainan **xede** hori etzen gauzatu. **Herria**

Legatzeko gaitasuna mugatzen zuen lege horren kapituluak **xede** horri ekiten zion: izan ere, nahi bezala legatu ahal izan balitz, emakumeek legatu gisa hartu ahalko zuten jarauntsi gisa jaso ezin zutena. **Iñaki Iñurrieta**

Begiak hartan erre beharrean eman nion segida, **xede** oraindik jakin gabeko bidaiari. **Aingeru Epaltza**

Ordutik hona, hiru eskakizun oinarritzko izan dira beren ekintzen **xede**: Euskal Departamendua [...] euskara eta euskal presoen eskubideak. **Txema Ramirez de la Piscina**

Aholkua, hartzen duenaren **xedera** ordenaturik dago; legea, berriz, agintzen duenaren **xedera**. **Esteban Antxustegi**

Gizon karan hark ez zuen zertan beste **xederik** izan. **Patxi Zubizarreta**

Hura zen aurreneko gure **xedea**, bertan baitzegoen Babeserako Batzarraren egoitza nagusia. **Inazio Mujika Iraola**

Ziburun ere, agiantza-bilkuran, **xede** eta proiektu ainitz aipatu da. **Herria**

Lerroon **xedea** Alderriaren Gidariaren irakurlea irakurketan gidatzea da. **Xabier Kintana**

Badirudi akusatuen galbidea bilatzeko **xedez** bideratu direla araudi kriminalak. **Juan Martin Elexpuru**

Jatorriz, gogoz eta **xedez** nor bere ukuilukoak izan ginen beti. **Aingeru Epaltza**

Xedea oso urruti dago oraindik. **Berria - Gaiak**

Hala bada nik ere orain **xedera**, bizitzearen bazterrera eta adinaren finera hurbildu naizenean, ez dut gelditu behar. **Anjel Lertxundi**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Xede jakinik gabe, Boston edo Baltimoren edo beste hiri txiki edo herri batzuetara joaten zen autoz. **Xabier Olarra**

Baldin eskarmentua bazen autofede haien **xede** nagusia, zalantzarik ez dut ezen Urbiaingoak ere osoki eta konplutiki egin zuela bere **xede** hartarako bidea. **Joan Mari Irigoien**

Guztien ongia ezarri zuten jokabidearen **xede** nagusizat norberaren onaren gainetik, hala mundu honetan nola etorkizunekoan. **Iñaki Mendiguren**

Xede eder hori ez zen, egia erran, bururatu ahal izan. **Piarres Xarriton**

Argitu gabe utzi zuen bere esaldiaren **xede** ezkutua. **Anjel Lertxundi**

Xede garbiak nituen. **Aingeru Epaltza**

Xede argi bat izateak dakarren segurtasunaz sartu nintzen barne patioan. **Aingeru Epaltza**

Arimaren jardunaren **xede** bakarra den Jaungoikoari buruz. **Imanol Unzurrunzaga**

Egia aurkitzea du **xede** bakarra Filosofiak. **Xabier Olarra**

Don Kijotek, beti **xede** beraren atzetik jardun arren, ez zeukala aurretik erabakitako ibilbiderik. **Patxi Ezkiaga**

Gizatasunaren **xede** garaienak lortzeko adorea emango diguten bizimoduak bultzatzearen. **Iñaki Heras**

Ikerketa kontzertatu bat, **xede** zehatzak dituen eta sozialki oso antolatutako jardura bat eskatzen duena. **Juan Garzia**

Ederki jantzitako burua, **xede** beltz baten menpe. **Alberto Ladron Arana**

Mahomaren karikaturrek sortutako krisia konpontzea dute **xede** parte-hartzaileek. **Berria - Mundua**

Egiaren bila dabilen teologoak erdiets lezakeen **xede** helgarria. **Xabier Kintana**

Agian artistak ez zuen erabili horrelako **xede** alferrikakorik bere buruan. **Hasier Etxebarria**

Zure piezarik hobereenak hiltzera bidali, gorengo **xede** bat iristeko. **Alberto Ladron Arana**

Beraz, Jainkoa (gorets bedi!) gauza guztien "azken **xedea**" da. **Xabier Kintana**

Lehen **xede** berak bultzatuko dituela iragarri du PSOE alderdi sozialistak, betiere Habanari aurka egin gabe. **Berria - Mundua**

Kontsumoa bilakatu dela askorentzat benetako **xede**, ez beharrak asetzeko bide, baina ustezko zorientasuna edo fantasia ustelaren helburu. **Iñaki Heras**

3 (hitz elkartutetan lehen osagai gisa)

Mirande-ren egitasmoa (programa geia, **xede** bildūma) etxera ūken dūgū kantonamentūko botzemaileek. **Herria**

3a (hitz elkartutetan lehen osagai gisa, testuinguru teknikoetan)

Beren **xede**-geneen jarduna modulatzu egiten dute lan homeogeneek; **xede**-geneek determinatzen dute hazkuntza-eragileen eta haien hartzaileen ekoizpena, eta, beren adierazpenez, zelulen ugalketa eta eragin-trukea arautzen. **Juan Garzia**

Sasi-itzulpen hauek euskara dute sorburu- edo **xede**-hizkuntza, eta beste edozein erdara egon daiteke tartean. **Iñaki Arranz**

Ikusita nago euskarazko testu batzuetan "estaldura" esaten zaiola koberturari, eta "joaldi" **xede** taldeko norbait iragarkiz kolpatzeari. **Joxerra Garzia**

Ez abialekua ez **xede**-lekua ditu besteak gogoko. **Joxerra Garzia**

4 (hitz elkartutetan bigarren osagai gisa)

Maiz asko, ordea, politika- eta gizarte-**xedeak** lortzeko baliatzen da nahasbide hori. **Juan Garzia**

Gero Mendebalde modernoko gizartearen dendariak egokitu zuten salmenta-**xedeekin**. **Iñaki Mendiguren**

Jakintsu usteko edozein ergelen maiseaketa-**xedea** izateko arriskurik gabe. **Xabier Kintana**

Azoretan ikusi dira elgarretaritzen gerlaz baizik ez dela Saddam Hussein ixil-arazten ahal diotenak: Bush, Blair eta Aznar, hiruak ere beren herritarrei gerla-**xede** horiek ezin sinets-araziz ari. **Herria**

Beste batengandik mesede bat jaso duena edo beste edozein modutara karitate-**xede** dena. **Xabier Olarra**

Urtarrilaren 27an irati **xede** osoa aurkeztuko dugu zehatz-mehatz Bilbon eta 30ean hasiko da emisio arrunta. **Berria - Euskal Herria**

John D. Rockefeller (1839-1937), petrolioaren magnatea, AB-ren satiraren tiro-**xede** izan zen. **Xabier Olarra**

Izan ere, bere barne argiaz asmatu du gizon zintzoak harentzako salta bat, onkailu gozo-gozo askoren konspirazio **xede** dena. **Xabier Olarra**

Abian da Errobi-Urdazuri garapen **xede** parte-hartzailea. **Berria - Euskal Herria**

5 asmoa, egitasmoa.

Pio V.ak bazuen **xedea** bi kardinale frantses eta bi kardinale espainol izendatzeko. **Piarres Xarriton**
Sutsuki Bushen aldekoa baitzen eta Bush leinukoek obratzen zutena errotik begiko zuen, izan Irakeko gerla edo abortuaren legearen ezabatze **xedea** . **Itxaro Borda**

Xede onak ditu gobernua. **Herria**

Xede onak, biziki **xede** onak, agertu dituzte batzuek eta bestek. **Herria**

Sekulako indarra egin beharko zuten oraino biek ama-semeen arteko harreman normaletara iritsi arte, baina bera **xede** horretan zegoen, eta semea ere, dudarik ez. Zein ziurrago ez da helburua bilatzea eliza legeen bide handitik, ezen ez asmakeria berrien xendra bide berrietarik, hauek **xede** onez asmatu ere. **Elena Touyarou**

Ekontza ona dela, **xede** onez egin deno, gaitza, berriz, **xede** gaiztoz egin-eta gero. **Piarres Xarriton**

Edozein arimari [...] bere **xede** pertsonal hutsalak gainditzen zituen helburu bat eskainiz. **Iñaki Mendiguren**

Egia esan, Lugdunum berariaz sortarazi zen **xede** inperial garrantzitsuen zerbitzurako. **Iñaki Mendiguren**

Aitortu nion rugbya uzteko **xedea** hartua nuela. **Daniel Landart**

Berehala **xede** bat hartu nuen; egin nuen sudurra odoletan nuelako iduria, eta jalgi nintzen. **Jon Muñoz**

Era horretan gizabanakoa, beste kasu askotan bezala, esku ikusezin batek gidatzen du bere gogokoa ez zen **xede** bat sustatzera. **Iñaki Heras**

6 *xede izan* da *ad* helburu izan.

Gaiztakeriaren, bekaizkeriaren eta irainaren gezien **xede** izateko leku egokian jarria. **Xabier Olarra**

Ikusten ditut, irribarre eginen nieke ausartuko banintz, sozialista naizela pentsatzen dut, nire bizitzaren, nire ahaleginen **xede** direla denak eta ez dakitela oraindik hala denik.

Monika Etxebarria

Historia izen handikoez idazten dute, baina egin, inoiz egunkariaren eta historialarien **xede** izaten ez diren horiek egiten dute. **Fernando Rey**

Gaizki gaudenean gure esperantzen eta ongi gaudenean gure amorrazioaren **xede** den pertsona. **Xabier Olarra**

Era guztietako irain, gezur eta erasoren **xede** izaterainoko gorrotoa. **Monika Etxebarria**

7 (du aditz gisa)

Argia dut **xede**, gaua dut itsaso. **Joan Mari Irigoien**

Guk, berriz, ona ezinean, berria dugu **xede**. **Ramon Saizarbitoria**

Garbi zegoen, bestalde, gizonak Ana zuela **xede** eta helburu. **Aitor Arana**

Tristurak, ordea, tristaraztea du **xede**. **Joxerra Garzia**

Egiatzat hartzen duzu herrien gobernua **xede** duen giza legeak zilegi egiten dituela, eta zigor gabe uzten, jainkozko Probidentziak zigortzen dituen hainbat egintza. **Imanol Unzurrunzaga**

Noiz arte aplikatuko dute preso eta senideak hiltzea **xede** duen espetxe politika suntsitzailea? **Berria - Euskal Herria**

Bizikidetzaz hitz egiten du gizartea banatu eta liskarra proposatzen duenak eta elkarrizketaz hitz egin du bere borondatea gizarteari ezartzea **xede** duenak. **Berria - Euskal Herria**

8 (laguntzailerik gabe)

Gelaren erdian nengoen, begi serio horien guztien **xede**. **Monika Etxebarria**

Deputatu bat **xede**. **Berria - Euskal Herria**

Umea Maiatzaren Lehenean jaiotzea **xede**, zehatz-mehatz kalkulatu omen zuten noiz komeni zen zerako zera zertzea. **Joxerra Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ber xede (20); **beren xede** (7); **beste xede bat** (4); **bultzatzea du xede** (6); **du xede nagusia** (4); **egitea du xede** (4); **egitea xede** (4); **ekitaldi hunen xede** (4); **ematea du xede** (5); **gure xede** (8); **hartu xede** (6); **hartu xede onak** (4); **holako xede** (6); **irabaztea du xede** (6); **izango du xede** (11); **izango dute xede** (4); **plantatze xede** (4); **xede bakar** (10); **xede bakarra** (31); **xede bat** (31); **xede baten** (4); **xede batzu** (11); **xede bera** (5); **xede berak** (4); **xede berarekin** (4); **xede beretan** (4); **xede berri** (10); **xede berri bat** (4); **xede berria** (4); **xede berriak** (7); **xede duela** (4); **xede duen** (30); **xede duten** (7); **xede eder** (6); **xede frango** (4); **xede gisa** (4); **xede guztiak** (5); **xede helburuak** (4); **xede hori lortzeko** (5); **xede horretan** (9); **xede horretarako** (7); **xede hortarat** (6); **xede izan** (8); **xede jakin** (5); **xede nagusi** (16); **xede nagusia** (63); **xede nagusia da** (4); **xede nagusiak** (11); **xede nagusien** (4); **xede nagusietako** (4); **xede nagusietako bat** (4); **xede nagusitatz** (5); **xede on** (9); **xede ona** (5); **xede onak** (22); **xede onez** (5); **xede taldeak** (4); **xede zehatza** (4); **xede zuen** (14); **zen xede** (4); **zer xede** (6); **zuen xede** (21); **zuten xede** (14); **abiatzeko xedea** (4); **antolatzaileen xedea** (4); **antolatzeko xedea** (7); **ardura xedea** (9); **aspaldiko xedea** (5); **aurtengo xedea** (4); **azken xedea** (17); **bat egiteko xedea** (4); **baten egiteko xedea** (6); **baten xedea** (10); **benetako xedea** (4); **bere xedea** (40); **beren xedea** (9); **bileraren xedea** (12); **biltzeko xedea** (6); **da bere xedea** (5); **da gure xedea** (23); **da nire xedea** (5); **da xedea** (50); **den xedea** (6); **du xedea** (9); **duen xedea** (9); **egiteko xedea** (38); **elkartearen xedea** (5); **emaiteko xedea** (4); **emateko xedea** (4); **ene xedea** (12); **eraikitzeo xedea** (7); **erakundearen xedea** (7); **eramateko xedea** (4); **erasoen xedea** (4); **errepide xedea** (7); **euren xedea** (14); **forma eta xedea** (4); **gubernuaren xedea** (5); **gure xedea** (55); **gure xedea da** (6); **hartzeko xedea** (4); **hitzarmenaren xedea** (5); **hurrengo xedea** (4); **izateko xedea** (4); **jarraitzeko xedea** (6); **legearen xedea** (5); **lehen xedea** (14); **lortzea da xedea** (5); **neure xedea** (4); **nire xedea** (19); **osatzeko xedea** (8); **planaren xedea** (6); **programaren xedea** (5); **proposamenaren xedea** (4); **sartzeko xedea** (5); **segitzeko xedea** (5); **sortzeko xedea** (8); **sustatzeko xedea** (6); **xedea agertu** (5); **xedea argi** (4); **xedea argia** (4); **xedea aurkeztu** (6); **xedea azaldu** (6); **xedea baztertu** (4); **xedea bete** (8); **xedea betetzeko** (4); **xedea dauka** (5); **xedea daukate** (5); **xedea du** (53); **xedea duela** (11); **xedea dugu** (6); **xedea dute** (23); **xedea dutela** (4); **xedea gauzatu** (4); **xedea hartu** (9); **xedea hartua** (8); **xedea izan** (7); **xedea lortzeko** (7); **xedea salatzeo** (5); **xedea zein den** (5); **aurtengo xedeak** (4); **batzuen moldatzeko xedeak** (4); **bere xedeak** (12); **beren xedeak** (7); **dituen xedeak** (5); **gubernuaren xedeak** (10); **gure xedeak** (4); **moldatzeko xedeak** (4); **xedeak betetzeko** (4); **hastapeneko xedeak** (5); **egiteko xedearekin** (7); **emateko xedearekin** (5); **ezagutarazteko xedearekin** (4); **sustatzeko xedearekin** (6); **xedearekin bat** (4); **bere xedearen** (4); **beren xedearen** (4); **xedearen alde** (4); **xedearen aurka** (9); **xedearen aurkako** (10); **xedearen berri** (4); **xedearen kontra** (4); **beste xederik ez** (10); **beste xederik gabe** (4); **inongo xederik** (7); **xederik ez** (16); **xederik gabe** (21); **xederik gabeko** (6); **xederik izan** (6); **zer xedetan** (5); **xedetatz hartu** (4); **antolatzeo xedez** (4); **argitzeo xedez** (4); **aurkitzeo xedez** (5); **aurre egiteo xedez** (7); **bermatzeo xedez** (8); **egiteo xedez** (19); **emateko xedez** (11); **izateko xedez** (5); **konpontzeo xedez** (8); **laguntzeo xedez** (5); **lortzeo xedez** (7); **xedezko kausak** (4)

xedegabe *izond* xederik ez duena.

Bitartean, egunkariaren behaketa nire iritiz xehe bezain **xedegabean** ziharduen nire adiskideak. **Koro Navarro**

Antzezpena biz **xedera** baten antzeko: erregearen kontzientzia han dut nik atzemateko. **Juan Garzia**

Emakume batengana hurbiltzeko nire gaitasunik eza zigor-epai apelaezina zela, zeinak, heriotzaraino bizilagun, ondampur eta desira abstraktuz pozoituriko bizitza antzu eta **xedegabe** batera hertsatuko baininduen. **Juan Garzia**

xedeño *iz adkor* xedea.

Nola gauzatuko diren **xedeño** horiek, hori besterik da...! **Herria**

xedepeko *izlag* xedearen mendean dagoena.

Aurkezten zaion materia guztia, bere erakarmeneko **xedepekoa** izanez gero, biltzen du, materia hori zenbatekoaren eta nolakoaren aldetik neurri egokitik urruntzen bada ere.

Xabier Kintana

xedera 1 *iz* lakioa, segada.

Xedera jada kontrola ezin batean kartzelatua sentitzen zen. Itxaro Borda

Amaren bisitatzen izan ninduan eta han **xedera** abantzu hertsia. Itxaro Borda

Xedera hilgarriari kateztatu lehoiaren maneran nembilen. Itxaro Borda

Entzun dut heriotza baino garratzagoa dela lakioa bezalakoa den emakumea: horren bihotza **xedera**, horren besoak lotura. Elizen arteko biblia

Tradizio hutsaren **xederetan** harrapatua nintzen. Itxaro Borda

2 (hitz elkartean)

Baina emeki-emeki **xedera** mota baten hedatzen ari zen. Itxaro Borda

xedetu ik **xedatu**.

xefa 1 *iz* burua, buruzagia. ik **jefe**.

Karroaren bestealdetik beste zaintzale batek, iduriz ekipa horretako **xefak**, galdegiten dit ea ibiltokira aterako naizen goizean. Herria

Daniel Kenyon angles kaporal **xefak** ere lanak ditu bere buruzagiekin. Herria

Ene zaintzale troparen buruzagiak, **xefak**, biziki airosa iduri du. Filipe Bidart

Ondoan, klaska!, ene atean: karroa zaintzaleek inguraturik eta **xefa** urrunxago... Filipe Bidart

Perkain ohartzen da poliza **xefa** heldu zaiola xuxen xuxena berari buruz arrastatzera, keinu eginez poliza laguneri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 **xefa-orde**

Bagoiak geltokira jinak zirela, berria geltokiko **xefa-ordeak** hedatua zuela (apeza zen), eta prest egon behar genuela. Marzel Etxehandi

Bat garako **xefa-ordea** zen, beste bat erretegiko hilkien disekezatzaile. Marzel Etxehandi

xeha

1 **xeha-xeha egin** ik **xeh** 9.

xehadura *iz* xehetasuna.

Kontatuko genien hura zorrotz eta **xehaduraz**, nahi bazuten. Karlos Linazasoro

xehagarri *iz* xeha daitekeena.

Zer guztiok hilkorrak direnez gero, gai malguak bigun, hauskorrak **xehagarri** eta arolak gorputz xumeko baitira, denek lehenkietatik at behar dute. Xabier Amuriza

Monumentu diskurtsibo galanten zirrituan eurak oinarrituta dauden zoru **xehagarria** agerrarazten du. Xabier Arregi

xehakatu, xehaka, xehakatzen (*orobat xehekatu*) 1 du *ad* xehatu. ik **suntsitu**.

Orduan ikusi bainuen zezen basa batek bi edo hiru gizon bortizki **xehakatzen** zituela erabaki nuen sekula gehiago horrelako lasterketarik ikustera ez joatea. Piarres Xarriton

Orreagan arabeeek (euskaldunek, Artolaren ustez) Rolanden soldaduak **xehakatu** zituzten moldean **xehakatuko** zaitzute zuek ere. Xabier Montoia

Lau amerikano dituzte han hil eta trufa baino musika gehiago, itsuski **xehakatu** edo urkatu ezarri. Herria

Belaunak tiroz **xehakaturik** bururatu zuen hango egonaldia. Itxaro Borda

Ore hura genuen eskuz **xehakatzen**, purrukatzen, errausten, gazuraren mendetik askatzen. Itxaro Borda

Ardoa hurrupatuz, zintzurrean behera akuilatzen nituen zitzi puskak hortzekin **xehakaturik**. Itxaro Borda

Zernahi pairatzen dute jende gaixo horiek, bideak **xehakatuak** direlaketz airez bakarrik eskaintzen baitzaie laguntza: jatekoak, erremedioak, mantak hotzaren kontra.

Herria

Bitartean, agurea berbetan hasi zait, hitzak alerik ale **xehakaturik**, kafe errotatxo baten erara. Javi Cillero

Bizitzako liburu ankerraren orrialdeak haserrez **xehakaturik**. Itxaro Borda

2 (era burutua izenondo gisa)

Eraikuntzako materialak, zimentazioak, hormen eraikuntzak, aparailuak, gainestaldurak, etab. denak dira azalpen desberdin baina askotan oso **xehakatu** gai testuan zehar. Santiago Iruretagoiena

xehakatze *iz* xehatzea.

Sagarretik juserat, sei hilabete nunbeitan behar dira: biltze, lantegiratz, garbitze, bereizte, **xehakatze**, tinkatze, erakitze, botoilatze, jastatze... Herria

xehaketa (*corpusean xehaketa soilik*) *iz* xehatzea.

Hemen aise ohartzen da ekingiza honek jatorriz batua eta lotura orotarako balio berekoa izan behar duela, eta bere aurkakoa izatea dirudien **xehaketak**, analisiak, beti bera aurruposatzen duela. Ibon Uribarri

xehamamikatu, xehamamika, xehamamikatzen du *ad adkor* xehatu.

Hitzaldia egiten ari zela, emakume batek sabelari lotua zeukan bomba bat lehertarazi eta bera eta Rajiv Gandhi **xehamamikatuak** gelditu ziren. Gotzon Garate

xehapen iz xehatzea.

Izotzaren haustura luzeak eta txingorraren **xehapenak** goiko hodei handietan zarata ateratzen dute; hodei mendiak, gogortuak eta txingorrez nahastuak, haizeak gogor jotzean, meharguneetan apurtzen baitira. **Xabier Amuriza**

xehatasun ik xehetasun.

xehatu, xeha, xehatzen (287 agerraldi, 68 liburu eta 64 artikulutan; orobat xehetu 56 agerraldi, 25 liburu eta 8 artikulutan eta txehetu g.er.) 1 du ad puskaxehatan zatitu, desegin, birrindu. ik xehakatu; apurtu; porrokatu. (pertonak)

Zanpa ta zanpa, presoa lurrera erori eta ez zuen inporta, sahetsetan, sabelean, bizkarrean, alde guzitean ostikoka **xehatzen** zuten, gizagaizoa. **Eneko Bidegain**

Giltzapean sartzeak, ordea, ebain-ebain egitea, **xehatzea**, oinazaraztea esan nahi du. **Gotzon Garate**

Haserre gorrian ginen ehun bat jende, zahar, emazte, haur, aleman bonba batek **xehatuak** ikusi ginituelarik baserri baten samutsan. **Michel Oronoz**

Orain, beraz, zoaz, **xeha** itzazu amalektarrak eta suntsitu haien ondasun guztiak. **Elizen arteko biblia**

Xehatuko ditu Jaunak bere etsaiak, hauen gainera bidaliko ditu zerutik trumoiak. urdanga hau **xehatuko** bagenu ere, ez legoke horretan krimenaren itzalik. **Elizen arteko biblia**

Ostikoen ondotik, **xehaturik**, deabrua gostatzen zitzaion urratsari xuxen jarraitzea eta bere abantailetan zuen ez nahastea. **Eneko Bidegain**

2 (gauzak ez-abstraktuak)

Haiek egindako zekorra hartu, sutara bota eta errauts bihurtzeraino **xehatu** zuen. **Jose Antonio Mujika**

Soroetako zokilak **xehatzean**, belar mota guztiak eta aleak eta hostoak ikusi behar lirajteke. **Xabier Amuriza**

Uhaineak **xehatua** eta barreatua zuten petrolaki gune guziaz. **Herria**

Salbaikeria hasten da **xehatzen** dituztelarik eremaiten ahal ez dituzten gauzak, zizel-obrak, harri-lanak, pisuegiak direlaketoz. **Herria**

Estankoa erositako tabako espainola, kontrabandoan lortutako holandarra piparakoa, eta berak **xehatutako** beste bat ustez sendagaiak ziren belar izpiak ere tartean zituena. **Josu Landa**

Gizaseme guztiak ezpatatz hil ondoren, hiria **xehatu**, harrapakinak hartu eta gorpuen gainetik igaro zen hirian zehar. **Elizen arteko biblia**

Ederra zen lehen lekua baina Turkoek **xehatua** dute. **Aurelia Arkotxa**

Napoleon-en denboran, gerla izan baitzen gure eskualdean ere, zubia **xehatu** zuten bainan laster berriz eraiki. **Herria**

Hebron hiriaz eta inguruko herririkz jabeturik, harresiak **xehatu** eta su eman zien haren inguruko dorreei. **Elizen arteko biblia**

Gure lurrak, gure etxeak, gure artaldeak, gure ontasunak zituzten Espainolek **xehatzen**. **Michel Oronoz**

Trein bat burdin-bidetik zeharkatu joan da Japonian, zerbait gisaz zalutasun handiegian zoalarik, eta etxe bati kontra **xehatu** da. **Herria**

Birritu egingo dut Jainkoaren toki sakratu hau, aldarea **xehatu**, eta toki honetan bertan Dionisosi eraikiko diot jauretze bikaina! **Elizen arteko biblia**

Nire arrazoiei berriz ere entzungor egiten bazien, tripakada pozoitsuak barrenak **xehatuko** zizkion esperantza geldituko zitzaidan, bederen. **Aingeru Epaltza**

Gorputza **xehatu** eta arima suntsitzerainokoa izan liteke torturak torturatuari eragin diezaiokeen kaltea. **Joxerra Garzia**

Kamioiak ez dakit zenbat tona, gorputzak hirurogei kilo; beraz, kamioia osorik eta gorputza **xehatua**. **Iñaki Segurola**

3 (gauza abstraktuak)

Emazteak ospakizunaren xehetasun guztiak **xehatzen** ari zen -non, noiz, nola, zenbat...-. **Aingeru Epaltza**

Isilaldi luze baten ondoren, hitzak alerik ale **xehatzen** hasi da agurea, poliki-poliki, esanahia birrinduko balu bezala. **Javi Cillero**

Zaindariaren hitz idor haiek Joanesen ametsak mila pusketan **xehatu** zituzten. **Eneko Bidegain**

Oihane erail dute, bere bizi grina **xehatu** dute, eta horretarako errepresio krudela erabili dute. **Berria - Euskal Herria**

Gari aleak bezala **xehatzen** zituen denboraren izpi guztiak. **Bernardo Atxaga**

Beste kartzela batera aldatzen zaituzten bakoitzean presoaren ikasbideari lotzen zataizkio ostera, errotarri paratu berria bazina bezala, kendutako denboraren aleak moldekaizki **xehatzen**. **Jokin Urain**

Irakurketa desberdinen arteko muga ez zen jatorrizko hizkuntzarena, nire gaztelaniazko irakurketetan programaren galbaheak **xehatzen** duena baino. **Anjel Lertxundi**

4 (jatekoak)

Quenu txerri gibelak **xehatzen** ari zen. **Karlos Zabala**

Artzain-pastela (shepherd's pie): **xehaturiko** haragiaz eta patata-pureaz maneaturiko jakia. Gauza ederra zen ikusteko nola pasatzen ziren **xehatzeko** makinatik haragi pusak, bitan, hirutan, eta nola sartzen zituen haragi masan osagai guztiak, eta nola betetzen zituen hesteak inbutu batez. **Iñaki Mendiguren**

Biperra ongi **xehatu** eta emeki erretzen utzi. **Herria**

Barazkiak garbitu, ebaki edo **xehatuta** (tipula, baratxuria, azenarioa) edo saltsa bihurtuta (tomatea). **Edorta Agirre**

Thermomixa jeneralizatuko da, pixkanaka: osagaiak birrindu, **xehatu**, irabiatu, nahasi, jo edota emulsionatzeko aukeraz gainera, jakiak berotu edo egosi ahal izango dira bertan. **Edorta Agirre**

Bi urtez harriak **xehatu** zituen kanpoak: ogi, arto, baratze, mahasti, denak fundituak izan ziren. **Michel Oronoz**

Autotik irten eta gauzak miatzen hasi ziren, neska muselinazko zamaua ukitzen, mutila zukugailua konektatu eta **XEHATU** botoia sakatzen. **Koro Navarro**

5 (da aditz gisa)

Neu naiz gertatzen ari dena edo naizena, neure buruaren betekadaz lehertzen naiz, neure arnasak itolarrizten nau eta mila zipitan **xehatzen** naiz, listen naiz. **Iñaki Segurola**

6 (era burutua izenondo gisa)

Izotz **xehatua** eta botila pare bat White Rock. **Lopez de Arana**

Fabrikek nahi ez zuten, baina etxetarako nahikoa ona zen, ikatz-kondar **xehatua**. **Anjel Lertxundi**

Ahate bat haragi **xehatu** eta garratzez bete. **Karlos Zabala**

Okelak eta haragi **xehatuak** ere baziren, ontzi zabal batzuen hondoan, gantz gatzatuzko puskez inguratuak. **Karlos Zabala**

Gero tea hartuko zuten, eta bina sandwich-triangelu jango zituzten, bezpera gauean geratutako oilasko-hondar **xehatuz** eginak. bakailao **xehatua**, edo San Martin de Unxeko ardoa, edo Zubiriko hesteabeteak. **Mirentxu Larrañaga**

Hiru sukaldari izerditsu arautzak, urdaiazpikoa, hanburgesak, patatak eta latak behiki **xehatua** frijitzen ari ziren. **Lopez de Arana**

Karibu jaki **xehatuz** bete zen opila. **Aurelia Arkotxa**

Zerbitzariak plantxan eginiko xerra handi bat eraman zuen, perretxikoz, azenario **xehatuz**, ilarrez eta patata-purez osatutako guarnizio batez hornitua. **Lopez de Arana**

Baratzekari **xehatuz**, garagarrez edo oloz egin nahasketa bat margarina puxka bat astean hiru lau aldiz. **Marzel Etxehandi**

Gure onkailu bakarra "compost" deitzen da: ongarrri usteldua eta **xehatua** da, bizpahiru hilabetez usteltzera utzi ondoan. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eraso eta xehatu (3)

haragi xehatuaren (3)

xehatx *izond adkor zehatza.*

Handik goizeko lauretara, zirkunik ttikien eta **xehatxenak** ere apuntatu, bai haize xafladaren bat balin bada, edo izar-lokaren bat azaldu denentz, laino xumerena ere bai... eta horrela bi ordutik bi ordutara. **Pello Zabala**

xehatzaile *izond xehatzen duena.*

Hara nondik ageri den, zeinen **xehatzaileak** diren menditar zitalduen eskutan jarritako makilak. **Patxi Ezkiaga**

xehatze *(orobat xehetze g.er.) iz puska xehetan zatitzea, desegitea, birrintzea.*

Pirinioetan, euskal zale batzuren jokabidea ez omen da garbiegia izan: bazterren zikintze, gauzen **xehatze**, mehatxu... **Herria**

Borrokaren bidez herri egiten gaituzten zutoinen **xehatze** eta birrintze iraunkorra atzeraezina bilakatzea ekidin nahi dugu. **Berria - Euskal Herria**

Quenuk beti leporatu zion osaba Gradelle dendako **xehatze** mahaiaren gainean hil zela barreiatu izana. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xehatze mahaiaren (3)

xehe *(orobat txehhe g.er.) 1 izond tamaina, pisu, gorabehera, maila edo garrantzi txikikoa. antlarri.*

Gizon zaharrak gomutara dakartzatza abere larriak eta abere **xeheak** zaintzen zituztenen arteko liskarrak. **Pablo Sastre**

Nire eri itsuek arrosarioa ezagutu zuten, zurezko bihi larri eta **xeheetan** harilkatua. **Aingeru Epaltza**

Lehen gatz larria eta **xehea** baizik ez genuela, egun Camargue, Maldon, Guèrande eta beste hainbat tokitakoa kontsumitzen dugu. **Edorta Agirre**

Hauts kosmikoa ale **xehetan** bilduko zen, aleak legarretan, eta aurki harritxo bilakatu, gero harri gero eta kokorraga, planeta txiki, eta, azkenean, horra hautsak. **Juan Garzia**

Tabako **xeherako** erabiltzen zuen narruzko toxa. **Josu Landa**

Alga **xehetatik** oskoldun txikietara. **Juan Garzia**

Legar **xeheko** hondartzan urak ekarri porroskak, adar mutur, xori eta arrain ustel. **Aurelia Arkotxa**

Haizeak daramatzen harri bikor **xehezko** harriabar gisako batek. **Josu Zabaleta**

Hareazko geruza bakar bat eta marmol **xeheko** beste bat bakarrik ematen badira, [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Ur-tanta **xeheak** izozten hasiak baitziren. **Anjel Lertxundi**

Gau grisa zen, elur-ur **xehea** ari zuen, ziri-ziri. **Mirentxu Larrañaga**

Euri malko **xehe** eta finez bazterrak astinduz. **Itxaro Borda**

Arnasari eutsirik, sorbalda jaso zuen, lepoaldea euri **xehe** sarritik babesteko. **Anjel Lertxundi**

Zirimiri **xehe** bat ari zen, kasik ikusezina. **Elena Touyarou**

Langar **xehe** bezain hotza hezurretaraino sartzen zaie. **Eneko Bidegain**

Nire hiru besaulki sumatu nituen, puntu **xehezko** tapizeriaz estaliak. **Josu Zabaleta**

Sagarrondo bi ageri ziren etxeko zahar baten aurrean, eta itxura kaxkarreko lorategi **xehe** bat atzean. **Jose Morales**

Etxea txukun edukitzea eta landareak zaintzea argibide zehatzak utzi zizkidan Arantxak: guztira, letra **xehez** idatzitako sei orrialde. *ik beherago* 5. **Iban Zaldua**

2 (gauza abstraktuez)

Nahiz ezer ez jakin ardiekin mendian ibiltzeaz edo txahal bati biberoi esnea emateaz, mira sentitzen nuen lan **xehe** haiekiko. **Bernardo Atxaga**

Dozena bat estatu-nazio **xehe** nahiz larri. **Piarres Xarriton**

Ez dut testua oroipen **xeheekin** puztu nahi, ordea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Paueko Casinoan egin den biltzar nagusiaren berri **xeheak**. **Piarres Xarriton**

Hirurehun frankoko gela bat, hamabost franko egunean mantenurako: laurehun eta berrogeita hamar franko geratuko dira arropa garbitzeko, gastu **xeheetarako** eta zinemarako. **Monika Etxebarria**

Erosketa **xehe** frangoren pagatzeko baliatzen ahalko den karta. **Herria**

Irri **xehe** eta bihotz oneko profetaren mendekua ote zen? **Itxaro Borda**

Gogolek errealtate itxuragabetzen du etengabe, hiperbolearen bidez, gorabehera **xeheei** eta denetarik bitxikeriei berebiziko pisua emanez. **Jose Morales**

Gorabehera **xehe** horiek ez baitiote historiari eragiten. **Jon Alonso**

Urteak joan eta urteak etorri berriro koadro berera itzuli eta xehetasunik **xeheena** aldatzeko gauza zela. **Josu Zabaleta**

Datuak elkarren segidan eman behar dira, garrantzitsuenetik **xeheenera**. **Iñigo Aranbarri**

Lakioak eta segadak ipiniz, ehiza **xeheari** eskopetaz segika, ehiza larria noiz agertuko zelatan. **Karlos Zabala**

Hobenduna beti baitago prest lege-hauste **xeheak** aitortzeko handiagokoen estali alde. **Koldo Izagirre**

3 pertsonaz, herriez eta kidekoez mintzatuz, laua edo behe mailakoa dena.

Mendoza, esan bezala, gizon **xehea** izan da, herrikoa, aukera hori propio egin zuelako. **Berria - Ekonomia**

Hura gizon **xehea** eta lañoa da eta, gure iduriko, konturatu gabe mintzatu dateke bazterretan. **Piarres Xarriton**

Emakume **xehe**, txikitxo eta zatarra bera, jendeak kakanarru deitzen dien horietakoa. **Jose Morales**

Agur, jaun apala, ùmila, **xehea**! **Herria**

Ezin nauk fabrikako langile **xehe** baten emaztea izan. **Eskarne Mujika**

Algortako industrialari **xehe** batek garajea utzi zigun bertako etxe batean. **Rafa Egiguren**

Iruditzen zitzaion Fiodor Fiodorovitx buruiritziegia zela, eta agintari **xeheen** ohitura guztiak zituela. **Jose Morales**

Napoleonek bazekien bere armadako soldadu **xehe** hezigabeen ere erantzuteko moduko nota ari zela jotzen. **Iñaki Mendiguren**

Hortik aitzinatua da patriarken eta primatuen, artzapezpikuen, apezpikuen bitartez helduz **xeheenetaraino**, hau da, beste prelatu apaletaraino. **Piarres Xarriton**

Bada, ikasle hori bezalaxe geratu ziren hasieran hiritar **xeheak** eta funtzionarioak. **Jose Morales**

Behe mailako jende **xehea**. **Xabier Kintana**

Zergatik jende **xeheak** ez du duelorik egiten handikiak bezala? **Juan Martin Elexpuru**

Eromes fededun eta fedegabeak, kirolari eta poetak, jende handi eta **xeheak**, oinazeak edo zorianak bultzaturik. **Piarres Aintziart**

Herri **xehea**, goseak hartaratuta, matxinatu egin zen. **Iñaki Iñurieta**

Aitortuko dut beraz gogotik, kontziliotik lekora, Jainkoaren Herria hurbildu zaiola, asko gisatara, herri **xeheari** eta jende xumeari. **Piarres Xarriton**

Herri **xehearen** eta intelektuaren arteko etena amildegi bihurtu zen. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Garai hartan irakurtzeko gauza zena ez zen herri **xehea**, gizartean maila jakin bat zuena baizik. **Koldo Zuazo**

4 xehetasunez egin edo emana. ik zehatz.

Handik aste gutxira, poliziaen ikerketa **xeheari** esker, hara nurkitzen duten argotxoak. **Antton Olano**

Miaketa **xehea** egin zen gaztelu abandonatuan. **Josu Zabaleta**

Giza ezagutza osoaren apriorizko analisi **xehea**. **Ibon Urbarri**

Halako *organon* baten aplikazio **xeheak** arrazoimen hutsaren sistema bat eraikiko luke. **Ibon Urbarri**

Inon diren kalkulurik **xeheenak** hasi zen egiten hipotesi haren probabilitatea aztertzeko. **Josu Zabaleta**

Bere lagunei azalpen **xeheak** ematen zizkien gertatzen zitzaionari buruz. **Bernardo Atxaga**

Eraikuntzen deskripzio **xeheari** esker. **Santiago Iruretagoiena**

Ez dut orduko kronika **xeherik** egin nahi. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Teknologia berrien deskribapen **xeheak**. **Xabier Olarra**

Entzima horiek katalizaturiko erreakzio kimikoen azterketa zinetiko **xeheak**. **Juan Garzia**

Zenbait fenomeno hartu [...] eta haiak azaltzen saiatzen da, esperimentu **xeheen** bidez. **Juan Garzia**

Garai bakoitzean erabilitako baliabideen katalogo **xeheak**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Giza harremanen bibisekzio **xehe**, gordin eta erreala. **Berria - Kultura**

Erretinaren argazki **xeheak** hartuak zituen hark, operazioa egin eta berehala. **Xabier Olarra**

Aurretik beste batzuk izan omen ziren, jakin nuenez, haien berri **xeherik** izan ez banuen ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lehenbizi elkar ikusi zuteneko aldiaren berri hunkitu eta **xehea** emanez. **Oskar Arana**

Testu artistikoak beren testuinguru formal eta estilistiko zehatzaren definizio **xehe** baten bidez interpretatzeko metodologia. **Josu Zabaleta**

Errealitate finago eta aberatsago baten irudikapen **xeheagoa** ahalbidetzea. **Juan Garzia**

Irudi gandutsu bat besterik ez da; beste oroipen batzuk askoz **xeheagoak** eta jantziagoak izan litezke. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Dupinen iradokizunei jarraituz, aitopen idatzien azterketa **xehe-xehea** egin nuen. **Koro Navarro**

5 letraz mintzatuz, eskuarki erabiltzen den tamaina eta formakoa. ikminuskula.

Letra larrien ordez letra **xeheak** erabiltzen hasi zen. **Jon Muñoz**

Ezker Abertzalea, letra larri edo **xehez** idatzita egon, ETArekin identifikatzen da, haren oinarria da. **Berria - Euskal Herria**

Karea artez erabiltzea, hozkirik egin ez zezan; w larria, i **xehea**, bere izenaren letra ederrak, maistra Jonesek testu-liburutzat erabilitako Bibliaren esaldi goibelak. **Anton Garikano**

Beti dago Kultura (singularrean eta letra larrian) kulturetan (pluralean eta letra **xehean**), baina ez dago Kulturarik kulturetan zehar baino. **Askoren artean**

Letra **xehea** nahita eginiko hautua da. **Iñigo Aranbarri**

Poztu nintzen *aita santua*, honela, letra **xehez** irakurri nuenean. **Iñigo Aranbarri**

6 diruaz mintzatuz, eguneroko beharretarako esku artean erabiltzen dena.

Diru **xehea** asti-astiro ateratzen zuen sakelatik, txanpon handien artean galduta balego bezala. **Karlos Zabala**

Nik, burua erabat hustua, ez jakin nor behar nuen deitu; bestalde, ez neukan kartarik ez eta diru **xeherik**. **Daniel Landart**

Dolar bat baino ez dut diru **xehean**. **Lopez de Arana**

-Manouryk diru **xehez** ordaindu din? -galdetu zion Logrek Clémenceri. **Karlos Zabala**

Ehun liberako billete bat diru **xehez** aldatzeko eskatu zion osabari. **Karlos Zabala**

Txitxikovek, horrela jantzirik elizako atean aurkitu izan balu, seguraski, txanpon **xehe** batzuk emango zizkion. **Jose Morales**

Buru-ukaldi batez eskertu nion faborea, eta **xeheak** itzuli zizkidan leihatila estuko ziritutik. **Aingeru Epaltza**

Neukan **xehe** guztia eman nion, eta marmarrean gelditu zitzaidan, "ez al daukag besterik?" egiten zidala gaztelaniaz bere txanoaren leizetik. **Koldo Izagirre**

- Kattalin ez da bi soseko **xehean** eta ez du portuko arrantzontzien erakusteko gogorik. **Eneko Bidegain**

Arratseko ogi xerren moztzen ari zen *blockältester*-a ez zen, iduriz, bi soseko **xehean** eta ez zuen aise jasaiten Joanes han ondoan egoitea. **Eneko Bidegain**

7 (adizlagun gisa) ik xeheki.

Euria **xehe** ari zuen, guztiz bustitzen ari nintzen. **Anjel Lertxundi**

Murmurioaren hesiak, hasieran **xehe**, gero zalapartatsu, zerrendak berak ez bezalako muga jartzen du hildakoaren eta nire artean. **Anjel Lertxundi**

Heldu zitzaidalda argi-argi belarrietara, parekotasun guztiz zehatzez, Sir Launcelotek hain **xehe** deskribatu zuen hausturaren eta urraduraren oihartzuna izan zitekeena. **Koro Navarro**

Nahiago izan dut, **xehe** eta zehatz jokatu ordez [...] distantzia hartu, eta ikasle horiei zinemako irudiaz dakiten guztia gogoeta zabalago batean [...] kokatzeko aukera eman. **Josu Zabaleta**

Burutik oinetaraino begiratu zion kondenauari, arretaz eta **xehe**. **Jose Morales**

Gero azalduko ditut **xeheago**. **Xabier Olarra**

Baina gero aztertuko ditugu **xeheago**, gaiaren beste alderdi batekin duten loturaren ikuspuntutik. **Koro Navarro**

Partikula elementalak puntu infinitesimalak lirasteke onenean ere, baina prezisio jakin batekin begiratu ezker; handik gora, prezisio jakin batetik haruntzago, hau da, **xehekiago** behatu ezker, lausotu egiten dira, lurrundu. **Iñaki Segurola**

Gozamen estetiko bat dago baserriko gauzen zerranda zehatz hori egitean, dendari txorrotx batek bere salgaien inbentarioa egingo lukeen bezain **xehe**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

8 xehe-xehe adlag

Euria ari zuen, **xehe-xehe**. **Anjel Lertxundi**

Kafe sendo eta trinkoa prestatzen dute, alea **xehe-xehe** ehota. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Zeharo nahigabetuta nago, eskuurrak **xehe-xehe** ebaki balizkidade bezala sentitzen naiz. **Oskar Arana**

Komenigarria litzatekeela bat-bateko bertsolaritzaren baliabide poetikoak **xehe-xehe** aztertzea, garaien eta bertsolarien arabera. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Istorio honetan Arazo jauna aurkeztu zidaten unera iristen naizenean, **xehe-xehe** emango dizuet gertatu zenaren berri. **Oskar Arana**

Xehe-xehe azaldu nion dena Dussel jaunari. **Josu Zabaleta**

Egun osoa idazten eman beharko nuke, den-dena eta **xehe-xehe** kontatu beharko banizu. **Josu Zabaleta**

Haietako batzuk, **xehe-xehe** aipatu baitzituen, interesgarriak iruditu zitzaizkidan, eta harrigarriak. **Koro Navarro**

San Frantziskok, anai Bernardoren bidez Jainkoak egindako guztia **xehe-xehe** entzun zuenean, eskerrak eman zizkion Jainkoari. **Askoren artean**

Egunero-egunero, fusila bizkar gainean eman; eta Zirauki eta Mañeru herrietako inguruak miazten genituen **xehe-xehe**. **Txillardegi**

Xehe-xehe aztertua zuten, bada, zer konplikazio gerta zitezkeen operazioan eta operazioaren ondoren. **Xabier Olarra**

Organismo batetik harturiko gene bat beste batean txertatu, eta **xehe-xehe** aztertu haren funtzionamendua. **Juan Garzia**

Xehe-xehe aztertzen dute aurkitze-prozesua, eta frogatzearen eta gezurtatzearen zoko-mokoak jorratzen. **Juan Garzia**

Notarioak **xehe-xehe** papereratu zuen Garrüzeko kapitainordearen arrangura. **Aingeru Epaltza**

9 xehe-xehea adlag ipar xehe-xehe.

Blockältester-ak emeki emeki, lasaitasun osoz, **xehe xehea** miazten zituen. **Eneko Bidegain**

Azkenean **xehe-xehea** jakin nahi izan dut nire baliakizunak zeintzuk ziren. **Jon Muñoz**

Lanean ari ginela, armada guzietako berriak emaiten zizkigun **xehe-xehea**. **Marzel Etxehandi**

10 xehe-xehe egin (orobat xehe-xehea egin g.er.) erabat xehatu.

Urania **xehe-xehe egin** etaso zuzen bidez garbitu ostean, ixura solidoa hartzen du berriz. **Berria - Mundua**
Zekorrra hartu, sutara bota eta **xehe-xehe egiteraino** erraustu zuen. **Elizen arteko biblia**
Haragia jateko, hezurrak **xehe-xehe egin** eta hegaztiei jaten emateko. **Oskar Arana**
Egin hartatik puska bat **xehe-xehe** eta ezarri itun-kutxa aurrean, zurekin elkartuko naizen elkarketa-etxolan. **Elizen arteko biblia**
Hildakoak sakan eta putzuetatik zehar San Francisco mendiraino garraiatzeak lan handia ematen baitzuten, **xehe-xehe eginda** iristen ziren. **Jon Alonso**
Xeha-xeha eginda geratu nauk. **Iñaki Iñurrieta**

11 *xehe-xeheki* adlag

Xinaurriek berek dute urre hori garbitzen zikinkeria guziak **xehe-xeheki** kenduz. **Aurelia Arkotxa**
Ez dugu Etxauzko bizkondearen izenean egin dutan bidaia, gaur, **xehe xeheki**, elgarrekin bururaino eremanen. **Michel Oronoz**
Jeannettek, artean, bere tragediaren kondaira hitza azaldu zidan, **xehe-xeheki**. **Txillardegi**

12 *xehe-mehe* adlag *adkor* xehe-xehe.

Fray Rogeioek kronista-fama eskuratu zuen Osberno hari egin zion gutunean **xehe-mehe** kontaktzen denaren arabera. **Jon Alonso**
Beñaten baikortasunak kutsatuta, lehengo asteko nire ibileren berri eman nion, **xehe-mehe**. **Aingeru Epaltza**
Pozoitze lanaren deskripzioa bidali zion, **xehe-mehe**, etxeko arratoiak akabatzeo ahaleginak balira bezain gordin idatzirik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azterketa xehe (3); **diru xehe** (4); **auri xehe** (3); **herri xehe** (8); **herritar xehe** (3); **jende xehe** (22); **lan xehe** (4); **txanpon xehe** (4)
xehe aztertu (4); **xehe aztertzeo** (3); **xehe aztertzen** (3); **xehe bezain** (3); **xehe egin** (9); **xehe eginda** (5); **xehe egiten** (3); **xehe ematen** (4); **xehe mehe** (4); **xehe xehe** (71); **xehe xehe aztertu** (4); **xehe xehe aztertzeo** (3); **xehe xehe egin** (9); **xehe xehe eginda** (5); **xehe xehe egiten** (3); **xehe xehe ematen** (4); **xehe xehea** (14); **xehe xeheki** (4); **xehe xehetz** (3)
abere xehea (6); **azalpen xehea** (3); **bezain xehea** (3); **diru xehea** (3); **auri xehea** (9); **gizon xehea** (3); **herri xehea** (22); **herriko jende xehea** (5); **jende xehea** (44); **jende xehea zapaltzen** (3)
xehe xehea (14); **xehe baizik ez** (3)
gauza xeheak (3); **herri xeheak** (34); **jende xeheak** (36)
letra xehean (3)
herri xehearrekin (4)
herri xehearren (36); **herriko jende xehearren** (3); **jende xehearren** (44); **jende xehearren alde** (6); **jende xehearren artean** (5); **jende xehearren onetan** (4)
herri xehearrentzat (4); **jende xehearrentzat** (8)
herri xeheari (5); **jende xeheari** (8)
jende xehiaz (4)
jende xeheen (3)
diru xeherik (4)
letra xehetz (5); **xehe xehetz** (3)

xeheka 1 *adlag* salerosketez mintzatuz, kopuru txikietan. ik **txikizka**.

Gaiak guk bezala dendan eta **xeheka** erosten dituztenez, arreta handiz dihardute, iruzurra txertatzeko tartea estu-estua baita. **Edorta Agirre**
Armadarentzat izendaturiko salgai-konboi harez gainera, baziren beste kotxe batzuk ere lepo-hezurreraino gauzez beteak, Baionako merkatari batzuek **xeheka** saltzeko asmoarekin hara eramanean. **Koro Navarro**

2 *xehekako* izlag

Datu horien arabera, Bizkaian %12 jaitsi da **xehekako** merkataritza azken urteotan. **Berria - Ekonomia**
Bazarra lurrinen saltoki gunea zen, handizkakoa nahiz **xehekakoa**. **Patxi Zubizarreta**
Tokiko merkataritza nekazarien bigarren mailako jarduera zen, eta **xehekako** salerosketa baino ez zen haietan egiten. **Koro Navarro**
Bizkaiko merkataritza **xehekakoak** «eskaerari erantzun ezin hobe» eman diezaioke. **Berria - Ekonomia**

3 (izen gisa)

1.200-1.400 milioi artean balio du enpresak eta **xehekakoei** zuzendua da akzioen %40. **Berria - Ekonomia**
Eguneko datu makroekonomiko garrantzitsua AEBetako **xehekakoen** salmentena izan zen, martxoan %1,8 hazi baitziren, euroa ahulduz. **Berria - Ekonomia**

xehekatu ik **xehakatu**.

xehekeria *iz* funts edo gorabeherarik gabeko xehetasuna. ik **huskeria**; **txikikeria**.

Filmeak kitzikagariagoak ziren beti gero, kankailu hark kontatuta, oharkabean joandako **xehekeria** guztiak bihurtzen zituen garrantzizko eta duruzagarri. **Koldo Izagirre**
Kontrata eta soldata aipatzeak **xehekeria** barregarria irudi lezake gaurko lan-baldintza negargarriak ezagutu ezean, baina niretzat berriak ziren hitz horiek: kontrata, soldata, eta orobat lanaren munduarekin loturiko guztia. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Hona hemen guzti ezegzagua den **xehekeria** bat, eta biltzea merezi duena. **Koldo Izagirre**
-Zuk badakizu arestian aipatzen nizun profesionaltasun hori bermatzeko edozein gauza, behar dena, egiten dudala eta ez zaidala horretarako **xehekerietan** erreparatzea gustatzen. **Joxemari Iturralde**
Esku trebekoa izan arren ez da behargabeko **xehekerietan** galtzen; [...] guti dira haren funtseko eta irudimen samurreko eskultoreak. **Herria**

xeheketa ik **xehaketa**.

xeheki (247 agerraldi, 45 liburu eta 146 artikulutan) 1 *adlag* xehetasunez. ik **xehero**.

Bere esperientziaren berri eman zidan lañoki eta **xeheki**. **Daniel Landart**
Bere oroimenak egun harrigarri hartako gertakari guztiak berritzeari ekin zion, **xeheki**, keinu, isilune eta hitz bakoitza aintzat harturik. **Patxi Zubizarreta**
Kontua da maitasunak eta maiteak asko izan zirela, izugarri, gehiegi, eta den-denak **xeheki** aipatzea ezinezkoa zaidala. **Bernardo Atxaga**
Kontu horiek aski **xeheki** azalduko dira, zure interesa bizteko. **Xabier Kintana**
Erabat logikoa zen, bada, **xeheki** aztertzea han organismo haren genetika- eta enbriologia-alderdiak. **Juan Garzia**
Dokumentuak **xeheki** aztertu edo miatu ondoan, lekukoaren erranak entzunik, ararteko ziren gizonek beren erabakia eman zuten. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Beñat Oihartzabal-ek **xeheki** erran du zertan diren Euskaltzaindiaren lanak. **Herria**
Ez dizkizut **xeheki** kontatuko Valmont justifikatzen duten egintzak edo arrazoiak. **Jon Muñoz**
Norbaitek bere bizia hola kondatu duela, ahal bezain **xeheki** eta xintxoki. **Janbattitt Dirassar**

Kontsumitzaileak seguramena badu bio ekoizpenak onak direla, **xeheki** kontrolatuak direlako urte guziez. Herria

Hemen ez dugu mito hori **xeheki** kritikatzeko lekurik, eta ez da, gainera, hau lekua. Josu Zabaleta

Oinazeari eta plazerrari, orori nengoen **xeheki** so, Lakarko inguruak, beti xixpa besaburuan eramaki, egunero **xeheki** begiratzeko agindu ziguten. Jon Muñoz

Bi ordu luzez elkarren berri trukatu genuen **xeheki**. Txillardegi

Hatzak eta aztarnak **xeheki** garbiturik han berean abandonatu zuen emazte apurtua. Itxaro Borda

Ikus dezagun **xehekiago**. Herria

Hanna desgogara baina dexente mintzo da hartaz, nahiz eta niri, zenbat eta **xehekiago** jardun, hainbat eta gutxiago interesatzen zaidan. Joxe Austin Arrieta

Partikula elementalak puntu infinitesimalak lirateke onean ere, baina prezisio jakin batekin begiratu ezker; handik gora, prezisio jakin batetik haruntzago, hau da, **xehekiago** behatu ezker, lausotu egiten dira, lurrundu. Iñaki Seguro

Gobernuak bere xedeak **xehekixago** agertu ditu erretreten auzi guziz minbera horri buruz. Herria

· Tristura oinazegarría **xeheki** printzatu zitzaion barrenean, harritzar leun artean jausi izango balitz bezala. Mirentxu Larrañaga

2 xehe-xeheki

Xinaurriek berek dute urre hori garbitzen zikinkeria guziak **xehe-xeheki** kenduz. Aurelia Arkotxa

Ez dugu Etxauzko bizkondearen izenean egin dutan bidaia, gaur, **xehe xeheki**, elgarrekin bururaino eremanen. Michel Oronoz

Jeannettek, artean, bere tragediaren kondaira hitza azaldu zidan, **xehe-xeheki**. Txillardegi

xehela iz ipar kereta.

Eskolako lanetan hasi aitzin, ardiak deitzen genituen; batek kortean begiratzen zituen, **xehela** zabal eta herts, beste batek ileetarik tinkatzen, beste bi kuxkuririk lurrean, kotxua ardien zangopean pausaturik, ari zirela zirrizti-zarrazta melodikoan deitzen. Itxaro Borda

Jadanik **xehela** pasaia baten galdea egina zuten jende hauek. Herria

Kamioiak pasatzeko, egunaren barnean harrobiko **xehelak** zabal-zabalik zeuden; gauez, aldiz, kateez hertsia eta hurbiletik begiratuak. Itxaro Borda

xeheria iz gauza xehen multzoa. ik xeheteria 2.

Elkarte horrek jakin arazten du helduden 19 an larunbatarekin ateak zabalik izanen dituela egun guzian beztitzeko, oinetako, **xeheria** eta bertzerik salment merkerik, miseriaren soleitzeko duen proiektuaren laguntzeko, goizeko 9 etarik aratseko 6 ak arte. Herria

xehero (44 agerraldi, 9 liburutan) 1 adlag xeheki.

Horratx gure alderdiotako ikazkinen irudia **xehero** azaldurik. Patziku Perurena

Gero pistola aztertu zuen, **xehero**, aditu baten pareko mugimenduz. Xabier Olarra

Pasabide zuri eta gangadunetan, ikasgeletan, jantokian, lotokietan, alde guztietan, dena **xehero** antolatua zegoen. Xabier Olarra

Osabak historia haren gorabehera printzipalak kontatu zizkidan, ez **xehero** baina laburzkiro. Joan Mari Irigoien

Liburu eder baterako emanen lizuke gaiak, **xehero** hasiz gero. Patziku Perurena

Ezin dut **xeheroago** adierazi. Patziku Perurena

2 xehero-xehero

Gizon hark **xehero-xehero** zekizkien gu Okhranako funtzionarioon berezitasun guztiak. Matías Múgica

Gizakiaren eta gizartearen ankerkeria eta oinazea **xehero-xehero** erakusten ditu: politikak apurturiko adiskidetasuna, senide harremanen goibela, [...]. Markos Zapiain

xehetarzun ik xehetasun.

xehetasun (orobat xehatasun g.er.) 1 iz zerbaiten berri jakiten laguntzen duten alde xeheetako bakoitza.

Gainerako biografoek ez dute **xehetasun** hau ezagutzen. Askoren artean

Xehetasun horiek deszifratzeko premia larriagoa dut orain huskeriak zirelakoan arbuiaitu nituenean baino. Joseba Urteaga

-Kontatu behar ez niakkeen **xehetasun** bat emango diat, dena dela. Txillardegi

Kroniketan nahiko oharkabe igaro zen **xehetasun** bat nabarmendu nahi dut hemen, bera izan baitzen populazioaren erreakzioa ahalbidetu zuen giltza. Txema Ramirez de la Piscina

Harri hura zuriegia zela pentsatu nuen, eta bi umeek errazegi mugitzen zutela alde batetik bestera, baina ez nion **xehetasunari** aparteko garrantzirik eman. Bernardo Atxaga

Hoteleko idazkariak izen-deiturak eta bertze hainbat **xehetasun** galdegin zizkion, ez baitzuten nehor atxikitzen nortasunari buruzko **xehetasunik** hartu gabe. Eneko Bidegain

Weinberg doktoarek ez zuen **xehetasun** askorik eman. Oskar Arana

Laburtasunaren amoreagatik, **xehetasun** asko bazterrera utziko ditut. Askoren artean

Bereizmenaren baitan dago mikroskopioak **xehetasunak** jasotzea. Juan Garzia

Hainbat **xehetasun** eta bitxikeria kontatu zidan gero. Anjel Lertxundi

Prozesuaren **xehetasunak** jakiteko. Joan Mari Irigoien

Hiru-lau telefono dei aski izan nituen istripuaren **xehetasunak** eskuratzeko. Aingeru Epaltza

Gogoan zituen Gasteizko hilerriko fusilamenduko **xehetasunak**. Juan Luis Zabala

Webgunean ere txapelketari buruzko informazio eguneratua emango du (taldeei buruzko **xehetasunak**, emaitzak, kronikak, txapelketako argazkiak...). Berria - Kirola

Xehetasunak ahoz aho zebiltzan. Aingeru Epaltza

Orain arte aipatu ditugu Huarte kalonjeak idatzi **xehetasunak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Izen emaitza eta **xehetasunak**: 06 08 63 05 12. Joan Mari Irigoien

Programa osoa **xehetasun** guztiekin zeukan gogoan. Xabier Olarra

Xehetasun guztiak nahi nituen, eta Aintzanek ez zuen oztoporik jarri. Iban Zaldúa

-Konta iezazkizazu **xehetasun** guzti-guztiak. Joanes Urkixo

Txundituegi geratu baitzen eta ez baitzuen estutu nahi izan **xehetasun** gehiago eman ziezazkion. Oskar Arana

-Agian **xehetasun** gehiegirekin ari nauk kontaktzen -esaten du desenkusatu-. Xabier Olarra

Ez zekien asko Harryk Tomek emanak zizkidala jada **xehetasun** mordo bat, baina ez neukan asmorik berari ezer esateko. Oskar Arana

Ehun urteren buruan, **xehetasunak** berreskurazekin dira, baina ez da zaila barruntatzen zer gertatu zen. Juan Garzia

Oso gauza gutxitat daukat hori, huskeriak eta **xehetasunak** baizik ez baitira. Bernardo Atxaga

xehetto *izond adkor* xehea.

Bazkari denboran ere maiz arrabotean zirelarik **xehetto** batzu beren baitezpadako errabia erakusten zutelarik pilotarientzat. **Herria**

xehetu ik **xehatu**.

xehetze ik **xehatze**.

xeka ik **xerka**.

xekatu ik **xerkatu**.

xekatze ik **xerkatze**.

xeke¹ (*orobat **jek**e g.er. eta **xeik** g.er.*) iz arabiar buruzagia.

Hamas Erresistentzia Islamikorako Mugimenduko sortzaile eta buruzagi espiritual Ahmed Jassin **xekearen** hilketa «aurki eta gogor» mendekatuko dutela. **Berria - Mundua**

Goizean Mohamed Bakr al-Ulum **xekearekin** eta Mohamed Said al-Hakim aiatolarekin bildu ziren. **Berria - Mundua**

Goiz batean **xekeari** eskuan muin egin, zaldi gainera igo, jauregiko bidea hartu eta pasharen aurrera aurkeztu zen. **Fernando Rey**

Xekea Almaza Al Thania meskitako imama zen. **Berria - Mundua**

"Profetaren zerbitzari handia," esan zion Txibuk Inperialeko **Xeikak** Armada Garaitezineko Mamuxari, "zenbat soldadu garaitezin dauzkagu armetan?". **Xabier Olarra**

Ez zuen berriz Ahmet ikusiko gogor saiatuta ere, ezta bere aitak, shah edo sultanek edo karabanen **xekeak** horretarako baimena emanik ere. **Fernando Rey**

Alderdi hartan ez zegoen inor ere **xekearen** zigiluari kontra egiten zionik, haren aurrean makurtzen ez zenik. **Fernando Rey**

Ezin du inork deus egin, ezta **xekeak** ere. **Fernando Rey**

Hala bada, dibanak hustu egin ziren eta, gauerdirako, hiru pertsona besterik ez zen geratzen: Kirxa nagusia, Sanker zerbitzaria eta Darruitx **xekea**. **Patxi Zubizarreta**

-Oraintxe konponduko dizut hori auzuneko **xekearekin**. **Patxi Zubizarreta**

-Egin otoitz ene alde, **xeke** jauna. **Patxi Zubizarreta**

Xekeak bere bizarrak laztandu eta gogoeta sakonean murgildu zen. **Fernando Rey**

xeke² ik **txeke**.

xekel iz Israelgo estatuko dirua.

Irabazleek 220.000 **xekel** jasotzen dituzte, hots, 39.800 euro inguru. **Berria - Kultura**

xelai ik **zelai**.

xelebre 1 *izond/iz adkor* bitxia. (pertsonez mintzatuz)

Ez diat sekula horrelako gizon **xelebrerik** ezagutu. **Koro Navarro**

-Ondoan tipo **xelebre** bat neukan. **Xabier Olarra**

Bazen bentan bildutakoen artean baseritar **xelebre** bat, kontu-kontari hasi zena. **Koro Navarro**

Ingeles **xelebre** bat tematu zuan hori kalkulatzeko. **Jón Muñoz**

Ezkerretara auzokide handi, mehar eta **xelebre** samarra neukan, etengabe zerbait marmarka eta gorputzaren goi alde aurrera eta atzera balantzaka zerabilena. **Urtzi Urrutikoetxea**

Goizuetako Txapomordan xaharturik ezagutu nuen Xantux mutilxar **xelebre** hura datorkit gogora. **Patziku Perurena**

-Esan zidaten etxekoek, bai, mutil-zahar **xelebre-xelebre** bat bizi zela hor, bakar-bakarrik. **Joxean Sagatzizabal**

-Zu bai **xelebrea**, Jimmy. **Lopez de Arana**

Xelebrea zela oso Amuña, eta lauorogei urte beteta ere aurreko txapelketak irabazia zela. **Xabier Etxabe**

Xelebreak dira, gero, gizakiak! **Joxe Austin Arrieta**

Xelebre samarra koronela! **Jose Morales**

Ospitaleko praktikanteen artean baziren batzuk **xelebre** askoak. **Josu Zabaleta**

Ni **xelebre** bat baino ez naiz, gizona, **xelebre** koloretsu txiki bat, eta ez naiz hemengoa. **Oskar Arana**

Sabetehek **xelebretzat** hartu ninduen. **Joxe Austin Arrieta**

1a (pertsonez mintzatuz izen gisa)

Gorotz harrotzailea, herriko **xelebre** gixajoren bat izaten zen jeneralean. **Patziku Perurena**

Kasualitatez heldu zitzaidan Heiligenstadt-eko liburuzale baten izena, **xelebre** bat, erdi piltzarketari, erdi bildumagile. **Anton Garikano**

Labur esanda, inguruetako **xelebre** guztiak hurbildu zitzaizkidan, hala marihuana-erretzaileak nola burutik nahastutakoak edo salgai zeuden aldizkarietan orripasa bat egiten uzteko eskatzen zidaten eskale edo eskaleondoak. **Bernardo Atxaga**

Xelebren bat, pentsatu zuen errabinoak. **Koro Navarro**

2 (gauzez mintzatuz)

Gure mundu **xelebre** honetan. **Iñaki Seguro**

Aurpegi **xelebrea** zeukan. **Urtzi Urrutikoetxea**

Leku **xelebreak** daude Buchenwalden. **Urtzi Urrutikoetxea**

Kontu **xelebrea** da. **Berria - Kirola**

Honetan, **gauza xelebre** bat gertatu zen. **Bernardo Atxaga**

Hizketa **xelebrea** du (kapitalekoa izan...), erremerre eta guzti. **Xabier Etxabe**

Aitaren krisi hartatik aste pare batera-edo, pasadizo **xelebrea** gertatu zitzaidan. **Joan Mari Irigoien**

-Aizue, bai gertaera **xelebrea** ikusi dudana gaur goizean -esan zuen Albertek. **Xabier Olarra**

Apustu **xelebre** bat izan zen 1924. urteko otsailaren 17an, arratsalde, "Beote" baserriaren inguruan. **Xabier Etxabe**

Eta gero itxurakeria **xelebre** hori,aldi berean pedantea eta xarmagarria. **Monika Etxebarria**

-Aitzakia **xelebrea**, ezin uka. **Aingeru Epaltza**

Bururako itxura **xelebreko** txapel astun samar bat aurkitu nuen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Non dago hitz **xelebre** hori asmatu duenaren sena? **Koldo Zuazo**

Rakelek horrela antolatzen du bere informazio sentimentala, esaldi itxuraz **xelebre** batzuen inguruan. **Patxi Zubizarreta**

Delfin izen **xelebreko** diziplina-burua "Flipper" bilakatu zen nire bitartez. **Aingeru Epaltza**

Luzea, iharra, lepo **xelebrekoa**. **Xabier Olarra**

Horregatik da bizia hain gauza bitxia eta arraroa, auskalokoa eta parte **xelebrekoa**, eta zulatu ezina, eta ulertezina. **Iñaki Segurola**

Tomek atsegin zuen Harryrekin hitz egitea, hain baitzen **xelebrea** eta tolesgabea. **Oskar Arana**

Xelebrea zen kamisoiak eta batz jantzita han kanpoan ibiltzea. **Koro Navarro**

-Bai **xelebrea** eguraldia! -esan zuen ondoko agure batek. **Lopez de Arana**

Olibondo bat hemen, beste bat han... **xelebrea** benetan. **Iban Zaldúa**

Biak mozorrotuko ziren eta ikaragarri broma **xelebrea** egingo zieten arizmenditarrei. **Koro Navarro**

3 (adizlagun gisa)

Charly **xelebre** zegoen, atorra lepoduna eta zapata abantzu estandarrak jantzita. **Aingeru Epaltza**

Gizon hura oso **xelebre** portatu zen. Arestian, Achille jauna **xelebre** sentitzen zen, bakar-bakarrik zegoela iruditzen zitzaion. **Anton Garikano**

Badakit, arrats hartan, neskaren iritzira, inoiz baino alaiago aritu nintzela, **xelebre** oso. **Joxe Austin Arrieta**

4 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Honako hau ere, bere **xelebrean**, elkarrizketa bat da. **Iñaki Segurola**

5 (hitz elkartuetan)

Matxin Labaien gizon xahartu, begi-urdin, kaskasoil bat zen, **xelebre** fama zeukana Tolosan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Xelebre, paranoiko, maltzur eta enigmatiko fama du. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ateraldi **xelebre** (3); gazte **xelebre** (3); hire **ideia xelebre** (20); hitz **xelebre** (3); **ideia xelebre** (24); **ideia xelebre horiekin** (20); **jarrera xelebre** (4); **kontu xelebre** (3); **pasadizo xelebre** (3); **tipo xelebre** (4)

xelebre samarra (7)

zahar xelebre (3)

gauza xelebrea (6); **gizon xelebrea** (3); **itxura xelebrea** (10); **itxura xelebrea ematen** (4); **izen xelebrea** (4); **kontu xelebrea** (4); **modu xelebrea** (4); **tipo xelebrea** (3); **xelebrea benetan** (3); **xelebrea iruditu** (5); **xelebrea izan** (10); **xelebrea izan zen** (7); **xelebrea zara** (3); **xelebrea zela** (4); **xelebrea zen** (9)

gauza xelebreak (6); **ideia xelebreak** (3); **izen xelebreak** (5); **xelebreak dira** (5); **xelebreak izaten** (3)

itxura xelebreko (4)

xelebredun *izlag* xelebreko.

Lepoko **xelebredun** mutil gazteak gainbegiratu urduria bota zion besaulkian eserita eta parpailadun soinekoz jantzita zegoen neskari. **Mirentxu Larrañaga**

xelebrekeria 1 *iz* bitxikeria.

Edozer gauza bihurtzen zen **xelebrekeria** alproja haren ahotan. **Koro Navarro**

Pattarra eskatzen zuen, baina ez kopan, plater txo batean baizik, eta halaxe ateratzen zion haren **xelebrekerietara** aspaldi ohitutako tabernariak. **Pako Aristi**

Matxin Labaien gizon xahartu, begi-urdin, kaskasoil bat zen, xelebre fama zeukana Tolosan, baina artistei eman ohi zaien **xelebrekeriarako** lizentzia horrekin toleratua.

Xabier Mendiguren Elizegi

Xelebrekeria franko dago testu honetan, baina jarrera desmitifikatzaile baten ondorioz betiere. **Xabier Olarra**

Herrietako kronista izateak horixe ematen baitizu, **xelebrekeria** mordo baten jakitun bihurtzea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (egin aditzarekin)

Jaiki eta arrotz baten moduan begiratu zion emazteari, bat-batean **xelebrekeriak** egiten hasi den ero baten moduan. **Mirentxu Larrañaga**

Irabaztea inoiz baino beharrezkoagoa denean, **xelebrekeriak** egiten. **Berria - Kirola**

Seguru asko aitak edo amak **xelebrekeriaren** bat egin beharko du milako batzuk patrikaratzeko. **Jokin Muñoz**

Geroztik ere, nire nortasunaren osagarri finkoen artean geratu da orduko sentipen hura: nik egin ditzakedan **xelebrekeriak**, ihesaldirik burugabeenak gauza normaltzat hartuta bizitzea. **Pako Aristi**

3 (hitz elkartuetan)

Ni ez aspertzea nahi zuen, bistan zen, beldur zen bere festan istilu bat sortuko ote nuen nire atzeritar **xelebrekeriekin**. **Fernando Rey**

xelebreki *adlag* bitxiki.

Nola adierazi "Lizarran ere ez haiz busti" zaunka datozkidan liberatu izeneko yupi abertzale ezker hotseko horiei, toponimo **xelebreki** arrotza baizen ez dela izan neretzako Lizarra? **Patziku Perurena**

Zentimetro batzuk hazitako ilearen azpian bekoki txiki nabarmena zeukan, **xelebreki** zabaldutako belarri-gingilen azpian hantura berri eta zakar bi, beste leku batzuetan betzuloetako zorro bigunak. **Urtzi Urrutikoetxea**

xelebretxo *izond* adkor xelebrea.

Neskato **xelebretxo** da, baina **xelebretxo** buru-argia, ulertzen didazu, ezta? **Oskar Arana**

xemaiko ik semaiko.

xeme iz adkor semea.

Ikertxo ume bat da oraindik, baina jakinarean gainean dago edo jarri dute noizbait umea izateari utzi beharko diola; lehentxeago edo geroxeago bere umeaz beste egin beharko duela, "guk egin behar izan genuen bezala, **xeme**". [Iñaki Segurola](#)

xemeiko ik semaiko.

xemeko ik semaiko.

xenbaki iz adkor zenbakia.

Exekutibo dirugile edo dirugile exekutiboaren atarramentua jolas txoro edo umekeria gisa ikus liteke ("nik **xenbaki** gehiago", "nik beti gehiago"...), bai, baina baita zahardade goiztiar gisa ere. [Iñaki Segurola](#)

xenda 1 iz xendra, bidezidorra.

Kanpoan, hilerriko **xendak** lohiz estaliz, euri eta haize hotza ari zen. [Itxaro Borda](#)

Xenda parapetotik urrun samar doa, berro zelai zabal eta fresko batek aldendua. [Koldo Izagirre](#)

Etxean jarrita gelditu beharrean erretzen eta edaten, mainguka joaten zen kaleetan eta **xendetan** barna. [Fernando Rey](#)

Bilkurak ardurenean gogorrak baldin baziren, are neketsuagoak naski Euskal Herriko **xendak**, bihurgunez bihurgune, basurdeak, azkonarrak, orkatzak, hontzak eta kahakak, zaldiak eta ardi saldoak ustekabeen gurutzatzeko arriskua zegoelako. [Itxaro Borda](#)

Bazen oren erdia **xenda** pattar batean gora ari ginela. [Koldo Izagirre](#)

Xenda mehar bat izanen zen garai hartan, beltza eta kirasduna, galtzada-harrien artetik arrain buruak eta erraiak garraiatzen zituen erreka batekin. [Monika Etxebarria](#)

Biek harrizko **xendari** ekin zioten. [Itxaro Borda](#)

2 irud/hed

Noiztenka, irriz behatzen zenidan, ikusteko ea zure gogoetaren **xenda** bihurrietan ez nintzenez galtzen. [Itxaro Borda](#)

Ezen zeruetako erresumarako **xendak** ez baitira denei irekitzen, baizik eta bihotza garbi eta gogoia argi datxikatenei. [Itxaro Borda](#)

3 (hitz elkartuetan)

Ailegatzen zarenean, zeretik joan beharra dago, markesina batetik abiatzen den mendi-**xenda** batetik. [Fernando Rey](#)

xendera ik xendra.

xendotu, sendo(tu), xendotzen da/du ad adkor sendotu.

Aa!, hau kostaldekoa ez baina, barrukoa da: garia eta besteak ari dira, xuabe, isilean, erroak hartzen, xuxartxoak luxatzen eta **xendotzen** lurrean. [Pello Zabala](#)

xendra (orobat xendera g.er.) 1 iz bidezidorra.

Badira mila **xendra**, bide nahiz bidexka kasko horietan bai eta ordokian ere, guardiek ezagutzen ez dituztenak. [Elena Touyarou](#)

Etxearen ingurumartik urrunduz joango dira taldeak, inguruko kamino, **xendra**, zidor eta estratetan barrena, horietan guztietan ibili baitira goizean goiz jaikita begirale pare bat. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Xendra batetik errepedieraino jaitsita, Martin eta Bautista armada liberala kanpatua zegoen lekura iritsi ziren. [Koro Navarro](#)

Neurekin ibiltzen zen parkeko **xendra** eta bidezidorretan barrena piztietan ematen. [Javi Cillero](#)

Badakit kontrabandista maltzurra zarela, eta ezin hobeki ezagutzen dituzula pasabideetara doazen bide eta **xendrak** oro. [Elena Touyarou](#)

Alde bietako sasitza sarriaren ondorioz hartxintzarrezko bidea **xendra** bihurtzeraino estutzen zen. [Anton Garikano](#)

Zaldietatik jaitsi eta **xendra** batetik abiatu ziren. [Koro Navarro](#)

Xendra bat hartu zuten, Lizuniagara iritsi aitzin, eta zeharka ibili ziren usotegien guneraino. [Elena Touyarou](#)

Xendra batean gora egin nuen. [Edorta Jimenez](#)

Kapa goratu eta **xendraren** bihurgunean desagertu zen. [Anton Garikano](#)

Urrats ernean zebilen, eta xara ttipi bateko **xendran** desagertu zen. [Elena Touyarou](#)

Mehainerateko **xendra** hertsian. [Itxaro Borda](#)

So bat aski ote zen **xendra** lahartsuan tematzeko? [Itxaro Borda](#)

Arriskutsua eta labaina zegoen **xendra**, alboko ibaitik sortzen zen hezetasunak bustia. [Anjel Lertxundi](#)

2 irud/hed

Ospetsuen bidea alde batera utzita, juxtu alderantzizko **xendra** hartu nuen. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Bizia bereber ikastera behartua izan zen, **xendra** okerretan barna galduz, erantzun egokiak itsumandoka harrapatzen saiatuz. [Itxaro Borda](#)

Zein ziurrago ez da helburua bilatzea eliza legeen bide handitik, ezen ez asmakeria berrien **xendra** bide berrietarik, hauek xede onez asmatu ere. [Piarres Xarriton](#)

Ez nintzen konturatu patuaren **xendrak** etengabe hausten badira ere, modu etengabe berean elkartzen direla aurrerago, ez dugula zertan jardun ustezko egia osoaren bila, batez ere delako egia hori gure **xendratik** kanpo badago. [Javi Cillero](#)

3 (hitz elkartuetan)

Argindarrik gabeko bide-**xendrak**, eta ilundu ondoren itzuli behar etxera behin baino gehiagotan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Tren geltokian jaitsita, bidezidor batetik iristen zen hara azkarrena, eta egundokoa izaten zen goizeko tranbia gelditu bezain laster bide-**xendra** estu eta mehar hartan eratzten zen lasterketa, ambulatortira lehenbailehen ailegatu eta ahalik eta numerorik onena hartzeko. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

4 xendra-bide (orobat xendrabide)

Zein ziurrago ez da helburua bilatzea eliza legeen bide handitik, ezen ez asmakeria berrien **xendra bide** berrietarik, hauek xede onez asmatu ere. [Piarres Xarriton](#)

Angelutik Hendaiarat, gaitzeko ibilaldia egiten da, errebide handia utzirik haatik, xokoz-xoko eta **xendra-bide** batzu hartuz. [Herria](#)

xendrabide ik **xendra** 4.

xendratu

Oparitxo bat da, berak **xendratutako** preso eskerturen batek emana. **Koldo Izagirre**

xenila iz nasaitasun gutxiko kapa mahukaduna.

Kolore iluneko **xenila** bat janzten zuen normalean, bizkarrekorik eta brodaturik gabe, Karlos III.aren plakarekin eta urrezko artilearekin. **Koldo Izagirre**

Eseri zen mahai aurrean, sartu zuen bere zapia **xenilan**, zabaldu bere ondoan eskuizkribu preziatua. **Josu Zabaleta**

Gizonak izerdi lapetan zeuden oihal lodiz egin palto eta **xenilak** soinean; emazteek berriz, itzalgune bat bilatzen zuten, hats bahiturik. **Elena Touyarou**

xenodiru iz herrialde batez mintzatuz, atzerriko bankuetan duen dirua.

Eurodolarren merkatua, 1960ko hamarraldian bigarren mailako fenomenoa izan zena -eta, orokorrigo, **xenodiruen** merkatua (euromarkoak, asiadolarrak, etab.-), nazioarteko finantzen ardatz bihurtu zen petrolioaren krisiaren ondorioz. **Koro Navarro**

xenofobia 1 iz atzeritarren eta atzerriko gauzen kontrako gorrotoa.

Euskal idazle bati ahozkotasanaz galdetzen diotenean, azpian dagoena betiko **xenofobia** da. **Bernardo Atxaga**

Xenofobiak formarik bariatuenak har ditzake, ideia "atzeritarren" jasanezin ideologikotik, kontinente osoetako arrazen erdeinuraino. **Joxe Azurmendi**

Islamaren jarraitzaileen kontrako **xenofobia** saihesteko politikak sustatzea. **Berria - Euskal Herria**

Komunitate ezberdinetan gero eta handiagoa den **xenofobiari** aurre egiteko bide baketsua sendotzea dugu xede. **Berria - Mundua**

Kontxi Bilbao legebiltzarkideak Espainiako Gobernuari «arrazakeria eta **xenofobia** sustatzea» leporatu zion. **Berria - Euskal Herria**

Baztertzea da sozializazioaren antitesia, eta masako langabezia, **xenofobia** berpiztu berrian eta familiak desegitean nabarmentzen da bereziki. **Koro Navarro**

Uste dut "un sang impur abreuve nos sillons" arrazakeria eta **xenofobia** dela. **Herria**

Badakizue, gazte talde erradikalen **xenofobiaren** arazoa dagoela, langile etorkinei erasoekin, asilante etxeen erreketeekin, etab. **Joxe Azurmendi**

Xenofobiaren makinaria martxan da dagoeneko Frantziako presidentziarako hauteskundera begira. **Berria - Euskal Herria**

Arrazakeriaren eta **Xenofobiaren** aurkako Nazioarteko Eguna. **Berria - Euskal Herria**

2 (izenondoekin)

Belgikan ere **xenofobia** eta arrazakeria handia dago, eta horri eta aurreiritziari aurre egin behar zaie. **Berria - Mundua**

Ederra hautaketa, **xenofobia** hutsa ezkututzen duena. **Berria - Euskal Herria**

Genet, beste batzuekin batera, Sartre, esaterako, **xenofobia** faxista haren kontra aritu zen, ahal zuen foro guztietan hura salatzen. **Paddy Rekalde**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iparraldeko politikari aintzez ihardoki dute [...] "persona non grata" latinezko erranaldi berexle horren kontra, hitz horien azpian suma daitezkeen **xenofobia** sentimenduen sustatzea leporatuz abertzaleei. **Herria**

Txostenak dio Arartekoak «era askotako kexuak» jasotzen dituela torturen, begirunerik gabeko tratuen edo **xenofobia** kontuengatik. **Berria - Euskal Herria**

Batetik, merkatua osatzeko jende hori behar dute; baina, bestetik, etorkinen sarrera kontrolatu nahi dute arrazakeria edo **xenofobia** arazoak saihesteko. **Berria - Euskal Herria**

Gobernuek Kontalaria gonbidatu beharko lukete, arrazakeria, bazterketa eta **xenofobia** kasuak aztertzeko. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrazakeria eta **xenofobia** (3)

arrazakeria eta **xenofobiaren** (3); **arrazakeriaren eta xenofobiaren** (6); **xenofobiaren aurkako** (7)

xenofobiko izond xenofobia.

Duela bizpahiru komunikatu, esaterako, oharkabean pasatu zen aipamen **xenofobiko** bat. **Hasier Etxeberria**

xenofobo 1 izond xenofobiari dagokiona.

Hori maiz konnotazio nazionalista eta **xenofobo** ohiko guztiekin egin duela. **Joxe Azurmendi**

Adierazpen arrazista eta **xenofoboak**. **Berria - Euskal Herria**

Batzuetan lehergailuez betetako motxilak dira, beste batzuetan lokian tiroak, beste batzuetan jarrera **xenofoboak**, eta beste batzuetan, artistei egindako boikotak. **Berria - Kultura**

Arrazakeriaren aurkako lege zorrotzenak ere ez ditu desagerraraziko gure baitan hain errotuak ditugun eskema **xenofoboak**. **Anjel Lertxundi**

Berria-k ez ditu, berez, eta estilo zuzenean, erabilera sexista, **xenofobia** edo oro har, baztertzaila duten hitzak erabiltzen. **Iñigo Aranbarri**

Zure iritziz, Sarkozyren proposamena **xenofobia** da? **Berria - Euskal Herria**

2 izond/iz xenofobia sentitzen duena.

Monumentuzaleak bezala jokatzeko du [...] euskararekin inolako harremanik nahi ez duen hainbat jende **xenofobok** ere. **Bernardo Atxaga**

Xenofobo eta antisemita itzela ere bada Baroja, judufobia birulento partikularrekoa bereziki. **Joxe Azurmendi**

Horrela jokatzeko dute hiriko señorito klasistek nekazariekin; horrela **xenofobok** eta beste asko -fede oneko demokrotak, tartean- euskaldunekin. **Bernardo Atxaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xenofobo eta arrazistak (3)

xenoi ik xenon.

xenon *iz gai bakuna, airean oso proportzio txikitian dagoen gas geldoa*(Xe; at. z. 54).

Xenon gasaren ioiak jaurtita lortzen du bultzada motorrak. Berria - Gaiak

Aurreikuspenak gainditu ditu zundak: 82 kilo **xenon** erregaitik soilik 59 erabili ditu eta uste baino bi hilabete lehenago heldu da Ilargira. Berria - Gaiak

Zundak **xenon** ioizko motorea abiatu zuen astelehen arratsaldean, Ilargiaren inguruan. Berria - Gaiak

xenopus *iz jatorria Afrikan duen igel mota haragijalea.*

Badira itsas trikuaren zale amorratuak, bai eta igelarenak ere, edo, hobeki esanda, **xenopusarenak**, handiagoa baita haren arrautza; oilaskoa kuttun dutenak. Juan Garzia

xenotransplante (*orobat xenotrasplante*) *iz espezie baten organoak edo ehunak beste espezie batean txertatzea.*

Gaixotasun mota hauei aurre egiteko bi estrategia berri planteatu dira azken urteotan: batetik ama-zelulen erabilera eta bestetik **xenotransplanteak**. Berria - Gaiak

Txerrietan oinarritutako **xenotransplanteak** gizakiok pairatzen ditugun hainbat gaixotasun osatzeko. Berria - Gaiak

Xenotrasplanteen inguruko AEBetako legedia. Berria - Gaiak

xenotrasplante ik **xenotransplante**.

xentimentu *iz adkor sentimendua.*

Xentimoko **xentimentuak**. Iñaki Arranz

xentimo 1 *iz adkor zentimoa.*

Bi eskola-ume, hamabi **xentimoren** "goxoki garratzak" erosi zituztenak. Anton Garikano

Bost **xentimoko** pupua, hamar **xentimoko** trapua. Berria - Kultura

Lau **xentimoan** bakoitza. Anton Garikano

Eratzunak bere horretan, urtetan gorde duzun moduan, bost **xentimo** ez du balio. Ander Irizar

ik beherago 3. Askoren artean

Pobreek bost **xentimo** ematen dute; burgesek erreal bana; jaunek pezeta erdia. Koldo Izagirre

-Ezagutzen diat etxe bat, ordu laurden uzten ditek baineran ur berotan, berrogei **xentimo** xaboiarekin. Koldo Izagirre

Ez dut sekula ikusi inork bere libreta ekartzeari uko egitea, dolar bat eta bi **xentimo** jasotzeko izanda ere. Xabier Olarra

Ez zuen behin ere **xentimorik** izaten sakelana. Fernando Rey

Berrogeiren bat neska izango ginen, denak koarto handi batean, **xentimorik** kobratu gabe egun osoan lanean, jatekoa negargarria eta leihotik kanpora begiratzea debekatua.

Arantxa Iturbe

Oraindik ez dugu **xentimorik** ikusi. Pako Aristi

Diru horretatik **xentimorik** ere ez dela iritsi kutxara. Xabier Olarra

Amerikara **xentimorik** gabe joandako milaka eta milaka euskal emigranteen bertso, gutun eta berri apalak. Anjel Lertxundi

Ez dago txartel bakar bat, koma bakar bat, **xentimo** bat falta denik. Xabier Olarra

Lau **xentimoak** utzi, eta hogeikoa hartu zuen. Juan Garzia

Hamar **xentimoko** txanpon bat. Joan Mari Irigoien

Koroa bat eta hamar **xentimoko** bat aurkitu zituen eskuko poltsan. Anton Garikano

2 irud/hed

Gure ospeak orain ez du **xentimorik** ere balio. Fernando Rey

3 **bost xentimoko izlag** ia baliorik ez duena.

Ibarretxe eta EAJ adituak dira bost **xentimoko** adierazpenak egiten, baina adierazpen horiek ez datoz bat inondik inora egiten duten politikarekin», dio Batasunaren oharrak.

Berria - Euskal Herria

Eta biak ala biak politikaz bost **xentimoko** esaldiak esaten, atertu gabe. Fernando Rey

Bost **xentimoko** iraultzailea. Jokin Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xentimo bat ere (3)

bost xentimoko (6); **hamar xentimoko** (4)

bost xentimokoa (3)

xentimorik ere (13); **xentimorik ere ez** (7); **xentimorik gabe** (4)

xeoxe *izord adkor zer edo zer.*

Nola -pentsatzen duzu gogapetik- batere ez baino hobe den betiere **xeoxe**, ba hortxe segitzen duzu goma-puska lehor bati kokx eta kokx. Iñaki Segurola

xera (**31 agerraldi**, **18 liburu eta artikulua 1ean**) **1 iz txera**, xamurtasunezko sentimena.

Sarrerazainak **xera** handirik erakutsi gabe utzi zidan pasatzen. Anjel Lertxundi

Enperadore Horiak, pintatzaileari **xera** handia ziolako, barkatu egin zion urdinaren atrebentzia halakoa, baina ez zuen ahaztu koadroarekin erakutsitako lotsagabekeria.

Felipe Juaristi

Felix Sumarakov-Elston gizon lehorra omen zen, semearekiko maitasun eta **xera** gutxi erakusten zuena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Xera goxoz oroitzen ote nauzu? Xabier Mendiguren Elizegi

Oso atseginak ei ziren eurekin, **xeraz** eta adeitasunez tratatzen ei zituzten. Urtzi Urrutikoetxea

Gizonak, azkenik, emakumea amodiorako prest zuelakoan, ezpainak jarri zituen emakumearen ezpainetan, honek, **xeraz**, erantzun egokia emango ziolakoan, baina,

emakume nafarrak, amorrus kosk egin eta goiko ezpainari mami puska txikia kendu zion. Felipe Juaristi

2 (ekintza gisa)

Zein erraz egin nintzakezu zuriotsu -irriño bat, **xera** bat-, eta zere aise kuden desesperantzaren zorigaitzeara! **Xabier Mendiguren Elizegi**
Potzolarekin nirekin baino luzeago joan ziztaion kafe gozatzea, ez baitzuen **xera** pare bat egiteko parada galdu. **Aingeru Epaltza**
Keinuak eta **xerak** eta hasperen erdiak egiten zizkioten elkarri. **Pello Lizarralde**
Hala egon zen luzaz, kotoiari **xera** eta **xera**, laztan antzuetan. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Xera eta **xera**, ezteki mintzatu zaio. **Xabier Montoia**

3 irud/hed

Eguzkiaren **xera** azalean nabaritzen dudala. **Xabier Montoia**

xeratsu 1 izond txeratsua.

Nire agur **xeratsua** Patricki eta Andreari. **Edorta Jimenez**
Hain amodio sutsuz sentitzen zen Kristorengana erakarria eta Maiteak hain maitasun **xeratsuz** erantzuten zion, ezen Salbatzailearen presentzia beti begi aurrean zuela ematen baitzuen, berberak lagunik minenei noizbait esan zienez. **Askoren artean**
Zenbat eta **xeratsua** eta prestuago Kristinarekin, hainbat eta hotzago eta iheskorrago nirekin. **Aingeru Epaltza**
Hontz txikiak, Ronen eskuan poz-pozik uluka, hatz batean mokoka egin zion, era **xeratsuan**, bere ustez. **Iñaki Mendiguren**

2 irud/hed

Ene gorputz akituak atsedean hartzen zuen alfonbratxo **xeratsua**rekin. **Patxi Zubizarreta**

3 (adizlagun gisa)

-Asmatu duk, orduan, bete betean asmatu duk, laztana -hurbildu ziztaion, **xeratsu**. **Migel Angel Mintegi**

xeratu, xera(tu), xeratzan du ad xeraz laztandu.

Bizkarra **xeratu** zion hurrena, "Lasai Lakatz, lasai; laster amaituko diagu" esanaz ahots mehe eta irribarretsu batez. **Joxemari Urteaga**

xerbitxari ik zerbitzari.

xerbitxatu ik zerbitzatu.

xerbitxu ik zerbitzu.

xerbitzari ik zerbitzari.

xerbutxu ik zerbitzu.

xeremonia iz adkor zeremonia.

-Hainbeste **xeremonia** erabiltzen duzue azaltzeko! -esan zuen Francesco aingeru hark bere hortz gabeko aho gaixoarekin. **Josu Zabaleta**

xerez (orobat jerez) 1 iz Xerezen egiten den ardo zuria, idorra eta urrintsua.

Pastaxoak jaten eta **xereza** edaten. **Harkaitz Cano**
Biak bakarrik ilunabarrean **xereza** edaten ari ziren hosto zabaleko platanondo baten azpian. **Lopez de Arana**
Mahaira inguratu eta nire **jereza** dastatu nuen. **Irene Aldasoro**

2 (neurriez)

Okela zatitxo bat, kopa bat **Xerez** eta katilukada kafe. **Josu Zabaleta**
Kopa bat **jerez** hartzea sekulako mozkorraldi baten hasiera gertatzen ziztaion. **Koro Navarro**
Kopa bat **jerez**, Lane. **Antton Olano**

3 (hitz elkartuetan)

Nanniek, arasara joan, eta **jerez** botila bat eta ardo-kopa batzuk atera zituen. **Irene Aldasoro**
Piano aurreko aulkixuan atsedean hartzera gonbidatu zuen Antonia eta, gura ote zuen itaundu barik, **jerez** basokada bat zerbitzatu zion. **Josu Landa**

xerka (108 agerraldi, 37 liburu eta 18 artikulutan; orobat xeka 28 agerraldi, 3 liburu eta 19 artikulutan –guztiak Herria-koak-, eta txerka g.er.) adlag bila.

Sarri aita heldu zait **xerka**. **Janbattitt Dirassar**
Mundu eder eta zoragarri oso bat datorkit **xerka**, jadanik ez zaitut behar, Eñaut, jadanik ez dut gehiagorik behar. **Sonia Gonzalez**
Hor ere autobusa jina zauku **xerka**, berekin duela Bernadette gure agentziako zerbitzari baitezpadakoa eta paregabea. **Herria**
Prousten **xerka** ospetsua, denbora galduaren aurkako lehia. **Berria - Kultura**
-Haurraren **xerka** nator -erran zion agur gisa. **Elena Touyarou**
-Hasieran ez zegoen hain... ez zegoen hain... -errepikatu zuen, hitz egokiaren **xerka** iduri. **Aingeru Epaltza**
Pierra, hoa ezkaratzean den pildagiaren **xerka**. **Itxaro Borda**
Gero, gogaiturik, aparatuko eskanerra hegaz utzi nuen, zerbait interesgarriagoaren **xerka**. **Aingeru Epaltza**
Bera ere ibilia baitzen Parisen, ogiaren **xerka**. **Harkaitz Cano**
Klitorisa ferekatzen hasi da, ailegatzear dagoen orgasmoaren **xerka**. **Juan Martin Elexpuru**
Marmarioa plazara iritsi zenean, guardia zibilek, Vicentek eta inguruko guztiek burua harantz jiratu zuten, iristen ari zen hotsaren **xerka**. **Jon Maia**
Zoaz, beraz, Indiara, andregaiaren **xerka**. **Gotzon Garate**

Ekuaio baten **xerka** akaso, zeinen osagaiak akotarikoak ziren: karioak, tamarindoak, olatuak, jendea, ostertza... **Itziarri**
Gizonaren ahoa itsumustuan ari zen masaila batean, sudurraren azpian, emakumearen ahoaren **xerka**, irrikatsu. **Lopez de Arana**
Zuen gizonen **xerka** hasi zara Mazellaren laguntzaz. **Xabier Montoia**
Erran dizut ezen bakearen eta sosegaren **xerka** ibili nintzela. **Joan Mari Irigoien**
Langintza gogorra zen itzalen **xerka** ibiltzea. **Edorta Jimenez**
Igorri norbait **xerka**. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
itzalen xerka (3); **xerka hasi** (6); **xerka ibili** (3); **xerka joan** (3); **zure xerka** (3)

xerkarazi, xerkaraz, xerkarazten du ad xerkatzera behartu. ik **bilarazi**¹.

Hango erregel bere lurreko emazte ederrenak **xerkarazten** ditu eta bere aitzinera ekarrazten. **Aurelia Arkotxa**

xerkari izond/iz xerka dabilena.

Zorigaitzez, ateratzeko punduan, hor zituzten beha **xerkariak**, betiko zaintzaileak... **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Izar-**Xerkariak** / Foka ehiztariak. **Aurelia Arkotxa**

xerkatu (108 agerraldi, 37 liburu eta 18 artikulutan; orobat **xekatu** 63 agerraldi, 5 liburu eta 52 artikulutan –ia guztiak Herria-koak-, eta **txerkatu** g.er.) bilatu.

-Zerbait **xerkatzen** duzu? **Elena Touyarou**
So egizu, esnez egarri da, xerri tipiaren pare titia **xerkatzen** du! **Itxaro Borda**
Trenpu txarraren arintzeko, jartoki bat **xerkatu** baina ez zuen ezer kausitu: zutik geratu zen. **Itxaro Borda**
Nire esku presatuek eskelen orrialdea **xerkatu** zuten. **Aingeru Epaltza**
Makurtu eta ohe azpian bere botikin partikularra **xerkatu** zuen: ohepetik sei botila Cutty Shark atera zituen. **Harkaitz Cano**
Ezpainek ezpainen bahiak **xerkatzen** eta atzematen zituzten, intziri, irri eta so geldoen gerizan. **Itxaro Borda**
Beste gizonak potxotx-zuloa **xerkatu** du, eta nekerik gabe sartu zakil osoa bertan. **Juan Martin Elexpuru**
Lan bat **xerkatzen** du emazte batek, ez sobera dorpea, adinaren gatik (55 pasatzen), baina oraino erretreta urrun izana gatik bizi behar duena. **Herria**
Momentu zehatz baten harrapatzea **xerkatzen** dudalako. **Ana Urkiza**
Euskaraz pentsatzeko ahalmen hori dut hain segur berriz **xerkatzen**. **Berria - Kultura**
Argibideak **xerkatzen** hasita, goitizena da bideko lehen argia; Xenpelar. **Berria - Kultura**
Irakurle zein idazle gisa, tentsioa dut **xerkatzen**. **Berria - Kultura**
Joanito eta Gartzia nahasmenduaz baliatu ziren presoan erdira joateko eta Mariren **xerkatzeko**. **Elena Touyarou**
Ut, ezpata; **xerka** ezak tertzio latzagoren bat. **Juan Garzia**
Berorren mandataria han aurkitzen ez badu, berorrek beza **xerka** beste lekuan. **Juan Garzia**
Dabilela suak harturik gauean; **xerka** nazala hire hilobiaren ondoan, oi Foinisa! **Juan Garzia**
Ea berunik bazuten, non erosten zuten eta zenbat ordaintzen zuten: zenbatenez garestiago ordaindu, hainbatenez **xerkatzenago** nuen nik inguruetan. **Juan Garzia**

xerkatzaile iz xerka dabilen pertsona.

eskuarki, bidaiari behar dugu, **xerkatzaile** ez ezik. **Juan Garzia**
Xerkatzaile on batek, serio den eta ez besteei eta ez bere buruari gezurrik esan nahi ez dion batek, ez du fidatu behar itxuraz. **Juan Garzia**
Ur-**xerkatzaileei** bezala gertatzen zaigu apika guri, ez baitakite zerk gidatzen dituen ura den lekura, baina zerbaitek gidatzen baititu hala ere, eta zotza makurrarazten haien hatz artean. **Juan Garzia**

xerkatze (corpusean **xekatzeko** soilik) iz bilatzea.

Entzun ditugun eztabadak ere biziki interesgarriak ziren, bereziki Lustifer Kardinalarena, hunek erran baitu barkamena galde egitea Amodioaren **xekatzeko** bat dela. **Herria**

xerlo 1 iz besteetatik bereizten den ile multzoa.

Haren lokietako **xerloak** beste inorenak ez bezala kizkurtzen ziren, eta beste modu batera lotzen zuen lepoko zapia. Haizeak ile urdinezko **xerlo** batzuk soilune higatuan inarosten zizkion bitartean, [...]. **Koro Navarro**
-Zure ilearen **xerlo** bat nahi dut. **Fernando Rey**
Ile kizkurrezko bi **xerlo** zeramatzen masailaren itsatsiak. **Karlos Zabala**
Noizean behin bere ile tindatuaren **xerlo** bat estutzen zuen. **Koro Navarro**
Mototsa garai, **xerlo** kizkurrez hornitua, haragia zuri eta delikatua. **Karlos Zabala**
Gizon pentsakor bat zen; aurpegi estu iluna zuen, eta ile luzeak, **xerloz** estaliak. **Juan Kruz Igerabide**
Don Ottaviori begiratu zion Ruche jaunak; biraka ari zitzaizkion zilar-koloreko ilajeko **xerlo** luzeak, hegan. **Jon Muñoz**
Bustitako lekuetan, ilea beltz eta leun ageri zen; besteetan, aldiz, latz, **xerlo** argi eta ile-urriekin. **Jose Morales**
Ilea **xerlo** argiz tindatuta darama. **Iban Zaldúa**

2 (hitz elkartuetan)

Ikusi zuen irriz ari, kantua amaitzean zoriotsu, eta haren bilo **xerloen** beren tokian emateko eskuaren luzatzeko tirria ukan zuen. **Elena Touyarou**
Ohitura zuen *mazochiak* marrazteko, zeinak oihalez estaliriko zurezko uztaiak baitira, buruan jartzen direnak, dilindan geratzen diren ehun-**xerloek** aurpegi guztia inguratzen dutela. **Juan Garzia**

3 ile xerlo

Ile-xerlo bat dindilizka zeukan bekain baten gainean. **Lopez de Arana**
Mirariri **ile-xerloa** erori zitzaion kopetara. **Fernando Morillo**
Soinean zeukan jantzia eta bere seme hilaren **ile-xerlo** bat, gero gutunazal batean gordetzen zuena: horiek besterik ez zuen bererik. **Xabier Olarra**
Ile-xerlo bihurri batek ihes egin zion. **Fernando Morillo**

ile-xerlo horailak ageri zitzaizkion bere kapelu oktogonalararen azpitik. Koro Navarro
Han izaten zen, **ile xerlo** horiak lepoan eta lokietan, soinekoaren botoiak gaizki lotuak, bere postuaren atzean eserita, ganoragabe. Karlos Zabala
Gizenago zegoen eta burutik soildua ia-ia, baina buruaren goiko aldean bazituen, artean ere, **ile-xerlo** hori leun banatu batzuk. Fernando Rey
Horregatik ateratzen da kea **ile xerloa** balitz bezala estolderietatik gora. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ile xerlo (40); **ile xerlo bat** (11); **ile xerlo batek** (3); **ile xerlo hori** (4)
xerlo beltz (3); **xerlo hori** (4); **xerlo horiak** (3)
ile xerloa (7)
ile xerloak (6); **lokietako xerloak** (3)

xerloka *adlag* xerlo multzoak osatuz.

James Cagney trauskil bat, **xerloka** ilehoria, etengabe algara batean zegoen Nicole guri-guri batekin ezkontdua. Josu Zabaleta

xerment ik xirmendu.

xerra 1 *iz adkor* zerbaitetatik bereizten den zati luze, zabal eta mehea.

Oholaren mutur batean, haren aurrean, **xerrak** ebakitzen ari zen kontu handiz. Karlos Zabala
Hiru koilarakada gurin mardul-mardulak bota zituen Ruche jaunak, lehenengo **xerra** zartaginean jarri baino lehen. Jon Muñoz
Arasaren goiko apalean paperez bilduta zegoen hirugiharretik lau **xerra** hartu zituen. Josu Landa
Zartaginean, bost **xerrak** egosten; eltzean, berriz, tipulatxak urtzen. Jon Muñoz
Bi tipulatx **xerratan** moztu -malkorik isuri gabe oraingoan ere-, basobete olioia eltzera bota, eta sua egokitu zuen. Jon Muñoz
Neskari uzten dio txanpinoiak **xerratan** ebakitzen. Oskar Arana
-Libra erdi bat soltxitxoi, **xerretan** ebakia. Lopez de Arana
Varsovian **xerretan** mozten zuten gurina, puska handi batetik, zerraz. Koro Navarro
Moztu tomateak zentimetro bateko **xerretan**, gatz-pipertu, arto-irinetan pasa. Pablo Sastre
Tea, esnea, gurina eta marmelada, **xerra** bat urdaiazpiko eta ogia. Joxemari Iturralde
Ogitartekoa ireki eta lau **xerra** mortadela zenbatu ditu. Xabier Mendiguren Elizegi
Bost **xerra** txistor edo errefauak edo izkirak edo apioa saltsan, erretilu bat. Monika Etxebarria
Bost **xerra** zekor-zangar jarri zituen mahai ganean Ruche. Jon Muñoz

2 (izenondoekin)

Xerra mehetan ebaki. Jon Muñoz
Ahalik eta **xerra** mehenak, zera. Jon Muñoz
Amak umeari ogi puska eman eta **xerra** mehe-mehe bat besterik ez zuen pikatzen beretzat. Karlos Zabala
Ogi-**xerra** xigortu batzuk jan eta kafe bat hartu nuen. Fernando Rey
Zenbait minutu geroago, berdintsu egin zuen bigarrenez atera zizkiguten **xerra** errusiar zigortuekin. Aingeru Epaltza
Pixka bat gerturatuz gero, ikusten zen **xerra** luze lodi berdinetan ebakirik zeudela. Irene Aldasoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urdaiazpiko **xerra** -erdi bat jango dut. Joseba Urteaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lasai zegoen, ogi **xerrak** jaten zituen, irribarre egiten zien emakume guztiei. Karlos Zabala
Hozkailua ireki eta gasna **xerra** bat brast! ebaki nuen. Itxaro Borda
Eltzearen ganean tipula **xerrak** pikatu berriak zituen. Karlos Zabala
Rona isurtzen zuen tantaz tanta limoi **xerraren** ganean, urarekin ez nahasteko moduan. Karlos Zabala
Goi-goian zuen tomate **xerra** askatu eta zabal-zabal eroria zen, gorria gorriaren ganean. Monika Etxebarria
Legatz **xerra** batzuk oliotan frijituak. Koldo Izagirre
Han jarri nahi baitzuten urdaiazpiko-**xerrak**. Jon Muñoz
Xingar **xerra** eta arrautzak azietan pausatu zizkion. Itxaro Borda
Berak ebakitzen ditu kebab-**xerra** meheak suaren inguruan bueltaka ari den haragi-puska handitik. Jon Arretxe
Tailarinak eta haragi-**xerrak** eskatu zituzten. Fernando Rey
Bada, eraman ezazu mingain bat, edo txerri buru puska bat, edo urdaiz beteriko txahalki **xerra** bat. Karlos Zabala
Ondoren, idi **xerrak** baratxuri saltsarekin. Berria - Kirola
Odolki hotza, saltxitxoi **xerrak**, txerri okela gazitu puska bat. Karlos Zabala
Eta menbrilo-**xerra** batzuk, mehe-meheak urdailari lagundu eta jan-ondo ona izan dezan. Patxi Ezkiaga
Haragi puskak, ehiza **xerrak**, arrain buruak edo isatsak. Karlos Zabala
Bitarte hartan, gaizkata-**xerra** onduak jan zituzten. Jose Morales

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Urdaiazpiko egosi **xerra** lodiak ogi artean. Xabier Mendiguren Elizegi
Soldaduauren zaku mailatua zopa urtsua eta tipula-buru biguna dituela, ogi beltz-**xerrari** lagun egiten. Felipe Juaristi

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Arratsean, urdaitegitik igotzen zelarik, saltxitxa zatiak, gibel pate **xerrak**, urdai azal paketeak ateratzen zituen bularretik. Karlos Zabala
Oheratu baino lehen, eri artean bihikatu etxe-gasna **xerra** fin baten irenstea, ogi poxi batez lagundurik, ohitura sakratua bilakatua zitzaidan. Itxaro Borda

7 haragi xerra.

Fideo-zopa bat, **xerra** bat, fruta bat. Rafa Egiguren
Serio bazkaltzen zuen, lasai, axola ez zitziola zer **xerra** mota jaten ari zen, baldin bazen, inongo zalantza-izpirik gabe, **xerra** bat plantxan egina. Fernando Rey
Xerra patatekin, ardoa gaseosarekin, flana mantekaduaekin. Xabier Mendiguren Elizegi
Amerika... -esan zuen altzairu leunduzko aitzo batez ondo piperrautsutako **xerra** lodi eta gutxi egindako hura ebakitzen zuen bitartean. Lopez de Arana
Zainzurien buruak % 50 proteina dauka, **xerrak** baino askoz gehiago. Irene Aldasoro
Jantokian gelditu dira umeak, **xerra** jaten. Berria - Harian

Orain ezagutuko ez nukeen etxeoandreak ateraten zizkigun **xerra** pusketak ditut gogoan, eta Joxeaustina. Xabier Etxabe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gasna xerra (11); **gasna xerra bat** (4); **haragi xerra** (4); **ogi xerra** (30); **ogi xerra bat** (7); **tomate xerra** (4)

xerra bana (4); **xerra mehe** (5); **xerra mehetan** (4); **xerra on bat** (3)

haragi xerrak (3); **ogi xerrak** (5); **saltxitxoi xerrak** (3); **xerrak ebakitzen** (3)

xerrada *iz* xerra.

Xerrada ekonomikoa hau, nonbait, txahala txiki-txiki egin eta dena zatitu ondoren gelditzen diren hondarrek in egindako anabasa bat da. Pako Aristi

Beraz, diote egunkariak, ez da **xerrada** bat, industri-prozesu baten bidez zati ezberdinak josirik egindako mondongo zaztar bat baizik, begien aurretik ilunpetan eta azkar-azkar pasaz gero **xerrada** dela pentsa litekeen arren. Pako Aristi

Etorkizuna infragastronomikoa omen dator beraientzat, eta **xerrada** ekonomikoa hori ez da Chavez eta bere ingurukoen erretratu zehatz bat baizik, anabasa nazkagarri bat alegia. Pako Aristi

Beragatik, mendiak hartu eta ri-rau altxatzeko trebe sentitzen nintzen; beragatik, nire txitxiak **xerradatan** ebakiko nituzke; beragatik, su motelean erre nintzaten utziko nuke.

Jesus Mari Mendizabal

xerraka *adlag* xerretan.

Egia erran, aski badakit ez dituztela beren ama marrakariak berriz ikusiko, joan ditzen haragi-hoztegiatarat kostelet eta **xerraka** ala, doi-doiko epe luzeagoan, gizentegien betetzera toki zerratueta. Herria

xerratu¹, xerra(tu), xerratzen 1 du *ad* xerretan zatiu.

Bera salmahai altu eta hotz horren atzean ezkutatzen zen, eta hortik begiratzen zion disimuluan, ganibeta zorrotzarekin haragia zeharkatzen, **xerratzen**, txikitzen zuen bitartean, odol arrasto nabarmenak zituen mantala soinean zeramala. Berria - Kultura

2 (era burutua izenondo gisa)

Bizkotxoak, souffleak, entsaladak, zopa eta saldak, haragi beratuak, saltsak, arrain **xerratu** eta birrineztatuak, krocketak, ogi eta hostore ia erreak. Edorta Agirre

xerratu², xerra(tu), xerratzen du *ad adkor* ebaki.

Txalupa saihetsera zihoan okertuta, ura zorrotz **xerratu** eta kaskada berdetan eroriz, burbuletan, kataratetan. Anton Garikano

Biek sentitzen zuten poztasun bera, olatuen mugimenduak piztua; eta geroago baita belauntzi baten lasterketa zorrotzak piztua ere, badian arku bat **xerratu** ondoren geldituz.

Anton Garikano

xerratxo *iz* xerra txikia.

Entsalada xume bat, zopa hotza eta puzez lagunduriko txerriki **xerratxo** bat izan da agintariek eskaini diguten oturuntza. Edorta Jimenez

Orduan plateretik beste urdaiazpiko **xerratxo** bat ostu nuen. Edorta Jimenez

xerrenda 1 *iz adkor* zati luzetxo eta mehartxo. ik **zerrenda**.

Xerrenda mehe bat, errotulagailuz marraztuta, kopetan jartzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Oihalezko **xerrenda** ilun batek inguratzen zion lepoa, eta mantelina beltza ikus zekiokoen sorburuen gainetik. Txillardegia

Lizarrako gure artxibategi apal hartan, halaz ere, bi kartoiren artean eta **xerrenda** hori batez loturik aurkitu nuen orri-sorta hura irakurririk, [...]. Txillardegia

Hego Afrikako zuhaitz-sugearen azala **xerrendatan**. Iñaki Mendiguren

Xerrenda gorri batez zintzilikatutik eramateko asmatutik, gurutze itxura zuen. Txillardegia

Zeru urdin eta lur arrearen **xerrenda** mehea. Xabier Montoia

Kortez-azpiko epilepsia baten antzekoa da Tourettearen sindromea; gailentzen denean, kontrol **xerrenda** bat, kortez **xerrenda** bat dago zure eta beraren artean. Xabier Olarra

Iparraldera Gaskoinia, hegoaldera Zuberoa [...] eta bataren eta bertzearen artean, elkarrekiko mugarik gabe utzirik, **xerrenda** biarnesa. Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hortartzeko, Udalak onartzen du bere lur **xerrenda** baten uztea. Herria

Soinean, ume mantal handi eskotatu bat zeukan, eta haren ertz **xerrenda** estu brodatutik haurraren beso maitagarriak ateratzen ziren. Karlos Zabala

Bixar **xerrenda** beltza zeukan ezpain gainean. Xabier Olarra

1985 bereko 12an, Iruñean, -16.2 graduraino jaitsi zen merkurio **xerrenda** zerotik behera. Pello Zabala

xerrenki ik **xerrentki**.

xerrent 1 *izond* artatsua.

Esku-langile bat nintzen, ahal bezain **xerrenta** eta plazenta. Daniel Landart

Xutik bururaino, oro egin ditu ahal zueno, hogoi egun lehenago undar aldikoz ikusi dugu elizan, hain baitzen **xerrenta**. Herria

2 (adizlagun gisa)

Panpilik, usaiaiko arraileria baitzuen, urguiluz eta herraz **xerrent** segitzen zuen. Itxaro Borda

Begira jarri nintzen, ttattit eta **xerrent** beha. Itxaro Borda

Xerrent beha nengokizun. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xerrent beha (4)

xerrentuki *(orobat xerrenki eta xerrentuki) adlag artaz.*

Donapaleuko motokulturaren **xerrentki** bere lan denbora bete zuen Annie-k. **Herria**

Biarritz Art Expo-k ezagutaraziko dizkigu Donostiako "Gipuzkoako Belenzaleek" elkarteak bildu dituen obra miretsgarriak, berrogei bat kidek **xerrenki** apailatuak, batzuek urte bat lan galdegin dutenak. **Herria**

Egunaz sakelana ibiltzen nuen, gauaz aldez, **xerrentuki**, armairuko tiraderan ezartzen. **Daniel Landart**

xerrentuki ik xerrentki.

xerri 1 *iz ipar txerria.* ik zerri¹.

-So egizu, esnez egarri da, **xerri** tipiaren pare titia xerkatzen du! **Itxaro Borda**

Garai hartan euskal **xerri** arrazako 50 urde baizik ez zeuden. **Herria**

Aurtengo menua berezia izanen da eta berria aitzineko urteetakoeri konparatuz: meloina, xingarra eta pateaa sartzeko, **xerri** tipia ilarra eta entsaladarekin, ardi gasna, bixkotxa, kafea eta arnoa barne. **Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egun osoan, **xerri** hiltzea, iruleak, ikuzleak, ardi-mozleak, gasnagileak... **Herria**

Bazen lan mota frango laborari etxeetan: arto jorrak, arto biltzeak, arto xuritzeak, ogi joiteak, belar egiteak, belarketak, egurketak, iratze epaiteak, gisu labeak, auzolanak, **xerri** hiltzeak eta nik dakita zer oraino. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Laster abiatu zuen **xerri** eta xahal hazkuntza Aldude-Esnazun familiako lurretan. **Herria**

Sukaldean, Christophe Leborgne-k kozinatuko du **xerri** zango eta tripotarekin eginikako jaki bat. **Herria**

Larunbat goizean, Alduden, Euskal-Herriko **Xerri** Elkarteak bere egoitza berria estreinatzen. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Ortzirale aratsean **xerri** ttiki janaldia, Hiruak taldeak alaiturik. **Herria**

15 etan, herri kirolak plazan: **xerri** ttiki lasterketak, soka tira eta beste. **Herria**

4 xerri ume ik xerrikume.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

latsan xerri hiltzea (3); **xerri hiltzea** (8); **xerri ttiki** (3); **xerri ttipi** (12); **xerri ttipi jatea** (8); **xerri ttipia** (5)

euskal xerria (10)

xerriki 1 *iz ipar txerriki.*

Hor dauzka salgai etxolan bere lagunek egin etxeko **xerriki**, ezti, lukinka, tripotx, tokiko arno, mozkin eta besteak. **Herria**

Eguerditan bazkari handi bat etxe ekoizpenekin egina: ahate gibel, **xerriki**, axoa, oilaskoki, lukinkak, euskal bixkotxa, gasna... **Herria**

Hor dauzka salgai etxolan bere lagunek egin etxeko **xerriki**, ezti, lukinka, tripotx, tokiko arno, mozkin eta besteak. **Herria**

Pasta eltzeakaria eta **xerriki** 'Dim Sum'-ak besterik ez zituzten hartu. **Ramuntxo Etxeberri**

Ondotik, aperitifa izanen da eta, gero, **xerriki** Alzaziako maneran prestatuturik jastatzen ahalko da. **Herria**

Orduan **xerriki** jaten ahalko da. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Donibane Garaziko hiltegiak ere jestu pollita egiten die ostegunetan **xerriki** saheskia dohainik emanez. **Herria**

Zoingehiagoka, urriaren 20 ean bururatuko da, **xerriki** afari on baten inguruan, xapeldunek pidaia bat irabaziko dutelarik. **Herria**

xerrikume *(orobat xerri ume) iz ipar txerrikumea.*

Hiru etxalde horietan **xerrikumeak** beren bi hilabete eterdiak arte hazi ondoan (25 kilo arte nunbeitan), gizontzale batzuren etxetara igorriak dira hiruzpalau hilabeterentzat, 100 kilotara heldu arte. **Herria**

Xerri ume jatea 9 orenetan Bidekoa taldeak alaiturik. **Herria**

xertatu ik txertatu.

xertatze ik txertatze.

xerto ik txerto.

xeru

1 xeru-xeru adlag

Garazi begira gelditzen zitzaiera, eta leunki mintzatzen; eta haur korrikalari haiek, **xeru-xeru**, barre algaratan hurbiltzen zitzaizkiola. **Txillardegi**

xexen *iz adkor zezena.*

Zerikusiren bat izango zuten **xexenek** horretan: arratsaldeko bostetan-edo **xexenak** ateratzen zituzten zezen-plazan, ez dakit sokamuturrarekin ala gabe. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Euskaldun herri askotan, ikusiak baigaude maiz, kakeria dariela **xexenak** festatan, jendeak inguratuak eta amorraraziak ihesbiderik gabeko hondarplaza itxian lausoturik dabilzala. **Patziku Perurena**

Xexenak airean bota du mozkorra trapuzko panpina baten antzera. **Eider Rodriguez**

Azkenean ez gintunan bailera joan, zerera joan gintunan, **xexenetara**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

xexetasun iz

Meditazioari ematen nintzen artetan, leihoak erdi hetsirik atxikiz, orain berean oroitzen naizenez **xexetasun** horretaz. **Piarres Aintziart**

xextra 1 iz eztabaida, kalapita.

Ez dut nik bestelako misteriorik ikusten hainbat aldiz eztabaidagai izan dugun **xextra** honetan. **Andoni Egaña**

Xextra izan diagu etxean, azkenean Egin-en ez ditiztek atera testuak, eta Godot berehala hasi duk hitaz gaizki esaka. **Iñaki Iñurrieta**

Diskurtso politikoeak eskola-patioko umeen kasketa eta **xextren** antz handiegia hartu duten garaiotan, [...]. **Berria - Kultura**

Telebistan ikusten ditugunen antzeko politiko txikiak ematen duzue, zeuen **xextra** pertsonaletan sartuta beti. **Pako Aristi**

2 xextran

Emaztearekin eztabaidatu dezakezu, **xextran** ibili, baina gordinkeriarik gabe, orain, emakumea beste batekin jolasean hasten bada... **Pako Aristi**

Mari Karmen koskorretaraino (sic) egina dago bere gizon-gauzarekin beti **xextran** eta kalapitan ibiltzeaz. **Iñaki Segurola**

2 (hitz elkartuetan)

Erantzun "pribatua" luzatzen segitzen zuen, eta hori ia enpresa **xextra** bezain sumingarri eta nekagarri zen. **Juan Garzia**

xiba iz ziba.

Izanen diren jokoak: harri altxatzea, ingudea, lasto altxatzea, dantza, toka, **xiba**, zerra, soka tira, [...]. **Herria**

Eta beste animazio guztiak: **xiba** jokoak, ikastolen topaketaren finalarekin; [...]. **Herria**

xibarta iz itsas ugaztuna, 16 metrotaraino luze dena, eztarrian luzetarako marra nabarmenak dituena(*Megaptera novaeangliae*).

AEBetako, Erresuma Batuko eta, oro har, NATOko ontziek eginiko maniobrek zetazeo espezie ugari iragin diete: euskal balea, **xibarta**, zere arrunta, zere txikia, zeroi arrunta, zeroi pigmeoa, Atlantikoko izurde pikarta eta marzopari, besteak beste. **Berria - Gaiak**

2002an, bestalde, hainbat **xibarta** balea agertu ziren Brasilgo hondartzetan. **Berria - Gaiak**

xiberera (orobat xuberera) iz zuberera.

Lehenik gure xuberotar bipil heietarik haste: denekin ez bazioten ere beren mintzaira jaunikari eta arin hartarik eman, ezin gorde halere, eta ez gorde nahi, beren **xiberera** xotila eta hortan berean emana zuten egunaren giroa eta bihotza. **Herria**

- **Xubereraz**, xuabe-xuabe. **Iñaki Iñurrieta**

xiberotar (159 agerraldi, 4 liburu eta 125 artikulutan; orobat xuberotar 136 agerraldi, 5 liburu eta 101 artikulutan eta xiberutar g.er.) 1 izlag/iz zuberotarra.

Zonbat dira lan hori eskualatū dūen **xiberotar** eūskalzaleak? **Herria**

Sei **xiberotar** neska gazte hats berri bat emaiten ari dira kantuari. **Herria**

Xiberotar dantzen irakasle anderea eta sonūgileak ahatze gabe. **Herria**

Xiberotar kulturak urrats berri bat eman du atzo. **Berria - Kultura**

Zikiro bestan, joan den urtean baino afaltiar gehiago (500 bat hurbil), igande arratsaldearekin, dantzari eta kantari **xiberotarek** eskaini ikusgarri ederra. **Herria**

Xiberotar bat museoaren adiskideen buru. **Herria**

Battittu Coyos **xiberotarra** ginuen hiru urte hauetan Kontseilu Nagusiko euskararen permanentea Bayrou departamendu buruak izendaturik kargu hortan. **Herria**

Larunbat huntan, maiatzaren 31an, aratsaldeko 4 etan aurkeztua izanen da Anne Marie Lagarde **xiberotarraren** liburu. **Herria**

Biamesetiko hitz hanitz erabilten dū Topetek, ekialdeko **xiberotar** xaharrek ūsatzen zūen bezala. **Herria**

2 xiberera.

Jokū, mintzaldi, animazioer esker, **xiberotarraren** ikasteko parada. **Herria**

Gehitūentako kurtsoak **xiberotarrez**. **Herria**

Xiberotarrez, frantsesez edo ingleseaz ezagūtarazirik da, Ūskal Herriko itxurapen koloretsū batekin. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xiberotar ikerleak (3); **xiberotar kantaria** (3)

davant xiberotar euskaltzainak (3); **xiberotar dantzari** (4); **xiberotar kantari** (4)

xiberotarsa (orobat xiberotarsa eta xuberotarsa) iz xiberotar emakumea.

Lukubehereko Raymond Bidartek eta bere lagun **xiberotarsak** Iholdiko elizan bataiatu dute beren lehen haurra Manon deitu dutena. **Herria**

Mizel Lehu, iragan uztailen ezkondua zen Raymonde **Xuberotarsarekin**. **Daniel Landart**

xiberotarsa ik xiberotarsa.

xiberotartu, xiberotar(tu), xiberotartzten (*corpusean xiberutartu eta xuberotartu soilik*) da/du ad xiberotar bihurtu.

Xiberutartu egin naiz, bestalde, hein batez bederen. **Txillardegi**

Bizkaitarra jatorriz aspaldidanik **xuberotartua** den Gonzalo Etxebarria funtsezko pintorea da, eta osoki emana bere arteari. **Herria**

xiberutar ik xiberotar.

xiberutartu ik **xiberotartu**.

xifra ik **zifra**.

xifre ik **zifra**.

xifridura iz xifritzea, xifritzearen ondorioa.

Sismografoan begiratu beharko nuen nire erantzunak masailezurretan eragin zuen **xifridura** arinaz jabetzeko: gozatzen ari zen. [Joxan Elozegi](#)
Burua aitaren sorbaldan gainean jarririk, oinazearen **xifridurak** guztiz ezabatu zuen neskaren aurpegiko zurbiltasunaren ederra. [Anjel Lertxundi](#)

xifritu, xifri, xifritzen **1** da-du *ad* larritu, urduritu.

Jendea **xifritua**, pariatzaileak hatsa moztua, juje bakarra, Txikito Kanbokoa, nardatua, denak untsa zuzendu nahiz, haren boza ezin entzuna arrabotsaren eta oihuen artean. [Michel Oronoz](#)
Aitamak herstura handian zeuden, **xifrituak**. [Michel Oronoz](#)
Xifritzen hasi zen Saito jaunaren aurpegia, keinuak han-hemenka etengabe. [Joxan Elozegi](#)
Xifritua, buru guzia erlez betea bezala. [Janbattitt Dirassar](#)

2 (era burutua izenondo gisa)

Ordezkarri **xifrituari**, gohaina zerion kopetan behera. -Arrazoa duk, aurpegi **xifrituak**, kezkatuak eskaintzen zizkigutek beti. [Itxaro Borda](#)
Bizkitartean, Duroneak eta auzapezak noiztenka egin zituzten beltzuri **xifrituetarik** susmatu zuen mezuaz ez zela osoki jabetzen. [Elena Touyarou](#)

xigarreta iz *adkor* zigarreta.

Kattalinek sakelatik Malboro paketa atera zuen eta Sophie-ri **xigarreta** luzatu. [Eneko Bidegain](#)

xigarro iz *adkor* zigarroa.

Sarrerako atea zabaldu da orduan, eta emakume heldu, zartatu bat sartzen da, asistenta, **xigarro** muturra ezpainetatik txintxilika, egunonak marmarka. [Xabier Mendiguren](#)
[Elizegi](#)

xigor ik **txigor**.

xigordura ik **txigordura**.

xigorgailu ik **txigorgailu**.

xigorgarri ik **txigorgarri**.

xigorki ik **txigorki**.

xigortu ik **txigortu**.

xihita ik **xiita**.

xihitar ik **xiita**.

xii *izond/iz* xiita.

Moktada Al Sadr buruzagi **xiiaren** aldekoek [...] soldadu poloniarren kontrolguneen aurkako hainbat eraso egin dituzte Kerbalan. [Berria - Mundua](#)
13 irakiar hil eta 30 inguru zauritu ziren atzo Bagdadeko Medinat Al Sadr auzo **xiiari** jazotako hainbat leherketatan. [Berria - Mundua](#)
Borroka gogorak gertatu ziren atzo **xiiari** hiri santu Kerbalan, Sayyed Hassan Nasrallah gizarte **xiiaren** lider espirituala Libanon eta Iranen. [Berria - Mundua](#)
Samarrako santutegiaren kontrako erasotik lehen aldiz, gobernu berriaren osaketari buruz hitz egiteko bildu ziren buruzagi suniak eta **xiiak**. [Berria - Mundua](#)
Izan ere, deus gutxi egin lezaketek musulmanen mundutik ekarritakoen aldean: **xiiak**, fejaidinak, mujaidinak, talibanak... zergatik ondo ez dakizula, baina gurutzada santuetako soldadu-apaizentzat bezalaxe, Gaizkiaren eta Infernuko Txikitoren pertsonifikazioak guztiak ere. [Iñigo Aranbarri](#)

xiismo iz islamismoaren adar xiita.

Maroniten kristautasun monotelita eta drusoen **xiismoa**, Hakim gutzen duena, Erdialdeko Sirian jaio ziren biak. [Iñaki Mendiguren](#)

xiita (*1008 agerraldi, 3 liburua eta 267 artikulutan; orobat **xihita 20** agerraldi, 17 artikulutan; **txiita** g.er., **xihitar** g.er. eta **xita** g.er.*) **1 izond/iz musulmanen artean, Mahometen ondorengo edo oinordekotzat haren suhi Ali hartzen duena eta sunna onartzen ez duena.**

Madaien herrian bahituak izan ziren biztanle **xiiten** gorpuak direla baieztatu dute, dio irratia sukaldetik. **Pako Aristi**

Moktada Al Sadr buru duten miliziano **xiitek** eraso egin dietela hainbat oliobideri eta putzuri. **Berria - Ekonomia**

Moktada al Sadren mugimendu **xiita** fundamentalistaren aurka. **Berria - Harian**

SCIRI Irakeko Iraultza Islamikoaren Kontseilu Nagusia alderdi **xiita** nagusia da, konfesionala eta Iranen sustraitua. **Berria - Harian**

Gerra zibilaren beldurra berriz piztu da Iraken, Samarrako Al Askari santutegi **xiitaren** aurkako erasoaren ondorioz. **Berria - Harian**

Mezkita **xiita** eta sunitei eraso diete, etsaiak bagina bezala. **Berria - Mundua**

Xiiten eta suniten artean aste honetan piztu den indarkeria gutxitzea da neurri horien xedea. **Berria - Harian**

Gero, zehazten hasteko nahiko adorerik ez, eta ez dakigu talibanok **xiitak** diren, edo suniak; pashtunak diren, edo arabiarak. **Iñigo Aranbarri**

Hiru adar nagusi ditu Islamak, sunitak, **xiitak** eta sufismoaren jarraitzaileak. **Berria - Euskal Herria**

Badute orai **xiitek** askatasun osoa beren erlisionearen praktikatzeko. **Herria**

Irakeko Gobernu Kontseiluko kide Mouafak al Rubajiren arabera, **xiiten** eta suniten artean gerra zibila sustatzeko ahaleginak ez du arrakasta izango. **Berria - Mundua**

2 (izenondoekin)

Irakeko Aliantza Batua **xiita** erlijioosen koalizioak, aldiz, 128 diputatu dauzka. **Berria - Mundua**

Hautagaitza honekin bat etortzen zirela jakinarazi zuten kurduak, sunitek eta **xiita** laikoak. **Berria - Mundua**

Hemen nozitu ditudan arriskurik handienak eguraldia eta trafikoa izan dira, eta **xiita** fanatikoen ordez buru oso irekiko jendea aurkitu dut. **Jon Arretxe**

3 (izenlagun gisa)

Moktada al Sadrek aldarrikatu du mausoleoaren kontrola Irakeko **xiita** erlijio-buru gorenaren eskuetan uzteko prest legokeela. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi xiita (9); **apaiz xiita** (4); **auzo xiita** (4); **auzune xiita** (3); **buruzagi erlijioso xiita** (3); **buruzagi xiita** (25); **buruzagi xiita erradikalaren** (3); **dozenaka mila xiita** (3); **ehunka xiita** (3); **erlijioso xiita** (6); **gerrillari xiita** (5); **iad alaui xiita** (5); **irakeko buruzagi xiita** (4); **irakeko xiita** (6); **langile xiita** (3); **meskita xiita** (9); **meskita xiita batean** (5); **meskita xiita baten** (3); **mezkita xiita** (5); **mila xiita** (5); **milaka xiita** (6); **milizia xiita** (3); **ordezkari xiita** (6); **sadr buruzagi xiita** (11); **santutegi xiita** (3); **sunita eta xiita** (4)

xiita erlijiosoek (3); **xiita erlijioosen** (6); **xiita erradikalaren** (3); **xiita eta sunita** (5); **xiita hil** (28); **xiita hil dira** (5); **xiita hil dituzte** (3); **xiita hil ziren** (4); **xiita hil zituztela** (3); **xiita hil zituzten** (5); **xiita hil zuten** (3); **xiita izango** (3); **xiita laikoa** (3); **xiita laikoak** (3); **xiita laikoek** (12); **xiita nagusia** (3)

agintari xiitak (3); **alderdi xiitak** (3); **buruzagi erlijioso xiitak** (5); **buruzagi xiitak** (36); **erlijioso xiitak** (6); **erromes xiitak** (3); **gerrillari xiitak** (6); **milaka xiitak** (3); **miliziano xiitak** (3); **sadr buruzagi xiitak** (22); **sunitak eta xiitak** (7)

xiitak eta kurduak (4); **xiitak eta sunitak** (3); **xiitak izan** (5)

alderdi xiitako (10)

auzo xiitan (6); **auzune xiitan** (13)

buruzagi erlijioso xiitaren (7); **buruzagi xiitaren** (36); **buruzagi xiitaren bozeramaile** (5); **buruzagi xiitaren eledun** (3); **buruzagi xiitaren jarraitzaileek** (3); **buruzagi xiitaren jarraitzaileen** (4); **erlijioso xiitaren** (9); **erresistentzia xiitaren** (3); **imam xiitaren** (7); **immam xiitaren** (3); **mezkita xiitaren** (5); **sadr buruzagi xiitaren** (24); **sadr imam xiitaren** (7); **sadr immam xiitaren** (3); **sadr xiitaren** (3); **santutegi xiitaren** (3)

xiitaren bozeramaile (6); **xiitaren eledun** (4); **xiitaren jarraitzaile** (3); **xiitaren jarraitzaileak** (4); **xiitaren jarraitzaileek** (3); **xiitaren jarraitzaileen** (4); **xiitaren kontra** (5); **xiitaren kontrako** (5)

buruzagi xiitari (3)

buruzagi xiitek (10); **ekintzaile xiitek** (3); **gerrillari xiitek** (12); **miliziano xiitek** (3); **musulman xiitek** (4); **sunita eta xiitek** (3)

xiitek eskatzen (3); **xiitek eta kurduak** (5)

gerrillari xiitekin (3)

gerrillari xiiten (9); **gerrillari xiiten artean** (3); **irakeko xiiten** (17); **irakeko xiiten buruzagi** (4); **irakeko xiiten erlijio-buru** (4); **miliziano xiiten** (7); **musulman xiiten** (4); **osatzen duten xiiten** (3); **sistani irakeko xiiten** (3); **sunita eta xiiten** (8); **suniten eta xiiten** (8)

xiiten aiatola (5); **xiiten aldetik** (3); **xiiten artean** (19); **xiiten arteko** (9); **xiiten aurka** (3); **xiiten aurkako** (9); **xiiten aurkako eraso** (3); **xiiten buruzagi** (18); **xiiten buruzagi ali** (3); **xiiten buruzagi goren** (3); **xiiten erlijio** (3); **xiiten erlijio-buru** (5); **xiiten eta suniten** (23); **xiiten haserre** (5); **xiiten hiri** (13); **xiiten kontra** (5); **xiiten kontrako** (6); **xiiten oldarraldia** (3); **xiiten oldarraldiak** (3); **xiiten ordezkariak** (3)

xikana iz ipar iruzurra, engainua.

Preso euskaldunek, halarik ere, beti atxemaiten zuten debekuen sahetsetik ibiltzeko **xikana**. **Eneko Bidegain**

Nahi zuten **xikana** guzia eginik. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zer dakigu azkenean xuxenik?... eta badenez ere hanbat fidatzekorik Lege Nagusi eta Konstituzio gai lodi lodi honek segurrenik dituen- eta beti handi mandien alde!- zenbait **xikanetaz**? **Herria**

xikanatu izond engainatua.

Joanden udazkenekoetan, Eduard Shevardnaze nagusitua zen bainan aski **"xikanatuaren"** bortxaz. **Herria**

xikin (orobat **xikiñ** g.er.) 1 izond adkor zikina.

Milaka lantxo **xikin** egin behar nituen idaztearren, idazlea izan nahi nuen. **Koldo Izagirre**

Bestela, biziaren gezagarriak, gorri-beltzen zurigarriak, **xikiñaren** garbigarriak... nahi adina atera daitezke hemen. **Iñaki Seguro**

Beroa zen giroa, eurixka **xikin** bat izanikan ere, beroa kantuekin, bertsulariekin. **Herria**

Badakizu: lurtean galdutako izar **xikin** horietarik. **Patziku Perurena**

Aste handian gibelatu partida horrek biper egiter du berriz ere, aurten ditugun aro ilun eta **xikinekin**. **Herria**

Buru eta bihotza tipiegiak eta **xikinegiak** dira; zentzuen ondar xixtrin batzuk baizik ez dituzte berenganatzen. **Patziku Perurena**

2 (izen gisa)

Aldazek mahaiko **xikinen** artxipelagoan zeukan galdua behakoa. **Koldo Izagirre**

xikin (orobat **xikiñ** g.er.) 1 izond adkor zikina.

Milaka lantxo **xikin** egin behar nituen idaztearren, idazlea izan nahi nuen. **Koldo Izagirre**

Bestela, biziaren gezagarriak, gorri-beltzen zurigarriak, **xikiñaren** garbigarriak... nahi adina atera daitezke hemen. **Iñaki Seguro**

Beroa zen giroa, eurixka **xikin** bat izanikan ere, beroa kantuekin, bertsulariekin. **Herria**

Badakizu: lurtean galdutako izar **xikin** horietarik. **Patziku Perurena**

Aste handian gibelatu partida horrek biper egiter du berriz ere, aurten ditugun aro ilun eta **xikinekin**. **Herria**

xilofoi (*orobat xilofono eta xylofono*) iz perkusio musika-tresna, bi mailukaz jotzen diren eta luzera ezberdina duten zurezko edo metalezko xaflaz osatua.

Max eserita zegoen, zangoak gurutzatuta, gong, **xilofoi**, danbor, txindata eta abardun orkestra bateko jotzaile baten jarreran. **Jon Muñoz**

Bost indio, mailutxo batzuekin instrumentu hura -egurrezko **xilofoi** antzeko bat, mahai baten tamainakoa- amorru bizian jo eta jo. **Joxe Austin Arrieta**

Cutty Shark botiletatik zurrupada txikiak edaten hasi zen, gero eta trago luzeagotan, harik eta leihoko arasan lerraturiko botila haiek kristalezko **xilofono** itxurako bat osatu zuten arte, isurkin horia gero eta beheratzenago, Maitreak My Old Kentucky Home kantaren bertsio bikain bat eskaini zuen, Delaware-ko *Well Watered Gasoline Company*-ko zazpi zuzendarien soilune durunditsuez estreinako aldiz **xilofono** gisa baliatuta. **Harkaitz Cano**

Oker ez banago, Mikel maitea, iduritzen zait ez zenuela kantatzen, eta **xylofona** baizik ez zenuela jotzen! **Ramuntxo Etxeberri**

xilofono ik **xilofoi**.

xilogismo iz *adkor* silogismoa.

Guk talde horien ezaugarri bertsuak genituen; eta azken finean Garzonek badu nolabaiteko **xilogismo** maltzur bat, non erraten duen ETArek helburuekin bat egiten duten erakunde guztiak ETA direla, eta horren barruan gu sartu gintuen. **Berria - Euskal Herria**

xilografia ia zurean grabatzeko teknika; teknika horrekin grabaturiko testu edo marrazkia.

Wolf Hamm artista alemaniarraren **xilografia** zuri-beltzean, bere seme nagusia, emaztea eta txakurra ageri dira, hondartzan, itxura guztien arabera. **Berria - Kultura**

xiloka iz *ipar* zuloa.

7 kilometro ja eginik, hortxe dut, **xiloka** batean kokatua, Torres del Rio: herri miresgarri bat, Linares ibaiaren "thalweg" batean eraikia eta aldapa xutei aztaparez bezala lotua. **Piarres Aintziart**

Oren erdi guziz, zaintzaleek beren itzulia egiten dute kartierreko zelda guzietan, begi **xilokatik** begiraturuz, klixka! klixka! klixka! **Filipe Bidart**

ximaur ik **simaur**.

ximel izond *adkor* zimela.

Orratz bat kendu, eta bere hatz **ximel** narratsez, han ateratzen zuen kaiolatik euli bat. **Juan Garzia**

Itxura gabeko haragi-puxka **ximel** hura puztu egin zen artoa krispetetan bezala, eta nik, agertokiko kantaria bere mugimendu zabarrak eta bere akorde zatarrak sinkronizatzen saiatzen zen bitartean, zakil eder hura estutu nuen hatzen artean. **Karlos Zabala**

Alabaina, emakume flakoxta zen, **ximela**, bai gorputzean bai ariman banan-banan hil zitzaizkion seme-alaba guztien heriotzaren drama aztarrenak ezin nabarmenago zituena. **Patxi Zubizarreta**

Paglietta gaixoa *lusus naturae* delakotik hurbil asko zegoen: txikia zen, bularrik ez aldakarik gabea, ezkokara, **ximela** eta begilabur ikaragarria. **Juan Garzia**

Lur lehorrak ziren barru aldeko haiek, herri sakabanatuak, animalien oihuak gauean, jende **ximela**. **Pablo Sastre**

ximeldu, ximel(du), ximeltzen 1 da/du *ad adkor* zimeldu.

Aurpegia ere aldatu zaio, eta gaztaro lore paregabe hura, pittin bat **ximeldu**. **Txillardegi**

la emakume guztiak berrogei urtetik berrogeita hamar urtera bitartean dira hain zuzen ere ahalketi eta garratz bilakatzen, begitartea **ximeltzen** ikusteaz etsi beharrez. **Jon Muñoz**

Horregatik jende anitzek aurpegiko azala urratua eta **ximeldua** duela oharatuko zara. **Gotzon Garate**

Apez zaharra sendo izana eta hondatua zen, emakumea ederra izana eta **ximeldua** zen, eraikina osorik egona zen eta mutilatua zen. **Koldo Izagirre**

Apenas ezagutzen zuen emakume hura hilik ikustean, bihotzean zerbait **ximeldu** zitzaiola esango zukeen. Ez zara buru-arina, ezta engainaria ere; eta etsialdi honetan berean ere, laidozko susmo batek ez du nire arima **ximelduko**. **Aritz Gorrotxategi**

Eguneroko harremanak uxatuko ote ditu inkomunikazioaren fruitu diren mesfidantzak eta kateaketak, **ximelduko** ote du inkomunikazioak ereiten duen gorrotoaren landarea? **Berria - Euskal Herria**

2 (era burutua izenondo gisa)

Iratzeen usain marroia, arto **ximelduaren** karraska sinkulina. **Piarres Aintziart**

ximeleta ik **ximeleta**.

ximendu ik **zimendu**.

ximenea ik **tximinia**.

ximikatu, ximika, ximikatzen du *ad adkor* zimikatu.

Gutarteko hurrengo hilaren aipamena entzutean lo kimikotik iratzartzen nintzen, angustiaz beterik eta ikusi nuena amets gaiztoa baino ez zela frogatzeko, beso ondoak odolerraino **ximikatuz**. **Itxaro Borda**

Beso zainak **ximikatu** eta begiak torratu nituen: zaldien itxurak zirauen! **Itxaro Borda**

ximiko 1 iz *adkor* zimikoa.

Utzi errege zaitzak ostera ohera tenta, masailan **ximikoz** balaka, sagutxo deitu, eta, pare bat musu kerutsuren truke, edo zure lepoa haztatuz bere atzamar madarikatuez, atera diezazula argitara kontu guztia, alegia funtsean ez nagoela eromenak joa, eroarena egiten ari baino. **Juan Garzia**

Txizatoki batean norberari atzealdean **ximiko** egiteko agindu eta, harrigarri badirudi ere, adeitasun hori onartu ez. **Xabier Olarra**

2 irud/hed

Ez idurika, joko horrekin zernahi **ximiko** ttipi egiten daukute eta azkenean **ximiko** horiek ausiki pollita. **Herria**

Batean lañoki ari eta arrunt goxoan, beste batzuetan aise lerratzen dena piko eta **ximiko**, bereziki biziki partida zituen "gorri" heien kontra. **Herria**

Goihenetxeren argazkiaren ondoan jarrita, liburuak **ximiko** berezia eragin du Biltzarrean bildutakoen artean. **Berria - Harian**

Jende maitagarri hoienu uzteak bihotzean **ximiko** bat egin dauku bainan bidaia segitu behar zen. **Herria**

Amatxi gogoratzen da ez zela ausartu mutikoari begiratzera, baina sendi zuela irriño horrek sabelean halako **ximiko** bat egin ziola. **Ramuntxo Etxeberri**

Ganbara garbi eta berria utzi dut, doi-doiako **ximiko** batekin, zeren gogoan baitut, Villafranca pasatuta, Okamendiaren igoera. **Piarres Aintziart**

Berehala eta laster afaldurik, segidan jautsi naiz aterpera, bakardadearen **ximikoa** ahal bezala eztiaraziz, gogoan dudala biharko etapa. **Piarres Aintziart**

Bihotzean **ximiko** bat egin zion hainbete lagunek, hainbete jendek miseria hartan, surfrimendu hartan usteltzen segituko zutelako. **Eneko Bidegain**

3 (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Preso ohi guztiek bezala, bihotz **ximiko** hori izan duzu barnean utzi dituzun lagunentzat. **Berria - Euskal Herria**

«Bihotz **ximiko** bat egiten digu hemen izateak», atzo betetzen baitzen Manex Goihenetxeren heriotzaren lehen urteburua. **Berria - Harian**

Galdua dugu gu baino gehiago dena miresteko gaitasuna, poz **ximiko** bihurri batez mespretxatzen dugu ulertzen ez duguna, gure zozokeriak larderiaz aldarrikatuz. **Berria - Kultura**

Joango al gara gora? -galdetu diot; betiere halako barne **ximiko** baten harrak artegatzen ninduelarik. **Txillardegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bihotz ximiko (7); **bihotz ximiko bat** (4); **bihotzean ximiko bat** (4); **halako ximiko** (8); **halako ximiko bat** (3); **halako ximiko batekin** (4); **ximiko bat egin** (5); **ximiko bat egiten** (6); **ximiko batekin** (7)

ximikoka *adlag* ximiko bat egiten.

UDF delakoan, François Bayrouarras berotua da, boz-alde eder bat biltzeko menturan! Aise mendekatzen bazaiote ezkerraldekoeri, **ximikoka** ari da ere poliki UMP-tiarreri...

Herria

ximikoño *iz adkor* zimikoa.

Ximikoño bat edo beste egin badu ere Jakes handiari. **Herria**

ximineia ik **tximineia**.

ximinei ik **tximineia**.

ximini ik **tximineia**.

ximino ik **zimino**.

ximinokeria ik **ziminokeria**.

ximio ik **kimio**.

ximioterapia ik **kimioterapia**.

ximista ik **tximista**.

ximitx ik **zimitz**.

ximixta ik **tximista**.

ximur 1 *izond adkor* zimurra.

Gizon txiki **ximur** bat zen, burusoila, mozkotea, baina indar handia zuen besoetan eta hanketan. **Koro Navarro**

Lilyren xarma begi txinatar haiek zirela, bere aurpegitxo txuri **ximur** hartan zeharka jarriak. **Anton Garikano**

Hura baino pertsona maitekorragorik ez duzu topatuko, haren begi-bazter **ximurrak** bezalakorik ez dut inorengan ikusi. **Karlos Zabala**

Perla basa haren koskor **ximurren** ukimenak zemaion sentsazio atsegina asetzeko asmoz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bi malko lodik zeharkatu zituzten goitik behera bere masail ezin **ximurragoak**. **Martin Anso**

Piko melatua baino **ximurragoa** duk atso zar zeken hori; mutilzar horrekin ezkondu? **Patziku Perurena**

Txoriaren burutxoa okerka zegoen lepoan; bere begia marra **ximur** bat zen. **Bernardo Atxaga**

Monederotik billete **ximur** bat atera zuen. Pablo Sastre

Frantses puru eta eder batean mintzo zen gizon heldu berria zerbitzatu zuen, xuxurlatuz eni, ezpainak **ximur** : [...]. Itxaro Borda

2 zekena, zikoitza.

Dirua zer den ere jabetu nintzen: ez nintzen **ximurra** bihurtu, ez, -diruak beti, gure amari bezala, eskuak erretzen zizkidan-, baina erreparatu nuen dirua zegoela gauzen atzean buru-hauste nekagarri eta bihurri gisara. Fernando Rey

-Zure ametsetako andrearen aldean, uste dut badudan halako xuhur eta **ximur** aire bat. Janbattitt Dirassar

3 irud/hed

Txistor xaxtar hari esker errazago sartuko zen ardo garratza, kontua edatea baitzen, edatea eta festan segitzea, poltsiko **ximurrak** ematen zuen bitartean. Xabier Mendiguren Elizegi

Artetik erraiteko, beren aldetik nagusi elkarteek ere ez dute espanturik, gobernuaren xedeak **ximurrak** eta xuhurrak dauzkate. Herria

• 4 iz zimurra, zimurdura.

Haren kokospeko sugandila-larmintza, haren baldokietako **ximurrak**, haren begiak, nekatuak ez, izutuak soilik, behinola baino ederragoak. Joxe Austin Arrieta

Durerok ere iritzi berbera adierazi zuen beste hitz batzuekin, esanez bere xedea "**ximur** eta zaintxorik txikiak ere" agerian jarriko zituen erreproduzioa zela. Bernardo Atxaga

Ximurrak ezkutatzen, ilea ondo txukuntzen, ezpainen gorria retokatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Azal gazteago baten igurtziaz zeuen **ximurrak** suntsituko direlakoan, magia sinpatikoz edo? Xabier Mendiguren Elizegi

Begi eta aho inguruetan, denborak **ximur** mehe-mehe batzuk zituen marraztuak. Ander Irizar

Bere matrailezur ironikoa eta kopeta belztua eta **ximur** ironikoz betea hurbildu zituen harengana. Fernando Rey

5 irud/hed

Entzun eta entzun egon ohi gara pozik asko; hamaika **ximur** leuntzen dizkigu. Patxi Ezkiaga

6 ximur-ximur adlag

Ximur-ximur egina zegoen, ihartua. Fernando Rey

ximurtasun adlag adkor zimurtasuna.

Bai, fruitu sorgina duzu pikoa, eta endemas piko idortua, inoren antzutasuna edo **ximurtasuna** adierazteko orduan, batik bat. Patziku Perurena

ximurtu, ximur(tu), ximurtzen 1 da/du ad adkor zimurtu.

Bagoia akordeoi baten antzera **ximurtu** zen. Karlos Linazasoro

Ala gutiago ama ote da zaharra, adinak **ximurtu** eta ezindu ere duelarik? Herria

Berak irribarre, nire desorduko txisteen aurrean beti egin ohi zuen bezala: bekokia **ximurtuz** bi bekainen artean. Joxe Austin Arrieta

Kattalin pensaketa bezala hasten da, ezpainak **ximurturik**. Eneko Bidegain

Axala **ximurtuta** eta junturak lotuta dauzkan adinekoarentzat. Pello Zabala

Hotzak **ximurtuta** bezala. Pello Zabala

Zomorro zapatariek soilik **ximurtzen** eta biziberritzen dute uraren azala, etengabeko dantzan. Hasier Etxeberria

2 irud/hed

Lüküze xuhurrak sobera sos xahutuak zituen altxamendua prestatzen eta patrika **ximurtu** zitzaion notario baten zerbitzuak pagatzeko tenorean. Aingeru Epaltza

3 (era burutua izenondo gisa)

Emakume tiki bat, xahar eta **ximurtua**, lepo inguruan azeri-larru bat eramaten zuena. Fernando Rey

Beti ere urte zahar askoren fruitu umotu eta **ximurtuen** antzera iritsi izan zaizkigu. Pello Zabala

Giza haragi puska hura, larmintzaren azpian zainak ageri, eta larmintza bera zetazko paper **ximurtua** zirudiena, hain guri eta aldi berean dizdizari. Joxe Austin Arrieta

Bitartean lauzpabost indio haiek hantxe, zirkirik egin gabe, pantaila **ximurtuaren** aurrean kukulumuxu. Joxe Austin Arrieta

Hura urrearen pareko zen nire patrika **ximurtuarentzat**. Xabier Mendiguren Elizegi

Andrea, aristokraziako familia **ximurtu** bateko alaba. Juan Martin Elexpuru

xinatar ik txinatar.

xinaurri (orobat txinaurri) 1 iz inurria.

Eta zenbat **xinaurri** bidean ibilki! Piarres Aintziart

Xinaurri kolorezkoak zelaietako berdean atzera eta aurrera, multzoka. Hasier Etxeberria

Xinaurriek berek dute urre hori garbitzen zikinkeria guziak xehe-xeheki kenduz. Aurelia Arkotxa

Gizon apala eta umila, **xinaurria** bezain langilea! Herria

Kamiuntaraka bildu zituzten Estatu soldadoak, **xinaurri** beltz kiskaliak. Michel Oronoz

Kurutzebide guzietan, funtzionario eta preso-langileak, auxi-ak, harat hunatka, **xinaurri** langileak iduri. Filipe Bidart

Xinaurriak hanketan gora eta behera. Lander Garro

Larrua ehun milioika **xinaurri** korrituko balitzaizkio bezala zen, eta **xinaurriak** letrak ziren. Jon Alonso

2 (hitz elkartuetan)

Asiatik ontzi doietan heldu **xinaurri**-famiak. Itxaro Borda

Xinaurri lana eramanez eta epe luzerako estrategia bat abian jarri, azkenean lortu zuen bere helburua. Berria - Harian

Bakantzen ari diren pinpirinen dantzak, erle-kofoin edo **xinaurri** meta baten egituraketak. Herria

xinaurrijale (corpusean txinaurrijale soilik) izond inurrijalea.

Hartz **txinaurrijale** batena. Eider Rodriguez

xinaurritegi (orobat txinaurritegi) 1 iz inurritegia.

Giza eskubideen ideia hori zela gobernu totalitarioen eredu diren **xinaurritegiatarik** giza elkarteak bereiz ditzakeen ideia bakarra. Piarres Xarriton

Zer **xinaurritegia** ! Pittaka pittaka, xoko moko guziak dira bete. Heria

2 irud/hed

Mototik jaitsi berritan hankek **txinaurritegiak** dirudite, eta geldirik egoteak halako mindura urduri bat eragiten du. Pako Aristi

xinaurritu *(corpusean txinaurritu soilik) 1 da/du ad inurritu.*

Eztarria idortu zitzaidan, soin-adarrak **txinaurritu**. Aingeru Epaltza

Espaloian barrena, zangoak baldar joaki zitzaizkidan, **txinaurritu** antzo. Aingeru Epaltza

Hozmindurik eta eskuin zangoa **txinaurritua** nuela besarkatu nuen kanposainduko karrika nagusiaren biki meharragoa. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Guti uste zuen eskuak handik atera duena: paperak, paperik anitz, letra txiki meheaz **txinaurrituak**. Aingeru Epaltza

xinфонia ik sinфонia.

xingar *(orobat txingar g.er.) 1 iz urdaiazpikoa; urdaia.*

Saltxitxoiak Betetzen zituen eta saiheski urdaia, hirugiharra eta betegarrietarako **xingarra** prestatzen. Karlos Zabala

Xingarra ez zen ere aski erre! Ramuntxo Etxeberri

Baionako **xingarraz** gozatuz. Ramuntxo Etxeberri

Baionako **xingarra** gazitzen eta xahartzten den tokia bisitaturik, hortik hurbil bazkaldu ondoan, aratsaldean bisita labor batetik landa kantuz errepikan itzuli dira gibelerat. Heria

Bideari lotu ziren, hiru arroltze frijitu janik, **xingarrarekin**. Elena Touyarou

Partidatik landa, afaria "Lili-pean" deitu salan: arroltze-moleta, **xingarra**, gasna, bixkotxa, arno eta kafe: 10 eurotan. Heria

Janaldiak: salda, piperrada **xingarrarekin** eta urineko ahatea baratzekariekin. Heria

Biperada **xingar** ongi zahartuarekin. Heria

Arratseko 8 orenetan: talo eta **xingar**, Xiberoko Soinulariek alageratürrik. Heria

Xingarraren edo xokoletaren bestek ez duten herrikoitasun zehatza erakusten du Sagarno egunak Baionan. Heria

Baionako **Xingarraren** Kofradia. Heria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ostatuan hartzen ditudan **xingar** ogitartekoak eta tokiko arno beltzak, gaurko aszetismoak bildu behar zizkidan merezimendu guziak airera botatu dizkit. Piarres Aintziart

Xingar xerra eta arrautzak azietan pausatu zizkion. Itxaro Borda

Labearen gaineko zartaginaren barnean **xingar** puska eta arrautza bi erretzen ari ziren olioan plisti-plasta. Itxaro Borda

Marmol eta ispiuletan zehar, txerriak eta betegarrietarako **xingar** zerrendak dilindan zeuden barra kakodunetarik behera. Karlos Zabala

Xingar kailu bat murtzatzen ari balitz bezala. Piarres Aintziart

Hezurrari **xingar** peza politak kentzen zizkion oraino! Itxaro Borda

Xingar zati honek merezi bailuke haatik arno xorta bat. Piarres Aintziart

"Oberena" izenaren inguruan Lapurdiko 22 xarkutierek **xingar** marka berri bat sortu dute Baionan. Heria

Aurtengo **xingar** lehiaketako epai mahaiak deklaratu du lana biziki zaila izan duela. Heria

Lapurarrak nagusi **xingar** ferian. Heria

3 xingar azpi urdaiazpikoa.

Gostu guziendako bazen hauta: ardi gasna, **xingar azpi**, urineko, gibelki, ezti, bixkotxa, Irulegiko arno, bazkal aintzineko, ondoko eta bertze. Heria

Denetan bilatu bazuten ere, ez zuten **xingar azpirik** atxeman, ez eta ere lukainkarik, odolkirik. Eneko Bidegain

Keinka batez, urdeak hil dira aro eztegia zelarik, batzuetan **xingar azpiek** ez dute gatza behar bezala hartu. Heria

Aurten ere hogoita-hamar bat laborari, urde hazteari ari direnak, hor izanen dira **xingar azpi** eder batzuekin. Heria

4 (hitz elkartuetan)

Baionako **xingar azpi** feria iraganen da ostegun saindu honetatik haste hiru egunez merkatu plazan. Heria

Karia horretara etxeko **xingar azpi** lehiaketa antolatua izanen da. Heria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baionako xingar (6); baionako xingar azpi (3); talo eta xingar (44); talo ta xingar (90); xingar azpi (11); xingar edo talo (4); xingar eta arroltze (11); xingar eta dantzaldia (4); xingar feria (7); xingar jatea (5); xingar jateko (3)

baionako xingarraren (3); xingarraren kofradiak (3)

xingle *izond adkor* singlea, bakuna.

Hamabosgarren mendeko bazterreko portiko **xingle**, apaindura gutiko baina dotore batetik sartu naiz. Koldo Izagirre

Aginduaren eremuan bizi dira, esaldi motz, **xingle** eta gehienetan mudagaitzek biziaraiziak. Aingeru Epaltza

Analisi **xingletik** haratago, ordea, gogoeta eragin dute gertakari haiek Abertzaleen Batasuna bezalakoetan. Hasier Etxeberria

Iraganarekin lotzen duen hari **xingle** hura. Iban Zaldúa

Esan zidan bera tipo **xinglea** zela, ekialdeko bizi-eskolakoa. Karlos Linazasoro

Poema japoniar bat errezitatu nion, Issa maisuaren haiku **xingle-xingle** bat. Karlos Linazasoro

xingola *(orobat xingol g.er. eta txingola) 1 iz oihal edo ehunezko zerrenda luze eta mehea. ikzinta.*

Ez zen ez **xingola** bat, ez listari bat, baizik eta galoi txirikordatu bat. Xabier Olarra

Zango sagarretarainoko galtza motx beltzak, oihal oneko palto beso motxa **xingolaz** eta zilarreko botoiez apaindua, gerriko berde iluna, belusezko txapela zabala eta kapa luzea. Elena Touyarou

Buruan 17 zentimetroko garaierako kapela bat zeramana, 35 cm-ko **xingola** batez inguratua, txano aldean. Xabier Olarra

Besoan zeramatzaten **xingolek** "Kontseilu Judu" elkarteke kide gisa nabarmendurikoez ziotenez, [...]. Urtzi Urrutikoetxea

Manilovek paper bat atera zuen berokiaren barrualdetik, tututxo baten inguruan bildurik eta arrosa koloreko **xingola** batez loturik. Jose Morales

Xingola askatu, sakelan gorde, eta ile-kiribila sasiartera bota zuen. Anton Garikano

Xingolaz lotu ile-adatsa eta lihozko soinekoa jantzi, etsaia liluratzeko. Elizen arteko biblia

Xingola puskatu eta gutunak irakurtzen hasi da. Xabier Paya

Kotte Ecnarro auzapezak du **xingola** moztu, bere aldean zituela Michèle Alliot-Marie minixtroa eta Daniel Poulou deputatua. Herria

Hartu apaiz-jantziak eta jantzi Aaroni tunika, mantua, efoda eta bularrekoa, eta lotu efoda **xingolaz**. beste aldean, ibaia **xingola** moduan luzatzen zen Pelargirreraino, eta harantzago, hodeiertzaren hegalean, itsasoaren berri ematen zuen argitasuna zegoen. Elizen arteko biblia

Euskararen alde borrokatzen den emazte bati eman diote urtaskari "Légion d'honneur" **xingola**. Herria

2 irud/hed

Zilarrezko **xingola** bat, mehea eta distiratsua, begi bistatik galdu arte itsasbazterrean bihurka. Koldo Izagirre

Goiko muturrean Legazpi eta behekoan Irun, trenbideko **xingola** luze mehar hori zen nireztat Gipuzkoa. Joxerra Garzia

Petrola lanpa batetik dantzan ari da argi hori flako bat, ke beltz baten **xingola** firurikan eskapatzen dela. Michel Oronoz

Oraindik klonatu gabeko ADN **xingola** multikolorearen plastikozko molde. Itxaro Borda

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Xingola beltza zuen ikurrinak eman zion bide martxari, Solagurenen argazkia alboan zuela. Berria - Euskal Herria

Oinetan zapata hori politikak eta besoan **xingola** gorria, ezagun zuen bere maila gorena. Urtzi Urrutikoetxea

Portzelanazko arrautza urreztatua ikonoen aurrean, ohiko **xingola** urdin eta gorrietatik zintzilik. Jose Morales

Kutxa irekitzen du eta **xingola** urdin batez lotutako eskutitz-sorta bat ateratzen du. Antton Olano

Paperezko **xingola** kizkur beltzak eta laranja Halloween egunerako. Lopez de Arana

Giltza zabalgarriak, aliketak, bihurkinak, **xingola** isolatzailea ere izaten zituen. Koro Navarro

Bazuen buruaren jiran urrezko **xingola** bat, burdinorizko sandaliak oinetan, eta artile eta ereinotzez txirikordaturiko girlandak zeuzkan lepotik. Juan Garzia

Baupresaren muturretik trinketa nagusiaren eta mesanaren barrena txoparaino zetorren argizko **xingola** bat. Koldo Izagirre

Biltzen ninduen zerranda edo **xingola** pieza-bakarra zela bururatu zitzaidan. Koro Navarro

Mahai gainean **xingola** orri-bereizlearekiko liburua zegoen. Jose Morales

Lasto beltzezko kapela **xingola** -gabe bat buruan. Karlos Zabala

Jendea kalean gora sakabanatzen joan zen, plazarainoko bidea dolu-**xingoladun** ikurrinez betez. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Xingola denda txiki bat zuen. Karlos Zabala

Komisario nagusiari luzatu zion **xingola** puska. Koldo Izagirre

Kezkarekin **xingola** -muturra zirtzilaturik, gizon zaharrak buelta eman eta eskaierak jaitsi zituen. Anton Garikano

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Xingola more zati bat atera zuen sakelatik, eta zabaldu egin zion, "Jainkoa zuekin" irakur zezan, letra larri urreztatuz. Koldo Izagirre

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lazoa egin zuen gero, listaria oihal-**xingola** beix batez estalirik. Anjel Lertxundi

Haren gorputza bizitu eta oinen gainean zutitu zen, hileta-**xingolaz** bil-bil eginik. Juan Garzia

Azkar zebilen [...] hitz koipetsuen burrunba belarrietatik uxatzeko, dolu-**xingola** beltzak utzitako sentsazioa hatzamarretatik kentzeko, lirioen usaina ahazteko. Lopez de Arana

Aspaldi hasi eta bertan behera utzitako gakorraz-**xingola** etorri zaio gogora. Imanol Zurutuza

Gaztea, noski, kapelaren inguruan domina-**xingola** zuena zen. Xabier Olarra

Gizon kokorra zen; ilea labur zeraman, idun-**xingola** kokkor bat, eta mauka-farfail kokorrak. Juan Garzia

7 (hiru osagaiko hitz elkartuetan, irud/hed)

Orkatz haragi **xingola** idorrak. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

besoko xingola (3); **domina xingola** (5); **efodaren xingola** (4)

xingola beltza (7); **xingola beltza zuen** (3); **xingola beltzak** (4); **xingola beltzarekin** (3); **xingola gorria** (4); **xingola horia** (3); **xingola luze** (5); **xingola orde** (9); **xingola urdin** (4)

xingoladun *izlag* xingola duena.

Praka berriak ziren, baina ez hori bakarrik: lehen aldia zen Darling jaunak praka **xingoladunak** zituena, eta ezpainei hozka egin behar izan zien negarrez ez hasteko.

Julen Gabiria

Gondoleroa oso nire begikoa zen, bere kamiseta zerrendaduna eta txoto **xingoladunarekin**. Jon Alonso

Atorra zerrendaduna eta txano **xingoladuna** zeramatzan, eta belarri bat falta zuen. Jon Alonso

Oihane Errazkinen argazkia, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren anagrama eta **xingoladun** ikurrina zeramatzen. Berria - Euskal Herria

Goizeko etenaren ostean, euren samina eta protesta azaldu zuten Casa del Campoko aretoaren parean, dolu-**xingoladun** ikurrina bat erakutsita. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dolu xingoladun (3); **xingoladun ikurrina** (3)

xingolaz lotu (4)

xingolaki *iz* xingola-zatia.

Tokiko komertsantek ere bai: denek bat egin dute bere presentazioeak berdinean egiteko, banderaz, **xingolakiz** eta kolorez Lurdeko eta Batikano ohidurak errespetatuz, xuri eta urdinean gehienik. Herria

xingolatu *izond* xingolez hornitua.

Plazarat hurbiltzen diren haur tarrotuek ikusten dute lorietan nola apainduak diren bazterrak; herriko etxe azpian izai berde eder bat aberaski **xingolatu** eta argiz itoa.

Herria

xingoma ik xuingoma.

xinpatiko

1 xinpatiko-xinpatiko adlag adkor

Atentzioa ematen zuen beste gauza bat bere zakila zen, noski, une hartan burumakur dilindan zegoena, jabearen urrats bakoitzean ezker-eskuin **xinpatiko-xinpatiko** mugitzen zena. **Aitor Arana**

xinple 1 izond adkor sinplea.

Nik, eguneroko gauza **xinpleak** baizik ez nituen ezagutzen. **Daniel Landart**

Mezkiritz mendatea, bere oroitarri **xinplearekin**, Orreagako Birjinaren ohoretan eraikia. **Piarres Aintziart**

Dauzkagun hiruzpalau datuetara eta aieru **xinple** xamarretara mugatuko naiz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Badirudi zientzilariek ezin dutela bestela pentsa, beti hipotesirik **xinpleenera** jotzen dutela, izadiaren hasiera bakun hori baizik irudikatzen ez duenera. **Patziku Perurena**

Ahal banu, hitz erraz eta **xinplez** azalduko nioke, nire ezinegona uler dezan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Festetako giro **xinple** harrigarri hartan murgildurik, goxatu egin zen nire barnea. **Txillardegi**

Hain da mehea bizitzatik heriotzarako pasabidea, hain da ñimiñoa, eta **xinplea** azken finean, eta aldi berean hain ulergaitza, non [...]. **Joxan Elozegi**

Pentsatu nuen okertu egin nintzela nire gazte urte haietan, eta okertze hori ezjakintasunetik etorri zela, bizitzaren lehen egia, **xinpleena** -"bizitza da handiena"- ondo ez konprenitzeagatik. **Bernardo Atxaga**

Xinplea da egin behar duzuna. **Iñaki Zabaleta**

Gogo edo asmo bakarra, bakuna eta **xinplea** duena. **Iñaki Segurola**

Badakit, oroigarri **xinple** -apain hura, bakoitzak prezatuki etxera eraman zuela eta sukalde, egongela edo logelako murruparetetan luzaz dilingo egon zela. **Daniel Landart**

Bigarren ideia aurrekoa bezain lausoa zen, aldi berean arin-**xinple** eta bihurri-korapilotsua. **Juan Garzia**

Ez da Historia hori bakuna, **xinplea**, leguna. **Michel Oronoz**

Xinpleagoa da dena: maite dut edatea. **Aingeru Epaltza**

Idaztea gauzak diren baino **xinpleago** egitea da. **Iñaki Segurola**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Amaturrek aldiz beren xapelgoko bigarren astea zuten eta horra hor berezko ohi batzu soldado **xinple** mailerat itzuli direla beren galonak utzirik. **Herria**

Gauza pila egiten zutela, zirri **xinple** pila besterik ez, egia esateko, orain bazekien. **Karlos Zabala**

3 (adizlagun gisa)

Doi bat konplikatua irudituko zaizu menturaz **xinple** agertzeko. **Berria - Kultura**

4 sinple-sinplea adlag ipar

Primadera huntan 50 garren urte muga hori ohoratu dute **xinple xinplea** beren haur eta haur ttipiez inguratuak. **Herria**

Horra zer gatik beren urteburua **xinple xinplea** ospatu duten beren seme alaba eta horien famalez inguratua. **Herria**

5 sinple-xinpleki adlag

Hiriko jantziz emana, **xinple xinpleki**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xinple xinplea (3)

gauza xinplea (3)

xinplekeria iz adkor sinplekeria.

Gogora zetorkidan nola antzerki bat ikusten egon eta gero bokadilloak jatera joan ginen eta nola kitsch-ari buruzko **xinplekeriak** esaten aritu ginen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Egin zituen bi garraio horiek **xinplekeriak** iruditzen zitzaizkion orain, ume joko antzekoak. **Iñaki Zabaleta**

xinpleki 1 adlag sinpleki.

Xinpleki, umilki bizitzea, bertzeri idekia egonez, hortan da zoriona. **Herria**

Xinpleki eta ele on batekin, jende hartze goxo handia zuen bereizkuntzarik gabe. **Herria**

Xinpleki jantzia zen atsoak, paisola irekirik zeukan esku batean. **Ramuntxo Etxeberri**

Nik uste, **xinpleki**, liburuak ez direla enetzat eskolari lotuak izan. **Ana Urkiza**

Nere helburua beti izan da **xinpleki** bizitzea, elgar lagunduz, eta ez aberastea. **Herria**

Askok nahiago izan dutelarik **xinpleki** etxeratu, berduratze hori ez zutelako gogokoa. **Herria**

2 sinple-xinpleki adlag

Hiriko jantziz emana, **xinple xinpleki**. **Herria**

xinpletasun iz adkor sinpletasuna.

Idazleak azal dutako bizimodu gogorra, izaera jatorra eta denbora-pasa urriak bere **xinpletasun** eta baldartasun guztian txertatu nitzkion nik, neure gogoan, aitona Joxemari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez da neke ere apezarentzat predikuaen sujetaren atxemaitea: zonbat aldiz ez dugu aditzen urtean: artzaina, ardiak; nekexago halere apezarentzat **xinpletasun** eta emozio handi batekin, ongi etorri egin diolarik, Ezterentzubitarr seme gisa, Ezterentzubiko gertakari izigarrian, erre eta zauritu izan den bati. **Herria**

Enetzat helburua ahal bezain hizkuntza zorrotzuan eta xinplean idaztea da: lanari esker lortzen den **xinpletasunean**. **Ana Urkiza**

xinpletu, xinple(tu), xinpletzen da/du ad adkor sinpletu.

Sorreran ugaria, nahasia eta bihurria zen mundua, nola **xinpletu**, urritu eta agortu izan den, edozeinek entenitzeko moduan erakusten digu egileak. **Patziku Perurena**

xinplezia *iz adkor sinplezia.*

Giza gogoak ugaldu duen **xinplezia** itogarria klaro azalduz. **Patziku Perurena**

xinta *iz adkor zinta.*

Gauaren erdi-erdian, hor hasten baita sortzen egun berriaren argi **xinta** xumea. **Pello Zabala**

Badut aditzea, musikari handi asko, orduak eta orduak pasatuak direla urari begira eta uraren **xintari** adi. **Patziku Perurena**

xintatxo *iz adkor zinta txikia.*

Halako puntuan, pizt! jo zuen nire ez-dakit buruan edo bihotzean, honako argi-**xintatxo** honek: "Hemen, Arantzazu entzungo da!". **Pello Zabala**

xintik ik txint 2.

xintoista ik sintoista.

xintxili ik zintzilik.

xintximari *(orobat txintxamaria eta txintximari) iz pl estualdia, larrialdia.*

Baina ez dira atzo sortu xitoak ltoizarrak, ez dute sekulan barkatzen, Fabienek ere bere aire ona baliatzen aitzinean; tantoz tanto, horra 37-38, **xintximariak** orai. **Herria**

Hor **xintximariak** ! **Herria**

Ontsasko bazekien laguntzen zituen iheslariek zer **xintximariak** ikusten zituzten mugaren bertaldez ere. Orduan hasi dira **txintxamariak** . **Eneko Bidegain**

Orduan bai **txintximariak** , oihu eta garrasiak, irain, laido eta erasoak, sozialistak bere alkietarik joanik, denak bilduak beherean, Lege Biltzarreko uxerrek muga bat egiten zutela beren gorputzekin. **Herria**

xintxirikatu ik xirtxikatu.

xintxo 1 *izond ipar adkor zintzoa. ik txintxo.*

Badakit, eta lehen aldian ikusi orduko ezagutua dut hori, mutiko **xintxo** zarella. **Janbattitt Dirassar**

Baina ikasle **xintxo** bezala klase bakar bat hutsegiten ez dutenak asper litezke. **Eneko Bidegain**

2 (adizlagun gisa)

Eta **xintxo** ibili behar zen. **Eneko Bidegain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fededun xintxo baten (4)

mutiko xintxo (3)

xintxoki *adlag ipar adkor zintzoki. ik txintxoki.*

Norbaitek bere bizia hola kondatu duela, ahal bezain xeheki eta **xintxoki** , amodio bideetako segeteru guziak ere zabal-zabala ezarriz. **Janbattitt Dirassar**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahal bezen xintxoki (4); **lana xintxoki** (3); **xintxoki egiten** (3)

xintxotasun *iz ipar adkor zintzotasuna. ik txintxotasun.*

Hori guzia, **xintxotasunean** ! **Herria**

30 urtez 56etik eta 86rat bere lana egin izan du **xintxotasun** hoberenean. **Herria**

C. bat guziz ederra moldaturik **xintxotasun** osoan dabilta. **Herria**

xintxuketa *(orobat xitxuketa) iz konpontze lana.*

Opor edo bakantza denboran, gorputza bera heziz arimarekin batean, egiten zituzten balentria ederrak, **xintxuketa** , kurritze, kanpo-lan eta nekatze... **Herria**

Nork ez du ezagutu Pierre jende airoa eta beti prest xerbitxu baten egiteko, hargintza, zurgintza, eta ainitz lan motetan? Nork ez du haren beharra ukan **xitxuketan** ?

Herria

xintz *iz*

Egin dezala enarak saloian kabia; eta kardoak teilak baztertu, eta tximeletak eguzkia hartu besaulkien **xintz** maiztuaren gainean. **Anton Garikano**

xinxangre *izond odolgabea.*

Nortzuk uste duk direla etxe honetan lan egiten duten mediku, funtzionario eta erizain **xinxangre** horiek denak? **Harkaitz Cano**

xinximarro iz

Bush amerikano presidentak **xinximarroak** ikusten ditu Amerikanoek hoin estimatzen duten dirua dela kausa. **Herria**

xiolari ik **txiolari**.

xipa (orobat **txipa**)

Urre kolore zorrotz horien erdian, zarboen eta perken otarreek, amuarrain sortek, **xipa** pilek, esparbelez harrapaturiko arrain zapalen multzoek zuritasun bizia hartzen zuten.

Karlos Zabala

Ekialdera **xipa** (txipa) deitu izan baitzaie mendebalderago ezkailu (axkalo) bezala. **Patziku Perurena**

xipatu ik **txipatu**.

xipiroi ik **txipiroi**.

xipiron ik **txipiroi**.

xipotx *izond adkor* zipotza.

Ez eta entenitu ere ez du egiten, **xipotx** eta narratz halakoak. **Patziku Perurena**

Euskal letren mundutxo harropux eta **xipotx** honetan. **Patziku Perurena**

Eta nago, euskal sena kristautu, abertzaletu, iraultzaletu ahalean ugaldut den txori **xipotx** honenganako sentiberatasuna ere. **Patziku Perurena**

xipoxtu *izond adkor* zipoztua.

Lotsa ere balitzake kultur gidariontzako, baina nago, gaixo **xipoxtuok**, kultoegi bihurtu direla, horren sustantzi klase arrunta bertatik bertara sumatzeko. **Patziku Perurena**

xipriar *izlag ipar* zipretarra.

Baina **Xipriar** ugartea dute turkoek beren begiko zikina Europan eta, futxo, hura ere onartu beharko. **Herria**

xipriota *izlag/iz ipar* zipretarra.

Bozak eman dituzte **Xipriota** herrian jakiteko berek zer dioten Europan sartzeaz edo ez. **Herria**

Xipriota grekoek eza eman dute % 75,83en neurrian, Kofi Annan ONUko presidentak eskaini proposamenduari. **Herria**

xipristin *izond*

A ze nexka **xiprixina**. **Pablo Sastre**

xira ik **zira**.

xirgil *izond*

Beharbada bi egun zituen begi urdin, ile **xirgil** eta horixka zuen neskatilatxo zapuztu hark. **Gotzon Garate**

xiri 1 *iz adkor* ziria.

Xilo haietan sartzen zuen **xiri** bat, konduen ongi eramaiteko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Artzen ginen ere, pentzetan, **xiri** batekin tirittak beren xilotik aterarazten. **Menane Oxandabaratz**

Bi kandela, hilaren potreta, ezkozko bi **xiri** gurutzatuak mahaian pausatzen ziren eta hil beila egiazki hasten zen. **Itxaro Borda**

Lasto **xiri** mutur bat erretzen denean bezala. **Janbattiti Dirassar**

2 edariak hartzeko hoditxo modukoa.

Ekardazu baso bat garagardo, **xiri** batekin. **Anton Garikano**

Dembak garagardoa bere aurrean ikusi, handitasunez eroso jarri, eta **xiriar** tiraka hasi zen. **Anton Garikano**

Ez gero saiatu garagardoa **xiririk** gabe edaten! Jokamolde finaren kontra doa basoa ahoarekin ukitzea! **Anton Garikano**

3 **xiria sartu**

Bakarreko ekintza horren medioz ahanzturari sartutako **xiriak** gainerako lagun axolagabeagoen gainetik ezarria ninduen. **Aingeru Epaltza**

xirika *adlag adkor* zirika.

Bere mixto xorrotxarekin **xirika**, badirudi ni tentaztea beste xederik ez duela ekarri. **Patziku Perurena**

xirikatu, xirika(tu), xirikatzen du *ad adkor* zirikatu.

Gazteak gazte gisa mintzo, erran nahi baita aski ausart eta kitzikatzaile, adinari doakun moldean, bazterrak **xirikatuz**. **Herria**

Eta guk ere doi bat **xirika** dezagun Posta hori. **Herria**

llobak agindu zion ez zuela **xirikatuko** gehiagotan. **Karlos Zabala**

Eta nahi luke hirian barrena lasterkan ibili [...] gizona koei begietara behatu, arratoiak **xirikatu**, hilarri bateko lili xapaldu bat izan! **Pablo Sastre**

Orain, ni bereziki **xirikatzen** nauena San Klemente Papa horrena da, euskaraz papa hori nondik atera ote duten. **Pello Zabala**

xirikordatu ik **txirikordatu**.

xirimiri ik **zirimiri**.

xirimola *iz adkor* zirimola.

Adin batetik goiti, bakan dira mozkorraldiaren **xirimolatik** oroimenean gordetzeko adina merezimendu duten egintzak. **Aingeru Epaltza**

Olatuek oso gogor jotzen zuten, eta apar **xirimolak** oso goraino eguratsa hezetasunez eta kresal-usanez betetzen. **Txillardeggi**

xirindula ik **txirindula**.

xirindulari ik **txirindulari**.

xiringa (*orobat jeringa g.er.*) 1 *iz* gorputzean isurkariak barnertzeko sendagintzan erabiltzen den ponpa txikia.

Anestesia gehiago behar zuen, eta erizainak flasko bat luzatu zion **xiringa** betetzeko. **Xabier Olarra**

Barealdi horrek, aitzitik, urduri jarri zuen erizaina; **xiringa** bat prestatzen hasi zen, zerbaitekin betetzen. **Pako Aristi**

Zundatik barrena erraza da **xiringa** arrunt batez erauzkinak urdailera helaraztea. **Juan Garzia**

Piakiak jotako zuloak **xiringa** batez xilofenaz bete litezke. **Javi Cillero**

Poliziak **xiringak**, odol poltsatxoak eta ur destilatuko anpuak atzeman zituen logeletan. **Berría - Kirola**

2 (drogaren munduarekin loturik)

Droga, edozein motatakoa eta nahi adina zegoen han, joaten zinen aurpegia garbitzera eta harraska odolez zipriztinduta, **xiringa** garbitzen ibili zirelako. **Jokin Urain**

Dena prest zegoen, **xiringa** barruan eta, azkenean, lerrotxo prestatu nuen. **Sonia Gonzalez**

Horrelako **xiringa** ederrekin piko bat sartzera edonor animatuko litzateke, pentsatu nuen. **Harkaitz Cano**

Orkatilan **xiringa** bat du sartuta. **Sonia Gonzalez**

Pertsona infektatu baten odolarekin kutsatutako **xiringa**. **Luis Elberdin**

Gaixo zegoen beste baten **xiringa** kutsatua erabiltzeagatik. **Berría - Euskal Herria**

Beharazko bidea hartu nuen, eta ezponda baten, hiru **xiringa** jaurtiak zeuden bazterrean. **Koldo Izagirre**

Astiki xurgatu nuen, bafada nikotinatsua birika aseetara **xiringa** baten karga zainean bezain astiki bidaliz. **Aingeru Epaltza**

Pegatinan baino biziago segitzen dute neure buruan aspa gorri batez ezabatutako **xiringak**, haren alboko dianak, letra gorri idatzitako *Trafikanteak, hormara!* aldarriak. **Anjel Lertxundi**

3 (hitz elkartuetan)

Urdaileko minbiziagatik hilzorian eta oinazez zegoela, morfina **xiringak** aringarri bakar, emeki-emeki iraungi zitzaion bizia. Orratz **xiringa** txiki batzuk ikusiko dituzu, injekzioaren momentua erakusteko marraztuak. **Eskarne Mujika**

xiringakada *iz* xiringaren edukia.

Belauna izugarri puztu zitzaion eta sei **xiringakada** likido atera behar izan zizkieten. **Berría - Kirola**

xiringatu, xiringa(tu), xiringatzen du *ad* xiringaz sartu.

Argi zegoen ez zela neskatuari edanarazi edo **xiringatu** zioten [droga] bera. **Ibon Uribarri**

xiringatzar *iz adkor* xiringa handia.

Buruan zeukan neska bikainaren ordez, atso popahandi bat aurkitu zuen han barruan, **xiringatzarra** eskuan. **Jon Arretxe**

xirio 1 *iz ipar* kandela.

Eliza barnea, dena **xirio** eta intsentsu ke, izerdi usainari nahasirik, beilariez mukurru bete zen, otoitz zurrumuru bat goiti zoala zilarrezko Birjinari buruz. **Michel Oronoz**

Hara heltzearekin, giltza andana bat atera zuen, sartzea argitzen zuten **xirioetarik** bat hartu, eta bi guardek zaindu atea ireki. **Elena Touyarou**

Igandean, Parropiako gaztek salduko dituzte, berek egin **xirio** edo tortxak eliza atetan. **Herria**

Lehen janaldia egin ondoan, ostalertsak saltzen zizkien **xirioak**, zortzi edo hamar soseko peza paga-araziz, erdia balio zutelarik. **Piarres Aintziart**

2 (izenondoekin)

Ibarreko eliza ttipiak ukan du orduan bisitari, barnea alegeratzen zitzailela beilariek pizten zituzten hamarka **xirio** ttipieri esker. **Herria**

Opariak orijinalki egiteko ideia ugari aurkituko duzue: oihalkiak nasaiki koloratuak, kolorezko kristalkiak gasagarrean edo labean landuak, larrukiak, **xirio** apaingarriak, haurrentzat zurezko apainki eta puzzleak, larru eta txapinak, joiak, eltzeak... **Herria**

Andere serorak bazituen aldare gainean zenbait **xirio** piztuak eta zeremonia bururata hiltzen zituen bat bertzearen ondotik eta usain hura hedatzen zen eliza guzian. **Herria**

xirla ik **txirla**.

xirmendu *(orobat xerment eta xirmindu) iz aihena.*

Xirmenduz zein buruxkaz sustatu sutetik hastapenean, ke marra meharra bermatzen baldin bazen, ondotik su nasaia, ausarta eta tematsua emendatzen ari zela ikusten zuen Pierra etxeko premu iragarriak. **Itxaro Borda**

Erretzeko kemen gehiegi eskatzen zuen eta etxelarren inarrosteko **xirminduak**, buxkak, egunkari-orrialdeak hauts hiletan metatu behar ziren aldi oroz. **Itxaro Borda**

Aita ari züzün mozten, **xerment** mozten zubüekin prefosta. **Menane Oxandabaratz**

Sua aditzen zen, kriski-kraska, urrunetikako plazer erraldoi, ahalik idorren mantentzen ziren **xirmenduak** klikatzen. **Itxaro Borda**

xirmi

1 *xirmi-xarma adlag* aztikeriaz, azti lanez.

Bob James, herrixkako sagu-liluratzaille sudur-okerra, ekarrarazi zuen saguak **xirmi-xarma** desagerraraz zitzan. **Mirentxu Larrañaga**

xirmindu ik **xirmendu**.

xirola ik **txirula**.

xiroldu, xirol(du), xiroltzen 1 da/du *ad* distira galdu.

Badirudi printzipio genealogikoak, Nlaz estutu ahalean MUNDUaz arrotzu egin gaituela, atzenerako geure buruaz eta munduaz asper gaizto egiteraino antzutuz eta **xirolduz**.

Patziku Perurena

2 (era burutua izenondo gisa)

Inorena baino lehen, bere kosetxako lakra honen aurka egin beharko likek limpieza nortea galduta dabilen abertzale jendaje **xiroldu** honek, duintasun zipitzik izanen balu, baina... **Patziku Perurena**

xirri¹ 1 *iz adkor* zirria.

Kruasanak jaten eta **xirriak** trukutzen. **Iban Zaldua**

Dezentziak eta modu onek mende hartan markatzen zituzten neurrietatik harago joanez gero, desegoki zen hitzen bat esanez gero edo komeni ez zen laztan edo **xirriren** bat desgaraian eginez gero. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Atzetik gazte taldeak agertzen ziren, bikoteka edo taldeka; bikoteak baldin baziren **xirriak** egiten zituzten eta multzoan etorritz gero builaka ekiten zioten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hotel bateko kafetegian, erakusleihoaren beste aldean, putakumea eta Aintzane, kafea eta kruasanak hartzen, noizean behin elkarri **xirri** arinak egiten esku-gainetan. **Iban Zaldua**

Antoniori eskatu nion titiburuetan **xirriak** egin ziezazkidalda. **Aitor Arana**

Neska hau erdian nire Mikeli **xirriak** egiteko? **Xirri** egiten ere ibili omen zineten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ezin dit inork egotzi Josafateko Zelaia maitaleak **xirri** egitera biltzen diren parke xalo batekin nahastu izana. **Anjel Lertxundi**

2 *xirri-xirri adlag*

Klaudio zurrup-zurrup zebilen ene zakil-potroetan, Imanolek **xirri-xirri** zegidan titiburuetan eta nik xurga-xurga berari buztanean. **Aitor Arana**

xirri²

1 *xirri-xirri izond*

Xirimiri **xirri-xirri** hori. **Pello Zabala**

2 (adizlagun gisa)

Euria **xirri-xirri** egin arren, sekula baino ederrago iritzi nion gure hiriko gauari. Hauek, mendi kasko eta lepoei kateatuta gelditzen direnean, xirimiri eta lanbro gisara, **xirri-xirri** botatzen dutena, ia beti, han goian, mendian gelditzen da. **Alberto Ladron Arana**

3 *xirri-xarra (orobat xirrixarra) iz*

Zintzur karranka ematen zuen musika aditzen zen, mutiko isiotuak higiarazten zuen panderetaren **xirri-xarrak** suge-ozenaren ezpalen karkara zinominokatzen zuela.

Itxaro Borda

Emaztearen oihu eta negarren oihartzuna biderkatzen zuen labanaren mihian hara-hona zebilen xorroxtarriaren **xirrixarra** metalikoak. **Itxaro Borda**

4 (adizlagun gisa)

Autoak aurpegi kontra, nondik bazterrera egingo, bide izkinatik **xirri-xarra** hasi zen. **Pablo Sastre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xirri xirri (4)

xirri³ ik **txirri²**.

xirribika *(orobat txirribita) 1 iz ipar* biolin modukoa; biolina. ik **arrabita**.

Georgiako bi nexkatoek, bat **xirribikarekin**, bertzea pianoarekin eman dituzte beren herriko musika pollitak. **Herria**

Agorrilaren 18an, igande aratseko 9etan, Uharte Garaziko elizan kontzertua: **xirribika**, organo, kantu. **Herria**

Gotzon Garate-k ere dio euskaraz idaztea **xirribika** jotzea bezala dela. **Herria**

Lehenik Veronika Godlewska eta Florian Wiek, bat polonesa eta bestea alemana, batek **txirribita** joiten, besteak pianoa. **Herria**

2 apaleko xirribika

Aurten tailer berri batzuk proposatuak dira: akordeoia, flauta " traversière ", **apaleko xirribika** , gaita. Herria
18 gizon eta emazte kantarik iragan igandean gure elizan eman daukute kantaldi eder bat organo eta **apaleko xirribika** batekin ere. Herria

3 txirribika-jotzaile (corpusean txirribika joile soilik)

Helduden astelehenean, apirilak 25: Elsa Grether **xirribika joilea** eta Reiko Hozu piano joilea, hau motaz japonesa. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apaleko xirribika (3)

xirribikalari ik **xirribikari**.

xirribikari (orobat txirribikalari) iz txirribika-jotzailea.

Xirribikariak gero eta trenpe gehiagorekin ari ziren jotzen. Aurelia Arkotxa
Apirilaren 21ean, Jean Mixel Bedaxagar kantariak eta Mikel Urbeltz **xirribikariak** Xuberoa eta Erronkariko kantuak eskainiko dituzte. Herria
Jean Christian Irigoien akordeoilaria, Maitane Sebastian apaleko **xirribikaria** eta Thierry Madiot tronboilaria. Herria
François Lambert piano-joilea, Sarah Dayan **xirribikalaria** eta Caroline Boita txelo-joilea. Herria

xirriki

1 xirriki-xarraka adlag poliki, nekez

Lehenbizi ongi itxi sotoko atepak, atalak, salako lehakumeak, ganbarako harleiho zaharrak, eta badator atzera **xirriki xarrika** aitona sutondora. Patziku Perurena
Ogaitoloko aitona, Artantxukoa... zakua burutik behera, hanka hankari ezin emanik **xirriki-xarrika** ... Patziku Perurena

xirrikittu ik **xirrikitu**.

xirrikitu (orobat xirrikittu g.er.) iz adkor zirrikitua.

Xirrikitu batetik ikuste-izkik gauzak, eta ez beren osotasunean. Txillardegi
Zalantzarako **xirrikiturik** gabe. Txillardegi
Aldaketa-**xirrikituren** bat nondik sumatuko. Pello Zabala

xirrimiri ik **zirimiri**.

xirrin izond

Euri **xirrin** sarriko eta egun askotakoak, baina zirin, langar, euri motela gehiena, ordu askotako jardun buxti lapatx hori, akaso? Pello Zabala

xirrindu ik **xirrindu**.

xirrindula ik **xirrindula**.

xirrindulari ik **xirrindulari**.

xirripa (orobat txirripa) 1 iz ur-laster txikia.

Gure **xirripetan**, gure ibaietan, darion ur argia, ez da bakarrik ura, baina gure arbasoen odola... Michel Oronoz
Eta bazihoan, gelditu egiten zen, bazihoan berriro, antsiarik gabe, **xirripa** bat hondarrean zehar bezala. Bernardo Atxaga
Xirripa bat bide handiaren ertzean. Koldo Izagirre
Larreak, erreka nagusitik bananduta arranoaren habian arranakumeek eduki behar duten txorrotxio eztiatz xuxurlatzen duten **xirripak**, lorez eta lurrinez beteriko belazeak. Koldo Izagirre
Xirripak zerizkion aurpegian behera; ez soilik urezkoak, baizik eta (gero jakin nuen) malkozkoak ere. Juan Garzia

2 (bestelako likidoekin)

Eskegi nuenean sudurretik xurga-paperera odol ttanta bat erori zitzaidan, eta berehala **xirripa** bat. Xabier Olarra
Esnearen **xirripak** kotxuaren bazter metalikoa jotzen zuelarik sortzen zen musika zinez eder kausitzen genuen. Itxaro Borda
Odol **xirripa** bat isuri zitzaion ipurtxuntxurretik isatseraino, eta, tantaz tanta, portzelanaren zurbiltasuna zikindu zuen. Karlos Zabala
Ogiaren labana hartu eta harramazkak egiten hasi zen bere eskuaren gainaldean: odol-**xirripak** atera ziren. Fernando Rey
Jeneralak hartu zuen lehen esne-**xirripa** bera ere, Niniren bularretik hartu zuen. Xabier Olarra
Zerion tu **xirripa** malgu eta zehargiak izpirituaren egoera larria frogatzen zuen. Itxaro Borda

3 ur-xirripa

Han lepoa, han oihana, han bide xendera bat, han **ur xirripa** bat erreka zolan. Michel Oronoz
Ur xirripa bat bezala azaltzen zen basoko pago-lizarren artean, eta haranean behera abiatzen zen kizkurka, bizkor, "itsasora lehenbailehen iristeko erabakia hartu izan balu bezala", Redinen hitzetan. Bernardo Atxaga
Ohartu nintzen **ur-xirripa** batek iragaten zuela borda alderik alde. Koldo Izagirre

Erreakak eta **ur-xirripak** jaitsiko dira mendi handi eta muino garai orotatik. **Elizen arteko biblia**
Erreakari zuria, lehor; ozta han-hemenka **ur xirripa** urri batzuk hondartza aldera isuri. **Txillardegia**
Alabaina Biduze **ur xirripa** mehea dugu lhuri zabalaren aldean. **Aingeru Epaltza**
Sotoa ikusten dut, jolaslekuan sartu eta ezkerretara, **ur-xirripa** trinko eta luzeko iturrien alboko eskaileretatik jaitsita. **Joxerra Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

odol xirripa (5); **ur xirripa** (19); **ur xirripa bat** (4)

xirripaño *iz adkor* xirripa txikia.

Mendiaren hegaleria ematen zuen paretaren orpoan zulo karratu bat zegoen, ur **xirripaño** garden eta freskoa jalgitzen zen handik, eta harkaitzaren gainean erortzen zen, gero amildegian behera galtzeko harrabots alegera eta bizian. **Koldo Izagirre**

xirrista (*orobat xirrixta*) 1 *iz* xirripa.

Ur erresalbu handi bat da, hamar bat mailako eskaileraren behean, **xirrista** batek berritzen duela ura, etengabeko isurketa batean. **Piarres Aintziart**
Tringili-trongolo dator ibaia, **xirrista** apalean bokalera egiten duen errezela muskerra. **Javi Cillero**
Gaineko aldean edateko ura eta hortik joan den **xirrixtarekin** betetzen du ur naza handia. **Herria**
Gaur malkoak **xirristan**. **Herria**

2 irud/hed

Haize hegoa artetan, erran nahi du beltz eta euri **xirrixta** batzuekin, aste hau eztiago. **Herria**
Kotxetik jaitsi eta argi **xirrixitari** buruz abiatzean, laino artetik marraka motelak entzun nituen. **Itxaro Borda**
Argi xirrixta agertzean. **Herria**

3 ur-xirrista

Belarriak laztanduz zetorren txoko batetik ur **xirrista** jauzkari bat, eta ez zen besterik entzuten shrine hartan. **Javi Cillero**
Gure eskualdean ere, ur **xirrixta** txar bat usaian sasoin huntan ura burrustan doan toki batzuetan. **Herria**
Gure eskualdean ere, ur **xirrixta** txar bat usaian sasoin huntan ura burrustan doan toki batzuetan. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lur xirrixta (3)

xirrito ik xirritu.

xirritu (*corpusean xirrito eta xirrixtu*) *iz* zirritua.

Bazter gozo ezti eta ixila da Baztan haranaren altzoa, Hauza mendi gotorrek ongi zaindua ipar-iguzkialdetik, aldiz erreka zabalto apalak idekitzen diotela **xirrito** bat beheiti, Bidasoa eta itsaso alderat. **Herria**

xirrixarra ik xirri² 3.

xirrixta¹ *iz* zerrenda.

Eremuz munduan gaindi estatu ekarriak diren herrialde ttipienetarik batto, itsas-hegian den lur **xirrixta** bat, lau kilometro luze tirahala, doi-doia bizpahiru ehun metroko largotasunarekin. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lur xirrixta (3)

xirrixta² ik xirrista.

xirrixtu ik xirritu.

xirta *iz*

Haratx **xirta** batzuk, nere usteari eusteko. **Patziku Perurena**

xirtaño *iz adkor* xirta.

Harrigarri litzateke hemen zerbatto, ttintta bat, **xirtaño** baten itzala bada ere, sortzea. **Patziku Perurena**

xirtxikatu, xirtxika, xirtxikatzen (*orobat xintxirikatu*) *du ad ipar* suntsitu, desegin. ik **xitxifrikatu**.

Orain, auzoko emazte xahar baten xakurra, adiskide handi zaukana, du *rotweiller* horietarik batek **xirtxikatu**. **Herria**
Liburua han dago bere gelan, poliziak **xirtxikatu** ostoia berriz moldatua, odol xorta eta guzi. **Herria**
Otsailaren 1ak ekarri duen bertze berri guzien artean [...] harrigarriena, izigarriena, Columbia izarruntziaren zapartatzea Texas-eko zeru gainean, barnean ziren zazpi espazio-presunak **xirtxikatuz**. **Herria**

xirtxil *(orobat xirxil g.er.) izond adkor zirtzila.*

Monarkietan lehen tokietara heltzen direnak, maizenik deus ere ez dira, gaizkile kiskil, axpikari girgil eta nahastekari **xirtxil** batzuk baizik. **Markos Zapiain**

Eguraldi iluna pixka bat harrotzeko, otsail **xirtxil** huntan. **Herria**

Kixkila, **xirtxila** eta bipila, horra nolakoa izaiten den apirila! **Herria**

xirtxilkeria *iz adkor zirtzilkeria.*

Han ere **xirtxilkeriak** izanez. **Herria**

xirula 1 *iz txirula.*

Soinu tresnetan, hor dira segur txistua, **xirula**, txiribita, txanbela, silbotea eta holako batzu. **Herria**

Xirula entzuten nuen, Gotainera hurbiltzen ari. **Txillardegi**

-Zergatik ez dun herorrek ere **xirula** jotzen ikasten...? **Joan Mari Irigoien**

Kantarien hatzek jotako **xirulak**. **Xabier Amuriza**

Jende guztia haren ondoren igo zen, **xirula** joz eta beren poza ozenki azalduz. **Jose Antonio Mujika**

Danborrak eta **xirulak** euren soinua barreiatzen dutela, tribuko gazteak landare haluzinogenoren baten eraginpean daudela. **Jon Alonso**

Bai, bere hezurrekin egin ditu gizonak, arma sakratuak eta **xirula** miragarriak. **Patziku Perurena**

Kornamusa edo **xirula** baten txistu zerutiarrak baizen. **Joan Mari Irigoien**

Emakumezkoek beren nota zoliak, eta haurren ahots meheek **xirula** mehearen hotsak ematen zuten deboziozko burrunba suharrean. **Josu Zabaleta**

2 *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa)*

Biharamunean Maxkaradaren **xirula** hotsak esnatu ninduen. **Txillardegi**

Xirula soinu ezti xorrotx hori nahi nuen. **Txillardegi**

-Uste da nolabaiteko munstroren bat dagoela, Slytherinen oinordekoak bakarrik kontrola dezakeena -erantzun zion Binns irakasleak bere **xirula** -ahots lehorraz. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xirula eta ttunttuna (3); **xirula jotzen** (4)

xirulaka *adlag txirula-txistuka.*

Hautsa, eta burdinurtzuko farola, **xirulaka** hasten dena, eta ni kulunka eta barrez, farolaren argi dardarkari eta hil-hurrenkaria, enbata galanta behar du izan gaurkoak ere.

Joxe Austin Arrieta

xirulari *iz txirularia.*

Gure irudimeneko **xirulariak**, koplariak, larrepoetak datozkit gogora. Zuberoako kantak emango dituzte Jean Bordaxar, Jean-Pierre Luro, Jean-Noel Pinque eta Robert Larrandaburu kantariak eta Jean-Charles Sanz **xirulariak**. **Patziku Perurena**

Aña Garat armendariztar eta Frantxua Lucu bitirindar makilariek; xiberotar **xirulariek**, Mixel Etxekopar eta hunen lagunek. **Herria**

Hamelingo **xirulariaren** gogatzeko tresnaren ordez behartzeko zartailua har dezakete. **Iñaki Mendiguren**

Hiru **xirulari** eta bi danborrero zeuden, baita turuta bat ere. **Joan Mari Irigoien**

Kantari **xirulariren** bat xorroxioka. **Pello Zabala**

xiruliru *iz txistuaren edo txioaren onomatopeia.*

Maskuria lasaitzeko komunean bakarrik hagoenean ere, kontu handiz jardun beharko dun inork ez dezan hire errekaostoren **xirulirua** entzun: tira egingo dun etengabe katetik. **Joxan Elozegi**

xirxil ik xirtxil.

xisma *iz*

Tirabira bat, hogeita hamabiren bat urbetetzekoa, kapirio biguntxo korintiar bat zuena **xisma** ordez. **Xabier Olarra**

xispildu ik xixpildu.

xistadun ik xixtadun.

xistako ik xixtako.

xistapur ik xixtapur.

xistera (**29** agerraldi, **5** liburu eta **17** artikulutan; orobat **xixtera 71** agerraldi, liburu **1** eta **54** artikulutan, eta **txistera 7** agerraldi **7** artikulutan) *iz* errebotean-eta jokatzeko tresna, eskuan sartzen den zumitzezko saski moduko atal luze-estua.

Eskulangileak hor izanen dire eta landuko dituzte: pilotak, esku larruak, **xisterak**, sareak, kaikuak, txotxongiloak, otarreak, kandelak, zurezko kateak, makilak eta holako.

Herria

Abadeak, eskuan jai-alaiko **xistera** duelarik, irribarre egiten du. **Edorta Jimenez**

Partida **xisteraz** jokatuko zen eta hamar jokaldi izango ziren. **Koro Navarro**

Xisterarekin ez zen gaizki moldatuko, atzelaria izateko gorpuzkera aparta baitauka. **Berria - Kirola**

Ikusi behar dik, oraiko esku huska eta **xisterazko** jokoak, paretaren kontra egiten direnak, ez zirela haizu, aldiz ba errebotea eta laxua. **Michel Oronoz**

Xistera handia asmatuko zuen beraz, beso zaurituaren indar eskasaren ordaintzeko. **Ramuntxo Etxeberri**

Eguna bukatuko da **xistera** haundiko master finalarekin, hor ariko dela Belly ekipa jazko irabazdunen kontra. **Herria**

Xistera ttipian ere Maulekoak ariko dira hemengo Chatillon herrikoen kontra. **Herria**

Horra beraz uztaiztarrek nausitasun bera agertu dutela plazan ere erraboteko finalean bezala **xistera** labur tresnekin. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

urrezko xistera (7); **xistera haundi** (3); **xistera haundia** (5); **xistera haundian** (5)

xisterari (*corpusean **xisterari** soilik*) *izond/iz* xisteran jokatzen duen pelotaria.

Bertzalde bera pilotan **xisterari** izanik gure herriko haur eta gazte **xisterarien** erakasle egin du ainitz urtez. **Herria**

Gure **xisterariak**. **Herria**

xisto *iz* lasterketak egiteko edo paseatzeko tokia.

Pista estaliaren eta portiko bikoitzaren ondoan pasealekuak egingo dira estali gabe kanpoan; grezieraz *paradromidas* deitzen dira eta gure artean **xistoak** deitzen zaie.

Santiago Iruretagoiena

Xistoaren atzean estadioa egingo da, eta leku zabala utziz egingo da, jende askorentzat, inolako estuasunik gabe, atletak ikusteko lekua utziz. **Santiago Iruretagoiena**

Bi portikoaren tartean platanoak landatuz egingo dira **xistoak**, eta zuhaitzen artean ibiltokiak egingo dira eta Signiako morteroarekin egindako atsedenelekuak. **Santiago Iruretagoiena**

xistrin ik **xixtrin**.

xistu ik **txistu**.

xistuka ik **txistuka**.

xita¹ ik **txita**.

xita² ik **xiita**.

xital *izond adkor* zitala.

Orduan guai bat izan liteke lerroa, txorixoa eta pailazo merkea; edo inuzentea, nazkagarria edo errea, militante bat bezain ernegante eta neurotikoa, guraso bat bezain **xitala**, tristea eta alua. **Iñaki Seguro**

Piok zituen etsairik **xitalenak** ere, horrexegatik zituen: bere iritzia nonahi zapla botatzen zuelakotz. **Patziku Perurena**

Txori lotsagabe, erretxin, negarti eta **xitala**. **Patziku Perurena**

Alkate asko, orain gutxi arte, sekretarioaren bastoi inozentea izan ohi zen; egungo prentsa eta protagonismo **xitalik** gabe, jendaje xalo edo **xital**, baina inoxente batzuek inguratua. **Patziku Perurena**

Iri **xitala** egiten du fededunak jeneralean. **Patziku Perurena**

xitaldu 1 *izond adkor* zitaldu.

Aldekorik ezetz, etsaiak edo, égoak **xitaldutako** treparari yupi batzuk, besterik ez uste izateko. **Patziku Perurena**

2 (era burutua izenondo gisa)

Telebisiok haur harrotu dirudi, politikak haur lotsagabe, merkatuak haur **xitaldu** lapur, zientziak gixon usteko haur ddostari. **Patziku Perurena**

xitan ik **txita 3**.

xitatu ik **txitatu**.

xito *iz ipar* adin txikieneko jolakaria. ik **tarro 2**.

Gure **xito** eta ttarroek esku huska azken borroka jokatuko dute ezker paretean, azaroaren 26an Beskoitzen. **Herria**

Xistera haundian Kostakoak (**xitoetan**), BAC (tarroetan), Kostakoak (kadetetan) xapeldun. **Herria**

Horra nola joan diren **xitoen** maileko bi finalerdiak. **Herria**

Xitoetan Irisartarrak dira Frantziako xapeldun atera: biba zuek Peio eta Nicolas! **Herria**

xitu, xitzen du *ad* gainditu.

Zeren falta eta gabezia hura baitzen kalte guztien gaineko kaltea eta gaitzik gaitzena eta galgarriena, bertze guztiak **xitzen** eta ahanztarazten zituena. **Joan Mari Irigoien**
Anitzetan gauza bat bertze batekin nahasten zuen, baina erdiesten ere zuen azkenean, gehienetan bai bederen, bidean sortzen zitzaizkion gaiztasunen eta zailtasunen **xitzea** eta garaitzea. **Joan Mari Irigoien**

xitxi ik **txitxi**.

xitxifrikatu, xitxifrika, xitxifrikatzen du *ad ipar* suntsitu, desegin. ik **xirtxikatu**.

Lanak gorputzak higatzen zizkigun, buruonak **xitxifrikatzen**, baina atelierretan zein bulegoetan, gutxi edo aski jendetzen gintuen elkartasun zerbait bermatzen zen. **Itxaro Borda**
-Ohoarearen estakuruz maite ditugunak oro suntsituak suertatzen ditun: amodioa, elkartasuna, umiltasuna, jendeen arteko harremanak, denak izenik ez duen gerla batean **xitxifrikatuak**. **Itxaro Borda**
Nekez eraikia erraz **xitxifrikatuz**. **Itxaro Borda**

xitxuketa ik **xintxuketa**.

xitxuketan *adlag* konpontze lanetan.

Nork ez du ezagutu Pierre jende airoa eta beti prest xerbitxu baten egiteko, hargintza, zurgintza, eta ainitz lan motetan? Nork ez du haren beharra ukan **xitxuketan**?
Herria

xiudadano *iz adkor* hiritarra.

Edukazio gehiago dute xiudadekumeek [...] baina guk gehiago estimatzen dugu sanidadea, hain maite dugun herri-giroko sanidade hori, baina zoaz zu **xiudadanoari** sanidadea aipatzera. **Iñaki Seguro**

xiudade *iz adkor* hiria.

Dena da mesedez **xiudadean**, edozer huskeriagatik mesedez (eta barkatut!, jakina): **xiudadean** dena da mesedea, kaltea eta barkakizuna, nonbait. **Iñaki Seguro**
Hiriko jende hori, hiriburukoa eta haren inguruetakoa, **xiudadekoa** [...] **xiudadeko** jende hori, diot, ez da gure modukoa, eta gu hor "herrietako" jendea gara, edo "herri-girokoa". **Iñaki Seguro**
Axkar-usteko tonto asko bizi da **xiudadeetan**, eta triste da hori oso, zeren **xiudadeko** tontoa izatea baino gauza tristeagorik ez baitago. **Iñaki Seguro**
Xiudadeko hiritarraren begiak eta buruak. **Iñaki Seguro**

xiudadekume *iz adkor* hirikumea.

Edukazio gehiago dute **xiudadekumeek** [...] baina guk gehiago estimatzen dugu sanidadea, hain maite dugun herri-giroko sanidade hori, baina zoaz zu xiudadanoari sanidadea aipatzera. **Iñaki Seguro**
Xiudadekumeak sineskorrek eta toleranteak direla genioen, eta halaxe dira, bai, informazioarentzat, zientziarentzat eta, nola ez!, artearentzat. **Iñaki Seguro**

xixa¹ *iz adkor* ziza.

Propio bila joanda sekula aurkituko ez litzukeen batek, **xixa** pare bat aurkitu du, zar-zar-zar ari zela. **Berria - Kirola**

xixa² *iz esku pilotan, pilotak lehen botea egiten duen tokian egiten den marka.*

Partidaren arauak edo legeak ez ziren haatik beti ulert errexak, **xixa** eta gaineratekoekin. **Herria**

xixare 1 *iz adkor* zizarea.

Begi bizkorra (erreparatzekoa da **xixareei** eta beste zenbait abereri so eguraldia nola igartzen zuen). **Pablo Sastre**
Pausatu zituen bolak bezalako begi haiek nire gainean, **xixare** baten, bare baten, ezerez baten gainean jarri balitu bezala. **Matías Múgica**
Zer egos dezake ni bezalako alproja batek, ofiziorik narrasenean aritzen den **xixare** batek? **Matías Múgica**
Euskara garbiz, norbeitentzat erraiten duelarik **xixaria** dela, horrek erran nahi du arrunt mehea eta txarra dela. **Herria**
Biziaren alde naiz [...] **xixariak** baliatzen baldin badituz ere arraintzan artzeko. **Herria**

2 (izenondo gisa)

Aitak ez zuen erdaraz egiten eta berak ez zuen euskaraz deus konprenitzen, euskaldunok jende **xixarea** ginela esaten zigun, Euskadi herrixka zikin bat zela. **Koldo Izagirre**

xixatu, xixa(tu), xixatzen du *ad adkor* lapurreta txikia egin.

Gernikan errazagoa zuan: guk ondo jaten genian koartelean, eta handik **xixatzen** genian jatena zela, edo botak zirela, salmentan aritzen gintuan haiekin, eta Gernikan ezer zeukanak, zeukanaren truke erosiko zitian igual, beharra eduki eta. **Pako Aristi**

xixel *iz ipar adkor* zizela.

Xixel lanak, margo ala dendari obrak, hauek baizik ez aipatzeko, orotarik ikus ditaik erakusketa huntan. Heria

Urte huntan Hazparneko artixta guziak gomit izanen dira bere obren erakusterat, tindu, broderia, **xixel** lan, marrazki ala argazki, deneri galdegina izanen zaiote, parte hartzea proiektu hortan. Heria

xixelkadura *iz ipar adkor* zizelkadura.

Ainitz gauza ere etxe barneen ala zernahiren apaintzeko, zurezko, harrizko, berinazko, hexurrezko ala beste, margo, marrazki eta **xixelkadura**, mota askotarik, hoinbeste ederlanen artean bakoitxak bere gustukoa kausitzen ahal. Heria

Swiecinski bera luzaz Getarian egon zen eta horko erakustegiari utziak daizkio bere **xixelkadura** frango, artoski begiratzen dituztenak. Heria

xixelkari *iz ipar adkor* zizelkaria. ik **eskultore**.

Regis Pochelu **xixelkariak** 10 tonako harri bat lantuko du. Heria

Biziki ezagutua ere haren arreba, Camille Claudel, talendu gaitza zuen **xixelkaria**, 1943-an hila. Heria

Hor izanen dira Gonzalo Etxebarria margolari ezagutua eta Iñaki Olazabal **xixelkaria**, hau ere jeinu handikoa. Heria

Lan gaitza egina du, horrat gomitatuz besteak beste Hegoaldeko margolari eta **xixelkari** famatu asko, Oteiza, Chillida eta beste frango. Heria

xixelkatu, xixelka, xixelkatzen **1** *iz ipar adkor* zizelkatu.

Jadanik ainitz lan egina du sail huntan, zura ere **xixelkatzen** du baina harriari doa bere amodio lehena. Heria

Harri hori aski ederki **xixelkatua** Gorka Arizagaazkaindar artixta gazteak. Heria

Margoen lagun, Olivier Deck biarnesak **xixelkatu** irakurgaiak, iturriko ur-hotxa bezen gogotik hurrupatzen ahal direnak. Heria

2 (era burutua izenondo gisa)

Horrelako gune andana bat badugu orain Hazparnen, gehienak lorestatuak direnak, baina bakarra izanen dugu harri **xixelkatu** batez apaindua. Heria

xixka *iz ipar* apurra, poxia.

Arte hortan musean **xixka** bat egiten dugu, aireportu hunek ere muslariak ikus ditzan. Heria

Hemen ere arrainkiz afari bat ederra egin dugu arno onez lagundurik, eta kantuz **xixka** bat egin. Heria

Horren barnean sarturik eta hor zerbitzatu bazkaria janik, etxerat buruz goaz lo **xixka** batzu eginez. Heria

Gero bere **xixka** eginen Biscoubyk 20 tan ados izanik, 28 joko baitu lau boterekin besteak beste, eta beste sail bat pollita geroxago. Heria

Beherapena, aroa ortzi aire bero **xixka** pizkorrekin, euria negurriran. Heria

Beleztei aldean, basazikintegi bati lotu dira hogoibat lagun joanden larunbat goizean eta **xixka** ederra egin dute. Heria

xixkalar *iz* lapur txikia.

Lotsatuta, uretan murgildu ditu **xixkalar** baten abileziaz. Itziar Otegi

xixkatu, xixka(tu), xixkatzen du *ad* lapurreta txikia egin. ik **xixatu**.

Eskua besape aldera eramane zuen kankailuaren lagun herrenaz oharitu zen Amaia, eta, era berean, Dianneri **xixkatutako** elkarriketa gogoratu: Leviatanen agenteetako batek guraso kubatarak omen zituen, eta herrenak karibetarren aurpegiara eta azal beltzarana zeuzkan. Fernando Morillo

xixku *iz* poltsa.

Katalina Gezalakoaren bertso-paperak erosi dizkiot itsuari [...] eta brusa barruko **xixkuan** gorde ditut. Ondoren, emeak poltsa edo **xixku** berezi batean jasotzen du arrak emandako hazia. Anjel Lertxundi

Petxua, birrikak, bularrak, urdaila, gibela eta besikula edo **xixkua**. Pello Zabala

xixpa *iz adkor* zizpa.

Emakumeek parte hartzen dute alarde tradizionalen, baina kantinierra edo kantinerak bezala, eta ez eskupeta edo **xixpa** eremaile bezala. Heria

Ehun kanoi eta bi mila fusil -edo **xixpak**, zeren **xixpakoak** baitziren- Espainiako armadarentzat. Joan Mari Irigoien

Ahal bezala, Lakarko inguruak, beti **xixpa** besaburuan eramaki, egunero xeheki begiratzeko agindu ziguten. Txillardeg

xixpildu, xixpil, xixpiltzen (*orobat xispildu*) du *ad* kiskali.

Lo zeudela, tximista sartu eta ondoan zuen anaia **xixpildu** zuen. Gotzon Garate

Zeren eta ez baitut sutan erre eta **xispildu** nahi! Joan Mari Irigoien

Baita txakurra erre eta **xispildu** zutenean ere, hura infernuko deabrua balitz bezala, neure buruari erraiten niola: [...]. Joan Mari Irigoien

xixpoleta *iz adkor* zizpoleta.

Donostiako San Martin kaleko 51 n -irakurri dut- Perla-tik ez batere urrun, seigarren solairuan gertatutako tirokaldi batean, espainiar polizia, ohe baten atzean babestu eta ordenu-indarrak **xixpoletaz** mehatxatzen zituen terrorista hil du. Txillardeg

xixta (*orobat sista g.er.*) **1** *iz adkor* zizta.

Gau ta egun zimitzak ezin larrutik kenduz ari ziren, beti handik **xixta**, hemendik **xixta**, ez zitzaketen gehiago jasan. Tripan, hor, halako **xixta** bat. Eneko Bidegain

Xixta horiek egin zauriak olioak bitza guri. Heria

Badu bere grazia, bere edertasuna, bainan ere zenbat eta zenbat **xixta** ! Ramon Etxezarreta

Gérard-ek azken ohar hori **xixta** samin bat bezala hartzen du eta Kattalini ez dio barkatuko. Eneko Bidegain

-Eta uste duzu behar direla artetan **xixtak** eman? Menane Oxandabaratz

Barkamenduak galdatzen diozkatet ez bainuke nahi ene omorezko **xixtak** kalterik ekar dezan egiten duten lan baliosari. Herria

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Paludismoada Afrikako bigarren eritasuna, malaria ere deitzen dena, uli **xixta** batetik heldu dena eta gibela pozoindatzen odolaren medioz, sukarrak emanez, eta buruko minak eta beste doloreak. Herria

Ondotik zer bihotz **xixta** ur untzitik Buenos Aires ikusi dugularik! Herria

Liburuaren aurkeztean, Jean Louis Davant-ek lehenik eskertu ditu Elkar argitaletxea bistan da, baita ere lan berri horren egiten, akulu **xixtaren** gisa, sustatu duen Xabier Mendiguren bere adiskidea. Herria

3 *lehen xixtan* lehen uanean. ik **xixtako** 3.

Lehen **xixtan**, harritu nintzen. Daniel Landart

Lehen **xixtan** endelegatu ez zuen isiltasun dorpea hedatu zen ostatuaren barnean. Itxaro Borda

Autoak non-nahi, eskualde orotarik heldu, denak presatuak eta lehen **xixtan** zure gainera jauzi egiteko prest! Daniel Landart

Eta gerlak abantail bezenbat makur ekarri deie lehen **xixtan** bederen. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lehen xixtan (4)

xixtada *iz adkor* zixtada.

Niri hasieran barregura ematen zidanan, halako gizasemea **xixtada** batengatik oihu eta arrantzaka. Xabier Mendiguren Elizegi

xixtadun (*orobat xistadun*) *izond adkor* zixtaduna.

Arrosa **xixtadun** batean, ene ustez. Menane Oxandabaratz

Belar **xixtaduna** etzanzakuaz estalirik, jatera noa, gero nagiki luzatzekotan. Piarres Aintziart

Hiru metro gorako hesi **xixtadun** eta tinke haien artetik, aleman armatuen zangopetik, zenbait minutaz ihes joaiten zirelako irudimena zeukaten. Eneko Bidegain

Orai murriz eta alanbre **xistadunez** bideak hetsi dituzte. Herria

Soldaduaeren begirada **xixtadunak** hertzeak korapilatzen zizkion, baitzekien zer gerta zekiokeen. Eneko Bidegain

Egiaren eta herritarren errespetuaren izenean, gertatu zaio behin baino gehiagotan ihardespen **xixtadun** batez hala zenaren erraitea, eta eztabada polemikoetan sartzea ere.

Herria

xixtako (*orobat xistako*) 1 *iz* zixtakoa.

Ni halako **xixtako** batek inarrosi ninduen. Janbattitt Dirassar

Izan ere, pentsatzen duela uste duenean, **xistako** bati (pentsamentu leitu bati) erantzun baizik ez baitu egiten; eta atzenean bestegandiko **xistakoen** erantzule huts bihurtzen da; bere indar guzia aurrez norbaitek pentsatutakoari baietz edo ezetz hutsak esaten agortuz. Patziku Perurena

2 (pilotan) ik **xixtatu** 2.

Mugicaren zaflakoak, berdin airetik zabalera, edo **xixtakoak** ere, eta Etchegoinen lan izigarria eta borondatea, xokoetara barreatuz eta bera helduz. Herria

Gonzalezen **xixtakoekin**, eta Pascualek gogor iraunez, tantoz tanto berdindu dituzte eta... irabazi. Herria

Frantxix beti bezain deliberatua baina desbardin aire batekin ere bere **xixtakoetan**. Herria

Biziki deliberatuan da Frantxix, defentsan bezala bere airezko **xixtako** heietan. Herria

Ezcurra-k du defentsa bezenbat **xixtako** egin eta tanto gehiena bukatu ere, airetik ala perekatuz, Dermitek funski lagunduz. Herria

3 **xixtakoan** istantean.

Ateko zaintzaileak gaztigatu eta **xixtakoan** han nuen neure aurrean Iñaki Lopez de Uralde teniente adiskidea. Gotzon Garate

xixtakor *iz adkor* zixtakorra.

Nola ikasi ote zuen otearen eskola, horren landare xaxtar eta **xixtakorra** izanik? Patziku Perurena

Perekak **xixtakorrak** ziren. Herria

xixtaño *iz adkor* xixta.

Tortura ukatze horiek, iduri-eta Unai Romano gaztearen aurpegi desformatua leiztafin inoxent batek eginiko **xixtaño** baten ondorioa baizik ez zela. Herria

xixtapur (*orobat xistapur*) *iz adkor* txotxa.

Eguberriz sua mokorrekin, Pazkoz **xixtapurrekin**, dio esakune batek. Pello Zabala

Pazko aldera, txotxak piztearekin nahikoa litzateke: **xixtapurrak** nahikoa izanen dira. Pello Zabala

xixtatu, xixta(tu), xixtatzen 1 du *ad adkor* zixtatu.

Ez du zauritu nahi, **xixtatu** bakarrik. Herria

Gauaren pausaldiak eta Gaucelmo aterpearen bake sakonak berriturik, eta orain albaren freskurak gorputza **xixtatzen** eta pizten didatela, atzo iragaiten hasi dugun patarrari lotu natzaio. Piarres Aintziart

Alemanek berehala xutiarazten zituzten armaren puntaz izterrak **xixtatuz**. Eneko Bidegain

Mundu huntarat etorri bezain laster, gizonak ez ditu onartzen bere mugak: debruak **xixtaturik**, nahi du Jainkoa bezainbat izan eta hori da bekatua. Herria

Haiti hortan, huna azken ordu huntan manifestaldi gaitza izan dela berriki ezarri gobernuaren kontra, beren gisan Frantziako Chiractiarrak eta sozialistak ere doi bat **xixtatzen** ari direlarik. Herria

2 (pilotan) ik **xixtako** 2.

Etcheverryk bi bote bakarrik baina ikasiko duelarik botearen barreatzen, eta gero **xixtatzen**, egun ederren bezperan da oraino gizon gaztea. **Herria**
Horiek dute gehienik **xixtatzen** pilota, bereziki Xalax, eta hunek pausatzen ere ezker xokoan. **Herria**
Ez baitzen oraino eginen partida jokatua, eta berriz hasi baitira Aguerre **xixtatzen** eta Dermit gibelego lanean. **Herria**
Beren ongaitzak badituztela, pilotan sartzen airoski, xokoak **xixtatzen** kurioski baina ainitz ikasteko halere. **Herria**

xixte ik **txiste**.

xixtema ik **sistema**.

xixtera ik **xistera**.

xixterari ik **xisterari**.

xixterra iz

Aurrean margolaria, **xixterra** bat eskuan, kafe eta tinduz betetako bola batzu oihal gainera botatzen. **Berria - Kultura**

xixtima ik **sistema**.

xixtor ik **txistor**.

xixtrin (*orobat xixtriñ g.er.*) *izond adkor* ziztrina.

Ikusiko duzu ze ondo biziko garen elkarrekin, ze ondo pasatuko duzun nirekin, titi-tente **xixtrin** honekin baino hobeto, Mikel. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Huraxe eman zioten ordain bezala, nagusi **xixtrin** batekin lau hilabeteen larrutan aritzearen truke. **Anton Garikano**
Jendaila **xixtrin** horrek. **Patziku Perurena**
Zertan nabil ni baserri galdu batzuetako kontu zaharrekin, aspaldi hildako mamuen maindireekin, herri **xixtrin** bateko xixtrinkeriekin? **Xabier Mendiguren Elizegi**
Etxebizitza **xixtrin** bat aurkitu nuen, bestalde, Upaginen karrikan. **Txillardegi**
Ni lan bila agertu nintzen hartan, hantxe ematen ziren BBBko eskolak, barrakoi **xixtrin** batzuetan. **Joxerra Garzia**
Paper **xixtrin** bat bera ere ez patrikan. **Iñaki Segurola**
Nylon-hari **xixtrin** bat bizar-makinaren barruan. **Joxe Austin Arrieta**
Aurretik pare bat bideo **xixtrin** egin eta orain zerbait luzexegora pasatu nahi zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Zenbat hitz **xixtrin** ez ote dut ikusi OEHn, *alka* honek baino askoz ere usuario exkaxagokoa! **Patziku Perurena**
Ikasleak, ordea, filosofiatik zizka-mizka **xixtrin** batzuk janda iristen ziren UBlra. **Joxerra Garzia**
Jenderik gehiena, plazer klase **xixtrin** horiekin xoratzen da. **Patziku Perurena**
Ez pasteleoan ibili, Baskongadentzako autonomia **xixtrin** bat lortzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

xixtrin (*orobat xixtriñ g.er.*) *izond adkor* ziztrina.

Ikusiko duzu ze ondo biziko garen elkarrekin, ze ondo pasatuko duzun nirekin, titi-tente **xixtrin** honekin baino hobeto, Mikel. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Huraxe eman zioten ordain bezala, nagusi **xixtrin** batekin lau hilabeteen larrutan aritzearen truke. **Anton Garikano**
Jendaila **xixtrin** horrek. **Patziku Perurena**
Zertan nabil ni baserri galdu batzuetako kontu zaharrekin, aspaldi hildako mamuen maindireekin, herri **xixtrin** bateko xixtrinkeriekin? **Xabier Mendiguren Elizegi**
Etxebizitza **xixtrin** bat aurkitu nuen, bestalde, Upaginen karrikan. **Txillardegi**
Ni lan bila agertu nintzen hartan, hantxe ematen ziren BBBko eskolak, barrakoi **xixtrin** batzuetan. **Joxerra Garzia**
Paper **xixtrin** bat bera ere ez patrikan. **Iñaki Segurola**
Nylon-hari **xixtrin** bat bizar-makinaren barruan. **Joxe Austin Arrieta**
Aurretik pare bat bideo **xixtrin** egin eta orain zerbait luzexegora pasatu nahi zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Zenbat hitz **xixtrin** ez ote dut ikusi OEHn, *alka* honek baino askoz ere usuario exkaxagokoa! **Patziku Perurena**
Ikasleak, ordea, filosofiatik zizka-mizka **xixtrin** batzuk janda iristen ziren UBlra. **Joxerra Garzia**
Jenderik gehiena, plazer klase **xixtrin** horiekin xoratzen da. **Patziku Perurena**
Ez pasteleoan ibili, Baskongadentzako autonomia **xixtrin** bat lortzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

xixtrinkeria iz *adkor* ziztrinkeria.

Zertan nabil ni baserri galdu batzuetako kontu zaharrekin, aspaldi hildako mamuen maindireekin, herri xixtrin bateko **xixtrinkeriekin**? **Xabier Mendiguren Elizegi**
Gaia sakonxeago hartuta, ez dut uste herri xixtrin bateko **xixtrinkeriak** bakarrik direnik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

xixtu¹ **1** iz *adkor* ziztua.

Hor diaudek halako bildutasun batean [...] jestu bat gabe, pilotaren **xixtuari** eta klaskari beha eta kintzea trenkatzen delarik, bihotz batez, oiuhu batez goresten die pilotaria eta txalotzen. **Michel Oronoz**
Xixtu bizian iragaiten ginen autoen artetik, eta zenbait minututan, auzitegian ginen. **Filipe Bidart**

2 xixtuan adlag ziztuan, laster-laster.

Xixtuan pasa ziren hiru egun horiek! **Ramuntxo Etxeberri**

xixtu² ik **txistu**.

xixtuka ik **txistuka**.

xixtukatu ik **txistukatu**.

xixtulari ik **txistulari**.

XO *interj ipar adkor* ixo; to.

Xo, ixilik otoi, ez holakorik erran! **Herria**

-Xo, aski dun! -Ahotsa gizendurik, deklamatzan hasi zen-: **Xo** ! Ate bat zabaltzen dute urruntxago. **Anjel Lertxundi**

Ez errana, **xo**, baina idatzia. **Janbattitt Dirassar**

Baina **xo** ! Norbaitek salatu daut hau ere: delako beheretiar hori bera ez omen dela ez, hemen bezain gizon pollita... han... bere herrian. **Herria**

Bainan **xo**, ez gero arno onetarik edo edari finetarik, nahiz horietarik ere arizan diren bixtan da, bainan gehiago barnea freskatzen duten horietarik! **Herria**

Bainan **xo**, feriak feriatei, beharriak tutaturik ere hirietako haro handi horrek, bixtan da Eguberrik besterik ere badaukala oraino. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina xo (4); **bainan xo** (10)

xobinista ik **chauvinista**.

xofer ik **txofer**.

xofurgo *iz ipar txofertza*.

Batez ere zur segan ari izan ziren, kamiun kargatzen eta **xofurgoan**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

xoil *1 izond ipar/adkor* soila; bakarra.

Arzain **xoilak**, erran nahi baita lurrik gabeko artzainak. **Herria**

Orotara 121 kide, fraile **xoilak** bestalde, kongregazioa sortu eta hamar urteren buruan doi-doi, bederatzi apez zirelarik sortzean. **Xipri Arbelbide**

Llangile kalifikatuek 1224 euro, enplegatuek 1090 euro eta azkenik, langile **xoilek** 947 euro hilabetea. **Herria**

Jaun horri konpreniarazi diot hemen ez dela nehor burges bat bezala hiltzen, baizik edozoin jende **xoil** bezala. **Marzel Etxehandi**

Erakasle paregabe hori ez zen haurren eskola **xoilaren** mugan gelditu. **Herria**

Gau hartan Pettan-ek bekoz beko karabineruen aitzinean kausitu zen: bat, kabua edo kaporal; bestea, **xoila**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Amatur **xoil** gisa ariko direnetan aldiz: Sorhuet-Lazcano, Sasco-Errecart, Etchebarne-Kurutcharry, Duhalde-Mendiboure. **Herria**

Ez zen publizitate-orri handia, txarteltxo **xoil** bat baizik. **Jon Muñoz**

Gertakari **xoila**, besterik gabe. **Janbattitt Dirassar**

lep **xoil** batekin agurtu du eta besoarekin garagarno presioaren keinua eginez ulertarazi dio zer nahi duen. **Eneko Bidegain**

Zer erran nahi dute alabainan hiru hizki **xoil** horiek? **Herria**

Bi euroz emendatu dugu, bi euro **xoilez**, harpidetzaren urtesaria. **Herria**

Liburu guziz aberatsa, 15 euro **xoil**en truk. **Herria**

Joanes sei zifrako zenbaki **xoil** bat bihurtu zen. **Eneko Bidegain**

Bere mugak baititu gizon **xoil** baten ahalmenak akiduraren higaduran. **Herria**

Hanitz jende gizon **xoil** batentzat. **Herria**

Horra nola berdintzen duten 27 tan, eta aintzinerat pasatzen ere pondu **xoil** batez (28-27). **Herria**

Urte **xoil** bat hamarren partez, ez da haatik berdin! **Herria**

Entsegu **xoil** bat partida guzian eta entsegu horrek eman dio Frantziari abantaila. **Herria**

Ohartu zen erdiek baizik ez zutela euskara erabiltzen orduan, eta horietan zenbaitzuk hitz **xoil** batzu baizik ez. **Herria**

Modu laburtu eta **xoilean** adierazita [...] Estatu-nazioaren ideia nagusiak honela dio: "Kultura berezi baten jabe izanez gero, unitate politiko bat eraikitzeko eskubidea daukazu". **Bernardo Atxaga**

2 xoil-xoilik *adlag ipar/adkor* soil-soilik.

Zabaltze hori, jadanik gu aipatu gazte muimendu batzuetan jastatua eta erakutsia zuen bezala, ez zuen gero ere klase mailean mugatzekoa **xoil xoilik** Lafittek. **Herria**

Ez dakit batere Euskal Herri huntakoa den hau **xoil xoilik**, leku hauk paregabeak direla baitiote kanpotiar gehienek. **Herria**

Herri komunista hortan, egiaz, bulego orokorraren eskutan dira podore egiazkoak eta bulego hortan bederatzi lagun dira **xoil xoilik**. **Herria**

Beraz hutsean jokatu dute bi hauk beren partida, finala gogoan **xoil xoilik**. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artzain xoil (4); **etsenplu xoil bat** (3); **gizon xoil** (3); **kintze xoil** (6); **kintze xoil batez** (3); **lerro xoil** (3); **pondu xoil** (13); **pondu xoil batez** (9); **tanto xoil** (11); **tanto xoil baten** (3); **tanto xoil batez** (7); **ttantto xoil** (6); **ttantto xoil batez** (6)

xoil xoilik (8)

tanto xoilaz (6); **tanto xoilaz galdu** (3)

frantses xoilez (3)

xoildu, xoil(du), xoiltzen du *ad adkor* soildu.

Egia erran, *Ostegunak* irakurtzen ari nintzela, Axular maisuaren eleak oroituz, "guti falta zedin non ez bainendin xoil gibelerat"; ahazke, **xoildu** ere. Jon Arretxe

xoilki *adlag ipar* soilki.

Horiek oro gogoan, jende ostea jina zen, Titant-eri egiten zizkion ikusentzungarrian parte hartzera edo **xoilki** ikusle bezala. Herria

Horiek oro gogoan, jende ostea jina zen, Titant-eri egiten zizkion ikusentzungarrian parte hartzera edo **xoilki** ikusle bezala. Herria

Huna egungoan **xoilki**, gero beste aste batzuek segitzeko, Santiago horren berri. Herria

Sei kantuz osatutako obra horrek "Jone" dakar **xoilki** izenburuztat. Herria

Bakarrik, Ibarrolak dio min egiten pilotari orai eta ez pilotari **xoilki**. Herria

Idortea ez da bakarrik gure tokietakoa, ez-eta **xoilki** aurtengoa. Herria

xoixketa ik *soxketa*.

xok 1 *iz* inarrosaldi larri eta bat-batekoa, fisikoa nahiz psikikoa.

Xoka du orain, baina koma moduren bat ere izan daiteke. Koro Navarro

Xoka baino gehiago, tristura baino gehiago, ezin haserre handiagoa sentitzen nuen egin zioten bilaukeriarengatik. Oskar Arana

Gauza asko hautsirik, barneko zauriak, hemorragia, ubelak, urratuak, denetik, eta biek zuten garuneko **xoka**. Koro Navarro

Nikola Agirre aititte gurea ertzain: imajina ezazue zelako **xoka**. Markos Zapiain

2 (hitz elkartuetan)

"Obus-**xokaren** trauma" edo "gerra-neurosia" ere esaten zaio. Mirentxu Larrañaga

xokagarri *izond adkor* harrigarria.

Umetan durduzatu gintuen esakune **xokagarri** simple hori, gero ikusten dugu historiaren filosofia guztietan -Voltaire, Kant, Hegel, etab.- oinarritzko printzipio bat dela. Joxe Azurmendi

Konklusio **xokagarri** hau ezartzeko: [...]. Joxe Azurmendi

xokanahi *iz*

Estarta bazterretako ezpondapeak ere oso gogoko izaten ditu, bere habiari kontzeko **xokanahi** gorderik edo erromutur bihurrik inon bilatzen badu, benpe; baita borda zaharretako hegazpeak edo korrazpiak ere, jendea bakan samar ibiltzen denekoak badira. Patziku Perurena

xokatu¹, xoka(tu), xokatzen du *ad* erabat harritu. ik *txokatu*.

Zentzu komunaren arrazoiak besterik ez da, pentsaera magikoaren logikarekin pixka bat **xokatzen** badu ere. Joxe Azurmendi

xokatu², xoka(tu), xokatzen 1 du *ad* talka egin.

2 *xokatze iz*

Musuak eta esku **xokatzeak**, haiek sukaldera bidean, Dimasek bere artean korrok bat egin eta, berriz ere eseriz. Pablo Sastre

xoko (*641 agerraldi, 32 liburu eta 440 artikulutan*) 1 *iz ipar/adkor* txokoa. ik *zoko*; *txoko*. (etxe, gela eta kidekoetan)

Jauntxoa supazter aitzineko zizeiluan jarriko zegoen, haren gizonak **xoko** batean dadoetan ari ziren bitartean. Elena Touyarou

Gehienetan, lantokian bertan lo egiten zuten, bi metro karratuko **xoko** batean. Ramuntxo Etxeberri

Ibilaldi xoragarria egin dugu joan den astezkenean, ikusiz Versailles-eko jauregiaren **xoko** guziak. Herria

Ezkaratzeko **xoko** batean ezarri dut pilota, abilki. Piarres Aintziart

Kortako **xoko** batean zegoen mastin zakurra balakatzera hurbildu zen Eneko. Gotzon Garate

Xanek aita besoetan eraman zuen elizako **xoko** batera. Elena Touyarou

Hango geltoki bazter batean gelditu ziren eta preso guziak jautsarazi zituzten eta gorpuak atera, jenderik ez zen **xoko** batean, gauaren erdian. Eneko Bidegain

Burneteneako ganarrea [...]1920, 1930eko aldizkari pilak baziren, *L'illustration*enak bereziki, zorionsuki irakurtzen eta ikusten nituenak, zorion osoan, bakar-bakarrik **xoko** gorde batean jarririk. Ana Urkiza

Emankizun horren helburua, goxoki gomitarekin oren batez solastatzea, ostatu **xoko** batean edota supazter ondoan egiten den bezala! Menane Oxandabaratx

2 (bestelakoetan)

Hortaz, egiazko globalizazioa izan beharrean badirudi **xoko** batetik gainerako guztietara esportatutako bizimodu batez garelako mintzo. Pello Salaburu

Bazekiat Saran eta eskualdeko **xoko** guztietan ere zer pasatzen den. Lurreko **xoko** ederrena, mendiek zerua hunkitzen duten lekua. Elena Touyarou

Ilunak jana eta izotzak dena errea sendi zuen bihotz gaixoaren **xoko** batean. Janbattitt Dirassar

Mendi **xoko** honetan kasik denboraldiaren herena pasatu zait artean. Piarres Aintziart

Kastilla **xoko** honetan, funtsean, haranetan ura bada non nahi, Kantabriako mendietarik datorrena. Piarres Aintziart

Zertan ote dugu Erakaskuntza Katolikoa gure **xoko** huntan? Herria

Urte guziz bezala etorri naiz aurten ere sortu nintzan **xoko** maitagarri huntara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Edo Euskal Herri barne horretako **xoko** politt zenbaitetan. Janbattitt Dirassar

Bihotzaren **xoko** batean atxikiko diat hire oroitzapena. Itxaro Borda

Mutikotan ezagutu nituen "Moro" izeneko haiek datozkit gogora, oroiemeneko **xoko** ilunen batetik arrantzaka. Patziku Perurena

Adierazteko orain arte, teologiaren alorrean, politika arazoek bazter **xoko** itsu, mugatu bat baizik ez baldin bazuten hartzen, hemendik aitzina gai horiek berak teologiaren erdi-erdiko lekuan jarri behar zirela. Piarres Xarriton

3 (izenondo gisa)

-Eni ez zaut iduri ene adixkidea, ene anaia bezala zena, galdu dutala, ene ondoan senditzen dut beti haren presentzia eta oraino gehiago atzodanik, hemen, gain huntako leku **xoko** guzietan. Michel Oronoz

Hots, mendi **xoko** horietako herrixketan den hatsa! Herría

4 *xoko-moko* (orobat *xokomoko g.er.) adkor xokoa.*

Ur-erreka, oihan, pentze eta **xoko moko** ainitzen izenak, gutienez 90.000 euskal toponimo, 400 urte hauetakoak. Herría

Lehenik burua ongi busti nuen, gero hiruzpalau aldiz itzulikatu nintzen ur irakituaren azpian, bizkarra, papoa, hots gorputzaren **xoko-moko** guztiak behar bezala zipatuz.

Daniel Landart

Erramu sailduarekin ur benedikatua nasaiki bota zuen exorziztak jendeen gainera, ganbarako **xoko-moko** guzietara, ohe azpia ahantzi gabe. Michel Oronoz

1966an sortu zenetik 1984a arte, Euskal Herriko **xoko moko** guziak kurritu zituen Oskarbi taldeak, gaitzeko arrakasta bilduz denetan. Herría

Bakea kordokan dagon **xoko moko** guzietan kausitzen da Carter jauna bakearen fagoratzeko. Herría

Milako bat entzule eliza barnean, **xoko moko** guzietan kokaturik. Herría

Xoko-moko guztiak ezagutzen nizkion. Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldudeko xoko (3); **eskuineko xoko** (6); **eskuineko xoko hura** (3); **euskal herriko xoko** (20); **gure xoko** (15); **gure xoko huntan** (7); **haurren xoko** (4); **herriko xoko guzietarik** (3); **herriko xoko moko** (6); **mendi xoko** (6); **munduko xoko** (4); **oihan xoko** (3); **ostatu xoko** (6); **ostatu xoko batean** (3); **portu xoko** (10)

xoko berri (5); **xoko desberdinetan** (3); **xoko frangotarik** (3); **xoko gehienetarik** (3)

xoko moko (19); **xoko moko frangotan** (4); **xoko moko guziak** (5); **xoko moko guzietan** (3)

xoko pollit (11); **xoko pollit hortan** (4); **xokoz xoko** (5)

bere xokoa (4); **bil xokoa** (10); **bil xokoa alkarteak** (3); **eskuineko xokoa** (3); **etxe xokoa** (3); **gure xokoa** (8); **haurren xokoa** (9)

gure xokoak (5)

aldudeko xokoan (4); **begi xokoan** (3); **bere xokoan** (16); **bihotz xokoan** (3); **ene xokoan** (4); **etxe xokoan** (3); **ezpainen xokoan** (6); **gure xokoan** (24); **haurren xokoan** (4); **ostatu xokoan** (4); **supazter xokoan** (6)

gure xokoetako (3)

gure xokoko (3)

eskuineko xokorat (3)

amikuzeko xokotik (3); **bere xokotik** (4); **bertsularien xokotik** (6)

xokodun *izond ipar* xokoak dituena.

"Ur-Hegi" hortan lthurbidetarrek ari dute lehiaketa bat prestatzen horko trinket berezi **xokodunean**. Herría

xokolate ik **txokolate**.

xokolet ik **txokolate**.

xokolet egile ik **txokolategile**.

xokoletaki ik **txokolateki**.

xokoletesne ik **txokolatesne**.

xokolot ik **txokolate**.

xokomoko ik **xoko 4**.

xokoño *iz adkor* txoko txikia. ik **xokotto**.

Euskarazko irakurgaiak laket zaizkio eta zoin gusturat ez da egoiten, bere etxeko **xokoño** batean, Koldo Amestoi-en ipuinak eta entzun! Herría

Lehenengo gorri hura zuritu egin da kolpera, biluziak jantzi, gustuko **xokoño** eta toki sakratuenak -nere barne produktu gordinenaren jomuga izanak- aldapa latz bilakatu.

Iñaki Segurola

Bertzeek, aipamenik ere ez, edo, egitari zor baitzaio berea, **xokoño** batean zerbait, poxi bat, guti. Herría

xokotto *iz adkor* txoko txikia. ik **xokoño**.

Xokotto bat züten ediren. Herría

xola *iz ipar adkor* zola.

Errekulusara buruz segitzen dugu, **xola** hartan Gainekoleta auzoa uzten dugula, lehenago Hanxola deitua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Patar **xolan**, etxalde handi baten aitzinean, zakurrak. Piarres Aintziart

Gaztaroko oporretan gure mendi **xolako** pentzean belar edo soro metak moldatzen genituen. Piarres Aintziart

Aski da gure erreka **xoletarat** itzuli bat egitea eta ez du nehorik dudan ezarriko ura eskastua dela. Herría

Biribilkatua bezala dago herría, **xolan**, xiloan. Piarres Aintziart

Holako egun edo ospetsu eta debozione handiaren erakusten du jendeak bere bihotzaren **xolan** badaukala oraino zer bait onik. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

mendi xola (16); **mendi xola taldeekin** (4)

xolomo 1 *iz adkor* solomoa.

Mostradore altua, eta haren atzean neskazahar erdi herren begi-okar bat, txorixoa, **xolomoa** ala haragi egosia nahi al zenuen galdetzen zizuna, ahoa ia zabaldu gabeko errosarioan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Xolomo egin berriarekin betetzea bakarrik falta zaie. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Mendi-buelta eginda gero geratu ohi ginen garai batean Sasibilen, **xolomo**-otarteko bat jateko. **Xolomo** usain goxoa dator nonbaitetik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

xomage *iz ipar* langabezia.

Industriak sofrizten badu ere, eta langabeziak doi bat goiti egina tokika, badute han ere kurrinka, doi doia ehuneko bostetara jautsia dutelarik **xomagea** beste gune batzuetan. **Herria**

Ez dugu entzun baden apezik **xomagean**, lan gabeko. **Herria**

xomait ik zenbait.

xomorro 1 *iz adkor* zomorroa.

Lau bat orduko bidean ibili, eta apenas oroitzen dudan ezer, lehen ikusitako harri, iturri, ataka, bordaxar, zubi, arbola, belar, pizti, **xomorro** eta mila xokoren irudi nahastu batzuk ez badira. **Patziku Perurena**

Azterketa horrek diraeino txindurri edo beste **xomorroren** bat azaltzen bada. **Bernardo Atxaga**

Soro eta alorretako laborean hartxo eta **xomorroen** izurriteen kontra. **Pello Zabala**

Anbar tantoetan betiko harrapaturik geratzen diren **xomorroak** bezala. **Bernardo Atxaga**

Herri hizkeran ezezik, literatura idatzian ere utzi du bere arrasto nabarmena gure **xomorro** hegaldun amorragarri honek. **Patziku Perurena**

Ebaki bat masailan, beharbada goiz hartan bertan bizarra mozten egina, eta mantxa gorritzat bat beheraxeago, **xomorroren** baten heldukada seguraski. **Bernardo Atxaga**

Zeru garbian errege ahaltzua da eguzki gorria, eta haren azpian **xomorroak** bezain ezdeusak dirudite hamabi gazte izerdituek. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez-egiteko hori egitean bere burua jainkotzen zuela, **xomorro** izanez konformatu ezinik. **Iñaki Segurola**

2 (mikroskopikoa dena)

Ur tanta batean bizi diren **xomorroak** ez ditu ezagutzen. **Josu Zabaleta**

Baliteke aurretik edukitzea nik **xomorroa** barruan, eta hainbat gaitzen ondorioz gorputza ahuldua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Orain elikagaiak kutsatzen dituzten **xomorroekin** nahiko komeria badagoenez, geroagoko legeriak zorrotzago jokatu beharko du. **Edorta Agirre**

3 (hitz elkartuetan)

Adar eta hostoetan, zuhaitz ale bakar batean, zientzia gizonak 50 **xomorro** mota topatu izan dituzte. **Pello Zabala**

Jakina, paper-**xomorro** ezdeusen batek egingo zidan, ezer gogoan eduki gabe, Krapotkin izenpeko pasaporte hura. **Matías Múgica**

4 irud/hed

Xomorro familia gara gu. **Berria - Euskal Herria**

5 *xomorro-xomorro adlag*

"Baliteke hegazkin supersonikoren batek sortutako dunbota izatea", adierazi zuen Baionako suprefetak **xomorro-xomorro**. **Patxi Iturritegi**

xomorrokeria *iz adkor* zomorrokeria.

Kirol batek gainditu behar dituen faseak ez ditu gainditu oraindik eskupilotak, behialako tongoaren fantasmak **xomorrokeriaren** forma hartu dutelako eta, ondorio gisa, aldian behineko, ematen den iruzurra. **Berria - Kirola**

xomorrotxo *iz adkor* zomorrotxoa.

Burduntziei ere atsegin zaie, baina ez ditugu horregatik larru beltzeko jantziz eta zartailu-astinduz atseginaren bila dabilzan **xomorrotxo** txiki doilortzat zertan hartu. **J.M.**
Olaizola "Txiliku"

xopin *iz* zotina.

Aiak eta hasperenak, intziariak eta nigar-**xopinak**, eta, zure bihotzean, ausiki ezin minagoak. **Joan Mari Irigoien**

xopinka *adlag* zotinka.

Ene laguna handik gutirat agertu, eta bazter baterat eraman nuen, non nigar-**xopinka** hasi baitzitzaidan. **Joan Mari Irigoien**

xopote *iz*

Udaberri aldera, lizar adaxka lodiskonak eta xuxenenak berexu eta kimatuz lizar arbak egiten genituen, egur **xopote** baten gainean xorroxu eta, leka aihenen euskarri patzeko baratzean. **Patziku Perurena**

xorabiatu, xorabia, xorabiatzen da/du *ad adkor* zorabiatu.

Batek, ez zuela lo ondo egin, besteak, haize-boladak penaturik ibili zela... horrenbesteko depresio-guneak ez **xorabiatzea** ere, mirariaren hurren koka liteke. **Pello Zabala**

Bezperatik ukan zuen ekliptseak **xorabiaturik** edo. **Pello Zabala**

xoradura *iz adkor* zoradura.

Babacar Coulibalyk, Mamadou marabu ospetsuaren kartak banatzen zituen: maitasuna, arrakasta, lorpenak, sorginkeriak, **xoradurak** ezabatzea proposatuz "de san fron".

Itxaro Borda

Aita izatera etsita, **xoradurak** hilabeteak iraun zidan. **Aingeru Epaltza**

Begi aitzinean lainoa bat-batean aienatzeak istant bateko **xoradura** eragin zidan. **Aingeru Epaltza**

xoragarri *iz adkor* zoragarria.

Seme **xoragarri** bat ere izana du. **Herria**

Leku **xoragarri** hauetan ez dakit zer naizen, so egile ala argazkilari. **Piarres Aintziart**

Gure mendi **xoragarrien** artean erresumaño bat bezala bildurik zituzken ikusi nahi zazpi probintziak. **Piarres Xarriton**

Aran ibaiaren lehen urratsen eremu **xoragarrian**. **Piarres Aintziart**

Errioxako Naiaratik Leongo Ponferradara, Galizia hor berean delarik orain, bide **xoragarria** egin dut bizian, amets guti erreallitate atsegingarri bilakatzen dira. **Piarres Aintziart**

Orduko ezkilen boz **xoragarriak**. **Piarres Aintziart**

Zenbat oroipen **xoragarri** hitz sorgin horren ingurukoak, beti ere gizasemeen etxetik kanpoko zereginei lotuak. **Patziku Perurena**

Gure mendi **xoragarrien** artean erresumaño bat bezala bildurik zituzken ikusi nahi zazpi probintziak. **Piarres Xarriton**

Denbora batez **xoragarri** zen gure Euskaldunak ikustea, igande egunetan, pilota partidetan, merkatuetan, bakotxa bere gerriko gorriarekin eta bere makilarekin. **Xipri Arbelbide**

Bospasei aste joan ziren hola, denak berdin **xoragarriak**. **Janbattitt Dirassar**

Meza bat zinez **xoragarria**, Josep Camino apeza aldarean, berrehun eta berrogoi bat kantari zituela bere aintzinean. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aratsalde **xoragarri** (3); argazki **xoragarri batzu** (3); beharrien **xoragarri** (3); **besta xoragarri** (3); **egun xoragarri** (22); **egun xoragarri bat** (11); **egun xoragarri baten** (4); **gune xoragarri** (4); **guzien xoragarri** (3); **ikusgarri xoragarri** (7); **ikusgarri xoragarri bat** (5); **kantari xoragarri** (3); **partida xoragarri** (6); **partida xoragarri bat** (3); **talde xoragarri** (3); **toki xoragarri** (9); **toki xoragarri batean** (4)

besta xoragarria (4); **egun xoragarria** (5); **ibilaldi bat xoragarria** (3); **ikusgarri xoragarria** (6); **meza xoragarria** (3); **toki xoragarria** (4); **zinez xoragarria** (4)

bazterrak xoragarriak (3); **boz xoragarriak** (3); **kantu xoragarriak** (4)

xoragarriki *adlag ipar adkor* zoragarriki.

Xoragarriki iragan da egunkari berriaren aldeko kantaldia, tokiko sustengu taldeak antolatuturik, Xuriatea ostatuan. **Herria**

Hemen berean berri eman bezala, **xoragarriki** iragan da Baionatik abiatuz, 32 Lapurtar eta Baxenabartarrek joanden igandean Nafarroan gaindi egin bidaia. **Herria**

20-20 berdindurik, Goñik bi azken kintzeak **xoragarriki** trenkatu ditu bat xokoan, bertzea bi-paret xoragarri batekin. **Herria**

Xoragarriki ari zitzaion Aimar Patxiri irabazten ezkerrearekin kasik baina eskuinaz behartu den pilota batean zartatu zaio zaina. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xoragarriki iragan da (4)

xorakeria *(orobat xorakeri eta xorokeria) iz ipar adkor* zorakeria.

Eta gero, begiak maltzurkeriazko tanta lodiez pelatuak, destainazko ukituak ahotsean, kanona, kanona, horiek **xorakeriak** ditützü; dostetazko ume-engainagarriak. **Jon Alonso**

Itsasuko zeremonia, edo bederen haren oihartzuna, ziurtasun horien barnetik begiratzen nituen eta beraz **xorakeri** horiek kanpoan uzten. **Piarres Aintziart**

xoramen *iz ipar adkor* zoramena.

Bainan miseria ttipi horiek laster ahanzten dira, gogo-bihotzetan mendiaren **xoramena** baizik ez atxikiz. **Herria**

Ixtanteko, elur gunetan zehar igorrik, Autzaren **xoramena**, 1306 metretan. **Herria**

Hegoaldean buruz-buruka lehiaketak hasi dira lau eta erdian betiko ustegabe eta publikoaren **xoramenekin**. **Herria**

Urte guziz bezala, Olentzero jin da ikastolara opariz kargatua eta arratsaldea pasatu du haurren artean kantuz, hauen **xoramenerako**. **Herria**

Urte guzian milaka jende da ibiltzen Belokeko frailetxean, otoitz eta bakealdi jastatu nahian, ixiltasunean ala fraileen kantuen **xoramenean**. **Herria**

Zer **xoramena**, bereziki *a capella*-ko kantuetan! **Herria**

xoramendu *iz ipar adkor* zoramendua.

Bere jakitate haundia iturri pare gabetik hola ixuriko zuena, eskolan bezala eskolatik kanpo, entzulearen **xoramendua** eginez orozbat. **Herria**

Xoramendu bat izan da partida hau eskuzarten erdian oren bat eta hamarrez. **Herria**

Gauden gurearekin gu aldiz eta beheartetar horren **xoramenduan**. **Herria**

xoranda *iz adkor* txoroa.

Ilupa **xoranda**, xoxo alaena! **Aingeru Epaltza**

xorarazi, xorazaraz, xorazarzten du *ad ipar adkor* zorarazi.

Garaiz **xorarazi** baino lehen sugeak zizta egiten badu, ez du irabazirik suge-xorarazoleak. **Elizen arteko biblia**

Errepublikak liro **xoraraz** mundua. **Piarres Xarriton**

xoratu, xora, xorazen da/du ad ipar adkor zoratu. ik txoratu.

Zer ikusgarria! **Xoraturik**, liluraturik egoiten naiz begiak altxaturik, sekulako dutxa hartzen. **Filipe Bidart**

Orduan ere Kattalinekin besta zenbaitetara eraman zuen eta Sophie **xoraturik**, xarmaturik gelditu zen. **Eneko Bidegain**

Denak erakartzen zaitu, denak **xoratzen**, odaiertzaren marra leunak, zuhaitzen antolamenduak, hondarraren koloreak! **Josu Zabaleta**

Alde batetik **xoratua**, bestetik aski penatua! **Janbattitt Dirassar**

Sendagileak eta haurtzainak **xoraturik** zeuden haurraren eta aho batez esan zuten lehenago bakan ikusi zutela horrelako aingerutxo ederrik. **Gotzon Garate**

Tipi tipitik bertularien manerak hartu zituen, mahai baten gainera hupatzen zuten eta bazkaltiarak **xoratzen** zituen bere haur gogoan atxikitzen zituen koplak eta zirtokin. **Michel Oronoz**

Irriz irri egoten ginen, ni beti berdin **xoratua**. **Janbattitt Dirassar**

Mito honetan, itsas kantuak **xoratzen** du ehulea. **Patziku Perurena**

Horrek **xoratzen** du, endemas jende xoxoa: seminarioan oratoria ikasi duen apezkondoak, hitzak pisatzen ikasi duen hiztun dotore doktoreak. **Patziku Perurena**

Gaurko munduak badaki nola nun **xora**. **Herria**

Trabestismoa maite duten gizajo koadrila bat, odola ikuste hutsak **xoratuko** lukeena. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bazterrak xoratu (3); **denak xoratu ditu** (4)
jendea xoratua (3); **xoratua bezala** (3); **xoratua egon da** (3)
jendea xoraturik (3); **xoraturik egon** (4); **xoraturik utzi** (5)

xoratze iz ipar adkor

Batzutan kantu eta mahainak utzirik, hartu ditugu beste **xoratze** memento batzu ere: elur erdian zakurrekilako lerrazkinak, aintzira ormatuetan arraintzan... **Herria**

xori ik txori.

xoriburu ik txoriburu.

xorigari ik txorigari.

xoriño ik txoriño.

xoritto ik txoritxo.

xorizo ik txorizo.

xornale iz eguneko soldata. ik jornal.

Eguneko **xornalea** 2-2,50 pezta, xanik bagekoa; xanaekin 1-1,75 pezta. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

xoro 1 izond adkor txoroa.

Izeba eskola gutikoa zen, baina ez **xoraa**. **Eneko Bidegain**

Xoro batentzat hartzen nauzu ametsetako andre bat hola aipatu dizudalakit? **Janbattitt Dirassar**

Geroago Compiègne-n jakin nuen Akizetar gazte **xoro** baten etxean gestapoak letra bat aurkitu zuela, bikario jenerala zer afera larrian sartua zen frogatzen zuena. **Marzel Etxehandi**

Mixel Labéguerie-ren bat bi aldiz eman du, **xoroaren** kantua xoriari, zuhaitzei mintzo zen **xoroarena**. **Herria**

Ez ahal gaituzte moda **xoro** batzuek airatuko, besteak gureez gustatuak direlarik? **Herria**

Hots, goizegi dela bai oraino amets **xoroen** argiegitzeko bainan ametsa **xoro** hartarik ari girela gero-ta-hurbilago jartzen. **Herria**

Xoro desafio bat izan zen lehenik. **Herria**

xorokeria ik xorakeria.

xorro¹ iz adkor zorroa.

Dantzari batzuek perlez brodaturoko galtzarbe-uhale larruzko bana zeramaten bularrean zeharka, eta handik zintzilik hiruki-formako **xorro** bat, punta beherantz zuena. **Karlos Zabala**

Aspaldixko honetan hor dabil puja tikiak lehertu ez lehertu, lore tikiak buruñoak **xorrotik** atera ez atera. **Pello Zabala**

Hello esan eta esertzearekin batera mahaspasazko plumcake zoragarria atera zenuen **xorrotik**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

xorro²

1 xorro-xorro

Hark bezala eta otsoek bezala lapurtzen nuen: egokiera nuen guztietan, baina maltzurtasun **xorro-xorroz** eta neure burua arriskuan jarri gabe. **Juan Garzia**

xorrotada *iz adkor* zorrotada. ik **txorrotada**.

Izotz puskaren batek edo ur irakin **xorrotada** batek bihotzean jo egin banindu bezala. Eduardo Matauko

Betiko antzerkia, botila erakutsi, kortxoa kendu, eta **xorrotada** bat isurtzen dizutenean dasta dezazun, ondoren galdetuz: [...]. Joxe Austin Arrieta

xorrotx (*orobat xorrotz g.er.*) 1 izond adkor zorrotza.

Izaiaren antzeko ostoa **xorrotx** puntadunak ditu. Pello Zabala

Banbu luze batzuren puntan lama **xorrotx** bat ezarririk. Marzel Etxehandi

Arku dotoreko bekainak zituen, aurpegi leun **xorrotxa**, mugimendu bizi baina zehatzak. Juan Garzia

2 irud/hed

Neska lerdena, izpiritu **xorrotxa**, begi argiak, bertzeen hitzari beti erne. Eneko Bidegain

Segi hola xure izpiritu argi eta **xorrotxarekin**. Herria

Begi argi **xorrotxak**. Pello Zabala

Begi bat biziki **xorrotxa**. Janbattitt Dirassar

Bere mixto **xorrotxarekin** xirika, badiardi ni tentaztea beste xederik ez duela ekarri. Patziku Perurena

Lopez Ortiz gisa berean mintzo da **hitz** xorrotx hauekin: [...]. Piarres Xarriton

Erakaslek ez zuten aise onartzen, sobera galde **xorrotxak** ateratzen baitzituen eta, kanporatua izan aintzin, bera joan zen eta penatua gelditu nintzen. Herria

100eko 100 euskaldun izaiteko ametsa jorratu duelarik Itxaro Bordak, bere luma **xorrotxarekin**, Euskadi saria irabazi dion azken liburuan, [...]. Piarres Xarriton

Politikari horiek apeteitu **xorrotxa** dute eta jadanik badira boz horiek baizik ez baitituzte gogoan! Herria

Itsasoaren marruma eta antxeten oihu **xorrotxak** ziren haien konpainia bakarra. Elena Touyaru

Jakin-gose extu **xorrotxa**. Pello Zabala

3 (adizlagun gisa)

Bi aintzinekoek izan dituzte beren piktura aldiak, lehenik Belascainek, **xorrotx** eta bipil, gero aldiz Battiitt Maytek, indartsuago. Herria

Hau bezalako toki altuxketan, haizeak **xorrotx** jotzen du. Pello Zabala

Arraunek **xorrotx** egin zuten hots, uretan denak batera berriro sartzean. Edorta Jimenez

Begi beti erne eta beti berdin **xorrotx**. Herria

Iñaki Arrosagaray joko horretan izigarriko pilotari trebea agertu zaigu, begia **xorrotx** eta zangoak zalu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Sekulan baino erneago, beharriak txut, begiak **xorrotx**, eraman zituzten bi iheslariak. Eneko Bidegain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begia **xorrotx** (3); izpiritua **xorrotx** (4); luma **xorrotx** (3)

begi **xorrotxa** (3); izpiritu **xorrotxa** (6)

xorrotz ik **xorrotx**.

xorroxioka *adlag adkor* txorriotxioka.

Apenas aldatzen duten partiturarik: kantari xirulariren bat **xorroxioka**, besterik apenas! Pello Zabala

xorroxki *adlag adkor* zorrozki.

Baionako Ikastolek eta Tuntunak, *Baionan Kantuz* eremaiten duen taldeak, **xorroxki** prestatu dute sartzea, behar diren liburutto, dizka eta segimenduak plazan izanen direlarik. Herria

Bata ordüko teologia beharrena ikasten gñüala **xorroxki** bere bikaria deitzen züan dizipülü gaztearen ahotik, erakasle argia eta larderiatsüa beitzen. Herria

xorroxtarri *iz adkor* zorroxtarria.

Martizen **xorroxtarriaren** asots kolpekatua zurean zizelkatu opotsean hezetzeko sartzen oihartzzen zen, floka-floka. Itxaro Borda

Emaztearen oihu eta negarren oihartzuna biderkatzen zuen labanaren mihian hara-hona zebilen **xorroxtarriaren** xirrixarra metalikoak. Itxaro Borda

xorroxtu, xorrox(tu), xorroxten 1 du *ad adkor* zorroztu.

Berez, eguteren eguzkiak gozo-gozo laztantzen zaitu, baina tarteka haize bixi gordintxo nabaritzen duzu soina tentetuz eta aurpegia **xorroxtu**. Pello Zabala

Izanen dituzte kontrario pollitak aste ondar huntan berean irabazleek, hor baitaude ere, hortzak **xorroxturik**. Herria

Begia **xorroxturik**, arkatz bat eskuan, barrabilak hurbiletik kontrolatu zituen, zorririk ez zen dantzari ikusteko. Eneko Bidegain

Artikuluak irakurtzean, ohartzzen gira segur lumak legundu eta **xorroxtu** zirela astez aste. Herria

Jabeak (Tolosako Maristak) etxaldea salgai ezarri du, Herriko Etxearen apeteitua **xorroxtu**, hunek den mendren arazorik gabe bizitzaileak kanpora lezazkela. Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Isiltasun nerabea, bi begi beltz, bekainak **xorroxtuak**. Ramuntxo Etxeberri

xort *iz* pertsona helduen galtza laburra.

Gehienek tiserata eta **xort** txiki bat zuten soinean. Ramuntxo Etxeberri

Bulebarrera zihoan bidexkan hiru puta, beren **xort** eta minigonak, beren zango amaiezinekin instalatu zirelarik, [...]. Pablo Sastre

xorta 1 iz likidoez mintzatuz, tanta, apurra.

Kattalinek lehenago zerbitzatu patxarenetik **xorta** bat hurrupatzen du eta apal apala jarraitzen [...]. Eneko Bidegain

Xorta epel eta larri batzuk. Janbatiit Dirassar

Botila bat esnerekin itzuli zen baratzerara, **xorta** bat platerean ipintzera. Javi Cillero

Guk hemen maite dugu ongi jatea, **xorta** bat edan, dantzan eta... Menane Oxandabaratz

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arno **xorta** bat, ura...? -galdegin zion. Elena Touyarou

Gure aitari mutilok jatorduetan ardo **xorta** bat edatea gustatzen zitziolako. Gotzon Garate

Kafesne **xorta** bat. Eneko Bidegain

Eskuan zeukan baso garbia mahaira ekarriz, kafe **xorta** baten zerbitzateko asmoz. Eneko Bidegain

Gero kafe **xorta** bat, edo halako zerbeit, kolorez bederen. Marzel Etxehandi

"Ospatzeko gauza handirik ez dago, baina...", eta burbon **xorta** bat isuri zuen apalategitik hautatutako kopan. Josu Landa

Hartu pattar **xorta** bat biderako. Javi Cillero

Ez ote dugu salda **xorta** bat merezi? Itxaro Borda

Ene bekatuarekiko hisiak ubide berean ipinarazten zituen, finean, ur-**xorta** haiek guztiak, eta uholde baterat biltzen. Joan Mari Irigoien

Ikusiz deus ere ez dutenentzat joaiki direla guziak, ur **xortekin** egiten dire errekak. Herria

Zeren segur bainago ezen Maddalenen hitz bakoitza euri-**xorta** biribil bat zela. Joan Mari Irigoien

Ene ezpaineak bildurik Magaliren negar **xorta** bat edo bi. Janbatiit Dirassar

Haren hitz bakoitza olio **xorta** bat bezalakoa baitzen. Joan Mari Irigoien

Iduri bakoitzari humore-**xorta** bat balegokio bezala. Joan Mari Irigoien

Buruhas naizelarik, izerdi **xortetan** eguzkiaren sistak. Piarres Aintziart

Artean hazi-**xorta** galduren bat zeriola. Joan Mari Irigoien

Sainduaren odol **xorta** iduriz lehor bat. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Mainuaren ondotik, arno bero **xorta** bat edan dute itsasoan sartu direnek. Herria

Ur beltz **xorta** bat ukaiten zuten ogiaren laguntzeko. Eneko Bidegain

Eguerdi haietako salda ez baitzen bertzerik, ur bero **xorta** bat baizik. Eneko Bidegain

4 irud/hed

Tauladaren gainean etzanik, bakoitza ahal bezala kokatu da, eleak isiltzen dira emeki-emeki, eta lo **xorta** baten egitera entseatzen gara. Marzel Etxehandi

Musika **xorta** bat Hiru-Kultur elkarteko txalaparta joileekin. Herria

Bentzenoaren matrazean "ilar erdi baten lodierako" potasio **xorta** bat bota. Juan Garzia

5 adkor sorta.

Edo santiobelar puxkatxo baten tisanatxoa prestatuz, edo insusa-loerrik bere garaian bildu bazenuen, handik **xorta** ttiki bat botata edo. Pello Zabala

Aurreko urteko lore-belar eta landarez elizan bedeinkatutako **xorta** xaharra sutara botatzen zen. Pello Zabala

6 (hitz elkartuetan)

Begira mihura **xorta** lotsati enigmatiko horiei. Patziku Perurena

Pazkoan azao edo gari-**xorta** bat zeramaten. Pello Zabala

Sudur ondora ekarri dut belar **xorta** loratua. Patziku Perurena

Noizetik noizera, xinpart batek besteak baino biziago urrez erraustatzen zituen haren ile-**xorta** barneko ilun-nabarrean gorrizka agiri zirenak. Anjel Lertxundi

Ornitologoak adiskidetasun-frogatzat eman zion aspaldi luzean garbitu gabeko ile-**xorta** baten truke. Jon Alonso

Kate-**xortak** ere egin zituen eta zutabeen goialdean ezarri; gero, ehun granada-fruitu egin zituen kate-**xortetan** ezartzeko. Elizen arteko biblia

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Kardea izena hartzen zuen, eskuan elorri xuri **xorta** bat erakutsiz jendea sorgindu eta liluratzen zuena. Pello Zabala

8 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Haietan ere hegadun izaki-irudiak, palmondo eta lore-**xorta**-irudiak zizelkatu zituen. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arno **xorta** (7); arno **xorta** bat (6); belar **xorta** (5); bero **xorta** bat (5); euri **xorta** (9); euri **xorta** bat (6); kafe **xorta** (4); lore **xorta** (9); odol **xorta** (5); sagarno **xorta** bat (3); ur **xorta** (24); ur **xorta** bat (11); ur **xorta** baten (3); **xortaz xorta** (4)

lore **xortak** (4); ur **xortak** (3)

xortadun *izlag*

Mihura **xortadun** adar ttiki bat. Pello Zabala

xortaka *adlag* xortetan.

Bizitza tantaka, **xortaka** edo borborka, zetorren bezala gozatzearen aldeko suharra. Inazio Mujika Iraola

Ipintzen dute iturri baten azpian, zeinari ura, itogin edo itaxur baten modurat, **xortaka** darion. Joan Mari Irigoien

Batzuek, ura **xortaka** darion bagoiaren burdineria milikatzen dute. Marzel Etxehandi

Medioak **xortaka** eta mespretxua metaka. Herria

xorte¹ *iz ipar* zozketa.

Lehen haitadak hasiko dira **xortea** tiratu ondoan ortzirale, urtarrikak 28, arratseko 20.30etan. Herria

Igande huntan **xortean** atera dituzte finala zortzigarrenak eta Baionesez errezebitu behar dute Pariseko Saint Germain talde handia. Herria

Xortean tiratu ondoan, Beñat Inchauspe Hazparneko kontseilari orokorraren eskutik, heletar bat da irabazlea: Guillaume Uhart. Herria

xorte² ik **zorte**.

xorten ik **txorten**.

xortola *(corpusean txortola soilik) iz tanta.*

Goizetan ordea [...] gaueko gizon-hazi **txortolak** xahatzen zituen. **Itxaro Borda**

Agian, beraien jario amniotikoan **txortola** zelestiarrak nonbait botatzen zituzketen: norik zekien zuzen zer bilakatzen ziren lainoak... **Itxaro Borda**

xortu ik **sortu**².

xota ik **txota**¹.

xotil 1 *izond adkor sotila.*

Kinka larri hartan, ene izaite guztia joa eta suntsitua izanki eta, zergatik neska **xotil** beltzaran hark deitzen bezala ninduen, zerbait garrantzitsu erran nahian? **Daniel Landart**

Baziren ehunez goiti, ongi apainduak eta zernahi zamaldunez iganak; baziren gizonak asko, andere **xotilak** aski trebe beren zamarien gainean. **Herria**

Emakume **xotil**, arriskutsu, gaizto bat. **Karlos Linazasoro**

Gizon langile eta **xotil** baten oroitzapena uzten dauku. **Herria**

Eta zer erran dantzari saldo hortaz, oro berdin arin eta **xotil**, mutil "zirtzil" eta neskatx grazios haiek! **Herria**

Xinplea, bakuna eta **xotila** dirudi. **Iñaki Segurola**

Eguraldiaren eguneroko eta ordu oroko gurpilean, aroaren hegada pinpilinpauza **xotil** intseguru baten antzekoan. **Pello Zabala**

Badira hemen gaindi anitz jende erretretan sartuak eta oraino izpiritu **xotila** dutenak pare gabeko esperientziarekin batera. **Herria**

Aire tentetxo bat, **xotil**, elizkoi eta menekoegia, Erruki Etxeko mojena bezalakoa. **Josu Zabaleta**

Han lapatuko da, eta agudo sortuko, hormatxulo tikienean ere bai, harkaitz arte **xotilenean**, bere zainak auskalo non ezkutatuta. **Pello Zabala**

2 (adizlagun gisa) ik **sotilki**.

Arantzazuko behatoki izango zena ere, xume eta **xotil** abiatu zen. **Pello Zabala**

Xotil eta garbi galdetzen, ezin asmatu du inola ere. **Iñaki Segurola**

Vals edo polka edo skotish edo mazurka, denak zalu zalu joiten zituen orkestrak, beraren klarineta entzuten zela ozen eta **xotil**, denen gidari. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Oharrizko Familia Sakratuaren serorek ongi eta ixilik apaindurik laborantza gune batean apain eta **xotil**, etorriko diren noiztenkako otoizleen eskuko. **Herria**

3 **xotil-xotil adlag**

Xotil-xotil egiten dut galdera: zer da lurra? **Iñaki Segurola**

xotilki *adlag sotilki.*

Horrelaxe, **xotilki** adierazi du esaerak martxoaren patua. **Pello Zabala**

Gargolaren pasadizo hark ez zuen bestelako garrantzirik izan: lekuz kanpoko aldarrikapenak **xotilki** isilaraziak -ezen jendeak uste izan baitzuen bat-bateko hotz izugarri hura fronte polar baten eraginez gertatu zela. **Karlos Linazasoro**

xotin *iz adkor zotina.*

Haren aurrean, nire larritasuna egiazkoa zen eta **xotin** ito batzuen artean xifuriko irribarre bat zen haren mintzabidea. **Joxan Elosegi**

Haren negar-**xotinak** gogoan ditut oraino. **Daniel Landart**

xotinka *adlag adkor zotinka.*

Ama (negar **xotinka**, gaztea besarkatuz): Ni ez naiz izan! Ni ez naiz izan! **Pablo Sastre**

xotx 1 *iz adkor zotza.*

Sahatsa bezalaxe, **xotxak** lurrean tinkotu, urmael ingurua nahikoa, altsama berriak bertan agudo sortzeko. **Pello Zabala**

Xotxetik heldu dira altxa, sahatsa eta bertze zombait zuhamu mota. **Pello Zabala**

Xotx edo dado baten bidez, behar ziren hiru pundutako lerroa heldu irabaztekoan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

2 irud/hed

Zeren eta, ez behialako Euskal Alderdi Jeltzale zaharrak, ez haren ondotik agertu diren **xotxek**, ez dute oraino partida irabazi. **Piarres Xarriton**

3 (hitz elkartuetan)

Ogi meta borobilak, **xotx** taula batean bezala jarriak daude, orain emeki emeki lurrean pausatzeraz doan eguzkiak haien itzalak luzatzen dituela. **Piarres Aintziart**

-Ezingo zuten noski baldin eta bentariak kanabera-**xotx** bat zulatu ez balu. **Patxi Ezkiaga**

4 **txotxetan adlag**

Noiztenka ostatura hurbiltzen zen kartetan edo **txotxetan** jostatzeraz. **Elena Touyrou**

Tonneliers karrikako ostatu batean, lau gazte **txotxetan** jostatzen ari ziren, irriz. **Elena Touyrou**

XOX *iz adkor sosa.*

Urtean birritan, **xox** xixtrin batzuen aitzakian, hori ere gezurra dela gogorarazten digute agintariak, erlojuei atzera edo aurrera eraginez. **Joxerra Garzia**

Nik eta hik eta Denverrek azkeneko **xoxa** arte gastatuko dinagu. **Anton Garikano**

Emakumeak atea ixten zuen olana zabaldu zuen, eta sartuz zihoazenen **xoxak** jasotzen hasi zen. **Koro Navarro**

Oraingo ia debalde atera zaizue, gaizto demontreok, baina hurrengoan **xoxa** ekarri e? **Joseba Sarrionandia**

Orduan lortu zituen Jexuxek seinu berria erosteko behar zituen **xoaxak**. **Xabier Etxabe**
Diru-eskeetatik ateratako **xoaxekin** eta lanean hasiak ziren seme-alaben soldatekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Azkar, mugi, lau **xoaxetan**, lau txakur txikiren trukean! **Karlos Linazasoro**
Ez zuten **xoax** bat biribila, baina ez zuten historiariak egiten horregatik. **Josu Zabaleta**

xoxketa *(orobat xoixketa g.er.) iz ipar zozketa.*

Huna **xoxketako** zenbaki irabazdunak: 21-107-143-156-333-833-927- [...]. **Herria**
Maiatzaren 22 an eta 29 an izanen dira **xoxketa** ttipiak eta aldiz haundia ekainaren 5 ean denboraldiaren bukatzearekin. **Herria**
Xoxketa berezi bat ere beharra da, ikuska ibiliko diren guziek parte hartzen ahal sari eder baten irabazteko menturarekin. **Herria**
Uztailaren 31n izanen den kermezari buruz, xartelekin agertuko dire auzotegiko andreak; **xoixketa** ederren mentura, irabaztunentzat. **Herria**

XOXO ik zozo.

xoxokeria ik zozokeria.

xoxola ik txotxola.

xoxolinkeria *iz ipar adkor txotxolokeria.*

Ikize aldeko lau gazte dira, doi bat trufatzaileak, omore gozo batez eta berdin **xoxolinkeriz** beztituz beren ikusgarria. **Herria**

xoxolo ik txotxolo.

XOXOTU ik zozotu.

XU *izord ipar adkor zu.*

Iduri du **"xu"** erraiteak berekin daukala maitasun gehiago. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
-Mintzatzen ahal xira **xu** -ihardetsi zidan bortitz-, eta frondan bildu harri zorrotzekin kuskandel buztan ebakitzera abiatzen zineztelarik, ikasle ona xinen? **Itxaro Borda**
- **Xu** bai nini axkarra! **Aingeru Epaltza**
Eta **xu**, nor xitugu? **Janbattitt Dirassar**
Xuk ere duxu espero. **Herria**
Xurekin ez dixit beldurrik! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Eskerrak **xuri**, ama. **Piarres Aintziart**

xuabe 1 *izond suabea.*

Evak larruazal **xuabea** zeukan. Malda behera **xuabea** aprobetxatuz saiatu zen arnasa berreskuratzen. **Javi Cillero**
Urak uhin **xuabeak** egiten ditu eta borobil txikiak handituz joaten dira larruaren koloreko bazterretan hil arte. **Fernando Rey**
Zein atsegina udaberriko aire **xuabea**. **Mikel Hernandez Abaitua**
Bazekien entzuten, lagun ona zen, ahots **xuabea** zuen. **Harkaitz Cano**
Haren manera **xuabeak** eta izaera biguna. **Aingeru Epaltza**
Ur urdinaren eraso **xuabe** nekaezinak. **Matías Múgica**
Berehala, **xuabeak** ziruditen kolpeak gogortu egin ziren, adarrak soilduz zihoazelako eta egurrak egurra besterik aurkitzen ez zuelako. **Bernardo Atxaga**
Gaztaina-koloreko ile hura zetazko jantzia baino **xuabeagoa** zen. **Lopez de Arana**

2 (adizlagun gisa) ik xuabeki.

Agur esateko era politagoa zen inoren eskularruari tira egitea, hatzetatik **xuabe**, ume jaioberriek egiten diguten eran. **Harkaitz Cano**
-Zuei ardoak erasan dizue -esan zien **xuabe**, baina hitzak ondo ahoskatuz. **Pedro Alberdi**
Musika aparatuan, Mick Jagger ari zen beti, **xuabe**, burua gorputzetik bereizten denean bezala. **Aingeru Epaltza**
«Oso maitakor, **xuabe**, goxo» hasi zela dio. **Berria - Harian**
Urte batzuetan, hotz-beroaren aplikatze hau, **xuabe**, koskarik gabe egingo da, eguratsa eta airea baketsu, zirkinik gabe dabiltzanean. **Pello Zabala**
Zenbat eta geldoago, orduan eta **xuabeago** eta astiroago dator iparreko joera umel euritsua. **Pello Zabala**

3 xuabe-xuabe adlag

Beren oinetan, amildegi baten bukaeran, itsasoa ikusi-entzuten dute, arroken kontra **xuabe-xuabe** lehertzen. **Jokin Muñoz**
Belarritik gertu ari zaio, **xuabe-xuabe**, ia ahopeka. **Jokin Muñoz**
Lagunek adarra jotzen zidaten **xuabe-xuabe**, esanez: [...]. **Jesus Mari Mendizabal**
Medikuak jakinarazi dio bihar bertan has daitekeela entrenatzen: korrikan eta pilotatzen, **xuabe-xuabe**, lehen egunetan behintzat. **Berria - Kirola**
Orain..., zergatik ez *Pet Shop Boys* **xuabe-xuabe**. **Pako Aristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
xuabe xuabe (18)

xuabeki *adlag suabeki.*

-Hasi da gonbitoka -aipatu dio **xuabeki** Luziak Lucyri. **Joxemari Iturralde**

xuabetu, xuabe(tu), xuabetzen da/du *ad* xuabeago bihurtu.

Eguzkiaren sarrerak utzitako argitasun arrastoek **xuabetu** egiten zuten zerua; bere alderdi batek laino arinez eta tarte urdinez osatutako haur tapakia ematen zuen.

Bernardo Atxaga

xuberera ik **xiberera**.

xuberotar ik **xiberotar**.

xuberotarsa ik **xiberotar**.

xuberotartu ik **xiberotartu**.

xueldo *iz* diru zaharra, hainbat balio izan zituena garaiaren arabera.

Eskribauak, gastu guzien akta jaso du: ezpeziroak 50 **xueldo**, pitxergileak 33 diru; Erregeren "txermoni" partitzaileak, zaldia barne, 154 florin, zirujau odolzaleak hiru halako, eta eskribauak berak, auskalo zenbat gehiago. **Patziku Perurena**

xuhail *izond adkor* zuhaila.

Bi kilometroko bide **xuhail** bat egin dut, eukalitiuen artean bide luzeak ibai bat dirudi. **Piarres Aintziart**

Behi gorri **xuhailak**. **Herria**

Hala da beti gustagarri dela itsasoaren zilarrezko dirdira iguzki pean, eta zero gainean ere beren xafla **xuhailak** maiz aldatzen eta berritzen dituztela lano luma batzuek gure begien atsegingarri. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gorri xuhailak (3)

xuhaur (*orobat xuhau*) *izord ipar adkor* zuhaur.

Oixu! Aski duxu dena **xuhaurek** ordaintzea. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

-Izaxu **xuhauk**! **Itxaro Borda**

xuhur 1 *izond adkor* zuhurra, zikoitza.

Ez zaitez eseri **xuhuraren** mahaira, ez eta haren jakien irrikaz egon ere. **Elizen arteko biblia**

Topikoak bestela badio ere, katalan guztiak ez dira **xuhurak** ez poltsa-zimurak, ezta gutxiago ere. **Joan Mari Irigoien**

Itsuskotarrak ez zitzaizkion **xuhurak** izan dotearekin: Gararregiko oihaneko zurean eginiko altzariz bete zen Garrüzeko dorrea. **Aingeru Epaltza**

Zekena ogitan ere **xuhur**, bere mahaian ere falta izaten du. **Elizen arteko biblia**

Ez dakigula edo arrazoi jakinik ez dagoela aitortzeko modu bat funtsean, modu zuhur eta **xuhur** bat. **Iñaki Segurola**

Alargun txiki lodikote bat da, Villa Gamba jauregian aita edadetuarekin bizitzen jarria, etxeoandre, diru-kontuekin **xuhur**, beti zerbitzariak zaintzen azukrerik ebats ez dezaten. **Oskar Arana**

2 (hitz elkartuetan)

-Zure ametssetako andrearen aldean, uste dut badudan halako **xuhur** eta ximur aire bat. **Janbattitt Dirassar**

Xuhur fama dauka bere lagunen artean. **Jokin Muñoz**

Parte hartze horrek ez ote du ba beraz halako **xuhur** aireño bat? **Herria**

3 irud/hed

Paretan, eskuin aldera, bonbilla bat, ororen argi-emaile **xuhurra**. **Aingeru Epaltza**

Lanik ez baitugu oraino, jatekoa **xuhur** dugu. **Marzel Etxehandi**

Baina nola fida daiteke geroari lana hoin **xuhur** deno? **Janbattitt Dirassar**

Egunerokoaren joanarazteko zeukaten diru **xuhurra** esketik biltzen zuten, bekaizgorik gabe. **Itxaro Borda**

Denek jorna **xuhur** batzu baizik ez emaiten ahal handik, Parisetik eta biziki urrun girelaketoz. **Menane Oxandabartz**

Garapen **xuhurreko** lurraldeak behar litazke lagundu. **Herria**

Nola jar ikasi behar genuen, lekua **xuhur**. **Marzel Etxehandi**

Aurpegiak gorri, elea **xuhur**, ez du aspaldi helduak direla. **Piarres Aintziart**

Herritipietan kutxak dirua **xuhur** du. **Herria**

Toki aberatsenetan aldiz bokazioeak **xuhur**. **Herria**

Antxua biziki **xuhur**. **Herria**

"Uzta nasaia da eta langileak **xuhur**", zion Jesusek. **Herria**

Oxigenoz **xuhur** ziren, eta horrek ez zituen laguntzen. **Eneko Bidegain**

Klasikoa zen haren janzkera, **xuhurra**: beixaren tonuetan garai gehienetan, urdin, xuri eta gorritz udaberrian. **Joxan Elozegi**

Inoren agindurik gabe barreiatu dira nor bere alde, harri eta txaraka xumeek ematen duten babes **xuhurrera**. **Aingeru Epaltza**

Gehiengo **xuhur** eta ximur batek. **Janbattitt Dirassar**

Gutarik zenbaitek ikasi genuen bizkitartean eta sinetsi, Euskal Herria ez zela mugatzen Bidasoaz honaindiko hiru hegala **xuhurretara**, eta mugaz haraindian, Espainiako uzta gogorren azpian bizi izanagatik, Hegoaldeko gure haurrideek noizbait burua altxatuko zutela eta orduan, menturaz, guk ere. **Piarres Xarriton**

4 (adizlagun gisa) ik **xuhurki**.

Sukaldea hornitzen ere ez zuen **xuhur** jokatu nahi izan; aratxeak, zerrikumeak, bildotsak, oilaskoak, izokinak, barazkiak, arnoa... Aingeru Epaltza

Ezin liteke instalazioak, segurtasuna eta ingurumena hobetzeko inbertsioetan **xuhur** ibiltzea. Berria - Ekonomia

Seme-alabekin oso **xuhur** agertzen zen haien pentsamentuarentzako bazka ematerakoan. Fernando Rey

5 zuhurra, gauzak zentzuz eta neurritz pentsatu edo pisatu artean aritzen ez dena.

Udatzenezan dago, ordea, Goyaren itsua, ilunabarrean, zeruko argitasun epela munduan itzaltzera datorreneko zahartzaro **xuhurrean**, eta bi begietako argia burura bildu zaiola dirudi. Patziku Perurena

Agian, izena bera litzake, argioilarra, sekretu horren gordelekurik **xuhurrena**. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dirua xuhur (3); **lana xuhur** (5); **xuhur aire** (5); **xuhur xuhurra** (3)

toki xuhurra (3); **xuhur xuhurra** (3); **xuhurra izan** (3)

xuhurkeria *iz adkor* zuhurkeria.

Pentsamoldeak oso errotuta dirau: zikoizkeria, lukurrieria eta **xuhurkeria** bezala, indibidualkeria edo berekoikeria ere nagusi dira egungo gizartean. Iñaki Heras

Ene gazetako ikaskideak eskuin eskuko hatz lodiarene eta zuzenaren artean atxikitzen zuen kizarako kafe hutsak, hiru azukre kozkorrek gozatuagatik ere, **xuhurkeriaren** marka iduri zuen. Aingeru Epaltza

Izadiaren txantxa praktikoa desatsegina izan zen berak sorturiko animalia ornodunetako talde batzuk sei hatzez hornitzea lau gorputz-ataletako bakoitzean, berezko abako miresgarri hori daukatenei aldi berean erabiltzeko arrazoimena eman gabe; *Genus Homo* arrazoiak hornitzean, ordea, hatz-behazekin **xuhurkeriaz** jokatu zuen, hamarrekoak eta hogeikoak bakarrik ematen baitituzte batuta. Iñaki Mendiguren

Ez zuen inortaz gaizki erran, ezta diru kontuetan **xuhurkerietan** ibili ere. Aingeru Epaltza

xuhurki 1 *adlag adkor* xuhurtasunez.

Zergatik lehengo haurrak **xuhurki** ziren bizi eta oraingoak aldiz holako aisieran, soberakinak ez jakin nola balia? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Xuhurki bizi segur bainan ez dugu miseriarik ikusi. Herría

Xuhurki botatzen nituen gauzak, ongi jakinik nori eskaini eta prezio hobereanena saldurik, eta etxera eramaten nuen lekua aurki zezakeen oro. Joxan Elosegí

Ettxekoandreak ezin asmatuzko tokietan guarden bistatik gorde zituzten barazki idortuak, hala nola apez ilarrak eta ilar xabalak ahal bezain **xuhurki** xahutzen zituzten.

Elena Touyarou

Urte batetik bestera, **xuhurki** bizi ziren laborarien zorrak erret-aginduz hurritzen ziren. Michel Oronoz

Handik berriz ere dei bat zabaldu dauku **xuhurki** baino **xuhurkiago** bizi behar duten horien alde. Herría

Egun hautako aroa ikusiz, segur ura **xuhurki** erabiltzeko erabakia, Prefetak zabaldua, ezeztatua izanen da dudarik gabe. Herría

Gisa guziz aintzina segituko dutela, doi bat **xuhurkiago** ari behar badute ere. Herría

2 xuhurkeriaz.

Bestenez ere Parisek laguntza bereziak untsa **xuhurki** emaiten baititu eta laguntza horiek beraz aise eskasegiak baitira. *Lurra zain* elkarreak ez duena aise onesten, autobideaz arduratzen direnek berriak **xuhurki** emaita eta kasik beti azken puntan, biziki berant. Herría

xuhurreria (*orobat xurreria g.er.*) *iz ipar* urritasuna, bakantasuna. ik **xuhurkeria**.

Bere denboran apez erakasle egin du eta orai aspaldian bere erretreta baliatzen du oraiko apez **xuhurreriak** galdegiten dioten bezala bere apez laguneren zerbitzuko.

Herría

Jende xehearentzat makur gertatzen dena, artzakiaren prezioa dela emendatu **xuhurreriaren** bortxaz. Herría

Hori ere balute Hego-Amerika hortan **xuhurrerian** bizi direnek! Herría

Horra laborantza batzuen jabe zirenak han, eta gaitzeko **xuhurrerian** gelditu zirenak eta orain halaxe bizi. Herría

xuhurrezia *iz ipar* urritasuna, bakantasuna. ik **xuhurreria**.

Egituraketa eta barne formakuntza segitu, **xuhurreziaren** kontra lan egin. Herría

xuhurtasun *iz adkor* zuhurtasuna. ik **xuhurreria**.

Hutsaren hurrengo iruditzen zaizkit, hur ale horren **xuhurtasun** eta biribiltasun xaloaren ondoan. Patziku Perurena

Osagai nagusia -burdinazko ohe baten gaineko estalkia- sarga urdinaren txatalez zegoen egina, artile beltza, marroia eta grisa: ilunaren eta apalaren aukera osoa, **xuhurtasunak** eta umiltasunak uzten duena. Anton Garikano

xuhurtu, xuhur(tu), xuhutzen da/du *ad ipar* urritu, bakandu.

Ez da dudarik, arrain batzu bakandu eta **xuhurtu** dira gure itsas-aldean. Herría

Arraina **xuhurtu** da, alde batetik, kutsadurarekin. Menane Oxandabaratx

Bassoran, jendea kexaturik altxatu da podorearen kontra, elektrika eta ezantza **xuhurturik**. Herría

Bazter guziak kixkilduak, ura **xuhurtua**, kabalek ere azkarki sofritu dute ainitz tokitan. Herría

Frantzia barnean, erditsu hortan edo ipar-aldean badira departamenduak nun medikuak arrunt **xuhurtuak** baitira. Herría

Ikusten delarik ikatza, petrola eta holako indargaiak azkarki **xuhurtzen** ari-eta, frango badaudela arrunt nukleartegien menturan, [...]. Herría

Mendearen bukaerarako infernuak, paradisuak, ardiak eta artzainak desagertu ziren, elizak hustu eta apez larderiadunak **xuhurtu**. Itxaro Borda

Ondorioz, erretreta kutxa horien gastuak emendatuz doatzi, diru-sartzeak aldiz **xuhurtuz**! Herría

Azken denbora hotan alabainan, lana berriz **xuhurtu** da. Herría

Hain zuzen, zure libertate hori berriz eskuratzeko orduan, **xuhurtzen** eta mugatzen omen dizute, noiz arte ote? Herría

Sortzeak hola **xuhurtzea** gogoetagarri da segur geroari buruz. Herría

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ura xuhurtzen ari (3); **xuhurtzen ari** (11)

xuhurtze *iz ipar* urritzea, bakantzea.

Zerk egiten du **xuhurtze** hori? Herria

Lanaren berriz **xuhurtze** horrek ez du deus onik ekarriko, hola segitzen badu segurik...! Herria

Goizetik jadanik izana zen nahiko mugimendu Baionako karriketan, sindikaten manifestaldiarekin, 3000ko bat jende erretreten **xuhurtze** mentura salatzen zuela. Herria

Apez **xuhurtzearekin**, langile berri batzu agertzen dira parropietan. Herria

xuhurtzia *iz ipar* zuhurtzia.

Euskalgintzako partaideek **xuhurtziak** hartu dute berria, ez baitute neholako informaziorik eskuratu Obragintza Publikoarengandik. Berría - Euskal Herria

xuhurxko *izond ipar* urri, bakan.

Pena, jendea **xuhurxko** zela; beti berdin da, han ginenak biziki gustatu gira. Herria

Biziki ongi iragan da bertsu afaria joanden larunbatean, haatik jende **xuhurxko** iduritu da holako saio pollit batentzat. Herria

xuingoma (*orobat xingoma*) *iz* mastekatzeko goma zaporeduna. ik **txikle**.

Bestalde, sarrerako kontrola egina zuen uxerak artoski debekatu ditu **xuingoma** mastatzeak, eskuak sakelan atxikitzea eta esku zartak. Herria

Neskak, bien bitartean, kexu-zirkirik gabe eusten zion araketari, **xingoma** mastekatuz. Juan Garzia

Gero dastatu genituen liskarraren **xuingoma**, amorrazioaren gaztainak, hiraren mahats-aleak eta pesadunbrearen mahats-mordoak. Xabier Olarra

xuka *adlag Xu* izenordaina eta dagozkion aditz formak erabiliz.

Xu-ka ari zitzaidanan: xauri puttil xure makila ferratua non ezar eakutsiko dautxut. Itxaro Borda

xukabide *iz* xukatzeko bidea.

Gauetz, lurpeko lanean, metal isuria zihotan **xukabidea** konpontzen ari eta, hango lurrunak burua kargatu, itsutu, zulora erori zen. Pablo Sastre

Komunetako **xukabideak** erabiliz, listariz loturik elkarri mezuak bidaltzen zizkioten. Pablo Sastre

xukadera (*orobat xukador*) *iz* eskuarki gorputza lehortzeko erabiltzen den zapi felpaduna. **ikeskuzapi**.

Gero koloretako **xukaderak** hondar gainean zabaldu, etzan, eta eguzkitan belzten egoten ziren. Txillardegi

Hotelean dutxa behintzat bazegoen, eta **xukadera** ere bai, alkanfor-usainduna eskualde haietan ohi denez. Joxe Austin Arrieta

Gas-berogailua piztu zuen, nola itzaltzen zen ere erakutsi zidan eta **xukadera** garbia eta xaboa ekarri. Joxe Austin Arrieta

Ondo lehortu, jantzi eta **xukaderak** bildu ondoren, motorrera abiatu ginen. Aitor Arana

Azkenean, pixka bat nekaturik, errekatik atera ginen, ertzeko belarretan **xukaderak** zabaldu eta eguzkitan etzateko asmoz. Aitor Arana

Sukaldeko atean agertzen da, sorbalda biluzian **xukadera**, giroa azterten. Koro Navarro

Buluzirik - **xukador** bat bakarrik gerrian- bost lerrotan postako atea pasatu genuen. Marzel Etxehandi

Gorputza lehortzeko **xukadera** handiaren mutur batez. Aitor Arana

Ur suil bat ekartzeko, ahalean; eta **xukadera** bat. Txillardegi

Plateren **xukaderaren** ondoan pilatua zeukan amantal tolestu mordo bat hartu eta pasilloan behera ezkutatu zen. Koldo Izagirre

Argi gutxiko gela batera sartu gara, eta preso batek denon eskutan, nireetan ere, zapi bat jarri digu -ez, hobe esan, **xukadera** - keinuka esanez: erabili ostein, itzuli. Urtzi Urrutikoetxea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xukaderan utzi (4)

xukador ik **xukadera**.

xukagailu *iz* xukatzeo gailua.

Sentikortasun paregabeko tresna optiko bat da begia, diseinuari eta funtzionamenduari dagokionez ezaugarri harrigarri asko dituena; ez zaizkio falta, hara, ezta parabis-garbigailua eta - **xukagailua** ere. Irene Aldasoro

xukagarri *izond* lehortzailea.

Bev Shaw-k zatit **xukagarri** batekin ukitzen du eskrotoa. Oskar Arana

xukapaper *iz* tinta-eta xukatzen dituen papera.

Lehenago egunean argazki txiki marguldu bat aurkitu nuen **xukapaper** baten azpian. Monika Etxebarria

Haien truke nik bost milioi emango dizkizut -oihu egin zuen Maisiek idazmahaiko **xukapaper** bat astintzen zuen bitartean. Lopez de Arana

xukatu, xuka, xukatzen (*orobat txukatu g.er.*) **1** da/du *ad* lehortu, bustitasuna edo hezetasuna kendu.

Bekokiko izerdia **xukatu** ondoren. Javi Cillero

Sudurzapari bat atera zuen poltsikotik, bekokia **xukatu** eta bere gutunetara itzuli zen. Lopez de Arana

Aitak irribarre egiten zion, izerdia perlaxo zuriak zapiak **xukatzen** zizkiola. Javi Cillero

Malkoak **xukatu** eta zurrutada txikitzen hasi zen edaten. Lopez de Arana

Begizuloetako negar-malkoak **xukatu** nizkion musuka. **Joxe Austin Arrieta**
Txabusinaren mahuka batez **xukatu** zituen begiak. **Lopez de Arana**
Eskua erabili du aurpegian erori zaizkion euri tantak **xukatze**. **Pello Lizarralde**
Ni mukiak ezin **xukatuz** nenbilen. **Aingeru Epaltza**
Mukizapiarekin **xukatu** nuen aurpegia, emakume beltzak nire galtzei hautsa gain-kentzen zien bitartean. **Joxe Austin Arrieta**
Eskuak **xukatu** zituen eta, berriz jarri zen. **Elena Touyarou**
Mariak, nardo garbizko kilo erdi bat ukendu, balio handikoa, harturik, oinak igurtzi zizkion Jesusi, eta gero bere ile-adatsez **xukatu**. **Elizen arteko biblia**
Bev-ek ezitiki **xukatzen** dio zauria. **Oskar Arana**
Mirandek betaurrekoak **xukatu** zituen eskuzapi txiki batez. **Javi Cillero**
Hirugiharren azken zukua ogiaz **xukatu** eta kafe kikara hustu zuen. **Josu Landa**
Koxepa ontzien garbitzen ari zen, azken basoaren **xukatzen** doi-doi. **Eneko Bidegain**
Dutxatik **xukatze** oihalik gabe ateratzen ziren kanpora, oraino busti bustirik. **Eneko Bidegain**
Trinketeko sukalde xokoan ixil-ixila baxera **xukatzen**. **Herria**
Garbitua eta **xukatua** zegoen baxera. **Joxe Austin Arrieta**
Harriak berez bigunak eta porotsuak izaten direnez, erabat lehortzen dute morteroa, ur guztia **xukatuz**. **Santiago Iruretagoiena**
Harria bera izaten delako lodia eta sendotasun handikoa, eta ezin izaten duelako morteroak duen hezetasun guztia **xukatu**. **Santiago Iruretagoiena**

2 idortu.

Idorte sasoinan, dena **xukatzen** da, zuhaitz batzu baizik ez direlarik berde gelditzen. **Herria**

3 ezin xukatuko izlag

Itsasu herri huntan, hamalaukeko gerla denboran, 48 hilabetez, hilabete oroz, bana bertze, gazte baten hil berria jasan behar izan da, **ezin xukatuzko** zauri biziak idekiz aldi oroz... **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begiak xukatu (8); **begiak xukatu zituen** (3); **bekokia xukatu** (3); **izerdia xukatu** (10); **izerdia xukatu zuen** (5); **kopetako izerdia xukatu** (3); **malko bat xukatu** (4); **malkoak xukatu** (14); **malkoak xukatu zituen** (4); **xukatu ondoren** (4)

malkoak xukatuko (3)

malkoak xukatutik (3)

malkoak xukatuz (5)

tantak xukatze (3)

begiak xukatzen (3); **izerdia xukatzen** (5); **kopetako izerdia xukatzen** (3); **malkoak xukatzen** (4); **xukatzen zituen malkoak** (3)

xukatzaile iz xukatze duena.

Xukatzailearekin gorputza torratzen ari da. **Berria - Kultura**

xukel ik txukel.

xuketa iz zuka hitz egitea.

Euskal Herriko ekialdean beste alokutibo bi ere erabiltzen dira: zuketa eta **xuketa**. **Koldo Zuazo**
Hizkera neutroko *ni naiz*, esate baterako, *ni nuzu* da zuketan eta *ni nuxu*, berriz, **xuketan**, hitanoan *ni nauk* eta *ni naun* diren bezala. **Koldo Zuazo**
Zeharo bidezkoa dute euren zuketa eta **xuketa** alokutibo bereziak erabiltzea. **Koldo Zuazo**

xuko (orobat xuku g.er.) 1 izond ipar lehorra, idorra.

Bide **xuko**, patartsu eta harritsu batean naiz oraindik, eta hatsantzen hasia. **Piarres Aintziart**
Aro **xuko** ederra aste ondarrean. **Herria**
Gorapenean sarturik, aro **xuko** baten menturan gaude. **Herria**
Aroa bere freskoarekin **xukoan** dago. **Herria**
Toki bero eta **xukoa**, biziki arno ona egiten da. **Herria**
Oro har halere toki frangotan bazterrek zoin diren **xuku**, iturrotzak agortuak, pentzeak larrutuak eta iralekuak jadanik larrazkeneko jauntzitan. **Herria**

2 (adizlagun gisa)

Sasoineko fresko, aroa **xuko** segituko du, bero handirik gabe. **Herria**

3 xuko-xukoa adlag ipar lehor-lehor.

Galdetu diotelarik zerbait makur bazuenetz, politika-sailean bixtan da, Sarkozy-rekin, **xuko xukoa** hauxe ihardetsi du: ni niz nagusi eta nagusiak manatzen du, minixtroek obeditzen dute. **Herria**

Xuko-xukoa ezarriak. **Janbattitt Dirassar**

Hain naiz egarri non uste baitzait, aska **xuku xukua** ikusirik, agortua dela iturria. **Piarres Aintziart**

xukrut (orobat txukrut) iz ozpinetan hartzituriko azarekin prestatzen den jakia.

-Mariette, txikitxo, garagardoa aparrik gabe eta plater bat **txukrut**. **Monika Etxebarria**
Ziztorrak berehalaxe jan ditugu, eguerdian, **xukrutarekin**, baina lukainkak, gordetzeakoa baitziren, ongi lehortu behar dira. **Josu Zabaleta**
Egiaz esaten dizut ez dela batere gauza atsegina egunero **xukrut** jatea, adibidez, eta egunean bi aldiz jatea gutxiago oraindik. **Josu Zabaleta**
Igandeetan **txukruta** hartzen dute. **Monika Etxebarria**
Ostatu txukuna da: **txukruta** eta eltzekoa ematen dute gau osoan. **Monika Etxebarria**

xuku ik xuko.

xukunki ik txukunki.

xularme iz poroa.

Izerdia kanporatzeko, ordea, izerdi guruinak behar dira eta izerdi hori larruazalera eramango duten **xularme** edo poroak. J.M. Olaizola "Txiliku"
Larruki bakoitzeko poro bakoitza tranpa bat bezala zen kopiatzailearentzat [...] tintarekin edo kolorearekin behar ez zen orbanen bat egin baitzitekeen **xularme** horietako bakoitzean. J.M. Olaizola "Txiliku"
Larrukiak egiteko antxumearen larruak erabili ohi ziren maiz, eta zenbaitetan jaio gabeko antxumearenak, baina denetan estimatuena zakurrena omen zen, izerdi-**xularmerik** ez zuelako. J.M. Olaizola "Txiliku"

xuleta ik txuleta.

xulo 1 iz adkor zuloa. ik txulo¹.

Ardura berezia hartu nuen botoiak zuzen lotzen, bakoitza bere **xuloan**. Aingeru Epaltza
Ateko **xulotik** behatzen du zaindari ailegatu berriak. Xabier Montoia
Leihatilara joan eta saltzaileari lau token eskatu zizkion **xulotik** hiru dolar sartzen zituen bitartean. Iñaki Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Pentsatu bezala, lau hilabete alferren ondotik, nire giltzak ez zuen arrotzu eskaintzen zitzaion **xulo** laguna. Aingeru Epaltza
· Matraila-**xulo** maliziotsuek ahoaren albo banatan irauin zuten galdera egin eta gero ere. Anjel Lertxundi
Hargatik debekatu zigutela elkar bustitzen ibiltzea, erraiten zutelako ezen ura azal-**xuloetarik** sartu eta eragin gaixtoa izan zezakeela gure humoreen funtzionamenduan. Joan Mari Irigoien

xume 1 izond aski txikia; apala. ik xehe. (pertsonez)

Gizon **xume** eta apalak indar izugarria erakutsi zuen pertsonak eta gizarte-harremanak aldatzeko. Askoren artean
Gipuzkoa txikia da, Reala txikia da, eta gu geu **xumeak** gara. Berria - Kirola
Museo hau oso bestelakoa izango litzateke indiar **xumeak** gehiago kontuan hartu izan balituzte. Berria - Gaiak
Popea, berriz, herriko apaiz **xume** bat zen, inperio errusiarrak dauzkan seihun mila horietako bat. Karlos Zabala
Ez zen etxeko seme handietarik ene gisa, etxetiar **xumeen** bizitza ezagutua zuen haurrean eta gazte denboran. Herria
Osein **xumeek** egin ohi duten bezala. Matías Múgica
Letren sukaldari **xume** honek osagai kulinarioro eta literarioz beteriko errezeta bat eskaini nahi lizuke. Patxi Zubizarreta
Nafar noble hori ez zen, hain segur, Frantziako handiki bat, baina ezta ere kapare **xumea**. Berria - Kultura
Erromako elizaren kardinale gisa askoz arriskutsuago zen Azpilkueta, legelari **xume** gisa baino. Piarres Xarriton
Nikolas Korpanoff baitzen bera, Irkutskeko merkatari **xume** bat. Karlos Zabala
Soldadutzatik libre gelditu zen zuzentzaile **xume** bat baizik ez baita. Jon Alonso
Jende **xume** eta zitela bezain bihozgabeta izango naiz. Mirentxu Larrañaga
Berak, bere bizia ospitale hortan nahi bazuen, jende **xume** enbaldituen, biziak kolpatuen errespetuz zela. Michel Oronoz
Herri **xumea**, zintzoa, eta lan du sinesteak, baina eliza xume bat ere ez zeukan Trintxerpek. Koldo Izagirre

2 (izen gisa)

Maisu gorenak bere misterioak **xume** eta txikiei agertzen dizkie. Askoren artean
Ordenara zetozen noble nahiz **xumeei**, beste gauzen artean esaten zitzaie, legendunak apalki zerbitzatu behar zituztela eta haien etxeetan bizi. Askoren artean
Xumeek Jainkoari malguki jarraitzen diote, ihesbiderik gabe. Joan Mari Lekuona
Emazkiozue eskerrak Jainkoari, jakinduria jainkotiarraren altxorra **xumeen** ahoz agertu nahi izan duelako. Askoren artean
Adin guzietako jendeak, gutarteko **xume** ala kargudun ezagutu, denetarik bazen Erroman. Herria
Sarritan **xumeenari** agertzen dio Jaunak zer den onena. Askoren artean

3 (animaliez)

Txantxangorri **xume** apal maitagarria berriemaile da. Pello Zabala
Usoa bezain **xume** behar dut izan, eta zerurantz hegaz egin afektuen bidez. Askoren artean
Hola dute zenbaitek erraiten, badutela kabala **xume** horiek... izpiritu bat! Herria

4 (bestelakoez)

Herder-entzat "herriaren izpiritua" herri **xumearen** izpiritua da. Joxe Azurmendi
Hasierako *fraternitas* edo anaiarte **xumea** Ordena handi bilakatzen ari zen. Askoren artean
Isuntza talde **xumea** izaki, Aboitzek ere ez du denboraldia guztiz oker ikusten. Berria - Kirola
Jostuna, auzo **xumeenetan** modelo bila ibiltzen baitzen, haren edertasun paregabeaz ohartu zen. Matías Múgica
Barrakoi **xume** bat lurrean zulatua eta lubakiz inguratua bera, frontetik ez oso urruti. Felipe Juaristi
Xumea baina dotorea, dena gustu handiz atondua. Sonia Gonzalez
Edonon ere nekez aurkitzen dena ez ezazu bila landetxe **xume** honetan. Imanol Unzurrunzaga
Lurralde **xumea** da eremuz eta jendetzez. Herria
Bai etxe eta tresna txiki eta pobretxoetan, bai liburu **xume** eta pobretxoetan. Askoren artean
Agian altzariak **xumeegiak**, pobreegiak zirelako edo. Xabier Olarra
Mahai **xume** eta apalak erabili behar zituztela. Askoren artean
Eguzkia argi eta aratz zegoen: ardo zuri **xume** bat. Monika Etxebarria
Argi **xume** bat piztea hobe da ilunbea salatzea baino. Herria
Klub **xumea** zena punta-puntakoa izan da handik aurrera. Berria - Kirola
Istori txikiak, **xumeak**, sotilak kontatzen dizkigu Jaiok ipuinotan. Berria - Kultura
Honek guztiak lezio **xume** bezain garrantzizko itzatu ahal izan zuen gure euskaldun entzuleengan. Pello Zabala
Hizkuntza **xumeen** alde dira. Herria
Gu geu, asmo eta baliabide **xumeagoz** jantzita gatoz oraingo honetan. Edorta Agirre
Marrazkiak, esaterako, **xumeak** dira, eskematikoak askotan. Berria - Kultura
Hizkera oso **xumea** da, kazetari hizkera, oso zuzena. Berria - Kultura

Keinu **xume** bat, anai-arreberen artekoa bezala. Jon Alonso
 Aitak *eskerrik asko* **xume** batekin hartu zituen opariok. Unai Iturriaga
 Askoz gogoeta **xumeago** bat etorri zait burura; **xumea** baina era berean egozentrikoa. Xabier Mendiguren Elizegi
 Gure liga enpresa pribatuaren batuketara da, kalitatezko jaialdiak salneurri **xumeetan** eskaintzen dituena. Berria - Kirola
 Bizimodu **xumea** darama. Berria - Harian
 Bahituak izanen direno erakutsiko dut ene atxikimendua lerro **xume** hauetan. Herria
 Antzinako igeltseritza-lan **xume** baina niretzat interesgarria. Joxe Austin Arrieta
 Berrogeita hamar mila lirako diru kopuru **xumeagatik**, turistak Cannas-eko bataila borrokatu zen landara gidatzen ditu Carlo Montanik. Iban Zaldúa
 Gau giro epelak xuxurla **xumea** eragiten dio ontzietako masten artean dabilen aireari. Anjel Lertxundi
 Haren begitaratearen edertasun **xumea**. Juan Garzia
 Horretarako premiazko titulu aitzakiak, arrazoi **xume** baina sinesgarriak. Karlos Linazasoro
 Egin dezagun galdera ezina izangai bihurtzen duen beste era **xume**, arlote eta zientifiko honetan: zer da fotoia? Iñaki Segurola
 Elkarrizketetan berez pizten zitzaieen batak bestea zirikatzeok gurari **xume** bat. Jose Morales
 Gehiengo **xumearekin** ekin zion bideari Javier Madrazoren taldeak. Berria - Euskal Herria
 Hasieran jario **xume** bat zen, baina berehala, Jainkoaren ahalmenaz, iturburu bilakatu zen. Askoren artean
 Hori guztia nik dakidanaren lagin **xume** bat besterik ez da. Monika Etxebarria
 Orduan ideia on bat ukan nuen, ideia **xume** baina egoki bat. Koldo Izagirre

5 (adizlagun gisa)

Hiriko zenbait andre haren predikuetara **xume** jantzita eta apaingarririk gabe joaten zirelako. Askoren artean
 Hantxe zegoen eserita, **xume**, serio. Anton Garikano
 Tenorra zuhur eta **xume** aritu zen eta kontratzenorrek garai honetako musikarekiko nolakotasun nabariak agerrarazi zituen. Berria - Kultura
 Loinazen teklatuak **xume** iragartzen zuen amaiera hori. Berria - Kultura
Xume, sakon eta ahapaldi dotoreak eginez, Igerabidek poesiaren mailuari heltzen dio. Berria - Kultura
 Zintzotasunez, bizi, patxadaz, mamitsu, arin, lasai, dotoreziaz eta **xume** idatzi zituen 60ko hamarkada amaierakoak eta 70eko hasierakoak. Berria - Kultura

6 xume-xume izond

Gazteluko patioan mendetako pikondo bat zegoen, ixtorio **xume-xumeak** baizik kontaktzen ez dakien sortaldeko jakintsu bat zirudiena. Xabier Olarra
 Argi ttipi bat, **xume-xumea**, baina aski halere etsipenean ez arunt itotzeko. Janbattitt Dirassar
 Noizean behin, halere [...] agindu ozenen baten oihartzun **xume-xumea** heltzen zen niganaino. Txillardegi
 Nire lankide xume baten alaba bada ere (**xume-xumeenetako** batena, egia esan), baditu -eta arrazoiarekin- mundu hobereneko pertsonen pretentsio berak. Matías Múgica
Cape Rouge deitu itsas-mutur gorrian den portu **xume-xume** hau, Hoyarزابalen itsas-liburuan *Capenruge* deitua zen. Aurelia Arkotxa

7 xume-xume adlag

Andre hori **xume-xume** bizi zen, errenta txiki bizi arteko batekin. Karlos Zabala
 Eibarko jardunaldiek **xume-xume** ekin zioten ibilbideari, baina urteak joan ahala hazi egin dira. Berria - Kultura
Xume-xume, ordura arte ezkutuan izan zuena kontatu zien. Julen Gabiria
 Halere, argitzearen aldera **xume-xume** abiatu dela gure eguzkia, esan behar da dagoeneko. Pello Zabala
 Plantak egiten hasten zen **xume-xume** anbiguotasunez eta Eduardo Pradok hitz egiten zuen. Karlos Zabala
 Gaztetxo baten ikuspegitik daude kontatuta, gaur egungo Saleemen baitan dagoen gaztetxo hark kontaktzen duela ematen du, oso artifizio gutxirekin, **xume-xume**. Berria - Kultura
 Martiri bihurtzea erabaki nuen, **xume-xume**. Joxan Elosegi

8 xume-xumea adlag ipar

Xume-xumea eta muturrik jasan zuen, umiliagarri zeritzon zaindaritzako guardien ekina. Itxaro Borda
 Jakin izan balu, ekaitza iragan artean, **xume-xumea** lerroan kokatuko zen. Itxaro Borda
 Bainan orai, hemen aipa dezagun, **xume-xumeagoa**, beste bide bat, Euskal Heritik Lurdera, hau ere oinez edo bizikletean egin daitekeena. Herria

9 xume-xumeki adlag

-Beraz jendea **xume-xumeki** bizi da. Menane Oxandabaratx
 Ez ziren kikildu eta poloniarrek Joanesen trantzea esplikatu zuen, **xume xumeki**. Eneko Bidegain
 Deiztegieta kokatzen dira **xume-xumeki**, muturraren pean zaldalea ketan sentitzen duten ber. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adibide xume (3); aldaketa xume (5); argi xume (5); ariketa xume (4); artzain xume (3); asmo xume (3); aterpe xume bat (3); berba xume (3); bezain xume (3)
 ekintza xume (6); ekitaldi xume (7); eliza xume (3); emakume xume (3); era xume (3); etxe xume (4); galde xume (3); galde xume bat (3); galdera xume (4); gertaera xume (4); gertakari xume (3); gizon xume (8); herri xume (3); herritar xume (7); hitz xume (11)
 irribarre xume (13); irribarre xume bat (8); jende xume (6); keinu xume (3); labur eta xume (3); lan xume (6); langile xume (9); lerro xume (5); letren sukaldari xume (5); liburu xume (6); merkatari xume (3); noble nahiz xume (3)
 omenaldi xume (4); ostatu xume (3); txiki eta xume (3)
 xume eta apal (4); xume eta apalak (3); xume gisa (4); xume jantzita (3); xume xume (8); xume xumea (7); xume xumeki (4)
 bezain xumea (4); bizimodu xumea (3); ekarpen xumea (3); ekitaldi xumea (11); ekitaldi xumea antolatuta (3); etxe xumea (5); euskal herri xumea (3); gauza xumea (6); herri xumea (9); herriko jende xumea (3); irribarre xumea (7); jende xumea (9); omenaldi xumea (13); omenaldi xumea egin (3); omenaldi xumea egingo (4); oso xumea (6)
 xume xumea (7)
 baino xumeago (3)
 baino xumeagoa (6)
 etxe xumeak (3); gauza xumeak (3); herri xumeak (5); herritar xumeak (5); irudi xumeak (3); istorio xumeak (3); jende xumeak (13); langile xumeak (5)
 bere xumean (5); modu xumean (8)
 apaindura xumearen luxua (3); herri xumearen (4); jende xumearen (9)
 jende xumeari (9); jende xumeari agertu (4)
 herritar xumeek (3)
 herritar xumeen (7); jende xumeen (4)
 hitz xumeez (3)
 xume xumeki (4)

xumekeria iz xumetasun gaitzesgarria.

Erlijio hau arretaz aztertzen duen edonor jabetuko da bere baldreskeriak juduen **xumekeria** eta ankerkeriatik datozela batetik, eta jentilen axolagabekeria eta nahasmenetik bestetik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

xumeki 1 *adlag* era xumean.

Maimonek hemen hain **xumeki** adierazten duen arau hau ezin garrantzitsuagoa da edozein exegesi linguistikoa edo literariotarako. Xabier Kintana

Blanchek **xumeki** hitz egiten du. Xabier Paya

Maimonek hemen hain **xumeki** adierazten duen arau hau ezin garrantzitsuagoa da edozein exegesi linguistikoa edo literariotarako. Xabier Kintana

Izate orok halaberrez eduki behar baitu, **xumeki** bederen, espezie edo formaren bat. Imanol Unzurrunzaga

Aingeruen Andre Maria eliza lortu zuen apalki, eta anaiak beti bertan izatea eta elkarrekin **xumeki** bizitzea nahi izan zuen. Askoren artean

Moustakik gaztelaniar ez hitz egiten zuen noizean behin kantuen berri emateko, beti **xumeki**, beti presarik gabe. Berria - Kultura

2 *xume-xumeki* adlag

-Beraz jendea **xume-xumeki** bizi da. Menane Oxandabaratz

Ez ziren kikildu eta poloniarrek Joanesen trantzea azaldu zuten, **xume xumeki**. Eneko Bidegain

Deiztegiatan kokatzen dira **xume-xumeki**, muturraren pean zaldalea ketan sentitzen duten ber. Itxaro Borda

xumetasun 1 *iz* xumearen nolakotasuna.

Orbita haiek, beren sinpletasunean eta beren **xumetasunean**, guztia azaldu zitezen, epizikloetar eta eszentriketar jo gabe. Joan Mari Irigoien

Berak sarritan itxurazko **xumetasuna** bilatzen du, trabarik egin ez, eta konplexutasuna nolabait ezkutuan duena, motorren zarata entzuten uzten ez duena. Patxi Zubizarreta

Soinu egileen atalean ere, **xumetasunerat** jo du *Jesús* pastoralak, txirulari, txanbelari, atabalari eta ttun-ttun eta arrabita jotzaileek soilik lagunduko baitutuzte kiristi, türk eta satanen ateraldiak. Berria - Kultura

«**Xumetasun** absolutuaren bila ibiltzen zen eta, horregatik, forma berriekin esperimentatzen zuen etengabe», azaldu zuen Carmen Gimenezek, New Yorkeko Guggenheim museoko XX. mendeko saileko arduradunak. Berria - Kultura

Bat-batekotasun kantatuaren muinari eutsiz eta, ahal dela, muin hori sekula baino sakonago garatuz, bere **xumetasunean**, bere biluztasunean, inprobisazioaren benetokotasunean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Proporzio maskulino idealen itzulpen aritmetikoa da doriarra, "emakumearen lerdentasun eta **xumetasunarena**" joniarra, eta "neskato baten **xumetasunarena**" korintoarra. Santiago Iruretagoiena

On guztien Emaila eskuzabalak Frantziskori eman zizkion grazia eta dohainen artean, bada bat guztiz berezia: alegia, pobretasun guztiz gorenaren maitasunari esker, **xumetasunaren** aberastasunak gehitzea merezi izan zuela. Askoren artean

Norberarekiko Kontentutik Hantustea sortzen den bezala, Umiltasunetik ere **Xumetasuna** sortzen da. Piarres Xarriton

2 (hitz elkartuetan)

Uste du Juan Jose Millás-ek, "**xumetasun** konplexua" aipatzean, osatu egiten duela idazle frantsesaren gogoeta. Patxi Zubizarreta

xumetu, xume(tu), xumetzen da/du *ad* xume edo xumeago bihurtu.

Sua kondentsatzeko edo **xumetzeko** ere, gauzetan hutsunea nahasturik dagoela onartu behar da. Xabier Amuriza

Ortizko hodeiak **xumetzen** direnean ere sortzen dira oinaztuak; zeren, haizeak leunki sakabanatzen eta joanean disolbatzen dituela, nahitaez jausi behar baitute hazi oinaztugileak. Xabier Amuriza

Eraztunaren aurrean airea **xumetu** eta lekua hutsik gelditu ahala, atzean lekuturik dagoen aire guztiak sakatu egiten diola eta nolabait aurrera eragiten eta bultzatzen. Xabier Amuriza

Hala nola lo hartu aurretik gazak **xumetu** egiten diren, xehetasun franko guztien artean bakar bat soilik nabarmentzeraino, hala, [...]. Anton Garikano

xungo ik txongo.

xunta *iz* Galiziako gobernu autonomoa.

Xunta berriarekin Kultura Saila nazionalisten esku izanik, zuzendari berriaren lehen erabakia izan zen enkargu hau egitea Ana Vallesek zuzentzen duen taldeari. Berria - Kultura

FPG Fronte Popular Galega ezker independentistak alderdiak «Galizia leheneratzeko larrialdiko proposamen sorta» aurkeztu zien Galiziako **Xunta** osatzen duten PSdeG alderdi sozialistari eta BNG Bloke Nazionalista Galiziarri. Berria - Mundua

Hau da Galiziako **Xunta** deritzanaren lehendakaria. Herria

xur-xur *adlag*

Korridoretik, **xur-xur** entzun nuen dutxako iturria. Aingeru Epaltza

xurga 1 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik xurgatu.

Chupa Chups **xurga** enpresak salmentak beheititzen ikusi ditu iaz 18 Milioi euroz. Herria

Hemengo kargudunei berriz ere errana izan zaie hetsiko dela Baionako Chupa Chups **xurga** lantegia, 67 langile finkoak eta 30 intermariaoak deusik gabe utzirik. Herria

2 *xurga eta xurga*

Urka-bilurren ezkerrean, oholtzaren albo batean, gizon patxadatsu bat zegoen, ahoan zeukan buztinezko pipari **xurga eta xurga**. Anjel Lertxundi

Sudurrak ere ez zion arazo gutxi-gutxi ematen, **xurga eta xurga** aritu behar baitzuen etengabe. Mirentxu Larrañaga

Neskak zakil eder bat dauka ahoan, hortz artean, **xurga eta xurga**. Karlos Linazasoro

3 *xurga-xurga* xurga eta xurga.

Zigarro bat piztua nuen eta handik **xurga-xurga** ari nintzen, mundua ezin erre eta hura erre behar. Aingeru Epaltza

Ipurdian Antonio zunba-zunba zebilkidan ipurtalde dena goxatuz, Klaudio zurrup-zurrup zebilen ene zakil-potroetan, Imanolek xirri-xirri zegidan titiburuetan eta nik **xurga-xurga** berari buztanean. Aitor Arana

xurgada *iz* xurgaldia.

Sabaira begira, **xurgada** luzea kendu zion zigarroari. Aingeru Epaltza

Lehen **xurgada** mentolatuarekin batean sumatu nuen nola indarbertzen zen apaltzera egindako buruko mina. Aingeru Epaltza

Porroari azken **xurgada** kendu eta itzali du harri baten kontra. **Aingeru Epaltza**
Bi **xurgada** jo nizkion, motz, eta Charlyri pasatzeko imintzioa egin nuen. **Aingeru Epaltza**

xurgagailu (*ETCn 146 agerraldi; orobat **aspiradora** ETCn 76 agerraldi, **aspiragailu** ETCn 131 agerraldi, eta **aspiradore** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **xurgagailu** agertzen da*) **1** iz xurgatzen duen gailua. ik **aspiragailu**; **aspiradora**.

Lantegiko armairura abiatu, **xurgagailu** bat atera handik, konektatu, eta orria desagertua zen baztererraino hedatu zuen kablea. **Jon Muñoz**
Binns irakaslea bere oharra hartu eta irakurtzen hasi zen ahots motel monotonoarekin, **xurgagailu** zahar bat balitz bezala. **Iñaki Mendiguren**

2 (hitz elkartuetan)

Langile batzuk hilobien inguruetakora orbela biltzen ari ziren haize-**xurgagailu** batekin eta arduraduna non zegoen galdetu nien. **Iñaki Zabaleta**

xurgagarri *izond* xurgatzen duena. ik **xurgatzaile**.

Jokoak beti edukiko du potentziala interes ez-praktikoa pizteko, eta interes hori oso **xurgagarria** izango da beti. **Askoren artean**

xurgaka *adlag* xurgatuz.

Nik nahiago ditut bere buruaz eta buruko gogoetez eta pentsuez baliatzen eta aitzintzen diren pertsonak ezen ez bertzeen odoletik **xurgaka** eta hurrupaka dabiltzanak, nola izainak eta parasitoak. **Joan Mari Irigoien**
Aire orbange zeharrargiak, eguzki printzen aurreko argixoari basoko zuhaitz bakoitzari bere margo eta ukitu propialak eransten uzten dio, xuabe-xuabe aldatuz, lehor, hezedura janean, **xurgaka**. **Pello Zabala**

xurgakari *izond* xurgatzen duena.

Magina mugimendu **xurgakaritan** uzurtzen zitzaioela sentitu nuen eta bertan bota nuen nire esne beroa. **Aitor Arana**

xurgaketa 1 *iz* xurgatzea. ik **xurgaketa**.

Digestioa eta **xurgaketa** heste meharrean burutzen dira; produktuen birbanaketa, berriz, gibelak kontrolatzen du. **Irene Aldasoro**

2 (hitz elkartuetan)

Eguzkia onuragarria da azalarentzat, D vitaminaz hornitzen baitu, hezurren kaltzio **xurgaketa** errazten duelako, eta errakitismo zein osteoporosia ekiditeko lagungarri delako. **Berria - Harian**

xurgaldi *iz* xurgatzen den aldia.

Lehenbiziko **xurgaldian** bake-une labur bat antzeman nion, ke goxoaren oroitzapen berritua birrikak zeharkatzen. **Aingeru Epaltza**
Hiru **xurgaldi** lasai emateko denbora izan nuen doi. **Aingeru Epaltza**

xurgamen *iz* xurgatzen ahalmena.

Hona zergatik: ur lurrunezko molekula batek hamasei mila aldiz **xurgamen** handiagoa du aire lehorrezko molekula batek baino, ur lurruna da beraz gure bero biltegia. **Josu Zabaleta**

xurgapen *iz* xurgatzea. ik **xurgaketa**.

Haurdunaldia ebakuntza gelan eta **xurgapena** eginda eteten da. **Luis Elberdin**
Anestesia lokala jarri eta **xurgapen** simple bat eginda eteten da haurdunaldia. **Luis Elberdin**
Ikusi dugu aintzakotzat hartzeko moduko **xurgapenik** jasan gabe igarotzen direla erretinara iristen den argiaren lau bosten. **Irene Aldasoro**

xurgatu, xurga(tu), xurgatzen du *ad* zerbaitek daukan isurkariak mintzatutz, ezpainen bidez eta ahoan hutsartea eginez erakarri; zerbaitek bere baitan inguruko isurkaria hartu.

Ezin da naturak **xurga** dezakeena baino gehiago kutsatu. **Berria - Gaiak**
Une batez Harry zur eta lur geratu zen, norbaiti arima ahotik **xurga** dakiokela pentsatuz. **Iñaki Mendiguren**

xurgatzaile 1 *izond/iz* xurgatzen duena.

Zergatik ezin zen ura jaso eta igan, ponpa **xurgatzaile** baten bidez, hogeitubitumetarik goiti. **Joan Mari Irigoien**
Punpa **xurgatzaile** bat eginez. **Jon Muñoz**
Izain **xurgatzailetzat** zeukaten gehienek Lenehan, baina, fama hori gorabehera, azkarra eta ele-ederra zenari esker gorde ziren lagunak erabat haren kontrako jarrera hartzetik. **Irene Aldasoro**
Birgharen energia **xurgatzailea** etsai bat bestearen atzetik herrestan eramaten hasi zen gero eta zurrumbilo zabalagoan. **Joanes Urkixo**
Berehala jarri zitzaizkien alde era guztietako **xurgatzaileak**. **Joxerra Garzia**

2 irud/hed

Kapital naturala, hondar produktuen **xurgatzaile** izaki, gizakiak sortutako kapitalaren osagarria ere bada. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**
Multinazional **xurgatzaileen** nagusitasunaren kontra, munduko nazioen elkertasuna eraiki dezagun. **Herría**
Sinets al zitekeen, benetan, titi bizkarroi mintzo-entzumen **xurgatzaile** haiena? **Karlos Linazasoro**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arrosa-**xurgatzaileak** zebiltzan. **Juan Garzia**
Orain ikusi dugu nola Herman E. Dalyk kapital naturala aipatzen duen, natur baliabideen hornitzaile eta hondakin **xurgatzaile** gisa. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa elkarketak izenondo balioa duela)

Izan leitekez azeriak edo iratxo odol-**xurgatzailea**, eta zuzendariaren baimena behar dot olategiaren jiran sorginkeria bat ipintzeko. **Iñaki Mendiguren**
Loa pentsamendu fagozitatzailea da, bizitza **xurgatzailea**. **Sonia Gonzalez**

xurgatze iz

Dementorren **xurgatze** -hots zatatsuak desagertzen ari ziren. **Iñaki Mendiguren**
Hinkypunkak **xurgatze** -hots beldurgarri bat egin zuen kristalaren kontra. **Iñaki Mendiguren**
Biztanle gutxiko (eta, hortaz, **xurgatze** -ahalmen urriko) herrialdeetara. **Koro Navarro**

xurgauspo iz xurgatzeko auspoa.

Haizagailuaren maskorra irekirik **xurgauspoa** martxan jarri, huts-eteteko itxi, eta ponpa gelditu zuen. **Juan Garzia**
Lanzak, sua itzali, irabiagailua eta **xurgauspoa** gelditu, eta huts-eteteko ireki zuen. **Juan Garzia**

xuri (654 agerraldi, 50 liburu eta 257 artikulutan) 1 izond adkor zuria. ik txuri.

Munduko irri politena: bere hortz **xuriek** itsutu egiten naute! **Ramuntxo Etxeberri**
Bular biribil **xuri-xuriak** ageri zitzaizkion paparraldearen gainetik. **Joxan Elosegi**
Atorra **xuri** eta galtza beltz, gaitzeko dotorezian agertzen dira. **Piarres Aintziart**
Ator **xuri** luze bat zeraman tipo mehe batek. **Ramuntxo Etxeberri**
Galtza arin **xuriak**, marra urdin bertikalekilakoak. **Eneko Bidegain**
Hemen gizonaren gorputza bere ederrenean agertzen duk, bere jauntzi **xurietan**, izerditan berdin. **Michel Oronoz**
Berria bazebilen SS-ek manurik ez zutela; batzuek bandera **xuria** altxatu nahi zutela eta besteek berriz azkeneraino atxiki, gu ere hilaraziz. **Marzel Etxehandi**
Petxero kontu beltz honek merezi du bere ordain hidalgo **xuria**. **Patziku Perurena**
Hona non argi goxo epel batean agertzen dela mutiko gazte bat zaldi **xuri** baten gainean. **Michel Oronoz**
Errusiar **xuriak** deitzen ziren bezala. **Ramuntxo Etxeberri**
Eskuin, bere etxe **xuriek**, herri bat, frango ttarroa. **Piarres Aintziart**
Atlas mendikate urruneko gailur **xuriak** ikustearekin batera, [...]. **Patxi Zubizarreta**
Mendi kaskoetan dagoen herresta **xuriak** oraino urdin dagoen zerua azpimarratzen du. **Piarres Aintziart**
Baba ale **xuriak** eta baba ale beltzak. **Patziku Perurena**
Txilar **xuria**, berriz, maitasun grinaren mantsogarri omen da. **Pello Zabala**
Dretxo hori erosi zuten hiruen artean 800 eskudo **xuriren** kontra. **Michel Oronoz**
Xuriak beltzen kontra eta beltzak **xurien** kontra sekulako partidak eginez. **Filipe Bidart**
Etxekoandreak ardo **xuri** bat atera zigun. **Josu Zabaleta**
Arno **xuri** idor bat bainan hautua, biziki ona! **Menane Oxandabaratz**

2 (predikatu gisa)

Egia elurra bezain **xuri** eta ederra dela! **Michel Oronoz**
Biloa lodia eta **xuria**, kopeta ildo luze eta barnatsu zenbaitek zilatua. **Michel Oronoz**
Zaldiak beti, lau aztalak **xuri**, aparteko bizitasunaren adierazle. **Patziku Perurena**
Haren zaldiak -atzitu ezinak- lau hankak omen **xuriak**. **Patziku Perurena**
Aurpegia desegina zuen, **xuri-xuria**, iduri akidura handi zerbaitek jana, begiak aldiz gorri-gorriak. **Janbattitt Dirassar**

3 irud/hed

Baziren lehenago Lapurdin sabel **xuriak** eta sabel gorriak, batzu bertzeen kontra jokatzeko zirenak, **xuriak** duda izpirik gabe jende onak, gorriak, aldiz, etsaiak, hitz batez gaitxaginak. **Herria**
Joana zen Ilargi larru haren azpian, betortzen ukaldi gutzit zehatz haien, salto handi haien, artazi-jauzi basa haien, irribarre **xuri** eder haien azpian. **Joxan Elosegi**
Familiaren kontsolamendu eskariari erantzun dut ele **xuriz**, ene ahotsaren oihartzun kiretsa aditzen nuela. **Piarres Aintziart**
Ez zaitzaten inork ele **xuriz** iluratu. **Anjel Lertxundi**
-Gaurko gizonak ez daukate hitz **xuria** besterik, eta inori kendu ahal diotena. **Irene Aldasoro**
Haize **xuriak** ile bakanak mugiarazten zizkiola. ik haize 29. **Aingeru Epaltza**
Haize **xuri** batek eguneko berroa ahantzarazi nahi zuen, baina horrek ez zidan aldartea hobetzen. **Aingeru Epaltza**
Egiaz, beldur naiz "arrazismo **xuri**" hau franko zabaldua dagoela hemengo demokraten artean. **Joxe Azurmendi**
-Hori inoiz gertatzen baduk, azken dolarra ere joka dezake ez dela ez ilargi **xuririk** ez ele-melerik izango. ik ilargi 19. **Irene Aldasoro**
Bistan da irri **xuri** batekin egin nion galde hori... **Marzel Etxehandi**
Gaurko hego **xuriak** argitu du mendia. **Piarres Aintziart**
Hortako da erraiten bakartasuna tortura **xuria** dela. **Filipe Bidart**
Boz bat kontra, komunixtarena, sozialixtek eta abertzaleak boza **xuri**. **Herria**
Hau baztertua izan da: 313 ez, 29 bai, 2 **xuri**. **Herria**

4 eskuindarra.

Solas horrek egin du bide geroztik, baina gure frantses pentsalari, kazetari, irakasle, apezpiku, diputatu **xuri** ala gorrien gogoak ez dira hainbat aldatu. **Piarres Xarriton**
Katolikoak, protestanteak, **xuriak**, gorriak, liberalak, karlistak, abertzaleak. **Itxaro Borda**
Kaseta guziek ongi etorria egin zioten, gorriek errepublikatzailea zelakotz, **xuriek** apezpikua zelakotz. **Xipri Arbelbide**
Gerla beroenean zen **xuri** eta gorrien artean. **Xipri Arbelbide**
Autorea, bera ere "gorri" (ez, alegia, "**xuri**"; beraz, garai hartan, "progresista", liberala). **Pablo Sastre**
Bestenaz ere esneketaria "gorria" omen baitzen, jendeak hala zioen segurik, eta ene aita aldiz "**xuria**". **Janbattitt Dirassar**
Garai haietan **xuri**-gorri, eskola publiko-eskola katolikoaren arteko borrokak famatuak ziren. **Xipri Arbelbide**

5 (izenondo elkartuetan)

Goxokiak ageri ziren, sare-poltsa **xuri**-hori bati itsatsiak. **Joxan Elosegi**
Aita Gojenola, ile ezin zuriagoak, haur baten azal **xuri**-gorria, asaldatu egiten dute apur bat ikasleen hitzok. **Iñaki Iñurrieta**
Printze **xuri**-urdiaren zain luzaz egondako neskatxa nancy baten desengainuarena. **Iñaki Segurola**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Urtea akitu baino lehen behor gazte mutur-**xuri** bat oparitu zidan. **Aingeru Epaltza**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Garaziko gain haietan, laino beltz eta pisuak, elur **xuri** peza batzuk arteka erakustera utziz. Piarres Aintziart
Euskaltzale gorri edo **xuri** multzo batek asmatu zuen Victor Hugok Populu xarmant eta apur bat basaren fama eman zion Euskal Herriari erakustoki xume baten eskaintzea. Piarres Xarriton

• 8 iz kolore xuria.

Klasikoa zen haren janzkera, xuhurra: beixaren tonuetan garai gehienetan, urdin, **xuri** eta gorriz udaberrian. Joxan Elozegi

Xuriz jantzi Herio dailuduna hartu dut bide lagun. Piarres Aintziart

Gojenola, ordura arte bere **xuri**-gorrian xalo, asaldatu egin dute hitzok apur bat, baina apenas antzeman zaion. Iñaki Iñurrieta

9 aho-xuri

Hitz errazekoa, aho-**xuri** eta ele-ederra. Joan Mari Irigoien

-Ea, aho-**xuri**, ezti ezak oraindik gehiago mingain likits hori! Anjel Lertxundi

10 xuri-gorri (orobat xurigorri g.er.) izond adkor zuri-gorria.

Udaberriari aurre hartuz, bero apur bat zainetan sentitu zueneko, lore **xuri-gorri** txikerrak hantxe zituen. Pello Zabala

Zer gauza ederra ikustea kirol zelaia jendez betea jauntzi **xuri gorritan** eta ere ikustea errugbia jokatzeko zela futbolak jokatzeko den zelaian. Herria

Uhain **xuri-gorriak** denak gairitu ditu Parisen. Herria

Gojenola, ordura arte bere **xuri-gorrian** xalo, asaldatu egin dute hitzok apur bat, baina apenas antzeman zaion. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arno xuri (3); **arropa xuri** (4); **ator xuri** (5); **atorra xuri** (4); **bezain xuri** (3); **boz xuri** (7); **boza xuri** (19); **boza xuri eman** (11); **elorri xuri** (4); **elur xuri** (4); **elurra bezain xuri** (3); **errauts xuri** (3); **harrri xuri** (5); **irri xuri** (3); **jantzi xuri** (3); **jauntzi xuri** (4); **larru xuri** (3); **oihal xuri** (4); **soziallaxtek boza xuri** (3); **titita xuri** (3); **ur xuri** (4); **urde xuri** (3); **urde xuri ta** (3)

xuri bozkatu (7); **xuri bozkatu dute** (3); **xuri bozkatzeko** (3); **xuri eder** (5); **xuri eder baten** (3); **xuri edo ez** (4); **xuri eman** (11); **xuri eman dute** (5); **xuri eta beltz** (3); **xuri eta gorri** (4); **xuri eta gorritz** (3); **xuri gorriek** (3); **xuri ta beltzak** (4); **xuri ta gorritz** (4); **xuri urdinak** (5); **xuri urdinek** (4); **xuri urdinekin** (3); **xuri xuri** (3); **xuri xuria** (7); **xuri xuriak** (3)

zaldi xuri (6)

elorri xuria (5); **haize hego xuria** (3); **hego xuria** (5); **tortura xuria** (6); **urzo xuria** (3); **xuri xuria** (7); **xuria deitzen** (3)

hego xuriak (3); **xuri xuriak** (3)

jauntzi xuritan (6)

denak xuriz (3); **xuriz bezti** (6); **xuriz beztiturik** (4); **xuriz jauntzia** (3)

xuri-beltz (corpusean xuribeltz soilik) izond adkor zuri-beltza.

Buru lurrera makurtu aldiro bere tntor lilugarria abaniko **xuribeltz** baten moduan xabalduz. Patziku Perurena

Bere lumaje **xuribeltz** gorrixka erakutsiz. Patziku Perurena

xuri-berdaxka (corpusean xuriberdaxka soilik) izond adkor zuria eta berdaxka.

Lihozko izara **xuriberdaxka** mehe batez estaliak. Patziku Perurena

xuridun izlag

Eta horra, Nizeko itsas-hegian, aireportua bere hotel eta jauregi iguzkitsu dirdira **xuridunetan**. Herria

Iri zabal eta hortz **xuriduna**. Ramuntxo Etxeberri

xurigorri ik xuri 10.

xurikeria iz adkor zurikeria.

Bide okerrera eramango ditu **xurikeriazko** promesez ituna hautsi dutenak. Elizen arteko biblia

Eta horrelako xaboi **xurikeriazko** apar mezua. Pello Zabala

xuriketa 1 iz ipar arropa zuriaren garbiketa, lixiba egitea. ikzuriketa.

Usaiako garbiketak eta **xuriketak**, beroan bero. Piarres Aintziart

Karrikako emazte gehienek hor egiten zituzten bokatak eta **xuriketak**. Herria

Harraskan **xuriketak** egiten ari da erromes bat. Piarres Aintziart

Han berean, latsa tokian, **xuriketak** biziki errexki egiten ziren, dutxuloa zabalik sobera denbora utzi gabe, ura debaldetan enpoildu gabe. Herria

Nik dutxa fresko bat hartu dut, **xuriketak** egin ditut, baratzean xukatuko baitzaizkit berehala. Piarres Aintziart

2 garbitu den arropa zuria.

Gibelatekoan xetre ikusten ginuen petikora luzea behar zelarik iragan **xuriketa** bustiekin. Herria

Orduan egitekoa dute alabainan beren arteko boketa, azken egun hotan oraino **xuriketa** meta ederra bildurik! Herria

xuriketategi iz ipar xuriketa egiten den tokia.

Sukaldeak, 60 000 pinta salda egin ditzaketanak, **xuriketategia**, linjeria, dutxak modernak dira eta frango ontsa pentsatuak. Marzel Etxehandi

xurikin ik zurikin.

xurinabar ik zurinabar.

xuriska ik zurixka.

xuritu¹, xuri(tu), xuritzen du *ad ipar* xuriketa egin.

Puska guziak eraman behar ziren, dutxan pasatu, gure soinekoak **xuritzera** igorri, eta ontsa berotua zen etxazpian gaua pasaturik gure xukadorraren barnean, soineko **xurituak** eskuratu, denak nahasiak ziren animaleko meta batetik bereizirik. **Marzel Etxehandi**
Sari eder batzu badira irabazteko: telebixta, **xuritzeko** maxina, atzarki, xerriki, arno, xingar eta beste. **Herria**
Bokata **xuritzea** = lixiba egitea. **Xipri Arbelbide**

xuritu² ik zuritu.

xuritze *iz ipar* xuriketa egitea.

Ez da harrek egiten ez zuen lan arrunt eta bortitzik; ala irute, ala ehaite, ala bokata **xuritze**, orotara ekarria zen. **Xipri Arbelbide**
Otoi, balin baduzue zuen etxetan edo inguruan haur zaintze, arropa **xuritze** eta lisatze, jateko egite eta zerbitzatzeko, egin lezake omore onean. **Herria**
Xuritze lan hori ez dugu beti egin etxetik hain urrun. **Herria**

xurixka ik zurixka.

xurpail ik zurbil.

xurreria ik xuhurreria.

xurrumurru *adlag adkor* zurrumurrua.

Giro hartan, eta jangela betetzen zuten **xurrumurruekin**, Harryri iruditzen zitzaion kanpoan zegoela lotan, haizexka arin batek urrumaturik. **Iñaki Mendiguren**
Sekretuek eta **xurrumurruak**. **Fernando Rey**
Umea inudearekin esertzen zen pikondoaren azpian eguerdian, itsasoa kemenik gabe **xurrumuruan** ari zenean. **Xabier Olarra**

xurrumurruka *iz adkor* zurrumurruka.

Gure amonak gogaitzen gaituenean, aitona niregana jiratu eta **xurrumurruka** esaten dit: [...]. **Jesus Mari Mendizabal**

xurrunga ik zurrunga.

xurru

1 xurru egin zurrupatu.

Zurrupatu, lamikatu, zupatu, miaztu, txupatu, miatzkatu, mizkatu, milikatu, zurgatu, hurrupatu, edoski, murduskatu, **xurru** egin behar didazue, ekin zion osterara ere B-12k, denok ongi konprenitzea nahi zuela argi ikus genezan. **Jon Alonso**

xurru (*orobat xurru g.er.*) *iz adkor* zurrupa. ik hurrupa.

Buru atzerantz botaz, ardoa **xurru** txikietan edanez. **Xabier Olarra**
Limoizko freskagarria **xurru** laburretan edaten. **Patxi Iturritegi**
Ura edatea **xurru** tipika kontseilatzen dute hor gairi. **Herria**
Likoreari **xurru** bat egin ondoren, esan zuen: [...]. **Xabier Olarra**
Monak noizik behin **xurru** bat hartzen zuen, eta ni haiei so nengoen edaten zuten bitartean. **Fernando Rey**

xurrupada *iz adkor* zurrupada.

Xurrupada hark luze jo zuen, eta ni bitartean hantxe egon nintzen eserita berari begira. **Xabier Olarra**
Begiratu, beretzako edaria hartu eta **xurrupada** eman zion. **Xabier Olarra**

xurrupaka *adlag adkor* zurrupaka.

Xurrupaka hasi zen edaten. **Xabier Olarra**

xurrutu, xurru(tu), xurru(tu) du *ad adkor* zurrupatu. ik hurrupatu.

Gelaren zati hutsenetik kontzertuari so, plastikozko baso erdi huts bat eskuan edota bortz segunduro **xurru**tu daramatela. **Eneko Bidegain**
Gozatu behar ditugun gertakariak, sagarno berria gozaten den bezala, bere fruitu gustu doi bat kiretsa eta doi bat azukratua **xurru**tu. **Herria**
Hirurogei urte eman dizkiola zinemagintzari eta eman aditza orain bere zentzu osoan erabil daiteke, lanbide honek, utziz gero, odola eta linfa ere **xurru**tu baitizu, hain da ederra, interesgarri eta estresantea. **Berria - Kultura**

xurrupi ik xurrupa.

xurrusta iz turrusta, zurrusta.

Eihera ikusteko, tokiko lurraren ikertzeko, ur-hegiko abere eta landareeri ohartzeko, uraren bidea jarraitzeko: Amezpetu, Aran eta bertze erreken zatiak ulertzeko eta heien ondoan eginak izan diren lanak kontuan hartzeko: naza, palak, **xurrusta** eta turtuilak... **Herria**

xurrut iz adkor zurruta.

Kafea **xurrut** batean hartu, jaiki eta bostekoa luzatu nion. **Edorta Jimenez**

Ardoari **xurrut** leun bat egin nion. **Edorta Jimenez**

Ardoari **xurrut** leun bat jo nion. **Edorta Jimenez**

Kantu eta **xurrut** mahaira jarririk daudela, haien ahotsak gero eta ozenago bilakatzen dira. **Xabier Montoia**

Zeldan ez zen **xurrutarik**, egarritzen zirelarik ur xorta baten edateko edota goizetan ahoa eta aurpegiaren xafarrikatzeko. **Eneko Bidegain**

Gorotz harrotzailea, herriko xeblere gixajoren bat izaten zen jeneralean, mantenu eta **xurrut** truke aste baterako edo etortzen zena. **Patziku Perurena**

Alexandro, bere ekintzengatik "Handi" izenaren jabe egin zena, **xurrut** zale samarra ote zen diote. **Patxi Ezkiaga**

xurruta iz txorrota.

Zeldan ez zen **xurrutarik**, egarritzen zirelarik ur xorta baten edateko edota goizetan ahoa eta aurpegiaren xafarrikatzeko. **Eneko Bidegain**

Luixa Daguerre etxekandereak itzulikarazi du bere errota erakutsiz errota hori nola erabili zen uraren indarrarekin eta zer gisaz irina heldu zen **xurrutan** beheiti. **Herria**

Bidarrai-n ginelarik ez ginuen ezagutzen "robinet" dutxuloa **xurrutan**, zabaldu orduko ura nahikoa turrutan ixurtzen duena. **Herria**

xurrutada iz adkor zurruta.

Behatzak bihurritzen zizkiola, beste eskuaz ardo kopatik **xurrutada** laburra edan eta hala esan zion: [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

xurrutarri iz harraska

Isil-isilik joan ziren, izkinan bestaldera igaro eta andereñoa gelditu egin zen harrizko **xurrutarri** handi eta ezin itsusiago baten aurrean. **Iñaki Mendiguren**

Eskuak **xurrutarritik** irteten zen ur hotzaren azpian ipinita. **Iñaki Mendiguren**

Hura pasahitza zen, noski, **xurrutarriak** bat-batean bizia hartu eta alde batera salto egin baitzuen. **Iñaki Mendiguren**

Eskailera kiribil mugikorrean behera joan ziren, eta **xurrutarriaren** ondoan agertu ziren iluntzen ari zen korridorean. **Iñaki Mendiguren**

Katedralak **xurrutarriak** aierutsuenak ere xurgatzen ditu, bere abestian. **Josu Zabaleta**

xurtar iz

Galdur aldean, berriz, erdiko **xurtar** nagusiaren akaberan, lore morddo banari eusteko xortanak ageri dituzte bi biak, gordasol aihenen antzera zabalduak. **Patziku Perurena**

xuru-xuru iz

Garraio makinari alde guztietarik kea bazerion eta **xuru-xuru** eztiak hautematen zitzaizkion. **Itxaro Borda**

xurxurlatu ik xuxurlatu.

xut 1 adlag adkor zut. ik xutik.

Marik sentitu zituen bere gorputzeko ileak **xut** jartzen. **Elena Touyarou**

Nahikoa izan zen bere galtzontzilo zabaletan zakila **xut** jartzeko. **Patxi Zubizarreta**

Gogoa erne gordetzeko eta burua **xut** atxikitzeko. **Filipe Bidart**

Nahi ala ez, beharriak **xut** nituela eta zainak airean, ari ziren ari denak, bakoitza bere aldiari. **Piarres Aintziart**

Menperatuari izpiritu ahuldua ernatu zitzaion eta gorputz ukurtua **xut** jarri zitzaion, oldartuz. **Elena Touyarou**

Absidearen alboetan, urrezko zutabe batzuk zeuden sabaitik zintzilik, zutoin zilarrezkoak zeuden zoruan **xut**. **Anjel Lertxundi**

Atleta bat, bizkarra **xut**, besoa tinko, eskua fermu ondoan. **Piarres Aintziart**

Frango gazte zegoen, orratza bezain **xut** gazteenak seminarioan sartu berriak ziren. **Marzel Etxehandi**

Burua **xut** ari naiz igerian, lepoa eta agian bizkar gaineko giharrak zurrun, gogor. **Iñaki Iñurrieta**

Nola atxik burua **xut**, komuneko uretik edaten zuela erraitean. **Eneko Bidegain**

Ondoan, **xut**, zuhaitz bat, ez haatik gure haritz horietarik bat, bainan palmondo bat. **Herria**

Patar gogor eta **xut** askotan gaindi, joanden igandean maratoi gisako lasterraldi gaitza egin da mendian, Zegamatik Aizkorriat. **Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Asier buru-**xut** iragan da haien artean, aldi berean kasu emanez. **Aingeru Epaltza**

• 3 izond

Harrigorri, orratz **xuta**, Autzaren zaindari leiala. **Herria**

Lainoak ez zidan ikustera uzten zamariaren belarri **xutetatik** aise ere haratago. **Aingeru Epaltza**

Beti nago eskaler **xut** eta ilun horietan ez ote den norbait izanen. **Janbattitt Dirassar**

Estrenatu zen kapera berri bat, bidearen ezkerretatik, arbela teilatu **xut** batzuekin. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Dotzena bat metra gorako arkaiz **xut** baten kaskoraino. **Herria**

Aldaparen zati **xutenari** goiti abiatu aitzin, astoa askatu zuten. **Elena Touyarou**

xutirikako ik xutik 3.

xutitu, xuti(tu), xutitzen 1 da ad adkor zutitu.

Kattalinek ordulariari so egiten dio eta harriturik, **xutitzen** da. Eneko Bidegain
Tanpez zure gibelean jarriak dauden jendeak **xutitu** dira. Ramuntxo Etxeberri
Xutitzen naiz, anartean doi bat gogortua nintzelarik. Piarres Aintziart
Xutitu eta ateratzera noa baina zaintzaleak pasaia hesten dit. Filipe Bidart
Behatzaile guziek jar lekuetan **xutiturik** agurto dituzte zelai gainean beren izerdia gogotik eman duten mutilak. Herria
Mahaitik **xutitu** nintzen, eta kanporat joan alegia eta deusez. Janbattitt Dirassar
Hauek sakreka **xutitu** ziren, soinekoak xukatzen zituztela. Marzel Etxehandi
Lagun dezatela, guk ere parte hartuz, bizi mailean eta osasun mailean ere, berriz **xutitzera** doan herri pobre hori. Herria

• 2 du ad

Ez baitzuten merezimendurik gabe **xutitu** trinket hori herriko arduradun suhar batzuek herritarrentzat. Herria
Plazarat eremaiten dute zuhaitz edo arbola bat han **xutitze**ko eta han dituzte egiten beren rock kontzertu, karta joko eta guziak. Herria
Ez batek ez besteak ez dute orai gobernamentu iraunkor baten **xutitze**ko ahalik. Herria
Azkenean gobernu bat **xutitzen** ahaliko dute eta ez dituzte laneko gaiak eskas. Herria
Irakian munduko batasun haundi bat **xutitzera** entseatu zen George Bush amerikanoa duela bi urte pasa. Herria
Geroztik beti bidean da Irakia berri baten **xutitze**ko lehia eta xedea. Herria
Kony horrek nahi luke Kanpala gobernu bat ezarri, jainkotierra berak dionaz eta hamar manamenduen legea **xutitu** nahi duena, Liburu sainduetarik ateraia. Herria

3 (era burutua izenondo gisa)

Nitan dagoen abere **xutituak** baitaki sortzez eta jitez mugimenduaren berri. Piarres Aintziart

xutitzaile izond/iz zutitzailea.

Eta lehenik, nor izanen diren herri horren berriz **xutitzaileak**. Herria

xutitze iz adkor zutitzea.

1944 an, gerla ondoko berriz **xutitze** denborak baitziren. Herria
ONU deitzen den Nazione Batuen Elkartasun Mundialak ukanen duela Irakia berri bati buruzko **xutitze** -kargu "humanitarioa", erran nahi baita, osasun mailetik haste arrapiztu beharko diren sustagailuena. Herria

xuxen 1 izond adkor zuzena.

Baita egin ere makulu eta eskumakila dotore askoak gorosti lerdin **xuxenarekin**. Pello Zabala
Ezkerraldeko bidean, kurutze bat, naski bide **xuxenaren** seinale dena. Piarres Aintziart
Lopek huts egin zuen, baina bide bat ireki zuen, eta gaurko bide okerra biharko bide **xuxena** da batzuetan. Joan Mari Irigoien
Sistemak, aldi berean, bere buruari ere erakutsi behar dio kapable dela gaizkilea bide **xuxenetik** abiarazteko. Filipe Bidart
Ilgandean, Makean, komertsio **xuxenaren** besta. Herria
Joanden egunean, hango polizak bere saretarat bildu du, jestu gutiz azkenean, han egoiteko paperik etzuela, ez segurik paper **xuxenik**. Herria
Patar gogorrean, izpirituak indarra neurri **xuxenean** manatzen duela, eta zangoek aldiz izpirituari erantzun goxoan erreferatzen diotela. Piarres Aintziart
Beti arrapostu **xuxenak** laster emanez. Herria
Gaurko Britainiako problematikari behako **xuxen** eta xorrotx bat emanez. Herria
Eta nago [...] aurkitu dudala Hamleten zoramaren kausa **xuxena**. Juan Garzia
Hitza aristokratikoa da, eta ez du balio bide **xuxenik** gure hizkuntzan. Xabier Olarra
Zerikus **xuxena** izan zutela hartan bai aita Bartolomek berak eta bai gure amak ere. Joan Mari Irigoien
Arras inportanta edo garrantzitsua da hitzen erran-nahi **xuxenaren** jakitea. Menane Oxandabaratx
Euskara on eta **xuxen** batean. Pello Salaburu
12 presunek aurkitu dute pottokaren pisu **xuxena**: 123 kg. Herria

2 (pertsonei dagokiela)

Berenaz biziki gizon laketa eta **xuxena**, jendekina eta mintza-erretxa. Herria
Denetan gizon zintzo eta **xuxena** agertu da eta gainerat fede handikoa elizako urratseri arras jarraikia. Herria
Eta jende **xuxena**, xuhurra, onbera, ez al da funtsean, inoren zinezko izakerekin deus ikusirik ez duen apaindura xuriz biziata? Patziku Perurena
Cenci familiaren ospe handiak itsutuko ez zuen epaile **xuxen** bat. J.M. Olaizola "Txiliku"
Xuxena eta leiala. Janbattitt Dirassar

3 (predikatu gisa)

Bai-eta ohartu ere holako "egia" batzu badirela ximpleegiak **xuxenak** izaiteko! Herria
Ebaki-kolpeak **xuxen** eta garbiak, talibans delakoen kontra igorriak eta ez Afganistandarren kontra. Herria
Gobernua aldiz beti bere hartan, agertu dituen xedeak egokiak eta **xuxenak** direla, behar-orduen arabekoak. Herria
Ez dakit **xuxena** den fama hori, zeren eta denen buru ez dut uste hazpandarrak besteak baino gormantago diren. Menane Oxandabaratx
Astronomoen konduak **xuxenak** badira. Herria
Inketa eta **xuxena** da omen. Piarres Aintziart
Epaimahaian behar da izan ahal bezain **xuxena**. Menane Oxandabaratx
Zer da **xuxen** Ezpeletako egun hori? Herria
Nor munduan zuek baino aberkoiago, autozentratuago, **xuxenago** eta xantuago? Iñaki Segurola

4 (adizlagun gisa) zuzen.

Harry Blount, makila bezain **xuxen**, besteengandik pixka bat bakandurik zegoen, kapelua erantzirik. Karlos Zabala
Izokinak gure ibaietan gora edo enarak habiara **xuxen** gidatzen dituena bezalako indar bat. Ziztuan atera eta **xuxen** aroztegiara jo zuen. Juan Garzia
Ostikoen ondotik, xehaturik, deabrua gostatzen zitzaion urratsari **xuxen** jarraitzea. Pazientziak txirrika guztietako hariak **xuxen** gurutzatzen. Eneko Bidegain
Bertara eraman zituzten **xuxen** emaitzak, hamarrenak eta eskaintza sakratuak. Elizen arteko biblia
Ildoa **xuxen** daraman goldelaria baino **xuxenago** ibiliko ziren guztiak. Joan Mari Irigoien

Horregatik, oker dagoelar ere, **xuxen** zagok, orekaren legeak eta arauak xuxen dituelako. [Joan Mari Irigoien](#)

Begi bat oker eta bestea ez oso **xuxen**. [Patxi Ezkiaga](#)

Mutikoak ikusten du hortarik ez duela burua galdua eta **xuxen** dabilala. [Michel Oronoz](#)

Inguruko baserrietako mutil haiek, ordea, berehala onartu bide zuten argudioa, eta Jeneralaren mezua **xuxen** ulertu: Don Carlos eta Lizarraga zirela buruzagi bakarrak.

[Txillardegi](#)

Bai eta hiztegi bat ere, "jatorrizko testua **xuxen** ulertzeko lagungarri, zeren oraindik ez baitakit latinik". [Juan Garzia](#)

Bertara eraman zituzten **xuxen** emaitzak, hamarrenak eta eskaintza sakratuak. [Elizen arteko biblia](#)

Forentseek ez zekiten **xuxen** burdinen uherrak geldotu edo bizkortu egiten zuten gorpuaren usteltzea. [Hasier Etxeberria](#)

Ez dakit **xuxen** nola den ere. [Menane Oxandabaratx](#)

Ez zekien **xuxen** zergatik egin zuen. [Elena Touyarou](#)

Ez nekien **xuxen** zer gertatu zitzaidan baina beldurren beldurrez ez nintekeen negar egitetik geldi. [Daniel Landart](#)

Geroaren berri **xuxen** dakiena beti ixilik dagoela. [Herria](#)

Ez dela hori hain errex, egiazko hastapena non den **xuxen** finkatzea! [Janbattiit Dirassar](#)

Hemen biek jotzen zuten eta frango **xuxen** hastetik, bereziki garaztarrak, hunek abantaila: 6-0, 14-7, 24-17. [Herria](#)

Zer idatzi zuen **xuxen** Moisek, harek egin bazuen bederen? [Piarres Aintziart](#)

Eta amak, oroit naiz arras **xuxen**, erakutsiak zizkidan Erromako Bidearen izarrak. [Piarres Aintziart](#)

Txistu eta tuntunen soinuk entzun baitzituen jendearen gonbidatzen dantzara, edo **xuxenago** errateko dantzetara. [Elena Touyarou](#)

Ekuazioa **xuxen** betetzen zen soluzio diluituetan. [Juan Garzia](#)

-Zer erran nahi duzu **xuxen**? [Elena Touyarou](#)

• 5 adlag (kopuruekin) justu, zehazki.

1945-an bururatu baitzen, duela **xuxen** 60 urte. [Herria](#)

Hogoi garren mendeak **xuxen** hiru urte. [Herria](#)

Duela **xuxen** berrogi urte Pazko biharamunarekin hor bildu baitziren Enbata-ren sortzaileak. [Herria](#)

Urte bat **xuxen** Donibane Garaziko zitadelaren karrikan behera lehen urratsak egin nituela. [Piarres Aintziart](#)

770 kilometro **xuxen** ditu bideak. [Piarres Aintziart](#)

Lau eta erdiak: abiatu beharko, 14 kilometro **xuxen** gelditzen baitzaizkit egiteko. [Piarres Aintziart](#)

91 beilari **xuxen** izan dira aldi huntan. [Herria](#)

0,737 balitz prezio **xuxena**, azken zazpikoa kendurik onartua litake pasatzea 0,74-etarat. [Herria](#)

6 puntuan. ik puntu 23.

Zortziak **xuxen** abiatu naizenean. [Piarres Aintziart](#)

Attatea ostatuan, aratsaldeko 2-ak eta erditan **xuxen**. [Herria](#)

Aratsaldeko bi orenetan **xuxen** hasirik. [Herria](#)

Bi orenetan **xuxen**, jantzi berezia zuen enplegatu batek [...] gela tarro batera sarrarazi gintuen. [Daniel Landart](#)

Meza 11 orenetan **xuxen** izanen da. [Herria](#)

Arratseko 9tan **xuxen** hasiko! [Herria](#)

7 hain xuxen

Hain xuxen, parkean sartzean, horra aita Ildefonso kaperatik ateratzen ari. [Marzel Etxehandi](#)

Bizkarra zakurik gabe, arin, hirian nabil, ezker, eskuin, bihar goizeko utziz ikustaldiak, biga **hain xuxen** Santa Maria de la Regla eta Real de San Isidoro basilika. [Piarres Aintziart](#)

Eta Frantsesak **hain xuxen** nekez bada nekez hupatu dira finala laurdenetarat. [Herria](#)

Eta gure lurrez **hain xuxen** badugu gaurko egunean arrangura frango. [Herria](#)

Gaur dira, **hain xuxen**, hamar urte bera joan zela, bera, nire ondoan bizi zen hura, nire beso artean loak hartzen zuena gauero, gauero. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Hauxe jakin dut betirik, Lafittek berak salatutik: aita guarda zuela, **hain xuxen** Baigorriin sortua, Urdozko brigadan. [Herria](#)

Aitzakia atsegina, **hain xuxen**, egiazko problema bati ihes egiteko. [Daniel Landart](#)

Plaza horretan bertan, Konstituzioaren plazan **hain xuxen**. [Iñaki Iñurrieta](#)

Hor politika gaiak ziren, **hain xuxen**, Espainiako gerla denboran zen. [Menane Oxandabaratx](#)

Gu, ezkerreko geletatik hasi ginen, eta **hain xuxen**, eskuinaldera zegoen "Salon Mozart" deitutakoa. [Daniel Landart](#)

Bazuen, harekin, alsaziar lagun bat, **hain xuxen**, jantzien sailean lan egiten zuena. [Eneko Bidegain](#)

Baigorriarra: artzain, apezpiku eta marexalen herrikoa, **hain xuxen**. [Filipe Bidart](#)

8 hain xuxen ere

Hain xuxen ere orduantxe banatu berria ziguten otamena ene düsseldorfarrari eta bioi, betikoa: zukua, sandwich zuri-zuria eta letxuga berdea. [Joxe Austin Arrieta](#)

Barre egin nuen noski, baina laztandu ere bai, **hain xuxen ere** alarguntsa gazte bat laztandu eta kontsolatu ohi den bezala. [Joxe Austin Arrieta](#)

Bere lelo osoa, **hain xuxen ere**, hodeien gorespina zen, eta Jainkoarena, Jainkoa hodeien fabrikatzailea den aldetik. [Fernando Rey](#)

Herri honek nahi duen Euskal Herria hautatzeko eta eraikitzeko eskubidearen gauzatzera, **hain xuxen ere**. [Filipe Bidart](#)

Egur kirrinka entzun zuen, eta berehala ohartu zen ganbaratik zetorrela, bere buru gain-gainetik **hain xuxen ere**. [Aitor Arana](#)

9 xuxen izan da ad ipar zuzen egon.

Oraikoa, gaztek badute beren biltokia, eta **xuxen da**. [Herria](#)

Osaba **xuxen zen**, eta berak paradaz ederki baliatu nahi zuen, etxeko probetxu. [Elena Touyarou](#)

Hori ez dela manera, hori ez dela **xuxen**, idatzizko kasetaritzak ere zerbait laguntza merexi duela gaurko egunean. [Herria](#)

Xuxen zinen, hobeki pentsatzen da gorputza pausatutik eta horixe egin dut. [Elena Touyarou](#)

Hoinbeste makur eta hoinbeste miseria badelarik bestalde, **xuxen** ote **den** bada hola jokatzea? [Herria](#)

Kondua **xuxen da**: ez bat gutiago ez bat gehiago. [Marzel Etxehandi](#)

10 xuxen-xuxen izond

Joko bat ere badute muntatua, nork kausitzen duen ardi gasna eder baten pisu **xuxen xuxena**. [Herria](#)

Horra azkenean sargiako dorrea; lerro **xuxen-xuxenetan** sartzen gara. [Marzel Etxehandi](#)

Esperimentu-kate ongi antolatua da beren jarduera, non ordena **xuxen-xuxen** logiko batean kateatzen baitira urrats guztiak. [Juan Garzia](#)

Zuzendaria oso emakume ederra zen, dotorea, **xuxen-xuxena**. [Eskarne Mujika](#)

Zonbat hil ote ziren gerla horietan? ainitz zernahi gisaz bainan xifre **xuxen-xuxenik** ez da aise emaiten ahal. [Herria](#)

11 (adizlagun gisa)

Xuxen-xuxen joan nintzen osaba Joanikotenganat. [Joan Mari Irigoien](#)

Enricori azaldu nion nola ari zen han idatzirik zegoena **xuxen-xuxen** gertatzen. [Juan Garzia](#)

Unibertsoaren makina gaitzak berean jarraitzen du, **xuxen-xuxen**, geldigaitz. [Juan Garzia](#)

lloko artesia **xuxen-xuxen** egina; traje iluna, marra argiz ildaskatua. [Jon Muñoz](#)

Buztan lodi hura **xuxen-xuxen** nire barrenera amiltzen zen arte. **Karlos Zabala**

Ez dakit **xuxen-xuxen** kalkulatu nituen. **Xabier Olarra**

Haren margolanetan gertatzen dena ez da **xuxen-xuxen** ezabaketa neurotikoa, baizik elementu batzuen nabarmentze irudimentsu bat, areagotze bat. **Xabier Olarra**

Badakite behar den tokian orduan **xuxen-xuxen** egoten. **Gotzon Garate**

ik gorago 6.

12 **xuxen-xuxena** *adlag ipar* xuxen-xuxen.

Har **xuxen xuxena**, ta segi. **Piarres Aintziart**

-Bidea eskuin hartu behar dun eta gero **xuxen-xuxena** segitu. **Janbattitt Dirassar**

Hitzeman dirua **xuxen xuxena** jinen dela denbora poxi bat goiti beheiti. **Herria**

Badumende bat eta erdi, **xuxen xuxena** erraiteko 157 urte, aduana plantatua dagoela Ziburun. **Herria**

Perkain ohartzen da poliza xefa heldu zaiola **xuxen xuxena** berari buruz arrastatzera, keinu eginez poliza laguner. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Bidea goiti doa, **xuxen xuxena**, mahastiei buruz. **Piarres Aintziart**

Kurutze-Xuria noizkoa den badakigu **xuxen xuxena**, urtea idatzirik baitago harrian berean: 1616-a. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arras xuxen (6); **beti xuxen** (9); **bezain xuxen** (7); **bezen xuxen** (4); **denak xuxen** (5); **erran xuxen** (4)

ez da xuxen (5); **ez dakigu xuxen** (4); **ez dakit xuxen** (25); **ez dakite xuxen** (5); **ez dela xuxen** (4); **ez jakin xuxen** (9); **ez nekien xuxen** (4); **ez zekien xuxen** (5); **ezin erran xuxen** (4); **hain xuxen** (311); **hain xuxen ere** (13); **hain xuxen eta** (4)

konduak xuxen (6)

orai xuxen (4); **oraino xuxen** (6); **orenetan xuxen** (18); **orenetan xuxen hasiko** (5); **urte xuxen** (8)

xuxen ari (8); **xuxen bat** (4); **xuxen baten** (4); **xuxen betetzen** (4); **xuxen da** (13); **xuxen den** (7); **xuxen den bezala** (6); **xuxen ehun urte** (4); **xuxen erraiteko** (15); **xuxen ez dakit** (5); **xuxen ezin** (4); **xuxen hartu** (5); **xuxen hasiko** (21); **xuxen hasiko da** (9); **xuxen hasteko** (4); **xuxen hasteko gisan** (4); **xuxen heldu** (5); **xuxen jakin** (6); **xuxen jakin gabe** (4); **xuxen jakitea** (6); **xuxen joan** (5); **xuxen so** (4); **xuxen xuxen** (30); **xuxen xuxena** (46); **xuxen xuxena erraiteko** (6); **xuxen zen** (6); **xuxen zer den** (4); **xuxen zer gertatu** (6); **xuxen zergatik** (4)

bide xuxena (8); **gizon xuxena** (4); **xuxen xuxena** (46); **xuxen xuxena erraiteko** (6); **xuxena da** (4); **xuxena jakin** (5)

kondu xuxenak (4)

bide xuxenean (6)

kondu xuxenik (5)

xuxenarazi, xuxenaraz, xuxenarazten (*orobat xuxentarazi*) du *ad adkor* zuxenarazi.

Hemen nituen ere, duela hemeretzi urte bizikletaren aitzineko errotaren arraiak **xuxenarazi**, Piedrafitako patar luzean eroriko eder bat eginik, Elizaberriko Beñaten txirindularen gibebeko gurgila hunkitu nuelakotz. **Piarres Aintziart**

Frantsesez mintzatu nahi luke, eta ariketa batzuk **xuxentarazi**. **Marzel Etxehandi**

xuxendu, xuxen(du), xuxentzen (*orobat xuxent g.er.*) 1 da/du *ad adkor* zuxendu.

Huts zerbait egin baldin badut, Errege Jaunak erran diezadala **xuxentzeko**, zeren ene xedea guztiz garbia izan baita. **Piarres Xarriton**

Pentsatzen dut, zuekin erran nezazkeela, zuekin izanez eta bertzeek ere ni **xuxen** nindezaketela, zuk ere bazinukeela ni **xuxentzekoa**. **Menane Oxandabaratz**

Jean-Pierre Raffarin gobernuburuak dauka haatik makur hori dena **xuxenduko** dela ondoko urteko. **Herria**

Makur batzu baitira oraino **xuxentzekoak**, hala nola Xipre ugarteaz direnak Turkiaren eta Greziaren artean. **Herria**

Orduan hasi zait zekiena azaltzen, ene sentimentuak goxoki torratuz naski, ideiak **xuxentzen**, hots abstrakzio mundutik jautsarazten. **Piarres Aintziart**

[Liburua] debekatu zuela Inkisizioak, zenbait lerroaldi **xuxendu** arte. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Gero haatik **xuxendu** ditu bere solasak erranez, [...]. **Herria**

Entzunak entzun, iragarpenak ere, haizeen arabera **xuxendu** eta egokituko nituen beti. **Pello Zabala**

Hala, ez dik gu bezala okerrak **xuxentzen** ibili beharrik, egiten duen guztia zuxena delako. **Joan Mari Irigoien**

Ez da aski izanen gobernuak eskuz-esku plantatzea, beharko dute ere zinez kalkulatu makur batzu ez direla luzarat baizik **xuxentzen** ahalko. **Herria**

Xarhaiteko bidea, hor ere gauzak behar dira **xuxendu**, kabinet "Foucault-Difourg" hautatua izan da lanaren egiteko. **Herria**

- Buruan bertze zerbait zerabilela eta irri malizios bat **xuxentzen** zidala. **Joan Mari Irigoien**

2 (era burutua izenondo gisa)

Filosofiako kopia "**xuxenduen**" notak. **Piarres Aintziart**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gauzak xuxendu (5)

makurren xuxentzeko (5)

xuxenka *adlag adkor* zuxenean.

La Galère d'Or izeneko Cordeliers karrikako edandegi xumera joan zen, **xuxenka**, eta barne hura oihuka ari ziren gizonez mukurua aurkitu zuen. **Elena Touyarou**

xuxenketa *iz ipar* zuxenketa.

Xuxenketa: joandean astean, ez ginuen emaitza xuxena emana. **Herria**

Joko berri horrekin izanen dela oraino nahasketa frango eta ondotik saltsa ederrik, denen buru zernahi **xuxenketa** egiteko. **Herria**

Aitzineko igandean iragan bozkaldiaz **xuxenketa** bat egin behar dugu: Izuran ez da Arnaud Etchepareborde hautetsia izan, idatzia ginuen bezala, bainan Benoit Mongabure.

Herria

Ohartu dira lurra behin uste baino gehiago gozarik eta kondu **xuxenketa** guziak egin ondoan, herriaren parte hartzea doblatu behar zela. **Herria**

xuxenki (*orobat xuxentki g.er.*) *adlag* zuxen.

Partidak finalerdiekin hasi dira **xuxenki**. **Herria**

Iduritzen ziak beldur hori edo hobeki erran, arrangura hori ez dela arras **xuxenki** oinarritua. **Herria**

280 orrialdetan, ahal bezain **xuxenki** kondatzen du Euskal Herriko gataska egoera koropilatsua. **Herria**

Diru hori **xuxenki** emana izan da elkarteari. **Herria**

Eta hor dago **xuxenki** aterpea, zinez ederra. **Piarres Aintziart**

xuxent ik **xuxendu**.

xuxentarazi ik **xuxenarazi**.

xuxentasun *iz adkor zuzentasuna*.

Eskolak behar duela erakutsi girixtino hatsa, **xuxentasun** eta justiziaren bertute. Herría

Jainkoaren ezagutzak ekartzen du zuhurtzia, **xuxentasuna** eta zoriona. Herría

Joanito Dorronsorok bi milatik gora bertso-doinu bildu zituen Bertso-doinutegian, eta kubarrak ez dio **xuxentasunean** ataudar-zumaiarrari eramango. Andoni Egaña

xuxentki ik **xuxenki**.

xuxentze *iz adkor zuzentzea*.

Apezak **xuxentze** bat egin-arazi zuen, etzela deus holakorik, hilarrietako urik etzela nihundik jiten ahal iturri hortarat. Herría

Gerasto Kartiereko bidean **xuxentze** batzu baziren egiteko eta. Herría

Buxetaren **xuxentze** batzu ekarri dituzte. Herría

Auzapezaren zerrendakoak ez direnek diote heieri esker dela egin **xuxentze** hori. Herría

Ez du iduri **xuxentzeak** araberan izan direla. Herría

Denetako prestatuena Eslobenia da, hunek ez baitu pondu batean baizik **xuxentze** beharrik. Herría

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

xuxentze batzu (4)

xuxmur (*orobat xuxmuru*) *iz adkor surmurra*.

Latsaren **xuxmur** izuti etengabea ari, Arhane etxeraino hurbildu nintzen. Txillardegi

Errebiko urak beti ere **xuxmurruan** itsasorat ari. Txillardegi

Bezperatik txori eta hegazti, laino eta zibel meharrena, aire eta haize **xuxmur**, hostajearen postura... dena erreparatuko zuen baseritarrak hurrengo egunak zekarkeen eguraldia asmatu beharrenean behar nekez. Pello Zabala

xuxmuru ik **xuxmur**.

xuxperkeria *iz*

"Nerebixigarri" neskatxaren **xuxperkeriak** eta "Betigeldi" alargunaren leunkeriak, eta enperatriz anderea bere ezkutari Hipolitorekin maitemindua. Patxi Ezkiaga

xuxperraldi *iz adkor susperraldia*.

Eguzkiaren **xuxperraldi** ttikiak badizu astebete berritik dabilela. Pello Zabala

xuxtar *iz adkor zuztarra*.

Maimurko askaren aurrean eskuratu dut atzanean xorta bat; moxtu erdiko **xuxtarretik** eskuinez, galdur txuria baino hamabosten bat zentimetro beheragotik, eta ezkerrekora bilduz. Patziku Perurena

xuxtartu, xuxtar(tu), xuxtartzen da *ad adkor zuztatu*.

Bai esan behar dela, eguraldi makur eta umel busti hotzak, bere terkoan, behin eta berriz tenplea aldatuz, izotz printzak ximurtuz, edo epelez goroldio tximak **xuxtartuz**, liken ttikien zaintxoan kokkak gero urak profitatuz... kontua, azkenean, eguraldi egunerokoak, harriari berari ere jipoia ematen diola. Pello Zabala

xuxtartxo *iz adkor zuztartxoa*.

Porlanak ez baitu xirikurik ere uzten landareak bere **xuxtartxoak** sartu ditzan. Pello Zabala

Garia eta besteak ari dira, xuabe, isilean, erroak hartzen, **xuxtartxoak** luxatzen eta xendotzen lurrean. Pello Zabala

xuxtut *adlag ipar batez ere*.

Eta **xuxtut** bertze laguner entzunarazteko. Menane Oxandabaratx

xuxu-muxu 1 *iz adkor txutxu-mutxua*.

Hizki-mizki eta **xuxu-muxu** ulergaitz gertatuko zaie Jaunaren hitza. Elizen arteko biblia

2 (adizlagun gisa) ik **xuxu-muxuka**.

Hala moduz ari zaigu, hizki-mizki, **xuxu-muxu**. Elizen arteko biblia

xuxu-muxuka adlag txutxu-amtuxuka.

Entzuten nituen, ez erditaraino ez eta gutxiagorik ere, ez aurrez aurre nire kontra zetozela; baina atzetik **xuxu-muxuka**, ihesi eta disimuluan atximurka bezala, itzul nendin.

Imanol Unzurrunzaga

-Xangarin -esan zuen **xuxu-muxuka** -, agian ni mozkor arraila nagok eta mamuak ikusten ari nauk [...]. Pablo Sastre

xuxukatu, xuxuka(tu), xuxukatzen du ad xuxurlatu.

Polenta jan beharko diagu - **xuxukatu** zien-, ogia ahitu egin duk. Josu Zabaleta

-Goazen - **xuxukatu** zien Germanok. Josu Zabaleta

xuxurla 1 iz xuxurlatzea. ik marmar¹.

Bere hotsa oso mehea zen, **xuxurla** bat. Bernardo Atxaga

Tupustean, isiltasuna entzuten hasi nintzen ozen-ozen: gurasoei arazoak eta oinazea beste deus ekarri ez zien egoera baten **xuxurlak**. Anjel Lertxundi

"Che vuol dir", abesten du, ahotsa **xuxurla** baino doi-doi gorago. Oskar Arana

Zatozte! -dei egin die ikaskideei ahotsa **xuxurlaraino** apalduz. Patxi Iturritegi

Une batez **xuxurlak** baino ez ziren aditu. Mirentxu Larrañaga

Xuxurlak eta zotinak entzuten ditut. Juan Kruz Igerabide

Hura ilun zegoen, eta **xuxurla**, hego-hots eta begi distiratsuz betea. Iñaki Mendiguren

Ahotsen **xuxurla** entzuten zuen Harryk, baina ez zien inolako zentzurik hartzen. Iñaki Mendiguren

Zatika entzuten zen ahopeko elkarriketaren **xuxurla**. Jose Morales

Errekaren **xuxurla** entzuten zen. Bernardo Atxaga

Haizearen marmarra eta uraren **xuxurla**. Julen Gabiria

Berriro ere haizeak hostoekin sortzen zuen **xuxurla** entzuten zen garbi. Bernardo Atxaga

Kanta baten **xuxurla** ezpainetaratu zitzaidan. Aingeru Epaltza

Orduan sentitu nuen metala nire izterretan; guardia zibil baten **xuxurla** nire belarrietan, ez mugitzeko esanez. Berria - Euskal Herria

Itsasertz hau dena **xuxurlaz** betea da. Koldo Izagirre

ik beherago 6. Askoren artean

Adaxkek apurtzean ateratzen zuten kraska-hotsaz edo hostoen **xuxurlaz** gainera, ea beste hotsik entzuten zuten. Iñaki Mendiguren

Egunak igaro ahala gorpuzgabeko ahots haren **xuxurlarik** ere ez zen entzuten. Iñaki Mendiguren

Ulergarriak egiten zitzaizkien elkarren arteko irribarre, keinu eta **xuxurlak**, bataren aldarte-aldaketak sekreturik ez balu bezala bestearentzat. Anjel Lertxundi

Luze gabe entzun zuen gizonaren **xuxurla**: "Niregana itzuliko zara". Patxi Zubizarreta

Atera daitezela bertatik, kearekin eta "denbora alferrik galduaren **xuxurlarekin**" batera, hainbat gogoeta eta hainbat zenbaki. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gau giro epelak **xuxurla** xumea eragiten dio ontzietako masten artean dabilen aireari. Iruditu zitzaion **xuxurla** ahal bat zetorrela liburuetatik. Anjel Lertxundi

Eguerdi arrunt bat, tirainik ere apenas, uhinen **xuxurla** leuna soilik. Joxe Austin Arrieta

Animaliek, ostera, bask zein etxekoek, ez dute sonailurik behar, ez inude samurraren **xuxurla** bigunik. Xabier Amuriza

Vernerrek Tsiganoken **xuxurla** kartu itoa entzun zuen hurbil, belarran bertan. Jose Morales

Elkarrekin poema tristeak irakurtzen zituzten, **xuxurla** minduaz murmuriatuz. Fernando Rey

Zarata eta zalaparta horiek guztiek halako iratzartze bikain burrunbatsu baten **xuxurla** goxoaz betetzen zuten artean lokaturiko giro hura. Karlos Zabala

Haizearen fereka, pinudi hurbilaren **xuxurla** magikoa. Alberto Ladron Arana

Xuxurla txiki batzuk sentitzen ditu. Juan Garzia

Xuxurla isil eta asaldatu bat entzuten zuen. Iñaki Mendiguren

-Oso etxe polita daukazu -laudatu diot etxebizitza, tratularien **xuxurla** koipetsuan. Javi Cillero

-Jabetzen zarete zein arduratuta egon naizen? -esan zien Weasley andreak **xuxurla** beldurgarri batean. Iñaki Mendiguren

-Hobe duzu irekitzea, Ron -esan zion Nevillek, **xuxurla** herabe batean-. Iñaki Mendiguren

Barruko **xuxurlen** mundua azaleratzen dut nire margoetan. Berria - Kultura

"Konfidentzietarako egokia", pasatu zitzaidan burutik, Julien Sorelen eta Mathilde Rênalen maitasunezko **xuxurla** eta malkoak gogoan. Anjel Lertxundi

Uraren kristalezko **xuxurla** entzun zuen, soinu argi eta gardena. Agustín Otsoa

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berehala entzun zen ahopeko zurrumurru eta **xuxurla** -hotsa jangela osoan. Iñaki Mendiguren

Halako batean sentitu ninan nola hurbiltzen zitzaidan eta inguruan jiraka hasten erlauntza halako trinkoa zen **xuxurla** -berbaro hura. Juan Garzia

Xuxurla antzeko bat. Mirentxu Larrañaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ematen zuen Kaweah errekararen ur **xuxurla** portxeraino iritsi behar zitzaigula. Bernardo Atxaga

Etxe barruko kantuek eta orroek arestian ikusitako ur- **xuxurla** leunak estaltzen zituzten. Txillardegí

Pailazokeriarik ez!, oihukatzen zion, Ternik, bere mirespen- **xuxurlak** eginez. Fernando Rey

5 xuxurlan (28 agerraldi 9 liburutan) adlag xuxurlatzen, xuxurlaka.

Tarteka **xuxurlan** aritu da, eta otoitz egiten duenak bezala mugitu ditu ezpainak. Pello Lizarralde

Neskek kopeta ilundu zuen eta **xuxurlan** esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Ez zion Kirxa jaunari zeharrez begiratzeari utzi, harik eta, haren belarrira makurturik, **xuxurlan** galdegina zion arte: [...]. Patxi Zubizarreta

Kontu-kontari egon ginen ia denbora osoan, baina zu nola ote zeunden ikustetik nentorren batean, kanta horrexen **xuxurlan** aurkitu nuen zure aita. Anjel Lertxundi

Jendetza banatu egin zen, hunkituta **xuxurlan**. Iñaki Mendiguren

Sierra Maestra, **xuxurlan**, izarrez zintzilikatua. Jon Muñoz

6 xuxurlaz adlag xuxurlatzen.

Harengana korrika abiatzekotan zen, baina eskua ezarri nion besoan eta **xuxurlaz** esan, "Oraindik ez, Lucy". Oskar Arana

Sortutako barailaz baliatu zen Mathilde senarrari **xuxurlaz** esateko: [...]. Anjel Lertxundi

Hizketan jarraitu zuen **xuxurlaz**: [...]. Karlos Zabala

7 xuxurla batean xuxurlan, xuxurlaka.

-Bai, noski -esan zuen Lisak **xuxurla batean**, berriz ekin gabe-. Karlos Zabala

Tira, tira! -esan zuen Alcide Jolivetek berekiko **xuxurla batean**-. Karlos Zabala

Ahapeka, ordea, ia **xuxurla batean**, frantsesek aurpegi txarrez begiratzen ziguten-eta beste hizkuntzaren batean, alemanez batez ere, aritzen gineno. Anjel Lertxundi

Emakumeak, **xuxurla batean**, bere etxean ere ostatu har nezakeela jakinarazi zidan. **Alberto Ladron Arana**

Michael Wendyren ondora joan eta, dardarka, **xuxurla batean** esan zion: [...]. **Julen Gabiria**

Eta doktore hura, amarekin **xuxurla batean** hizketan, amaren erreguei entzungor, burua ezezka mugituz. **Alberto Ladron Arana**

8 xuxurla egin

Susanak **xuxurla egin** zidan belarrira: "Ez du merezi borroka egitea, David". **Bernardo Atxaga**

Ahots ezagun batek **egin** zidan **xuxurla** belarrira, atzetik: [...]. **Koldo Izagirre**

Mintzo hark batzuetan **xuxurla egiten** zidan eta beste batzuetan, berriz, aginduak oihukatu. **Alberto Ladron Arana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

haizearen xuxurla (4); **ia xuxurla batean** (4); **xuxurla batean** (30); **xuxurla entzuten** (5); **xuxurla entzuten zen** (3)

esan zion xuxurlan (3); **esan zuen xuxurlan** (3); **xuxurlan esan** (3)

barruko xuxurlen mundua (3); **xuxurlen mundua** (3); **xuxurlen mundua azaleratzen** (3)

xuxurlagarri *izond* xuxurlan ari dena.

Primeran entzun zen Alberten ahots **xuxurlagarri** hori. **Berria - Kultura**

xuxurlaka (117 agerraldi, 48 liburu eta artikulu 1ean; orobat *xuxurluka g.er.*) *adlag* xuxurlatzen. ik **xuxurla 5**.

Ahots apal-apalean ari ginen, **xuxurlaka**, bi gaizkideren gisan. **Ander Irizar**

Ahots txikiz, **xuxurlaka** ia. **Felipe Juaristi**

Laguntza eske, **xuxurlaka** hasieran, ozen gero eta garrasika azkenik. **Urtzi Urrutikoetxea**

Gelatik Kim jaunaren eta Yonsuk andrearen ahots itoak entzuten ziren, **xuxurlaka** eztabaidan. **Juan Kruz Igerabide**

Xuxurlaka esan zigun zaratarik ez egiteko. **Xabier Olarra**

Skully, haiengandik gertu, **xuxurlaka** ari zitzaion Gwynethi. **Koro Navarro**

"Amen", diote haren emazteak eta alabak; eta berak ere, David Luriek, "Amen" dio **xuxurlaka**. **Oskar Arana**

-Aurkitu dut! -esan zien **xuxurlaka**-. **Iñaki Mendiguren**

Hala bada, ezer erantzun ez, eta **xuxurlaka** esan zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Belarrira esaten zidan **xuxurlaka**: Txofanni, entzun ezak maisuaren ahotsa! **Fernando Rey**

Miresmenez **xuxurlaka** egiten zuten: "Ssst!". **Fernando Rey**

Xuxurlaka hitz egin zuen Norak: [...]. **Anjel Lertxundi**

Gero, hala aurpegiratu zidan, **xuxurlaka**: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Neskak, samurtasunez **xuxurlaka**: [...]. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ia xuxurlaka (3); **xuxurlaka ari** (7); **xuxurlaka aritu** (3); **xuxurlaka esan** (6); **xuxurlaka esan zion** (3); **xuxurlaka hasi** (4); **xuxurlaka hitz egin** (3); **xuxurlaka hitz egiten** (4)

xuxurlari 1 *izond* xuxurlan aritzen dena.

Lotsa sentitu zuen, hobeto gogoratzen baitzen arbola **xuxurlari** eder haiekin, mutilekin baino. **Anton Garikano**

Sam bere ondoan belaunikatu zen, eta ahul, ia entzunezin, Frodoren ahots **xuxurlaria** entzun zuen: [...]. **Agustin Otsoa**

Maite ditut Rilkeren poesia **xuxurlariak**. **Ana Urkiza**

Horrelakoetan, Sofik belarria lur **xuxurlariaren** gainean jartzen zuen mendiaren ahotsa hobeki aditzeko. **Fernando Rey**

Ehundaka eta are milaka entzule **xuxurlarik** eta askotan asaldatuk entzun zezaten. **Jon Alonso**

2 (adizlagun gisa)

-Kontuz aizak! - **xuxurlari** egin dio errieta Mikelok, izuak irentsi beharrean. **Urtzi Urrutikoetxea**

Xuxurlari eskatzen zion marabutak horrelakorik horren ozen ez esateko, bere inguru guztian beldurrez edo begiratzen zuen bitartean. **Joxan Elozegi**

xuxurlati *izond* xuxurlatzen duena.

Zeta-ren kapitulu **xuxurlati** bat gauero. **Eider Rodriguez**

xuxurlatu, xuxurla(tu), xuxurlatzen 1 du *ad* ahapeka, ia ezpainak higitu gabe hitz egin.

-Eta zer? - **xuxurlatu** zion Jesusek-. **Koldo Biguri**

-Galdurik zaude - **xuxurlatu** zuen Iturriozek-. **Berria - Ekonomia**

-Ez, ez - **xuxurlatzen** zuen-, ez da zilegi... **Karlos Zabala**

-Mesedez - **xuxurlatu** zion Harryk haserre bizian-, zaude isilik, mesedez. **Iñaki Mendiguren**

-Gaixoa... - **xuxurlatzen** du amak, eta hasperen egiten-: Eskerrak...! **Anjel Lertxundi**

-Peeves -esan zuen, ahots latzez **xuxurlatuz**-, Baroi Odoltsuak bere arrazoiak ditu ikusezin ibiltzeko. **Iñaki Mendiguren**

-Andreas... - **xuxurlatu** zuen gero, ia bere kolokorako. **Anjel Lertxundi**

-Ezin ederragoa duk gero - **xuxurlatu** zuen Claudek, guztiz txunditurik. **Karlos Zabala**

Kasik ez entzuteko gisan **xuxurlatu** zuen: "Ez dago gaizki... polit nago". **Patxi Zubizarreta**

Edmeak, orduan, **xuxurlatu** zuen: [...]. **Itxaro Borda**

Txapliri **xuxurlatu** zion belarrira: [...]. **Unai Iturriaga**

Aurrena "Polikarpo!" hots egiten zuen, eta hurrena "Mix, mix, mix" **xuxurlatu**. **Patxi Zubizarreta**

Marisa ere hurbildu zen, eta galdetu zidan ea zer **xuxurlatu** zidan Juliok lurrean etzanda zegoela. **Juan Kruz Igerabide**

Gizon bat apezari hurbildu eta zerbait **xuxurlatu** zion belarrira. **Aingeru Epaltza**

Zaldiari agindu bat **xuxurlatuz**, buelta erdia egin zuen. **Agustin Otsoa**

Beren artean hitz batzuk **xuxurlatu** ondoren, korrika jarraitzen zuten beherantz. **Ramon Saizarbitoria**

Mundua mamu bihurtzen duen ilbete horietakoa zen, gauza guztiek, bizidunek eta bizigabeek, errebelazio misterioitsuak **xuxurlatzen** dituzten horietakoa. **Jon Alonso**

Gauero buruz ikasitako hiri ferrobiarioen izen zerrendak eta trenen ordutegiak **xuxurlatzen** dizkigutenak belarrira. **Harkaitz Cano**

2 (era burutua izenondo gisa)

"Iso" **xuxurlatu** batez gerarazi zuen osabak animalia, pipa piztu behar baitzuen. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

belarrira xuxurlatu zion (10); **hitz batzuk xuxurlatu** (7)

xuxurlatu zidan aitak (5); **xuxurlatu zidan belarrira** (3); **xuxurlatu zidan uilek** (3); **xuxurlatu zion belarrira** (14); **xuxurlatu zion harryk** (9); **xuxurlatu zion hermionek** (9); **xuxurlatu zion ronek** (9); **xuxurlatu zizkion belarrira** (3); **xuxurlatu zuen andresek** (7); **xuxurlatu zuen ellenek** (3); **xuxurlatu zuen emakumeak** (4); **xuxurlatu zuen harryk** (6); **xuxurlatu zuen hermionek** (11); **xuxurlatu zuen iturriozek** (6); **xuxurlatu zuen kristok** (4); **xuxurlatu zuen neskak** (5); **xuxurlatu zuen ronek** (7); **zerbait xuxurlatu** (14); **zerbait xuxurlatu zion** (9)

belarrira xuxurlatzen (11); **hitzak xuxurlatzen** (5)

xuxurlatzen ari (3); **xuxurlatzen hasi** (4); **xuxurlatzen hasten** (3); **zera xuxurlatzen ziola** (3); **zerbait xuxurlatzen** (4)

xuxurlatze iz ahapeka, ia ezpainak higitu gabe hitz egitea.

-Griluak kateak! -egin du ahapetik, **xuxurlatze** batean, agure zoroak-. **Koldo Izagirre**

xuxurlo iz xuxurla.

Ametsezko **xuxurlo** zehazgabe batean murgildua zirudien Inkisiziokoan ahotsen soinuak. **Koro Navarro**

Behin deitu zidan, **xuxurlo** batean: Ama, esan zuen. **Pablo Sastre**

Behin deitu zidan, **xuxurlo** batean: ama, esan zuen. **Pablo Sastre**

xuxurluka ik xuxurlaka.
